

Pello Esnal

Antonio Zavala, zauria hauspo



Pello Esnal

**Antonio Zavala,
zauria hauspo**

Auspoa Liburutegia
332

ESNAL, Pello (1950-)

Antonio Zavala, zauria hauspo / Pello Esnal. - [S.l.] : Auspoa ; Donostia/San Sebastián : Gipuzkoako Foru Aldundia, Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentua, 2015.

266 or. ; 20 cm. - (Auspoa Liburutegia ; 332)

Testuak euskaraz eta gaztelaniaz. - Bibliografia: 261-266 or. - Aurkibidea
LG SS 1194-2015. - ISBN 978-84-7907-738-9

1. Zavala, Antonio (1928-2009). I. Gipuzkoa. Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes. II. Izenburua. III. Saila.

801 Zavala, Antonio

929 Zavala, Antonio

Argazkiak

Azalekoa: Joxemari Iriondo (Xabier, 2008.10.30).

Azal-hegalekoa: Ramon Serras.

Atzeko azalekoa: Auspoa funtsa.

© Edizio honena: AUSPOA Argitaletxea
Gipuzkoako Foru Aldundia

400 aleko tirada

Lege gordailua: SS-1194-2015

ISBN: 978-84-7907-738-9

Maketazioa: Imanol Tapia

Inprimatzailea: Leitzaran Grafikak, S. L., Gudarien etorbidea, 8,
Andoain (Gipuzkoa)

Pello Esnal

Antonio Zavala, zauria hauspo



Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentua
Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes

Donostia/San Sebastián, 2015

Zuei bioi,
Joakin Berasategi eta Antonio Zavala.
In memoriam.

Aurkibidea

Sarrera	11
ANTONIO ZAVALA (1928-2009)	25
1. Biografia moduan	27
ZAURIA	57
2. Zauria ezten	63
3. Egitasmo bikoitza	73
AUSPOA	83
4. Mugarriak	87
5. Auspoa, zehazki.....	103
6. Ondarea	135
PARADIGMA BERRIA	175
7. Herri-literatura: teoriaren oinarriak	179
8. Azken giltzarria: ez-dualtasuna.....	227
HAUSPOA.....	239
9. Hauspoa.....	241
Bibliografia	261

Sarrera

*Beharrezkoa da dolua ondo burutzea.
Bestela, arrisku bat dugu:
iraganaren inertziak galaraz diezaguke
datorrena ezagutzen.*

Javier Melloni

Xabierren, 2009ko urtarrilaren 4an

Antonio Zavala 2009ko urtarrilaren 2an hil zen. Eta handik bi egunera, urtarrilaren 4an, igandez, izan ziren haren hiletak Xabierren. “Egun hotz bezain argia zen. Nafarroako zero oskarbiak urdin bizi aparta eskaintzen zuen hara hurbildu ginen euskaltzaleoi. Hodeiertzean, elurturik zeuden mendi-gailurrak. Nafarroako lautadetara sartzea zero-lurrak zabaltzea bezalakoa zen”, idatzi zuen adiskide Jabier Kalzakortak.

Xabierren hilobiratu genuen Antonio, jesuitek duten hilerrian. Xabierren bizi izan zen azken urteetan. Hilobiraino lagundu genion, etxeko eta hainbat adiskiderekin batera. Zerraldoaren gainean zeraman *Ustu ezin zan ganbara* liburua, berak idatzia, Txirritaren zenbait bertso eta gertaera bilduz. Frantxi Lopez Landatxek ipini zion zerraldoan, elizako sarrean, hiletaren hasieran. Izenburu harenak baino hitz egokia-gorik Antonio erretratatzeko!

Hilobiratzen genuen bitartean, Izaskungo Amaren kanta kantatu zuten etxekoek. Une hunkigarriak izan ziren. Aurrez aurre nuen Jabier Kalzakorta; aldamenean nituen Joxemari Iriondo eta Frantxi Lopez Landatxe, Joakin Berasategi eta Auspoako lagun batzuk; ez oso urruti, zenbait euskaltzain eta Euskaltzaindiko Herri Literatura batzordekideak.

Xabierren amaitu zen Zavalaren mundu honetako ibilbidea, non eta berrogeita hamabost urte lehenago bertsoak biltzen hasi zen leku berean. Laurogeita bat urte betetzeko zorian zegoen.

Urtarrilaren egun hartan, inoiz baino distiratsuagoa ageri zitzaigun tolosarrak utzitako ondare harrigarria. Donostian gelditzen zen, Koldo Mitxelena Kulturunean, hark txindurri nekaezinaren moduan Euskal Herrian zehar bildutakoaz osatutako artxiboa, 2005ean Gipuzkoako Aldundiari dohaintzan eman ziona. *Auspoa* liburu-bilduma oparoan uzten zigun, txukun plazaratua, artxibo horren muina. Eta, horrez gain, eskueran genuen *Biblioteca de Narrativa Popular* bilduma ere, gaztelaniaz idatzitako obraz osatua.

Orduan amaitu ziren gure arteko hizketa patxadatsuak, hitz-aspertu deitu ohi direnak, nahiz eta gu ez ginen inoiz aspertzen harekin hizketan, askotan gai monografiko bera erabiliagatik: *Auspoa*. Hainbeste zuen hark kontatzeko eta halako aukera ematen zuen gaiak berak. Eta hainbeste jakin nahi genuen guk, kontu txikienetatik hasi eta ezkutuenetara ere iritsi nahian. Halakoetan, gustura sumatzen genuen Antonio. Gustura ematen zigun hainbat urtetako ibilbidearen berri; eta, horretara mugatu gabe, erraz jotzen zuen atzerago ere, Tolosako umetako oroitzapenetara eta Adunako udaldietakoetara. Eta gehienetan atzematen genion zerbait berria. Hain zen agortezina haren altxorra. Eta hain atsegina haren hitz-jarioa.

Tarteka, guk ere zerbait ipini nahi izaten genuen geure aldetik. Eta noizbait, urtetan landutako konfiantzaren gerizan, ohi baino gehixeago ere arriskatzen ginen ezkutuko kontuetan barrena. Horrelakoetan, barre gozoz erantzuten zigun Antoniok, eta apenas hornituko zuen barre hura hitzez. Nahiago izaten zuen gauzak airean zintzilik utzi.

Joxemari Iriondok askotan berritzen ditu Zavalaren hitz batzuk: “Más de uno morirá en el intento”. Antoniok horrela

esaten zituen, gaztelaniaz, ia-ia mehatxuka, adieraziz zer-nolako lanak izango zituen norbaitek, baldin eta deskuiduan hark utzitako artxiboa ordenatzera ausartzen bazen egunen batean. “Gizajoa!” eranstea besterik ez zitzaion falta izaten.

Niri, berriz, Antonioren barre gozo hura gelditu zait oroi-menean iltzatuta. Eta, pixkana-pixkana, barrea hitzez hornituz ere joan zait, Antoniok esan nahiko balit bezala: “Ondo ari zara, ondo zoaz..., baina ez da hori, ez da horrela... Baina segi, segi bila...”.

Egun batean, zertaz ohartuko eta badela Ekialdean esamolde bat, aforismo bat –“neti-neti”–, azken batean gauza bertsua adierazten duena. Sanskrito hizkuntzan “ez da horrela, ez da horrela” esan nahi omen du, eta Izatearen azken errealitatearen bila dabilenari esaten omen zaio, Izate hori ezezka soilik adieraz daitekeela gogoraraziz.

Urtarrilaren 4a hartatik aurrera, bestelakoak izan beharko zuten gure hizketek. Antonio ez genuen gehiago aurrez aurre izango. Aurrerantzean, oroitzapenak baliatu beharko genituen, harekin bakarka nahiz lagunartean izandako hizketak edo egindako lanak, eta hark hain eskuzabal utzitako idatziak. Eskerrak zertxobait landua genuen terrenoa.

Antoniok berak hala nahita, Joxemari Iriondok, Jabier Kalzakortak eta hirurok osatuko genuen Auspoa taldea, eta gogai-de eta bidaide izango genuen Frantxi Lopez Landatxe, Koldo Mitxelena Kulturuneko zuzendaria. Laurok elkarrekin jarraitu beharko genuen Auspoa altxorra zaintzen eta zabaltzen. Erantzukizun handia zen guretzat. Baina bagenekin ez ginela bakarrik izango. Lagun asko eta onak baititu Auspoak.

Antoniok liburu bat bukatu eta behin baino gehiagotan aitortu izan zigun:

–Hitzaurrea idaztea falta zait, eta ez dakit zer jarri.

Beti berdin erantzuten nion:

–Konta ezazu nola egin duzun liburua.

Eta ohiko erreparoa jartzen zuen:

–Baina ez al da itsusia norbere buruaz hitz egitea?

–Hala izango da –erantzuten nion–, baina horixe duzu ir-
tenbiderik egokiena.

Zorionez, behin baino gehiagotan eman zuen amore. Eta gaur, horri esker, eskueran ditugu bitxi eder askoak. Esaterako, hitzaurre batzuk soilik aipatzearren, *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua*, *Euskal erromantzeak* edo Uztapideren *Berriz plazara* liburuetan idatziak.

Baina beste batean ere egin zidan Antoniok galdera bera: Deustuko Unibertsitateak *Honoris causa* doktore izendatuko zuela jakindakoan. Izendapen horren biharamunean hitzaldi bat eman behar zuela unibertsitate berean eta ea zer esan behar zuen, noiz eta bezperako hitzaldian dena esana izango zuenean.

–Konta ezazu Auspoaren historia –bota nion.

Egun hartan ez zidan erreparorik jarri.

Bi hitzaldi horiek, eta Antonioren beste asko, egoki jasoak daude *Auspoaren auspoa* izenburua daramaten lau liburukietan. Hortxe ditugu eskueran, hainbatetan aipatutako kontuen oihartzun. Izan ere, noizbait bururatu zitzaion Joakin Berasategi zenari denak bildu eta plazaratzea. Harengatik izan ez balitz, gaur sakabanatuak izango genituzke seguruenik, eta galdua ere bai bat baino gehiago. Bide batez esanda, Joakinek berak asmatua da *Auspoaren auspoa* izenburua. Uste baino ere zor handiagoak ditugu Joakin eskuzabalarekin.

Mila oroitzapen lagun genituela itzuli ginen Xabiertik urtarrileko igande hartan. Amaitua zen Antonioren mundualdia. Hark utzitako altxorra gelditzen zitzaigun.

Egun hartan bizi eta gogoratuak jasoz idatzi nuen *Deia* eta *El Diario Vasco* egunkarietako. “Bi izar Xabierko zeru gainean” izenburua ipini nion bigarrenera bidali nuenari.

2009-2013: oroitzapenak, eskeak, erantzunak

Antonio Zavalak 2005ean egin zion artxiboaren dohaintza Gipuzkoako Foru Aldundiari. Artxiboaren lehen zatia, 2008aren azaroan ekarri zuten Koldo Mitxelena Kulturunera Frantxi Lopez Landatxek eta Joxemari Iriondok. Handik hilabete gutxira, Antonio hil berritan, eskuratu zuten gainerakoa.

Geroztik, Iriondok sarri samar berritu izan du Antonioren “más de uno morirá en el intento” zirikatzaile hura. Gaur, Kulturuneko profesional onen eskuetan da artxiboa, eta pixkana-pixkana ari dira dokumentuz dokumentu katalogatzen eta ordenatzen.

Artxiboarekin batera iritsi zen Kulturunera Zavalaren ordenagailua. Antoniok hantxe zituen, gehienak bideratu samarrak, azken aldera aipatzen zizkigun lanak. Hauek argitara ematea izan da gure lehentasunetako bat; tartean, Antonioren kutunenetakoa: *Bilboko gabon-kantak*.

Horiekin batera lehendik bideratuak genituenak ere argitaratuz, guztira beste hemeretzi obraz hornitu dugu Auspoa –hauxe da hogeigarrena–, azken zazpi urteotan.

Bestalde, noizbehinka atea jo izan digute Auspoa taldekooi, Zavalari buruzko lan edo argibideren bat eskatuz, galderaren bat eginez...

Eskari horiei erantzunez plazaratu dira, esaterako, Joxemari Iriondok idatzitako Zavalaren bi biografia labur: bata, Euskaltzaindiaren eskariz egindako hilberri-txostena; bestea, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak eskatua *Bidegileak* sailerako. Neuk ere gustura eginak ditut hiruzpalau ahalegin. Bai: badakit itsusia dela norbere buruaz jardutea, baina berriro halabeharrak agintzen du.

Hitzaldi bat izan zen lehenengoa, Tolosako Udalak eskatua, ekitaldi bat antolatu zuela-eta Zavalaren omenez, 2009-ko maiatzaren 22rako. *Egan* aldizkarian argitaratu zen hitzal-

diaren bertzio idatzia. Joxemari Iriondok ere parte hartu zuen ekitaldi hartan.

Eusko Ikaskuntzakoek eskatu zidaten bigarren lana, Antonio hil eta berehala, *RIEV* aldizkarirako. Saiatu nintzen hitz gutxitan azaltzen zer den Auspoa eta nolako altxorra jasotzen duen bere baitan.

Hirugarren eskaria ere Eusko Ikaskuntzatik jaso nuen. Oraingoan, *Auñamendi Entziklopedian* plazaratzeko zen, os-tera ere Auspoaren berri emanez, bai euskaraz eta bai gaztelaniaz. Ahalik osoen eta laburren idazten saiatu nintzen, entziklopedien baldintza eta ezaugarrietara egokituz.

Laugarren ahalegina Euskaltzaindirako egin nuen, euskaltzainburu Andres Urrutiak eskatuta. Izan ere, Akademiak 2011n ipini zuen Auspoa digitalizatua bere webgunean. Eta, horretara mugatu gabe, ikusi nahi zuen zer bide egin daitekeen Auspoa ustiatuz. Proba txiki bat egin nuen, *Auspoa hiztegia* izan zitekeenari begira: hitz bakar bat hartu *-jaso-* eta aztertu nuen zer esanahi hartzen dituen Auspoako hogeit obratan. Proba oso mugatua izan arren, emaitza esanguratsuak eskuratu genituen.

Lau lan horiek Auspoa dute gai eta, batera bilduta, Auspoaren ikuspegi orokorra eskaintzen digute. Orokorra, baina osoa ez. Auspoa baino gehiago baita Auspoa. Ezin da Auspoa zer den ulertu, ez bada atzematen zertan aritu zen Antonio Zavala, zerk eraginda, zeren bila. Horiek geureganatu ahala eta ahalean geureganatuko dugu Auspoa ere eta, are gehiago, izango gara gai Auspoari jarraipena emateko.

Saiakera hau

Hamalau urterekin izan nuen lehenbizikoz Antonio Zavalaren berri. Bazela jesuita bat egundoko bertso pila bildua zuena eta haiek argitaratzen ari zela, pixkana-pixkana. Handik pare bat hilabetera, 1964ko Eguberrietako oporretan, irakurri nuen

hasi eta buka *Azpeitiko Premioaren bertsoak* liburua, Auspoa bildumako 27. zenbakia, urtebete lehenago plazaratua. Literatur irakasle Aingeruk utzi zidan, bertsoekin eta bertsolariekin nuen txoramena ezagututa. Geroztik, hazi besterik ez da egin bertsolaritza eta Zavalarekiko nire atxikimendua.

Hamabost bat urte geroago izan nituen lehen harremanak Antoniorekin. Hasieratik ikusi nuen eroso neure burua haren ondoan, eta berehala hasi nintzen sumatzen zer-nolako mundu miresgarri eta aberatsa zegoen haren baitan. Eta lehen galderak sortu zitzaizkidan. Batzuen erantzuna apurka-apurka osatu dut. Beste galdera batzuk gero eta indar handiagoa hartuz joan dira.

Zerk eraman zuen halako lana bere gain hartzera? Zer asmo eta helburu izan zituen abentura hartan sartu eta berrogeita hamabost urtean zehar aurrera eta aurrera egiteko, eguna joan eta eguna etorri? Zerk eragiten zion amaigabeko lanean, zenbat eta gehiago egin orduan eta eginkizun handiagoa ikusteraino? Zer zegoen etengabeko jarduera amorratu bezain pozgarri haren oinarrian? Zerk eragiten zion su hari?

Baina, azken batean, galdera bakarra osatzen dute guztiek: zertan aritu zen Antonio Zavala ia bere bizitza osoan zehar? Galdera nagusi horri erantzun nahi lioke saiakera honek.

Galdera ausart eta arriskutsu horrek zulatu izan nau behin eta berriz. Galderak norbanakoaren barne-esparrura garamatza, norberak ere ondo ezagutzen ez duen esparruraino eta, ezagututa ere, ondo zaindu eta ezkututzen duen azken barrutiraino. Antonio bizi zela, behin baino gehiagotan egin nion galdera alde edo moldez; lotsagabe samar ere bai tarteka. Eta horren bila nenbilelako esaten nion, aukerarik galdu gabe, idatz zezala nola egin zituen lanak.

Galdera horren harira, elkarrizketa luze baten emaitza da saiakera hau. Antonio bizi zela, ordu batzuk egin genituen elkarrekin hizketan; eta hura hil ondoren ere ez da hizketa

amaitu, nahiz eta orain haren testuak soilik izan solaskide. Baina ez dira pasarte hilak. Bertan daude bizi zeneko hainbat hizketaren oihartzunak ere. Are gehiago: esango nuke pasarte esanguratsu batzuk gero eta esanguratsuago bihurtu zaizkidala, eta bizi berria dariela etengabe.

Elkarrizketa, berriz, beti da gutxienez biren artekoa. Eta hizketa horretan ezinbesteko partaidetza dute solaskide bakoitzaren iritzi, aurreiritzi, ikuspegi eta, azken batean, munduak. Esan nahi dut neure munduaren isla ere badela elkarrizketa luze hau. Edo, bestela esanda, Zavalaren bizitza eta obraren neure interpretazioa ere badela liburu honetakoa. Ezinbestez. Hala ere, saiatu naiz, eginahala, subjektibismoan ez erortzen.

Baina izan dut subjektibismoa saihestea baino zeregin zailagorik: Zavalaren lanak eta esanak konprenitu (osorik ulertu eta besarkatu) ahal izateko ikuspegi eta markoa aurkitzea. Eskueran ditugu hark eginak eta esanak. Eginak, argitaratu zituen 303 obretan eta orain Koldo Mitxelena Kulturunean dagoen artxibo edo funtsean. Esanak, batik bat *Auspoaren auspoa* izenburuko lau liburuetan. Baina ez da erraza dena osotasun batean ulertu eta konprenitzen. Nahiz eta asko idatzi zuen bere egitasmo eta lanaz, asko utzi zuen erdi esanda eta iradokita. Eta horiek ere konprenitu nahiko genituzke.

Dena konprenitzeko giltza, azkenean, hermeneutika filosofikoan eta ez-dualtasunaren jakindurian aurkitu dut, Antoniok berak iradoki eta urratutakoaren harira. Hermeneutika horren aita eta jakinduria hori landu dituzten zenbait autore izan ditut lagun eskergaitz: hermeneutikara hurbiltzeko¹, Ga-

¹ Gadamerren pasarte batek argi lezake hermeneutika filosofikoaren ekarpenarena. Honelaxe dio, hain zuzen, arestian aipatutako solaskidearen partaidetzaz (Gadamer, 2001a: 75-76; 2002: 111):

Una hermeneútica filosófica llegará al resultado de que la comprensión sólo es posible de forma que el sujeto ponga en juego sus propios presupuestos. La aportación productiva del intérprete forma parte inexorable del sentido de la

damer (Marburgo, 1900 – Heidelberg, 2002); eta ez-dualtasunaren iturritik edaten hasteko, Raimon Panikkar (Bartzelona, 1918 – Taverdet, 2010), Mónica Cavallé (Kanaria Handia, 1967) eta Enrique Martínez Lozano (Guadalaviar, 1950). Bibliografian aipatzen da autore hauen zenbait obra.

Azkenean, bederatzi kapituluak osatzen dute saiakera, bost ataletan: 1) “Antonio Zavala (1928-2009)” (kapitulu bat), 2) “Zauria” (bi kapitulu), 3) “Auspoa” (hiru kapitulu), 4) “Paradigma berria” (bi kapitulu) eta 5) “Hauspoa” (kapitulu bat).

Lehen ataleko kapituluak “Biografia moduan” du izenburu. Zavalaren biografiaren zirriborro bat da. Lagungarri izan nahi du beste ataletan aipatutako leku, data eta gertaerak egoki kokatzeko.

Bigarren atalean, Antonioren funtsezko bizipen bat du gai lehen kapituluak. Zauri handia utzi zion barruan. Horrek eraginda jabetu zen gure gizartearen kultur urraduraz. Horixe dago, nire ustea zuzena bada, haren obra ulertzeko giltza. Urradura hori sendatu nahian hasi zen bere egitasmoa zirriborratzen. Egitasmo hori –egitasmo bikoitza– azaldu nahi du atal honetako bigarren kapituluak.

Hirugarren atalean, egitasmoaren emaitza ezagunena dugu gai: Auspoa. Hitz honek laburbiltzen du Zavalak egina. Lehen kapituluak, saiakeraren 4.ean, Auspoa gauzatuz urratutako bidea berrituko dugu mugarriz mugarri. Hurrengoan, hark argitaratutako gutzia zehazten saiatuko naiz, zenbakiak lagun. Auspoa ondarea du mintzagai ondorengo kapituluak, saiakeraren 6.ak.

Laugarren atalean, egitasmoaren alderdi ezkutuen lan-duko dugu: Zavalak bai Auspoaz eta bai kultur urraduraz


comprensión. Esto no legitima lo privado y arbitrario de los prejuicios subjetivos, ya que el tema en cuestión –el texto que se quiere entender– es el único criterio que se hace valer.

Ikus, era berean: “Sobre el círculo de la comprensión” (Gadamer, 2002: 63-70).

egindako gogoetak. Horiek sistematizatzen saiatuko naiz. Hala zirriborra dezakegu, 7. kapituluan, hark herri-literaturaz zuen teoria. Eta 8.ean dugu zain tolosarraren aurkikuntza harrigarria, haren bizitza eta obra koroatzen duen giltzarria.

Azkeneko atala, "Hauspoa", ia berez bezala darie aurreko lauei, saiakeraren ikuspegi osoa eskainiz eta, horrekin batera, Antonio Zavalaren ustekabeko irudi bat.

Honela azal dezakegu saiakeraren egitura:



Datozen orrialdeetan, behin eta berriz egingo dugu topo Zavalaren hitzekin. Horiek ditugu gidari eta bidelagun. Horiek ditu saio honek oinarri. Horiei berriro hitz eginaraztea, beste asmorik ez du. Hori lortzen duen neurrian beteko du bere egitekoa. Horretarako lagungarri izan daitekeelakoan, hark idatzi bezalaxe aldatu ditut hona, hark idatzitako hizkuntzan –euskaraz eta gaztelaniaz– eta ortografian.

Batzuetan, borrokan sumatuko dugu Antonio bere bu-ruarekin, gauzak azaldu nahi eta ezinean bezala. Halaxe sumatzen genuen, bere zenbait lanez galdetzen genionean ere. Beti motz geratzen baitira hitzak eta esaldiak.

Berriro esanda, elkarrizketa luze baten emaitza da saiakera. Zavala bera izan dut lehen solaskidea eta solaskide nagusia. Alabaina, berehala sartu ziren hizketan beste zenbaiten ahotsak. Batzuk, idazten ari nintzela. Horrek zenbait pasarte behin baino gehiagotan berridaztea eskatu dit. Beti baitago zer zuzendu, zer osatu eta gozatu. Baina noizbait amaitu behar izaten dira lanak, nahiz eta elkarrizketa bera ez den inoiz bukatzen.

Bibliografian daude jasota solaskideen izenak eta obrak. Idatziaren irakurketa errazteko, oin-oharretan ipini ditut aipatutako pasarteen erreferentziak. Era berean, oin-oharretan jaso ditut, arestian egin dudana bezala, astunagoak izan daitezkeen zenbait pasarte, hauek ere eskuratu ditudan hizkuntzan, solaskide guztien aipuak bezalaxe. Bestalde, beti jatorrizkoak dira aipuetako letra etzanak. Neuk zerbait nabarmendu behar izan dudanean, letra lodiz nabarmendu dut,aldi bakoitzean oin-oharrean gogoratzen dudanez.

Zabalik geratzen da saiakerako elkarrizketa. Oraindik asko dago esateko eta jakiteko. Izango ahal dugu horretarako aukerarik. Bizi balitz, Antonio bera izango genuke lehen solaskidea. Irribarre ere egingo liguke behin eta berriro, “neti, neti” esanez, “ez da hori, ez da hori”, baina aurrera jarraitzeko animatuz.

Esker onez

Ez dezaket sarrera hau amaitu zenbait adiskideri eskerrak eman gabe. Guxtitan sumatu dut neure burua horren zordun.

Lehenik eta behin, Antonio Zavalarekin berarekin nago zordun, inoiz kitatu ezingo ditudan zorretan. Nire bizitzako oparirik handienetako bat izan da hura hain gertutik ezagutu izana. Gizaki gutxi ezagutu izan ditut horren barrutik. Antonio ez zen bere buruaz hitz egin zalea, baina ez zen asko zirikatu behar Auspoaz hitz egin zezan. Oso gustura aritzen zen bere obraz. Hain ziren bat, ordea, haren obra eta haren barne-barneko taupadak, nola bereizi bata eta bestea?

Eta, Antoniorekiko miresmena eta esker ona azaldu bezain laster, ezinbestekoa dut Joakin Berasategirekikoa ere aipatzea, oso bestelako arrazoiz bada ere. Oso eskuzabalak izanik biak, Joakinen eskuzabaltasunak ez zuen neurririk. Ez dakit idazteko kontua den, baina hain ondo erretratatzan du haren izaera! Behin batean, honako aitorten hau itzuri zitzaion Joakini: “ni emakume izan banintz, puta galanta izango ninduan: beti eman eta eman”. Eta, neurrigabeko emate horretan, Auspoa zuen begiz joa. Nola joa ere, Sendoa argitaletxearen atea erabat zabaltzeraino!

Ezinbestez aipatu behar ditut Euskaltzaindiko Herri Literatura batzordekideak. Zenbat ordu elkarrekin, gure herri-literatura hizpide, Auspoa ere tarteko! Zenbat hizketa gozo, bizitza bera gai! Hildako adiskideen izenak besterik ez ditut idatziko: Alfonso Irigoyen, Joxe Mari Aranalde, Juan Mari Lekuona eta Emile Larre agurtu berria. Zenbat lagundu diguten Antonioen obra barrutik ezagutzen!

Azken hitzak zuentzat dira, Joxemari Iriondo, Jabier Kalzakorta eta Frantxi Lopez Landatxe. Ondotxo dakit zenbat maite dituzuen Antonio Zavala eta Auspoa, eta zenbat lagundu didazuen saiakera hau ontzen.

Mila esker eta bat gehiago, denoi.

Zarautzen, 2015eko irailaren 13an

Trikua

Urxo txuri polita

Triku bat ezagutu
nuen herenegun.
Hizketan hasi eta
egin ginen lagun.
Izatez zeinen hurbil,
ustez zeinen urrun...
Ai, lotsatiok zenbat
jasan behar dugun!

Lehendik ikusia
nuen argazkitan,
baita izana ere
aurrez aurre bitan.
Piztiek aspalditik
daukate begitan.
Ni ere haien menpe
egon naiz sarritan.

Piztiei irribarre,
trikuari muzin,
haien alde egin nuen
neure gaztetan zin.
Galdutako denborak
ematen dit gaur min:
eskuratu nahi eta
eskuratu ezin.

Herenegun goiz nuen
trikua sentitu,
etxera zihoala
beti bezain triku.
Hurbildu nintzaion ta
begira gelditu...
Ai, haren hitz guztiak
gogoan banitu!

Pozik zabaldu zidan
etxeko atea,
harro arantzapeko
gordailu betea.
Zeinen zaindua duen
ta zeinen maitea
triku zaharrek utzi
zioten dotea!

Begira egon nintzen
harrituta mutu:
ai, zenbait bitxi polit,
eder ta ezkutu!
Segi horrela zaintzen,
arantzak ezkutu,
inork ez diezagun
alerik lapurtu.

Azalez latz zaitugu
baina mamiz guri,
bihotz neurrigabeko
triku lakatz hori.
Gordailua zabaltzen
diozu opari
sentimenduz hurbiltzen
zaizun edonori.

Hiru egun hauetan,
kantu eta dantza,
itxaropenak ohi dit
samurtu arratsa...
Zuri ere zor dizut,
kirikino latza,
kentzen hasi izana
barruko arantza.

Antonio Zavala

(1928-2009)

1. Biografia moduan

Ni, egun batez, ez dakit zein aizek bultzatuta, edo zein izarrek argi eginda, etxetik atera nintzan, begiak zabal eta belarriak erne, eta nere gogoko pitxiak eskuratzen asi nintzan.

Antonio Zavala

Antonio Zavala (Tolosa, 1928 – Iruñea, 2009) laurogeita bat urte betetzera zihoala hil zen, 2009ko Urteberri bihar-munez. Jesuita, irakasle, mendizale, euskaltzale, euskaltzain oso; herri-literaturaren biltzaile, ikertzaile eta argitaratzaile... Hori guztia eta gehiago izan zen tolosarra; eta alderdi horiek aztertuz hurbil gaitzeko hura zer izan zen ulertzea.

Hala ere, asmo apalagoa du lehen kapitulu honek: Antonioren biografia berezi moduko bat zirriborratu, haren obra hobeto ezagutzeko terrenoa prestatu nahian. Ez du beste asmorik. Gertaera, kontu eta data asko geldituko zaizkigu ikusi eta landu gabe. Biografiaren bizkarrezurra besterik ez da.

Egiteko honetan, Zavalaren beraren testigantzak izango ditugu batik bat oinarri. Aurretik, testigantza horiek egoki kokatzeko, ondo etorriko zaigu haren bizitzaren kronologia. Bi iturri baliatuz dago egina: jesuiten Loiolako artxibo historikoa eta Joxemari Iriondok Euskaltzaindirako idatzi zuen Zavalaren hilberri-txostena².

² Iriondo, 2009b: 1.827-1.828. Iriondok emandako kronologian, bitxikeria bat zuzendu behar izan dut, besteak beste: Zavalak Tolosan meza berria eman zueneko eguna. Abuztuaren 9an eman zuela dio Antoniok, Ramon Artolaren liburuaren hitzaurrean (Zavala, 1961b: 11); baina abuztuaren 11n izan zela, Joxerra Garziak egindako elkarrizketan (Zavala, 2006: 154). Joxemari Iriondok ere abuztuaren 11n eman zuela

Kronologia

- 1928.01.23: Tolosan jaio.
- 1945.09.14: Loiolara joan, jesuita izateko asmotan.
- 1945 - 1947: Loiolan, nobizio.
- 1947 - 1948: Urduñan, junior.
- 1948 - 1950: Loiolan, junior.
- 1950 - 1953: Oñan, filosofia ikasten (filosofian lizentziatu).
- 1953 - 1956: Xabierren, maisu ("maestrillo").
- 1956.09.15: lehen hitzaldia, Arantzazun.
- 1956 - 1960: Oñan, teologia ikasten.
- 1959.07.30: apaiz ordenatua, Loiolan.
- 1959.07.31: meza berria Loiolan.
- 1959.08.09: meza berria Tolosan.
- 1960 - 1961: Gandian, hirugarren probaldia.
- 1961 - 1965: Donostian, San Ignacio ikastetxean, irakasle.
- 1961: Auspoaren lehen alea argitaratu. Euskaltzain urgazle izendatua.
- 1964: Euskaltzain oso izendatua.
- 1965 - 1967: Donostian, EUTGn.
- 1967 - 1972: Donostian, San Ignacio ikastetxean, irakasle.
- 1972 - 1978: Donostian, San Ignacio ikastetxean.
- 1974: Auspoa ertaina sortu.
- 1978 - 1991: Xabierren.
- 1991 - 1998: Donostian, San Ignacio ikastetxean.
- 1993: *Auspoaren Sail Nagusia* sortu.
- 1993: *Biblioteca de Narrativa Popular* sortu.
- 1996.12: Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokak *Argizaiola* eman.
- 1997.07.11: Labayru Ikastegiaren *Gatzontzia* saria jaso, herri-literaturaren alde egindako lanagatik.
- 1998 - 2009: Xabierren.
- 1999.11.17: *Honoris causa* doktore izendatu Deustuko Unibertsitateak.
- 2000.10.06: Herriko seme kuttun izendatu jaioterri Tolosak.
- 2005.11.11: artxiboa eman dohaintzan Gipuzkoako Foru Aldundiari.
- 2009.01.02: Iruñean hil.

esaten du, Antoniori ahoz jasota. Egutegiaren arabera, abuztuaren 9a izan zen igandea. Hitzaurreko data dago zuzen. Gaztetan ez zion oroi-menak hutsegín Antoniori.

Iriondok egindako hilberri-txostenak egoki laburbiltzen du Antonioren bizitza; baita egile berak *Bidegileak* bildumarako idatzi zuenak ere³.

Era berean, beste bi lan dira egoki-egokiak, Zavalaren bizitzaren eta obraren ikuspegi osoa atzemateko: Antonioren beraren hitzaldi bat, *Honoris causa* doktore izendatu bihar-munean egina⁴ eta Joxerra Garziak Antoniori egindako elkarriketa⁵.

Biografia moduko hau osatzeko, laugarren kapituluan dugu, hamahiru mugarritan, Auspoa gauzatuz Zavalak egindako ibilbidea.

Gauzak gehiegi behartu gabe –hura bizi izandako lekuen arabera, nagusiki– seialdi bereiz ditzakegu Zavalaren bizitzan.

Tolosa eta Aduna (1928-1945)

Lehen hamazazpi urteetan, jaioterri Tolosan bizi izan zen Antonio Zavala, uda batzuk Adunan pasatuz. Urte hauek markatu zuten haren geroa. Sarritan esan ohi da paradisu izaten dela gizakiarentzat haurtzaroa. Ez da beti hala izaten; bai, ordea, Antonioren kasuan, bere hitzen arabera. Benetako paradisu izan zituen bai haurtzaroa eta bai ondorengo urteak.

Paradisu horren bihotzean, etxea dago. Auspoako liburuak etxe horren helbidea daramate lehen orrialdeetan, 1986a arte: Santa Maria Plaza, 2. Tolosa.

³ Iriondo, 2010.

⁴ Zavala, 2006: 47-66.

⁵ Zavala, 2006: 149-164. Elkarriketa, Joxerra Garziak *Jakin* aldizkarrirako egin zion Antonio Zavalari, galderak euskara batuan idatzita bidaliz. Antoniok ohi zuen modura idatziz erantzun zion, gipuzkeraz. Gero, Joxerrak dena euskara batuan ipinita argitaratu zuen *Jakinen*: Garzia (2001). Antoniok ere argitaratu zuen elkarriketa, baina bakoitzenaren jatorrizko ortografian.

Etixearen bihotzean, ama aipatzen zuen beti Antoniok, herri-literaturaz eta herri-euskaraz ari zela. Idatzi, berriz, hauxe idatzi zuen⁶:

Ama zanak [...] ao zabalik eukitzen gindun apalondoe-tan. Orduko telebista orixe baitzan.

[...]

Oiek danak [amaren kontaerak-eta] erri-literatura dira. Onengana zaletzen orduan asiko nintzan ni, oartu gabe bada ere.

Aita, hamar urte zituela hil zitzaion.

Etzetik ez hain urruti, eskolapioen eskola zuen. Hara joaten zen. Eta hara ere bertso-saltzaileen ahotsa iristen zen larunbatetan; orduan, eskola izaten baitzen larunbatetan ere⁷.

Más [que los bersolaris] me influyeron los vendedores de *bertso-paperak*, de hojas con estrofas; los cuales, hasta los años cincuenta y tantos, seguían viniendo los sábados al mercado de Tolosa.

Allí en el viejo Portal de Castilla, junto al Colegio de las Escuelas Pías, antigua Diputación Foral, pregonaban ellos su mercancía; es decir, la cantaban. Una vez, un padre escolapio, harto de la cantinela, ordenó a uno de sus alumnos: “Vete y dile a ese voceras que se calle y nos deje dar clase”. Salió el chico, se acercó al vendedor y le dijo: “*Orko apaiz batek esan du oso ondo kantatzen dezula; eta ea gertuago jarriko zeran, obeto entzuteko*” [...]. No sabemos cómo seguiría la clase.

A esos vendedores los veía yo al salir al mediodía de dicho colegio. Apenas me detenía, pero la imagen del vendedor de hojas con un corrillo de oyentes en torno se me

⁶ Zavala, 1996b: 285.

⁷ Zavala, 2006: 209-210.

grabó. Fue el cabo de hilo del que luego empezaría a tirar, sin sospechar qué gran ovillo iba a salir.

Etxetik ere bertso-saltzaileak entzuten zituen igandeetan, parrokiaren atarian kantuan⁸.

Nik ortxe amairu urte nituala, 1941-ean, Irailleko igande-goiz batez eta oraindik oiean negoala, gizaseme bat Tolosako parroki-atarian kantari somatu genduan. Gu elizaren ondoan bizi baigiñan, jeiki, leiotik begiratu eta bertso-saltzaille bat zala ikusi genduan. Auek, izan ere, kantua bidez zabaltzen baitzuten beren salgaia. Ondarrabia estropadak irabazi berri zan, eta aren gorantz jarritako bertsoak zituala esan zuten.

Etxean, orduan ere, eskolan agindutako lanak egin behar ziren. Baina zaletasunak ere bazuen zeresanik⁹.

Etxera joan [eskolatik] eta historia eta literatura estudiantuko nituen; baiña matematikak, kimika eta oiek ez. Nere gustuak nundik nora zijoazen oso agerian zegoan. Jolasak, berriz, futbola, batez ere, eta pelota piska bat. Baiña oiek baiño geiago mendia. Mendiarekin zoramena neukan nik orduan.

Udan, Adunara joaten zen Antonio oporretara. Hura jozten zuen bigarren herritzat¹⁰.

Guretzat, izan ere, gure bigarren erria zan Aduna. An izaten giñan udara pasatzen.

[...] Euskera ere, Adunakoa geiago dedala uste det, Tolosakoa baiño. Tolosan, izan ere, gure gurasoen gizaldiak dana euskeraz egiten zuan. Guk, berriz, dana erderaz.

⁸ Zavala, 2003: 14-15.

⁹ Zavala, 2006: 151-152.

¹⁰ Zavala, 2006: 149-150.

Gauza arrigarria da gizaldi batetik bestera gauzak nola alda ditezken. Baiña udaran Adunara joan eta euskera ikasi egiten genduan; eta, denbora berean, erdera erakutsi ere bai.

Eta Adunan entzun zituen lehen bertsolari-izenak ere¹¹.

Otañotarrena eta Pello Errotarena izango dira nere belarrietara aurrena iritxi ziran bertsolari-izenak. Udara pasatzera Adunara joaten giñan eta antxe. Erri au eta Zizurkil eta Asteasu alkarren ondoan izanik, ez da arritzekoa.

Eta Adunan entzun zituen lehenengoz bertsolariak¹².

Ango festetan entzun nituan nik leenengo aldiz bertsolariak. Aietako bat Asteasuko Bautista Ondartza zala uste det.

Formazio-garaia (1945-1961)

Antonio Zavala jesuita izateko asmotan joan zen Loiolara 1945ean. Hantxe hasi zituen formazio-ikasketak, 1961a arte iraun zutenak. Guztira, hamasei urte dira, sei alditan banatuak.

Orduan bezala, sei aldi hartzen ditu gaur ere jesuiten formazio-garaiak. Edukiak ez dira berdinak izango, eta iraupean ere badago alde txikiren bat, baina baliagarriak zaizkigu Antonioren ibilbideaz jabetzeko¹³.

- Nobizio-aldia. Bi urtekoa. Jesuita-espiritualitatearen oinarriak finkatzera dago emana eta ohiko hiru botoak eginez amaitzen da, baldin eta norberak bere burua horre-

¹¹ Zavala, 1993a: 11.

¹² Zavala, 2006: 150.

¹³ Ikus www.jesuitas.es web orrian.

tarako deitua juzgatzeko badu eta Konpainiak onartzen badu.

- Junior-aldia. Beste bi urte inguru irauten du. Aldi honetan, *humanitate* izeneko ikasketak egiten ditu jesuitak: historia, literatura, hizkuntzak, arteak... Horrela hasten du bere formazio intelektuala, berez inoiz amaituko ez duena.
- Filosofia. Hiru urte ingurukoa. Jesuitaren pentsamendua zorrotz eta zentzu kritikoa lantzea du helburu; aldi berean, bestelako pentsamenduetara zabaltzen dizkio atak eta teologia-ikasketetarako prestatzen.
- Magisterioa. Bi urte iraun ohi du, eta jesuiten heldutasun erlijioso eta apostolikoa eskuratzea du helburu. Jesuita, aldi honetan, ikasketak utzi eta eguneroko errealitatean murgiltzen da, Konpainiaren obraren batean lan eginez (gehienetan, hezkuntza-lanetan). Galderen garaia da, gauzak zalantzan jarri eta birformulatzekoa; horrela sendotzen du bokazioa eta ondorengo ikasketa teologikoen gosea pizten.
- Teologia. Lau urte ingurukoa. Jesuitari formazio teologiko sendoa ematea du helburu; azken batean, hori baliatuko du bere bizitza osoan. Aldi honen amaieran, ohikoa da jesuita apaiztea. Ondoren etor daitezke ikasketak bereziak: doktoretza, ikasketa zibilak...
- Hirugarren probaldia. Sei hilabete ingurukoa. Konpainian sartu eta handik hamabost urtera-edo egin ohi da. Azken probaldia da (nobizio sartu aurrekoa da lehenengoa, nobizio-aldikoa bigarrena); hau gaindituz gero, Konpainiak betiko onartzen du jesuita.

Aurreratu bezala, hamasei urte iraun zuen Zavalaren formazio-garaiak: hamazazpi urte zituela hasi zuen eta hogeita hamahiru zituela amaitu, nahiz eta hark etengabe jarraitu

zuen bere burua gaitzen. Formazio-garaian, bi urte egin zituen nobizio, Loiolan (1945-1947); hiru urte junior, Urduñan (1947-1948) eta Loiolan (1948-1950); beste hiru filosofia ikasten, Oñan (1950-1953); hiru urte irakasle, Xabierren (1953-1956); lau urte teologia ikasten, Oñan (1956-1960), eta urtebete hirugarren probaldia egiten, Gandian (1960-1961).

Xabierren zegoela, 1954ko urtarrilean, ekin zion bertso-paperak biltzeari. Bi urte geroago, 1956ko irailean, egin zuen lehen hitzaldia, bere egitasmoaren berri emanez, Arantzazun, Euskaltzaindiak gerraostean antolatutako lehen biltzar irekian.

Loiolan, nobizio¹⁴.

Amazazpi urterekin joan nintzan jesuita, bai. Leenengo Loiolara. An inguruko auzoetara joaten giñan ostegunetan dotriña erakustera. Neri Urrestillara tokatu zitzaidan. Gustora joaten nintzan. Nere aldean askoz obeto itzegiten zuten euskeraz ango neska-mutillak, ni baiño gazteagoak izan arren. Mendira ere joaten giñan. Eta ango baserritar-jendearekin itzezin ere bai. Batean, gogoan det, Oñatzera joan giñan. Agure batekin topo egin genduan. Nere bi lagunak, erdaldunak biak, zerbait esan zioten. Eta berak onela erantzun zuan: “*No entender*”. Orduan aitona-amonak asko zan erderaz tutik ere etzekiana.

Loiolan, *humanitate* izeneko ikasketak egiten ari zela, egin ziren elkarren adiskide min tolosarra eta Antonio Pérez asturiarra, hau ere jesuita-gai. Honelaxe kontatzen du honek gaur; bide batez esanda, Antton deitzen dio Zavalari¹⁵:

Habíamos acabado los dos años de noviciado en Loyola y estábamos empezando nuestros estudios de huma-

¹⁴ Zavala, 2006: 152.

¹⁵ Pérez García, 2015.

nidades el año 1948. Un día, el profesor de literatura, P. Larracochea, nos leyó en clase tres redacciones sobre una subida al Izarraitz, escritas por los alumnos. Dos de ellas estaban adornadas de palabras “finas”, de comparaciones con grandiosidades y bellezas del universo entero, con ritmo. La otra, no. El profesor fue pidiendo nuestro juicio; todos se inclinaban por las dos primeras, “por lo selecto del vocabulario, por la riqueza de la adjetivación y de las comparaciones, por el tambor de la prosa, por las alusiones cultas, etc. Me preguntó a mí y dije:

–La tercera.

El profesor me miró fingiendo sorpresa y me preguntó como a todos:

–¿Por qué?

–Porque las dos primeras me han remitido a textos, a libros; la tercera, al monte: me lo ha hecho ver.

Larracochea, que hasta entonces no había comentado nada, dijo despacio:

–Pues, eso es.

En aquellos tiempos solíamos ir en filas y en silencio a la capilla o al comedor. Aquel día Antton se puso detrás de mí y me susurró al oído:

–Era mía.

Así empezó una larga amistad.

Antoniok, Urduñan eta Oñan zegoela, bi aldiz eskaini zuen bere burua misiolari bidal zezaten¹⁶.

Batean, Urduñan nintzala egin nuan. Nik orduan emetzi urte izango nituan. Nere eskaerari etzioten kasorik egin. Ni artean ume mukizu bat nintzala pentsatuko zuten, eta arrazoi osoa zuten, bai.

¹⁶ Zavala, 2006: 156-157.

Gero andik bost bat urtera berriz egin nuan. Probintziala Indian izana zan, eta etorri eta ango berri ematen ari zitzaigun ikasleei. Beste gauza askoren artean, zera esan zigun: an bazala aita xaar bat, katalana bera, Gujerrat aldeko istoria, literatura eta abar aztertua, eta ondorengo bat nai zuala, bere lanari jarraipena emango ziona. Nik nere burua ortarako eskeiñi nuan, bada. Aldi ontan ere etzidaten kasorik egin. Baiezkoa eman izan balidate, an ere bertsolariak bai omen dira, bat-batean bertsoan egiten dutenak, eta aien emaitzak biltzen, aztertzen eta argitaratzen aaleginduko nintzan, emengo bertsoekin egin dedan bezela. Gizakiaren bizitzak bide-gurutze asko ditu, eta oietako batean gertatu nintzan ni orduan.

Oñan, filosofia ikasten ari zela, paradisu-mira dario Antoniori, eta hantxe hasten da paradisu galdua berreskuratzeko lehen urratsak egiten¹⁷.

Loiolan sartu eta denbora asko igaro zan Otañotarren oroipenik berritu ere gabe. Baina andik zazpi bat urtera, 1952-an, Burgos probintziaren ipar aldeko Oña izeneko errian ikasketak egiten ari giñala, gure euskal liburutegian antxe arkitu nuan *Alkar* izeneko liburu bat. Zer izango eta bertsoak. Norenak eta *Otaño'tar Pedro M'ren Olerki Onenak*. Nere buruan itzulpena egin eta *Pedro Maria Otañoren bertsoak* irakurri nuanean, gustorago gelditu nintzan. Orduan ulertu, alegia, bera zala aur-denboran entzuten nuan zizurkildar bertsolaria [alegia: Antoniok haur-denboran askotan aipatzen entzuten zuen bertsolaria].

Irakurtzen asi eta nere gozamina! Uraxe zala euskera eta aiek bertsoak! Denbora berean, ura zan, gorputzez Gaztelako txoko batean nengoala, buruaren barruan Zizurkil eta Adunako parajeak bertan banengo bezela bizi-bizi ikustea!

¹⁷ Zavala 1993a: 12-13.

Andik bereala, etxekoei enkargu berezi bat eman nien: Tolosako Zerkausira bertso-saltzailleren bat agertzen bazan, paper bat erosi eta bialtzeko faborez. Ala egin zuten eta ale batzuen jabe egiten asi nintzan.

Era ortan, Otañoren liburua zala eta etxetik bialduta-ko bertso-paperak zirala, batere uste gabean, bertso-bil-tzeari ekin nion. Sarritan gertatzen da: geren bizitzako erabakirik garrantzizkoenak ia oartu gabe eta nola ez da-kigula artzen ditugu.

Antonio Pérezen beste testigantza bat ezin egokiago da-torkigu ikusteko jesuita gazte haiek bizi zuten giroa eta, batik bat, Antonio Zavalaren gustuak eta joera¹⁸.

Desde muy pronto me habló de sus planes de recoger y editar a los bertsoaris. Por cierto que se sorprendió que yo, asturiano, que había hecho el bachillerato en Las Palmas de Gran Canaria, tuviera noticias de ellos. La tenía de la lectura de *Amaya*, donde aparecen, y de algún libro de Baroja, al que mi padre era aficionado. (Y yo también; mucho.) Salen en varios de ellos; recuerdo especialmente el de *Zalakain*.

Los compañeros jesuitas vascos de entonces considera-ban la poesía de los bersolaris “demasiado popular”. Aca-baba de salir *Euskaldunak* de Orixe, y estaban entusiasma-dos; y juzgando por algunos poemas que me tradujo Patxi Altuna, con razón. Probablemente eligió los que tenían reso-nancias clásicas griegas; me parecieron buenos, pero poco euskaldunes. Seguro que a la mayoría de sus poesías no le pasará esto. Me extrañó el poco interés de Antton...

Le hablé a Antton de los payadores suramericanos, y de que un libro “popular” (aunque el autor no lo fuera), el *Martín Fierro*, era como una bandera identitaria para los ar-gentinos. Lo había leído yo de muchacho y me sabía (y me sé) grandes tiradas de memoria.

¹⁸ Pérez García, 2015.

Le gustaba que yo apreciara la literatura popular, y le comentara la abundancia y el valor de ella que había en los orígenes de las literaturas de las que tenía entonces yo alguna idea; y cómo eran estimadas y estudiadas, sobre todo desde el romanticismo.

Filosofia-ikasketak amaituta, Xabierrea bidali zuten Zavalá, irakasle-lanetara. *Maestrillo* izan zen hiru urtean, jesuitek han zuten formazio-etxean. Ondorengo testigantza Kaxildo Alkortaena da; Antonioren ikasle izan baitzen mutikotan Xabierren¹⁹.

Jesuita gazteek, filosofiako ikasketak amaitu ondoren, bi edo hiru urte ematen zituzten beren ikastetxeetako ikasleak zaintzen, tutore-lanetan, eta eskolak ematen. [...] *Maestrillos* esaten genien gure zainzaile haiei [...].

[Ikasleok], goizeko sei eta erdietan tirrinak jotzen zue-nean, aire jaiki eta garbitzera joaten ginen, konketa piloazuen gela handi batera. Ordurako han edukitzen genuen kurtsoko bakoitzekoek gure maestrilloa belarri-zuloak eta hortzak behar bezala garbitzen genituen begira. Lehen egunetan, ohea egiten ere lagundu behar izaten ziguten. Beste tirrin-hotsa, eta kaperara mezetara; han ere maestrillorik ez zen falta. Etxe barruan bi ilara luzetan ibiltzen ginen batetik bestera, kaperatik eskoletara, eskoletatik jolas-patioara, handik eskoletara, jangelara, logela handi haietara..., joan behar zen lekura, isil-isilik beti, maestrilloa, bi ilaren artean, erdi aldean genuela. Patioetan jolasean genbiltzan bitartean, batzuetan gurekin jokatzeko zuten eskuz edo palaz; futboleko gutxiagotan. Kurtsoko lagun batek gogorarazi zigun orain gutxi:

–Gogoan al duzue, ilaratan gindoazenean, Padre Zavalak sotanako faltrikera izugarri haietako batetik atera liburu handi bat eta nola joaten zen irakurtzen? Eta, hizketan

¹⁹ Alkorta: 3.

ari ginela sumatuta, begiak liburutik batere jaso gabe nola egiten zuen sssssiiiiit? Eta handik pixka batera, berriz ere sssssiiiiit? Hark beti zian libururen bat ilaratan.

Eta Xabierren, hain zuzen, 1954 urtea estreinatu berttan, hartu zuen Zavalak bertsopaperak biltzen hasteko erabaki sendoa²⁰.

Ni euskal alderdira bultzatu ninduana gertaera bat izan zan, batik-bat. Xabierera joan eta eskolak ematen jarri ninduten. Mutikoen artean bazan azkoitiar bat, baserriko semea. Amabi bat urte izango zituan arek, baiña ordurako ere bertsozaletuta zegoan. Etxeko *kanta-papelak* sarritan aitatzen zituan, beintzat.

Ala, Gabonetako oporretara joan aurretik, eskaera bat egin nion: ea bueltakoan etxeko kanta-papelak ekarriko zizkidan. Oporrak bukatu ziranean, illundu eta gero, gu antxe geunden zai, autobusak mutiko-karraio noiz etorriko. Iritxi ziran, bada, eta alakoren batean, emandako enkarguaz ni erabat aaztuta nengoala, oiur bat etorri zitzaidan autobus aietako leio batetik nere belarrietara: “Ekarri ditut”. Etxeko *kanta-papelak* ekarriak zituala, alegia.

Orduan ez nintzan inola ere oartu. Baiña gaur burua atzera jiratu eta ikusten dedanez, 1954-ko Errege bigarrenaren edo irugarrenaren illuntzean Xabierko gazteluaren oiñetan entzun zan oiur orrek eman zion asiera nere bertso zaar biltzeari.

Mutikoak ekarritako bertso-paperak ogei ta bost bat izango ziran. Aiek ziran, bai, nik umetan Tolosako Zerkausian saltzen ikusten nituanak. Besterik gabe, erderaz *regla de tres* esaten dana egin nuan: baserri batean au baldin bada, Euskal Erri guzian zer izango ote da?

Ekin nion, bada, biltzeari. Nundik eta Xabierretik.

²⁰ Zavala, 2006: 50.

Arantzazun, 1956ko irailean, jendaurreko batzar bat antolatu zuen Euskaltzaindiak, gerraondoko lehena. Eta hantxe, Arantzazun, hogeita zortzi urterekin egin zuen Antoniok bere lehen hitzaldia, hitzaldi programatikoa, erdaraz egin ere, ez baitzioten garaiz esan euskaraz egiteko. Han azaldu zuen zertan ari zen eta zer asmo zituen gerorako: obra handi batean plazaratzea bertso paper zaharretako bertsoak, estudio bat aurretik zutela²¹.

Ordurako, material asko zuen bildua, eta buru-belarri ari zen lanean²².

Hace ya dos años que no hago sino leer y copiar *bertso berriyas*. [...]

Nunca me he detenido a enumerarlas, pero calculo que los materiales recogidos sumarán unas cincuenta mil estrofas [berrogeita hamar mila bertso, alegia]. [...] Y debemos pensar que lo archivado es una porción reducida de lo actualmente existente...

Arantzazutik Xabierrera itzuli zen Antonio, baina oso denbora gutxirako. Oñara joan beharra baitzuen, lau urteko teologia-ikasketak egitera. Ez zen, ordea, esku-hutsik joan. Berekin eraman zuen, besteak beste, Xabierren bildutako bertso paper pila.

Berriro ere, Antonio Pérez jesuita dugu berri-emaile ezin egokiagoa. Bi Antonio haiek ez ziren, nonbait, teologia ikastera mugatu²³.

Después de sus tres años de “magisterio” en Javier, llevó a Oña, donde volvimos a encontrarnos para el estudio de la teología, una maleta llena de *Bertso Berriak*. Algunos con los bordes roídos, manchas de aceite, huevo, y olor a cocina, y

²¹ Zavala, 1996a: 24.

²² Zavala, 1996a: 34, 37.

²³ Pérez García, 2015.

no diré que alguna hoja no trascendiera a establo, a oveja y a vaca: olores serios. Los fue pasando a máquina, se quedaba con los originales y enviaba a los dueños un ejemplar mecanografiado. Salía un cuadernillo. Un servidor, que es mediano dibujante, le hacía la portada. También me honro con el mérito de haberle sugerido el formato con el que luego se publicaron en la colección Auspoa.

Teologia-ikasketak amaitu baino urtebete lehenago, 1959an, Tolosan zen berriro Antonio Zavala, etxean, eta orduan ere bertsoak iristen zaizkio belarrietara, gau-giro epelean²⁴.

1959'garrengo Dagonillaren (Agostuaren) 9'an giro epel goxo bat zegon gabeko amabiak aldian. Tolosa zarra ixilik eta lo zegon. Alako baten, gau-pasazale batzuk kantari asi ziran "Zeru-txiki" deritzayon tabernan. Ara zer ari ziran.

*Goizean sartu tabernan eta
ateratzen naiz azkena,...*

Bertso auek eun urte dituzte [1961ean], eta, guk dagigunez, iñoiz inprentatu gabeak dira. Eun urteko muga bizi bizirik igarotzeko, zenbat aldiz kantatu izan ote dira Tolosako –eta Euskalerra guztiko– taberna-zulo ta sagar-dotegietan?

Igandea izan zen abuztuko 9 hura. Igande luzea bezain go-goangarria: Antoniok Tolosan, bere herrian, meza berria eman zueneko²⁵. Bi aste ere ez zen apaiztu zela, Loiolan, San Ignazio egunaren bezperan, eta San Ignazio egunez meza berria eman zuela Loiolan bertan.

Abuztuko egun pozgarri hura etxekoekin eta herritarrekin igaro ondoren, etxeko logelan da Antonio gauerdian. Kanpoan, udako gau-giro ederra dago eta gizonezkoak tabernan

²⁴ Zavala, 1961b: 11.

²⁵ Ikus 2. oin-oharra, 27-28. orrialdeetan.

kantari ari dira zer eta ehun urte lehenago Ramon Artola tolosarrak sagardoari jarritako bertso ederrak. Egun bete hura amaitzeko modu politagorik!

Baina artean beste bi ikasturte gelditzen zitzaizkion formazio-aldi luzea amaitzeko: urtebete Oñan, teologia ikasten; eta beste urtebete Gandian, hirugarren probaldia. Ondoren hasi zen jesuita-lanetan, Donostian.

Donostia (1961-1978)

Antioniok, formazio-garaia amaituta, hamazazpi urte egin zituen Donostian: hamabost, San Ignacio ikastetxean; eta bi urte, EUTGn. Ikastetxeko lehen bederatzi urteetan irakasle izan zen.

Xabierren, lanorduz kanpo hasi zen Auspoa hezurmatitzen, lanorduz kanpo bertso-paperak biltzen. Eta lanorduz kanpo aztertu zituen, sailkatu, dokumentatu eta kopiatu. Oñan ere ikasketa-orduz kanpo aritu zen, Antonio Pérez adiskidea lagun zuela. Xabierko egoerara itzultzen da Donostian. Lehen urteetan, irakaslea izan zen ogibidez, eta irakaskuntzalanek libre uzten zuten orduetan, asti eta atsedeen-orduetan, jardun zuen Auspoa ontzen.

Konpainiak 1972an liberatu zuen, buru-belarri gauza zezan egitasmu erraldoi hura. Lehenago, 1964an, halako zer-bait eskaini zioten. Eta EUTGn egon zen bitartean ez zuen eskolarik eman. Baina 1966an berriro irakasle ikusten dugu Donostian bertan, San Ignacio ikastetxean, 1972a arte.

Donostiako hamazazpi urte horietan, sumendi bat dirudi Zavalak, urteetan pilatutako lana dena batera atera nahi izango balu bezala. Auspoa liburu-bilduma plazaratzen hasi zen 1961ean. Sei zenbaki atera zituen urte horretan, hamabost 1962an, hamabi 1963an, bederatzi 1964an, hamaika 1965ean, zortzi 1966an... Gehiago du aldizkari baten antza, liburu-bilduma batena baino.

Aldi honetan garatu zuen, neurri handi batean, Arantzazun iragarritako egitasmoa: bertsopaper zaharren argitaratzea. Orduan plazaratu zituen Ausporen lehen 128 zenbakiak eta, horiekin batera, Auspoa ertaineko bost obra handiak. Era berean, orduan, 1963ko udaberrian, eskaini zuen EUTG ikastegian, lau hitzalditan, Arantzazun iragarritako estudioa. Urtebete geroago argitaratu zuen *Bosquejo de historia del bersolarismo* izenburuz.

Orduan, Estatu Batuetan ikasten ari zen Antonio Pérez adiskidea. Eta hara bidali zion liburu atera berria. Honela kontatzen du asturiarrak, iruzkin ezin jakingarriagoa erantsiz²⁶:

Pasé cinco años en Los Estados Unidos, estudiando (1963-1967). Allí me envió su *Historia del bersolarismo*. De tanto en tanto (pocas veces, claro es) me llamaba por teléfono para que le resolviera dudas de castellano; casi siempre las mismas, el régimen proposicional de los verbos y si determinada palabra, no obstante su significado de diccionario, estaba cargada con alguna connotación traidora. Era muy inteligente; sabía dudar.

Euskaraz ere askotan egiten zuen kontsulta, bati eta besteri galdetuz. Euskalki bat menderatzen ez zuenean, euskalki horretan aditu zenaren eskuetan ipintzen zuen bere lana.

Baina, euskalkiak euskalki eta hizkuntzak hizkuntza, Antonio Zavalaren idazteko estiloa azpimarratzen du asturiarrak. Ez da zerbait erantsia, haren izaerari berez dariona baizik²⁷.

Su propio estilo castellano era muy bueno, precisamente porque entre su texto y la cosa no había distancia; entre uno y otra no pasaba una hebra de seda. Dicho de otra manera: que entre su escrito y las cosas no se

²⁶ Pérez García, 2015.

²⁷ Pérez García, 2015.

interponía literatura o pensamiento ajeno, como ayuda o apoyo o adorno. O también: que no presentaba las cosas como casos particulares de conceptos generales desconcretizadores, sino limpias, y con el nombre justo de su naciente frescura.

He sido desde niño un lector voraz, y he encontrado pocos escritores tocados de esa suerte. Baroja es uno de ellos. Probablemente, donde más lo es, es en algunas páginas de sus historias de Avinareta. Cuando se libera de la pose literaria (que en él siempre fue pequeña; la aborrecía) y escribe como con descuido. ¡Ése es el gran cuidado! ¡Entonces!

Esta cercanía del discurso a la cosa, quizá la favorezca la índole del euskera, ya de por sí, ya por haber sido poco traicionado o contaminado por la sucesión de estilos, escuelas y modas literarias. Por ambas cosas; más por la primera. Pero ignorando yo el idioma, no puedo sino quedarme en la mera conjetura.

[...] Yo admiraba este poder de apegamiento a las cosas (en su caso, ideas), por ejemplo, en el P. Eleuterio Elorduy (otro gran amigo y maestro mío). Aunque conocí casos contrarios, de euskaldunes originarios empeñados en escribir “presioso”. ¡Mal!

Pues bien. No sólo en sus escritos sino en lo humano, Antton estaba cerca de las cosas, más que de las *palabras acerca de palabras sobre cosas*; es decir que era un ser verdadero.

Se lo noté pronto porque esta instalación en el mundo suya, tan auténtica, interpelaba a la mía, tan mediada y distanciada a fuerza de teorías y erudiciones.

Antonio Zavala, gizon jakintsua, benetakoa, lurrari itsatsia, zehatza, hitzaren dohaina zuena, hitzen aparretan gal-tzen ez zena... Luzea da aipua, baina merezi zuen hona ekar-tzea. Ezin hobeto erretratatzan du tolosarra. Horren harira, hobeto uler dezakegu haren lana ere.

Hala, bertso biltzen jarraitu zuen, han eta hemen. Gertu zuen altxorra zain: Donostiatik Oriora bitarteko hainbat baserrian, Erreterian, Hernanin...

Euskaltzain urgazle izendatu zuen Euskaltzaindiak 1961ean, eta euskaltzain oso 1964an. Epaimahaiko izen zen Euskaltzaindiak antolatutako bertsolari-txapelketetan 1960, 1962, 1964-1965 eta 1967an; eta txapelketa horietako finalerako bertsoak transkribatu eta argitaratu zituen.

Lan horren testigantza ere eman zigun²⁸.

Xalbadorrenera, 1967-ko ekainean iritxi nintzan leen aldiz. Illaren 11-n txapelketa izana zan, eta Xalbador bigarren gelditua, Uztapideren ondok. Ni, bertsoak pape-reratu ondoren, kantatu zuten bertsolari guziengana joan nintzan, beraien bertsoak zuzen kopia-ituak zeuden esan zezaten. Mugaz egoaldekoe-na egin nuen; baiña Mattin eta Xalbadorrena nola?

Garai artan bazan Donostian jaun bat, Patxi Mujika, bertso-saioak grabatzen zituena. Berak eramango ninduela esan zidan. Ala, jai-goiz batez Urepelera iritxi giñan, eta kotxetik irten. Meza ondo-a zan. Gure aurrean beste kotxe txiki bat ikusi genduan, abiatu eta bereala gelditu zana. Andik nor irtengo eta Xalbador bera.

–Retrobisorretik ikusi zaituztet –esan zigun.

Aren atzetik joateko. Joan eta etxera iritxi giñan. Bertan bazkaldu genduen. Ondoren, magnetofonoa martxan jarri eta txapelketa guzia entzun genduen.

Bi urte geroago ere Urepelen zen Zavala, oraingo honetan beste lan batek eramanda haraino²⁹.

Xalbadorren liburu ura [lehen liburua: *Ezin bertzean*] beraren omenaldirako osatu zan bezela, berdin egin genduen Lasarte, Mattin, Basarri, Enbeita eta Arozamenarekin ere.

²⁸ Zavala, 2006: 244.

²⁹ Zavala, 2006: 246-247.

Mattinen liburuan Xalbadorrek eta biak kantatutako bertso batzuk baziran, eta oiek urepeldarrari erakustera abiatu nintzan abenduko igande batez. Euri otza ari zuan. Baigorri eta Banka bitartean bazan orduan bideertzean iturri bat. Kotxea aren parean gelditu eta puska otz batzuk jan nituen. Etzan entzuten erreka aundituaren otsa baizik. Mendiak lainoan zeuden, azpitik elurra ageri zutela.

Xalbadorrenera angoak bazkaldu berrian iritxi nintzan. Ea bazkalduta nintzan. Nik baietz. Gaztanbera eta kafe beroa eman zidaten eta ni pozik. Bear ziran bertsoak Xalbadorri erakutsi eta onek ontzat eman zituen; eta ni, egitekoa eginda, etxera.

Urrena Xalbador eta biak Gipuzkoan elkartu giñanean, berak onela esan zidan:

–Zuk lehengoan gure etxetik alde egindakoan, kon-
tuak egin genituen, Donostitik noiz aterea izango ziñan
eta gure etxera noiz iritsia, eta zera ikusten genduen: zuk
egun artan etzinuela nehon ere bazkaldu.

–Bazkaldu nuen, bada, alako tokitan, etxetik ekarrita-
ko puskak janda.

Eta berak:

–Ala izango da. Baiña orain badakigu etzirela gizon *biz-
karkina*.

Itz ori ez degu guk erabiltzen. Eta esan-naia Xalbadorrek berak agertu zidan: besteren bizkarretik bizi ez dana; erde-
razko *parasitoa* ez dana. Ala, egun artan asko irabazi nuen
Xalbadorren iritzian.

Pasadizoak pasadizo, Konpainiarekiko esker onez ikusten ditu urte horiek. Ez zen ohikoa, agidanean, norbait horrelako lanetarako liberatzea³⁰.

Ni asi nintzanean, eta bai geroagoko urteetan, gizon bat lan ortarako jartzea, eta ondoren beste lanik gabe uztea ere, oso aurrerakoa izatea zan.

³⁰ Zavala, 2006: 154.

Xabier (1978-1991)

Donostiatik Xabierrera joan zen Antonio Zavala 1978an, berrogeita hamar urterekin, eta bertan egin zituen hamahiru urte. Aldi honetan, bertsopaper zaharrak plazaratzeari utzi gabe, prosazko liburuak sustatzen eta argitaratzen hasi zen. Hauek hartu zuten lehentasuna.

Lehen bertsoen altxorra bezala, orain herri-prosarena us-tiatzen hasi zen. Bazegoen alderik, ordea, bi lanen artean. Bertsopaperak biltzea eta argitaratzea, berak bakarrik egin zezakeen. Baina besteren beharrean zen herri-prosa sustatu eta argitaratzeko. Eta ate-joka hasi zen. Jo zuen Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailarena, eta jo zuen Euskaltzaindiarena ere. Etsita agertzen zen.

Etsipen horren isla da, Euskaltzaindiaren Herri Literaturara Batzordearen bilera baterako, 1990aren hasieran prestatu zuen idatzia. Oso luzea da, baina osorik aldatuko dut hona, inon argitaragabea denez³¹.

Auspoak bi alderdi izan ditu: bertsoa eta prosa. Bertso-liburuak zer izan diran argitu bearrik ez dago. Baiña guztiak bertso-liburuak izatea eroslearentzat aspergarri izango zalakoan prosa-liburuak ere argitaratzea kome-nigarritzat jo nuan. Asieran, leengo prosa errikoia atera nuan: kontuak, antzerkiak ta abar. Egilleak: Iraola, Alzaga, Urruzuno, Larzabal eta abar. Oietako batzuk ez nituzke gaur argitara emango.

Baiña gutxien saltzen ziran liburuak berak zirala-ta, prosa-liburu oiek argitaratzeari utzi egin nion bolara batean, eta bertso-liburuekin jarraitu.

Ala ere, iru liburu berezi agertu ziran: Txirritaren bizitza, bat. Ortan zati aundia Txirritaren illobak du. Berak esan eta nik idatzi, diktado egiñez bezela osatutako liburua da, errataz beteta badago ere. Bestea, *Pello Errotaren bizitza, bere*

³¹ Zavala, 1990a.

alabak kontatua. Magnetofonoaren bitartez egin zan liburu au. Eta irugarrena, Salaberriaren *Neronek tirako nizkin*, berak idatzia. Iru liburu oiek garbi erakusten zuten or bide berri bat bazala, baiña urteak pasako ziran, bide ortatik berriz pausorik egiteko.

Narratiba edo prosa ori zer dan badakizute: erria –baserriarrak eta abar– idazten jarri, bere oroipenak eta abar kontatuz.

Prosa orri indar aundia emango ziona, *Uztapideren Lengo egunak gogoan* liburua izango zan. Eta arekin batera, Txirritaren illobaren *Aien garaia*. Ala ere, liburu oiek, eta Xalbador eta Lasarterenak [*Odolaren mintzoa* eta *Gordean neuzkanak* liburuez ari da], kalte puska bat egin zioten Auspoari. Beraren abiada galerazi zioten, oietako bakoitzarentzat denbora asko bear izan nualako.

Ondoren etorri diran erri-narratibaren liburuak asko dira: Arrizabalo, Ataño, Irazusta, Alkain, Mattinen andrea, Txomin Garmendia, Ostolaiz, Patxi Otxoki, Azpiroz, Ayerbe, Erramun Etxebarne, Etxaburu...

Prosa berri onek batekoz bestera jarri du salmentaren arazoa. Prosa-liburuak orain geiago saltzen dira bertso-liburuak baiño.

Izen-zerrenda naiko luzea idatzi det. Baiña liburuen izenburuak idatzi banitu, luzeagoa izango zan, liburu bat baiño geiago idatzi dituztenak ere badira ta.

Oinbeste idazle berri zergatik edo nola agertu dira ia bat-batean? Nere ustetan, esan bezela, eragiñik aundiena Uztapideren liburuak egin zuan. Aren prosa erreza eta gozoa irakurririk, beren eguneroko euskera liburuetan ikusirik, erriko jende askok onelako zerbait pentsatuko zuten: “Nik neronek ere orrenbeste egin nezake”.

Obeto esateko, nik ez dakit olakorik pentsatu zuten. Baiña nik orixe pentsatu nuala bai. Gauza segurutzat jo det beti, Uztapidek egin zuana beste askok ere egin dezaketela. Baiña gauza bat bai garbi ikusi dedala: erri-jendeak bildurra galdu diola idazteari.

Gauza oiek alde bat utzita, alor ontatik uzta ugaria atera ditekela dudarik ez da. Apustu egingo nioke edozeini: amabost egunean baietz ogei gizon liburugintzan jarri.

Prosa onek garrantzi aundia duala derizkiot. Emendik aurrera, izkuntza bikoak izango dira euskaldunak, nai ta nai ez. Baiña erri-jende ori oraindik izkuntza bakarrekoa da. Alegia, euskera utsez pentsatzen duana, naiz-ta erdera ulertu eta lardaskatu. Euskera utsez pentsatutako euskera ori atera bear da oien burutik, eta almazen aundi bat osatu. Izkeraren jatorrasunaren altxor bat, alegia. Orixe baita urte auetan galtzen ari zaiguna: izkeraren jatorrasuna.

Ori, izkeraren aldetik. Eta gero or dira literatura, kon-daira, etnografia, antropologia ta abar ta abar, liburu oiekin aberastuko diranak.

Orain arte gure artean, eta erdal errietan ere berdin, liburu asko egin dira erri xumearen bizitza eta nortasuna agertzeko. Baiña geien-geienak gizon eskolaturen batek egin izan ditu. Liburu auek, berriz, berritasun bat dakarte: erriak berak egiten ditu. Alegia, gauzak protagonista berak kontatzen ditu. Españian olako gutxi egin dala uste det, edo baterez. Frantzian ez dakit. Baiña an ere ez geiegi. Onekin esan nai nuke: geienetan besteen atzetik ibiltzen gerala; lan ontan, berriz, bein bear eta aurrelari gerala.

Ala ere, entzun detanez, Ipar-Amerikan asko estimatzen omen dira olako liburuak, eta iñork zer kontatua baldin badu, dirua ere ematen diote, konta dezan.

Liburu auek zer lan duten esango dizuet. Leenengo, beraiekin itz aspertu bat egin, berengana joanda, ta ez telefonoz. Izketan ari zerala, bakoitzaren mundua eta bizitza aztertu, eta gaia billatu, berak nekez billatuko baidute. Gero, gai ori, al bada beintzat eta al dan aiñean, ataletan sailkatu. Asko idatzi gabe, atal bakoitza bialdu dezatela. Liburuaren arkitekturaren mesedetan izango

da ori. Bestela, batasunarentzat kaltegarri diran atalak idatziko dituzte, eta gero olakoak norik kendu arazi?

Beste zer egin bat, zerorrek dana makinaz edo ordenadorez idatzi, orduak eta orduak langintza ortan pasatuz. Baiña kopia utsa ez da. Puntuazioa ere dana jarri bear. Dударik baldin bada, telefonoz deitu edo bertara joan. Narrazioan utsunerik badin bada, bear dan betegarria egilleari egin arazi, gero bere lekuan sartzeko. Eta pruebak zuzendu, ta abar ta abar...

Orrekin zer gertatzen dan? Bestetarako denborarik gabe gelditzen zerala. Ez dakit konturatu zeraten, baiña aspaldi ontan ez det antziñako bertsorik argitaratu. Ez gogorik ez detalako, beste prosa-liburu oiek denbora erruz kentzen didatelako. Askotan pentsatzen det, egille edo aztertzaile leen nintzala, ta orain editore biurtu naizela.

Dakizutenez, prosa-egille oiei ematen zaien soldata izan da txosten au egin arazi duana. Uskeri bat da. Milla liburu egiten baidira, eta liburu bakoitza zortzireun pezetan saltzen baita, euneko amar emanda, larogei milla pezeta guztira. Berak, diotenez beintzat, pozik gelditzen dira. Baiña neretzat lotsagarri izaten da orrenbeste lan eginda, mixeri orrekin pagatzea. Naiago nuke berreun milla pezetaraiño irixteko modurik balego. Argitaletxeak ez dauka geiago ematerik, neri ere zerbait eman bear didalako, ortik bizi bainaiz. Beraz, legeak agintzen duana baiño askoz geiago ematen du berez argitaletxeak.

Ni, berriz, oso estututa bizi naiz. Denbora ezin billatu. Dana nere gain baidator. Erabaki bat artu bearko det: edo nere denbora bertso-liburuak argitaratzeari eman, edo prosa-liburu aukeratzeari.

Erri-prosaz liburu asko egin ditezkeela dudarik ez da. Baiña gizon bakarrarentzat geiegi da. Nere urteak ere aurrera dijoaz. Osasuna ere ez leengoa. Talde bat osatu eta gauza asko egin ditezke. Baiña laguntzik ez da izango. Nik beintzat etsi det. Gogoia ere asko galdu zait. Eta lan

berriak nere gain artzeko bildurtu ere bai. Alderantziz esango nuke: lanak uzten asteko garaia etorri zait. Idatzi au ere alper-alperrik idatzi detala iruditzen zait. Ez du balio izango, emen [Euskaltzaindiaren Herri Literatura Batzordean] izbidea sortzeko bestetarako.

Esan bezala, 1990ekoa da idatzia. Etsipena dario, eta nekea ere bai. Soberan daude iruzkin guztiak. Zavalak hirurogeita bi urte zituen orduan. Urtebete geroago Xabierretik Donostiara bidali zuten Konpainiako arduradunek.

Donostia (1991-1998)

Hurrengo zazpi urteak berriro ere San Ignacio ikastetxean eman zituen. Hor, problema bat izan zuen, hasteko: lekurik ez bere artxiboa jasotzeko. Joakin Berasategik zabaldu zizkion Sendoa argitaletzeko atea.

Hain zuzen, Joakin Berasategiri esker beste loraldi bat bizi izan zuen Antonio Zavalaren obrak hurrengo urteetan. Nahiz eta erretiroa hartzeko garaia heldu, indar berriaz ekin zion tolosarrak lanari.

Tandem eragilea sortu zuten biek elkarrekin. Joakin Berasategik, Sendoa argitaletxearen nagusia izaki, enpresaren azpiegitura jarri zuen Auspoaren mesedetan. Antonio Zavala buru-belarri dedikatu ahal izan zen bere lanetara.

Biek elkarrekin *Auspoa Sail Nagusia* sortu zuten, 1992an. Sail horretan batera bildu zituen Zavalak Auspoan aleka plazaratutako zenbait lan garrantziko; eta,aldi berean, beste bi obra berri eta punta-puntako argitaratu zituen: Pedro Mari Otañoren bertsoen bilduma (1993) eta *Euskal erromantzeak* (1998). Eta bitartean, jakina, Auspoa arrunta liburu berriz osatzen jarraitu zuen.

Baina, horretara mugatu gabe, beste bilduma bat ere sortu zuten, 1993an, erdarazkoa: *Biblioteca de Narrativa Popular*.

Aldi horretakoak dira, era berean, Zavalak Oiartzunen egindako hitzaldi garrantzizkoa (1994) eta hark jasotako bi sari: Durangoko euskal liburu eta disko-azokaren *Argizaiola* (1996) eta Labayru Ikastegiaren *Gatzontzia* (1997).

Xabier (1998-2009)

Bere bizitzako azken hamaika urteak Xabierren eman zituen Antonio Zavalak.

Eta horietan, besteak beste, hiru gertaera garrantzizko bizi izan zituen: *Honoris causa* doktore izendatu zuen Deustuko Unibertsitateak (1999), Herriko seme kuttun egin zuen Tolosak (2000) eta Zavalak bere artxiboaren dohaintza egin zion Gipuzkoako Foru Aldundiari (2005).

Deustuko Unibertsitateko ekitaldia 1999ko azaroaren 17an izan zen. Euskaraz eta gaztelaniaz mintzatu zen Zavala. Besteak beste, honela esan zuen euskaraz³²:

Izendapen onen muiña auxe dala esango nuke: orain artean euskaldun eskolatuak eta gure erri xeea, nor bere aldetik ibiliak dira, alkarren berri jakin gabe eta gure izkuntza zaarraren ondamendirako. Ara zer esan zuan Asteasuko Batista Ondartzak, Pello Errotaren billobak, bertso batean, euskaldunengatik ari zala:

Alkar artuta gutxi gera ta
artz'ezpadegu baterez.

Unibersitate onek bertso orren berri etzuan jakingo; baiña gaurko ospakizun onekin pauso garrantzisu bat ematen du Ondartza zanak markatzen zigun bidean. Goikoak eta beekoak emendik aurrera alkarrekin lan egitearen alde azaltzen zaigu. Ala, beste guziok zer egin genezake une ontan, "ala izan dedilla" Goiko Jaunari

³² Zavala, 2006: 31.

eskatzea baizik? Baiña gai ontaz zeatzago itzegingo det orain urrena gazteleraz.

Eta hala eman zizkigun, gaztelaniaz, berak ere hizkuntza horretan jasotako hitz erabakigarriak: no hay “dos literaturas, una culta y otra popular, sino sólo literatura”³³.

Doktore izendatu eta biharamunean, Deustuko Unibertsitatean bertan izan zuen Zavalak ikasleen aurrean beste hitzaldi bat egiteko aukera. “Atzera begira edo liburu-sail baten gorabeerak” ipini zion izenburu. Auspoaren historiaz eta ibilbideaz mintzatu ondoren, honela amaitu zuen³⁴:

Eta emendik aurrerako zer asmo ditugun? Leengo gure bidetik aurrera jarraitzea, uste aundirik gabe, usteak erdia ustela duala aspaldi ikasi genduan eta. Eta “gizona dabil eta Jainkoak darabil”. Bestetik, berriz, Jaunaren beste esaera ura gogoan artu: “Argi dagoan bitartean, zuen bidean aurrera joan zaitezte”. Ibili egin bear degu, beraz, naiz eta usterik gutxienean ilundu eta pausorik ezin emanik geldituko geran jakiñaren gainean egon. Ala, beste zorionik ez diot nik Jaungoikoari mundu ontarako eskatzen, Santa Agedaren kopletan eskatzen danaren antzekoa baizik:

Urte on batzuk pasa ditzagun
osasuna ta pakean.

Zavala 2000ko urriaren 6an izendatu zuten Tolosako Seme kutun. Jaioterrian hasi zen guztia. Hantxe plazaratu zuen Auspoaren puskarik handiena, lehen hogeita bost urteetan. Esker oneko bere hitzaldikoak dira honako hitz hauek³⁵:

Ospakizun onekin ez nazute ni bakarrik seme kutun izendatzen; bai nik bildu ditudan bertso eta idazlan guzian egilleak ere.

³³ Zavala, 2006: 34.

³⁴ Zavala, 2006: 65-66.

³⁵ Zavala, 2006: 107-109.

Gaurko ontan seme kutun izendatzen dituzute, beraz, leengo bertsolari zaar guziak. Tolosako seme kutun, beraz, 1802-an, gure erri xaar ontan kantatu zuten bertsolariak: Amezketako Zabala eta Fernando, Ernaniko Erroizena eta Tolosako Altamira.

Seme kutun, baita ere, antziñako bertsolari guziak: Xenpelar, Udarregi, Txirrita... Pello Errota [...]

Seme kutun Tolosako Zerkausian kantari jarduten ziran bertso-paper saltzailleak. Nik iru ezagutu nituan: Bizkaiko Prudentzio Abarrategi, *Besamotza*; Mendaro Txirristaka; eta Pello Saikola. Oni paper bat erosi nion 1954-ko udaran.

Seme kutun, saltzaille oien jiran bildu eta adi-adi egoten zan jende-mordoa. Bai papera erosi eta etxera eramaten zutenak ere. Orrela sakabanatutako paperak izan dira nik ondoren andik eta emendik bildu ditudanak.

Baiña kontuan artu ni ez nintzala bertso zaarrak biltzen asiko, kanta-paper saltzaille eta erosle oiek larunbatetan ikusi ez banitu, eguerdian ikastetxetik etxerako bidean ninjoala.

Zenbat bertso-paper saldu ote dira Tolosako Zerkausian? Eta zenbat bertso-sail? Eundaka, gutxienez; millaka agian. Baiña erdiak baiño geiago betiko galduak, gizon ikasien zabarkeriz edo arrokeriz.

Bost urte geroago, Gipuzkoako Foru Aldundiari egin zion tolosarrak bere artxiboaren dohaintza. Foru Aldundiaren egoitzan, 2005eko azaroaren 11n sinatu zuten dokumentua Antoniok berak, jesuiten probintzial Juan Migel Arregik eta diputatu nagusi Joxe Joan Gonzalez de Txabarrik. Ekitaldi xume bezain esanguratsua izan zen, diputatu nagusiak azaldu zuenez³⁶:

Ongi etorri, ekitaldi xume bezain esanguratsu honetara. Ekitaldi xumea izatea nahi genuke, Antonio Zavalak

³⁶ Gipuzkoako Foru Aldundia, 2005.

hala nahita. Izan daiteke, ordea, xumea eta aldi berean esanahi handiz betea ere; halaxe den bezala.

Azken batean, dokumentu bat sinatzera bildu gara. Dokumentu honen bidez, Antonio Zavalak –eta Jesusen Lagundiak– Gipuzkoako Aldundiari ematen diote Antonio berrogeita hamabi urtean bilduz eta osatuz joan den bilduma ezin baliotsuagoa, eta Gipuzkoako Aldundi honek bilduma ahalik eta ongien zaintzeko eta herritarren eskueran ahalik eta egokien uzteko erantzukizuna hartzen du bere gain.

Juan Migel Arregik egoki azaldu zuen Antonio Zavalaren nahia: herriarengandik jaso zuela artxiboan bildua eta herriaren eskuetan utzi nahi zuela.

Pozik zen egun hartan Zavala. Urteak zeramatzan artxiboa toki egokian utzi nahian, baina behin eta berriro azaltzen zitzaizkion oztopoak. Azkenean, lortua zuen nahi zuena. Pozik handiena, dena den, berrogeita hamabi urtean eginda-koak emango zion.

Diputatu nagusiak hitz bat jo zuen begiz Zavalaren izaera eta lana erretratatzeko: *jenioa*. Eta Ortega y Gasseten bi pasarte baliatu zituen, hitz horren esanahia xehatuz, Antonioren handitasuna azpimarratzeko.

Hauxe da lehenengoa³⁷:

Es sobremanera insólito que el individuo invente la ocupación a que va a dedicar su vida. [...] Genio significa –y consiste en realidad justamente en eso–: ser capaz de inventar la propia ocupación. Pero lo normal es que el individuo escoja alguna de las formas genéricas de existencia que el contorno social tiene preparadas y que llamamos oficios, profesiones, carreras.

³⁷ Ortega y Gasset, 1984: 14.

Hitz horiek entzunez, irribarre egiten zuen Antoniok. Agian, Ortegaren beste pasarteren batzuk etorriko zitzaizkion gogora. Irakurria baitzuen Ortega. Gogokoa baitzuen saiakerak irakurtzea. Edo, agian, “neti, neti” esaten ariko zen bere baitan.

Hiru urte eta pare bat hilabete geroago hil zen. Lanean harrrapatu zuen herioak. Ezin zitekeen bestela izan. Ordurako, haren artxiboaren zati bat Koldo Mitxelena Kulturunean zen, Xabierretik ekarrita. Berehala izango zen gainerakoa ere.

Zauria

Nosotros, los estudiosos, para eso, para hacernos estudiosos, sorbimos en otras fuentes durante años enteros.

Todo bersolari, por el contrario, es un triunfo de su alma vasca sobre la maraña de instigaciones adversas. Quizás fuimos compañeros de juegos en la infancia, pero llegó una hora en que nos separaron caminos que a nosotros nos vaciaron el alma y a ellos se la colmaron.

Antonio Zavala

Zerk jarri zuen abian Antonio Zavalaren obra? Non ditu Auspoak sustraiak? Non du hasiera? Galdera horiei erantzun nahi lieke bigarren atal honek. Horiei erantzutea lortzen dugun neurrian, bideratua izango dugu saiakeraren galdera nagusiaren erantzuna. Ikusten hasiak izango gara zertan arituzen tolosarra hainbat eta hainbat urtetan.

Ilunak eta lausoak izan ohi dira hasierak. Iragan lanbrotsuan galtzen zaizkigu haien oroitzapenak. Inor ez da bere jaiotzaz gogoratzen, baina ezta hainbat ibilbideren hasieraz ere. Askotan, izpiak eta printzak bilduz eraiki ohi dugu iraganaren kontakizuna, eta oso zail egiten zaigu hasiera atzematea.

Zavalak irudiak baliatu zituen hasieraren berri emateko: izarra, haizea, hari-muturra... Adibidez, honela mintzatu zen 1999ko azaroaren 17an, Deustuko Unibertsitateak *Honoris causa* doktore izendatu zuenean, ekitaldiko hitzaldian³⁸:

³⁸ Zavala, 2006: 26. Hitzaldia, lehen-lehenik, Deustuko Unibertsitateak argitaratu zuen (Zavala, 2000a). Gerokoa da Zavalak berak argitaratua. Alde oso txikiak daude bi bertsioren artean. Hemen, dena den, Zavalarena baliatuko dugu.

Ni, egun batez, ez dakit zein aizek bultzatuta, edo zein izarrek argi eginda, etxetik atera nintzan, begiak zabal eta belarriak erne, eta nere gogoko pitxiak eskuratzen asi nintzan.

Izarra, haizea... Halako kutsu magiko eta mitikoa darie hitz eta irudi horiei. Berehala ekartzen dizkigute gogora Bibliako pasarte batzuk. Testamentu Berrian, halatsu kontatzen da Espiritu Santuaren etorrera: haize-boladarena bezalako burrunba bat jaitsi zela zerutik eta suzko mihiak bezalako batzuk kokatu zirela apostoluen gainean. Ebanjelioan, izar batek gidatuta azaltzen dira Jerusalemene sortaldeko jakintsuak galdezka non zen juduen errege jaioberria. Hitz egiteko modu bat da, zerbait azal ezina azaltzeko modua.

Zavalak, biharamunean, hirugarren metafora bat ere erabili zuen, Deustuko ikasleen aurrean: hari-muturrarena³⁹.

Bein baiño geiagotan esan izan det ni egunen batean ari-mutur bat ikusi zuan gizona naizela, eta artatik tiraka asi zala, eta berak uste zuan baiño mataza aundiagoa atera zitzaiola. Baiña gaur ere artan jarraitzen det: tiraka, alegia, eta aria atera eta atera ari zait, azken muturra azaldu gabe.

Baina, irudiak irudi, hasieraren berri zehatzagoa ere eman zigun⁴⁰.

Askotan esan izan dedana: Tolosa izan ez balitz, ni ez nintzan bertso biltzen asiko. Txikitandik ikusten bainituan nik Tolosan bertso-paper saltzailleak. Eskolapioetatik etxera bazkaltzera ninjoala, bat edo beste an izaten

³⁹ Zavala, 2006: 47. Hitzaldi hau ere, aurrekoa bezala, Deustuko Unibersitateak argitaratu zuen lehenik (Zavala, 2000b). Gerokoa da Zavalarena. Apenas dagoen alderik bi bertsioren artean. Hemen, Zavalarena baliatuko dugu.

⁴⁰ Zavala, 2006: 150.

zan kantari larunbatetan, merkatu-eguna egun orrekin izaten da eta. Bertso-saltzaille auek dira umetan nik ikusi eta urteen buruan bidea erakutsi zidatenak.

Dena den, lehen-lehenengo hasieraz mintzo dira azken hitz hauek: herri-literaturaz bizi izandako hasiera-hasierako esperientziaz.

Bada, ordea, Zavalaren bizitzan beste hasiera bat, lehen-lehenengo hura bezain garrantzizkoa: atal honen buru-buruko hitzek adierazten dutena.

Zavalak, pasarte horretan, ikasketa arrotzen eragin gaizto bezain erabakigarria salatzen du. Erabakigarriak ez ezik, ebakitzaileak ere izan ziren harentzat ikasketak, nonbait. Hala-ko ebaki mingarria eragin zioten, halako zauri sakona. Ia-ia hausturaz eta etenaz ere hitz egin genezake. Halakoa izan zen ebakia.

Hala ere, tolosarraren idatzietan ez dugu aurkituko horrelako beste testigantzarik. Ez horren gordinik, behintzat. Arrastoak eta aztarnak, bai, leitmotiv bat bezala azalduko zaizkigu haren testuetan, hauek tentuz irakurriz gero. Halakoa izan zen ikasketek eragindako zauria: inoiz erabat ixten ez den horietakoa.

Horregatik, merezi du poliki aztertzea Arantzazuko hitzaldian jaulkitako pasarte bakan hori. Hala egiten saiatuko gara atal honetako lehen kapituluan. Nire ustez, hor dago Zavalaren obra osoa ulertzeko giltza. Hortxe aipatutako zauria izan zuen, aldi berean, bizitzan zauri mingarri, egitasmoa zirriborratzean abiapuntu eta lanean etengabeko ezten eragingarri.

Hurrengo kapituluan ere argigarria gertatuko zaigu Arantzazuko hitzaldia. Zauriaren ispilua izan zen Zavalaren egitasmoa. Osorik mintzen zuen zauriak, osorik hartuko zuen egitasmo bikoitzak: gorputz eta arima, ekintza eta gogoeta. Egitasmo bikoitz horren berri eman zuen Arantzazuko hitzaldi programatikoan.

2. Zauria ezten

Zauri sakon bat dago, nire ustea zuzena bada, Antonio Zavalaren lanaren abiapuntuan. Zauri horrek bultzatu zuen bere gain hartzera Auspoa bezalako lan erraldoia. Hark eraginda hasi zen lanean.

Testigantza beroa bezain gordina utzi zigun zauriaz, 1956an, Arantzazuko hitzaldian. Testigantza abiapuntu hartuta sakonduko dugu ondoren zauriaren izaeran.

Testigantza

Arantzazuko hitzaldian, su bizia darie hogeita zortzi urteko Zavalaren hitzei. Egitasmo liluragarrian murgildu berri denaren distira dute haren esanek. Lehen jendarteko hitzaldia du eta, era berean, hitzaldi programatikoa. Hantxe azaltzen du zer egitasmo darabilen esku artean, eta xehe-xehe ematen du lanaren berri.

Gaur, hirurogei urte geroago, balio eskergaitza dute haren hitzek.

Hain zuzen, Arantzazuko hitzaldiaren pasarte soildu bat darama bigarren atal honek buru-buruan. Pasarte horretan dago, berriro esanda, Antonio Zavalaren obra osoa ulertzeko giltza, nahiz eta oharkabean pasa dakigukeen azaleko irakurraldi azkar batean.

Hona hemen pasarte, orain osorik, luze samarra bada ere⁴¹:

⁴¹ Zavala, 1996a: 34. Arantzazuko hitzaldia *Euskera* aldizkarian plazaratu zen lehenengoz (Zavala, 1956). Berrogei urte geroago, *Auspoaren auspoa I* liburuan jaso zuen Zavalak, ohar jakingarri batzuk erantsiz. Saiakera honetan, bigarren bertsio hau erabiliko dugu.

Nosotros, los estudiosos, para eso, para hacernos estudiosos, sorbimos en otras fuentes durante años enteros. Es una de las más fatales quiebras del vascuence, que toda cultura que se ingiera ha de ser forzosamente extraña y desviadora. Y, sin advertirlo, acabamos con otro contenido que no el puramente vasco en nuestra alma. Es entonces cuando iniciamos un período de reincorporación, a costa de una lucha y vencimiento casi ascéticos.

Todo bersolari, por el contrario, es un triunfo de su alma vasca sobre la maraña de instigaciones adversas, e incluso un predilecto del euskera aun entre el pueblo humilde de donde emergió. Quizás fuimos compañeros de juegos en la infancia, pero llegó una hora en que nos separaron caminos que a nosotros nos vaciaron el alma y a ellos se la colmaron.

Merezi du pasartea astiro irakurtzea. Karga biografiko handia baitu, Zavalaren pasarterik esanguratsuenek duten bezala. Oraingo, hiru esalditan ipiniko dugu arreta, azkenekotik hasita.

Quizás fuimos compañeros de juegos en la infancia, pero llegó una hora en que nos separaron caminos que a nosotros nos vaciaron el alma y a ellos se la colmaron.

Antionioren barru-barrutik sortutako antsia da, bihotz urratuari darion intziria. Hasperenka jaulkitako hitzak.

Uste baino karga handiagoa izan dezake *camino*s horrek. Antoniok bide bat hartu zuen, jesuita izatera eramango zuena. Eta horra non ohartzen den, bide horretan gaztetako urterik onenak eman ondoren, dena ez dela irabazia izan. Are okerrago: hartutako bideak galbidera eraman duela, arima erabat husteraino. Bitartean, berriz, hara non sumatzen dituen arima gainezka zein eta umetan, mutikotan eta gazte-txotan jolas-lagun izan zituenak.

Hitz gogorrek dira. Garratzak. Berehala itzuliko gara puntu honetara.

Hitzaldian, esan ere esaten du zergatik galdu zen bidean eta hustu zitzaion arima.

Nosotros, los estudiosos, para eso, para hacernos estudiosos, sorbimos en otras fuentes durante años enteros.

Hainbat urtetako ikasketak iturri arrotzetan edanez egin izanak hondamendira eramanez behar derrigorrean eta ezinbestez, norbere arimaz beste egiteraino. Ikasketen mizto hilgarria. Berehala itzuliko gara hona ere.

Ondorioez mintzo da hirugarren esaldia. Zer-nolako lanak eta ahaleginak egin behar izaten ditugun, gertatutako triskantzaz ohartu eta arima bere onera ekarri beharrez.

Es entonces cuando iniciamos un período de reincorporación, a costa de una lucha y vencimiento casi ascéticos.

Borroka eta ahalegin ia aszetikoak. Ondo bereak ditu literatura aszetikoak *lucha* eta *vencimiento* horiek, ondo bereak dituenek. Dena den, gizaki bat ez da horrelako bide neketsuetan sartzen, ez bada motibazio handi batek eraginda. Bide horretan irauteko, berriz, motibazio iraunkorra behar, etengabe eragingo diona. Antonioren kasuan, paradisu galdua berreskuratzeko ametsa.

Paradisu galdua

Antonio Zavalaren ume, mutiko eta gaztetxotako paradisu-eremua ez zen oso handia izan. Tolosan zuen erdigunea, eta Tolosako erdigunean bihotza, Santa Maria plazan, 2. zenbakian, jaiotetxean. Handik metro gutxitara zegoen eta dago

Zerkausi, asteroko merkatua egiten deneko eraikina. Tolosatik hamar bat kilometrora dago, berriz, Adunako herrixka; hantxe pasatu zituen Antoniok mutiko eta gatzetxotan hainbat uda zoragarri.

Eremu txiki horretatik apenas irten zen Antonio. Gehienetan, Donostiara joateko, zazpi urte zituen hartan bezala, aitak estropadak ikustera eraman baitzuen iraileko igande batean, beste anaia batekin⁴². Hamabost urte bete zituen arte ez zen Gipuzkoatik irten, Iruñea baino harantzago joateko⁴³.

Eremu txiki horretan bizi izan zituen, beraz, bizitza osoa markatu zioten esperientzia xume bezain liluragarriak. Bizi izan zituenean ez zen asko ohartuko noraino ari zitzaizkion barneratzen, eta banaka hartuta ez ziren izango hain zirrargarriak ere. Baina, apurka-apurka, mutiko haren barrua bete eta moldatuz joango ziren.

Une batean, ordea, atzean uzten du paradisu hura. Hamazazpi urterekin, 1945ean, Tolosari eta Adunari agur esanda, Loiolara doa, jesuita-ikasketak egitera. Erabaki erabakigarria, bizitza bitan banatu ziona. Loiolako horma handi haien barruan, bestelako giroa aurkitu zuen. Aldaketa handia izan zen harentzat, nahiz eta horrenbeste kilometroko ez egon Tolosa eta Azpeitia artean. Gero, ikusi dugunez, Loiolan bi urteko nobiziatua burutu ondoren (1945-1947), urtebete egin zuen Urduñan junior (1947-1948), beste bi urte Loiolan junior (1948-1950) eta hiru gehiago Oñan filosofia-ikasketak egiten (1950-1953).

Antonio ez zen gaizki hitz egin zalea, baina oso gutxi zuen zuritik. Behar zenean, kritikiko –oso kritikiko– ageri ohi zen, gizalegea galdu gabe. Eta, bere formazio-garaiko giroaz mintzo zela, “hura antinaturala zen” aitortu zigun behin edo behin. Eta ikasketez ere ez zen gozoago aritzen.

⁴² Zavala, 2003: 14.

⁴³ Zavala, 1996b: 247.

Orain, agian, esanahi beteagoa sumatuko dugu arestian aipatutako hitz erdiragarrietan:

Quizás fuimos compañeros de juegos en la infancia, pero llegó una hora en que nos separaron caminos que a nosotros nos vaciaron el alma y a ellos se la colmaron.

Antoniok, une jakin batean, beste bide bat aukeratu zuen. Bide berri horretan sartu ahala eta ahalean, atzean geldituz joan zitzaion umetako, mutikotako eta gaztetxotako paradisu; gero eta urrunago jolasetako lagunak.

Hala ere, ez ditu inoiz ahaztuko bizipen oso eta gozo haiek. Haien oihartzuna aurkituko du han eta hemen.

Lehen kapituluan jaso dugu testigantza⁴⁴.

Amazazpi urterekin joan nintzan jesuita, bai. Leenen-go Loiolara. An inguruko auzoetara joaten giñan ostegunetan dotriña erakustera. Neri Urrestillara tokatu zitzaidan. Gustora joaten nintzan. Nere aldean askoz obeto itzegiten zuten euskeraz ango neska-mutillak, ni baiño gazteagoak izan arren. Mendira ere joaten giñan. Eta ango baserritar-jendearekin itzezin ere bai...

Eta ondoren⁴⁵:

Euskal giro ori arnastu egiten zenduan; eta artarako sentsibilitatea izan ezker, zure barrenean bere kutsua uzten zizun. Neri beintzat orixe gertatu zitzaidan Loiolan pasa nituan urteetan: joan berrian bi, eta gero beste bi, tartean Urduñan pasa nuan urtea zala.

Urduñan, berriz⁴⁶:

⁴⁴ Zavala, 2006: 152.

⁴⁵ Zavala, 2006: 152.

⁴⁶ Zavala, 2006: 152-153.

Urduñan ere berdin. Opor-egun guzietan mendira. Eta topo egiten genduan jendearekin itzein. Erderaz, ordea. An iru probintzitan ibiltzen giñan: Bizkaia, Araba eta Burgos.

Antzekoa dio, Oñako hiru urteak gogoan⁴⁷:

Ondoren, 1950-an, Burgosko iparraldean dagoan Oña errira. An ere berdin: alde batetik estudioak; bestetik, gure ibillaldiak ara eta onera. Ikusgarria da lurralde ori ere: La Bureba, Tobalina, Caderechas, Valdivielso, Obarenes mendiak... Nun-nai gazteluren bat edo eliz erromanikoren bat... Eta jende jatorra. Bueno, egia esan, nik lurralde guzietan arkitu det jende ona eta gauza asko erakusten dizuna.

Erraza da pasarte horietan Antonioren ume, mutiko eta gaztetxotako paradisuaren oihartzuna atzematzen.

Hala ere, nobizio-garaian, jesuita hezitzaileetako baten –zuzendariaren?– hitz zorrotzak entzun behar izan zituen, betiko gogoan gelditzeko moduan. “Apego desmedido al monte” aurpegiratu omen zion. Hori kontatu zigunean, hala erantsi zuen: “Nolabait atera behar hamazortzi urteko gazteak bere bizitasun hura! Izan ere, hura giro antinaturala zen”.

Beste batean, nobizio-garaian berriro, formazio-arduradunen batek alferra zela esan omen zion, gaztelaniaz: “pere-zoso”. Hartaz oroitzean irribarre egin eta erantsi zuen: “Gero, bai, historiarekin-eta topo egin nuenean...”. Orduan galdu, nonbait, nagikeria guztiak.

Azaleko kontuak dirudite. Pasadizo hutsak. Baina hala-koetan egon ohi da kontu sakonagoak ulertzeko giltza. Giro horren baitan ulertu behar dugu ikasketen eraginena ere.

⁴⁷ Zavala, 2006: 153.

Kultura arrotzak eragindako zauria

Antonio Zavala, Arantzazun, formazio-garaiko giroaz eta bere barruko zauriaz ez baina, ikasketez aritu zen, arestian ikusi dugunez.

Nosotros, los estudiosos, para eso, para hacernos estudiosos, sorbimos en otras fuentes durante años enteros.

Ikasketa horietan, pisu berezia izan zuten Oñako filosofia-ikasketek. Hango hiru urteetan osatu zuen lehen formazio-aldia. Baina ez zen soilik filosofia ikastea izan. Ikasketek bezalako garrantzia izango zuen, gutxienez, hango giroak; eta giroan zegoen, besteak beste, euskal kulturarekiko kezka. Adibidez, urte horietan plazaratu zen Orixeren *Euskaldunak*; eta badakigu, Antonio Pérezen aitorenari esker, zer-nolako harrera beroa egin zion hango zenbait jesuitak; ez, ordea, Zavalak. Arrotza irizten, nonbait.

Dena den, ikasketa haiek ez zioten oroitzen onik utzi. Honela jarraitu zuen Arantzazun:

Es una de las más fatales quiebras del vascuence, que toda cultura que se ingiera ha de ser forzosamente extraña y desviadora. Y, sin advertirlo, acabamos con otro contenido que no el puramente vasco en nuestra alma. Es entonces cuando iniciamos un período de reincorporación, a costa de una lucha y vencimiento casi ascéticos.

Argi dago hitz zorrotz horien esanahia: zer-nolako urradura eragiten dion erdal kulturak euskarari eta zer-nolako ondorioa duen kultur urradura horrek euskaldunon ariman. Horrela ulertuko zuten, noski, Arantzazuko entzule haiek.

Hala ere, hitz horiek adierazten duten baino kultur urradura zabalagoa eta orokorragoa sumatzen zuen Zavala gazteak bere baitan eta inguruan. Arantzazukoa ez zen momen-

tua horretaz jarduteko. Orduan nahikoak zituen hitz horiek bere egitasmoaren berri emateko. Gero gerokoak.

Filosofia-ikasketak hizpide, behin baino gehiagotan entzun genion bi pisu edo planoena ere. Batetik, goi-mailako ikasketak, jakintsu-ustekoenak, kontu abstraktuez mintzo zirenak; bestetik, behe-mailako ikasketak, abstrakzioa maite ez zutenenak, kontu zehatzak eta lurtarrak langai. Oso mingarria zitzaion bereizketa. Goi-mailako ikasketak saritzen baitzituen, eta behe-mailakoak gaitzesten, eta Zavala behe-mailakoen zalea izaki, izaeraz eta estiloz. Gogora ditzagun Antonio Pérezen hitzak: “[Antton] no presentaba las cosas como casos particulares de conceptos generales desconcretizadores, sino limpias, y con el nombre justo de su naciente frescura”. Barruraino sartua zuen bereizketaren arantza.

Ikasketak ez dira ikasketa huts; kultura eta estilo baten ezartzea bideratzen dute. Salaketa horixe egin zuen Zavalak Arantzazun. Izena ere ipini zion ikasketaz barneratutako kulturari: kultura arrotza. Horretaz zen kexu.

Bertan bilduek ez zekiten guk gaur badakiguna: bi aldiz eskaini zuela Antoniok bere burua misiolari bidal zezaten Indiarra. Izan ere, 1949an, hasi ziren Loiolako eta Gujateko probintzietako jesuiten arteko harreman oparoak. Eta Antonio prest azaldu zen hara joateko. Han ere buru-belarri murgilduko zen, eta bertako herri-literatura bildu, aztertu eta argitaratzeari ekingo zion, seguruenik, berak aitortu zuenez. Gogora dezagun pasartea⁴⁸.

Baiezkoa eman izan balidate, an ere bertsolariak bai omen dira, bat-batean bertsotan egiten dutenak, eta aien emaitzak biltzen, aztertzen eta argitaratzen aaleginduko nintzan, emengo bertsoekin egin dedan bezela.

⁴⁸ “Zavala, 2006: 157.

Antoniorentzat herri-literaturak bazuen xarma bereziren bat, Euskal Herrikoa izan, Gaztelakoa, Nafarroako erdal alderdikoa edo Aragoikoa izan. Edo Indiakoa izan. Hemengoek eta gertukoek bazuten xarma hori. Eta Indiakoak ere izango zuten; handiagoa, agian.

Galdutako paradisia zen Antoniorentzat herri-literatura. Eta paradisu haren oihartzunaren bila ibili zen formazio-urteetan, eta paradisu hura aurkituko zukeen Indiara joan izan balitz ere, Oñako liburutegian bezala.

Zer aurkituko hango apaletan eta Pedro Mari Otañoren *Alkar* liburua. Zer-nolako hasperena irteten zaion Antoniori, paradisu-miraz, aldi berean galduaren mina eta berraurkituaren poza darizkiola⁴⁹.

Irakurtzen asi eta nere gozamina! Uraxe zala euskera eta aiek bertsoak! Denbora berean, ura zan, gorputzez Gaztelako txoko batean nengoala, buruaren barruan Zizurkil eta Adunako parajeak bertan banengo bezela bizi-bizi ikustea!

Berehala egin zien etxekoei eskaria: Tolosako Zerkausira bertso-saltzailerren bat agertzen bazen, paper bat erosi eta bidaltzeko faborez. Hala hasi omen zen bertso-paperak biltzen, nahiz eta benetako bilketari Xabierren ekin, 1954ko urtarrilean erabaki sendoa hartu ondoren. Gero, berrogeita hamabost urte luze eta oparo emango zituen buru-belarri lanean, ume, mutiko eta gaztetxotako paradisu-minez, gaztetako zauria ezten eta bere egitasmoa garatuz.

Es entonces cuando iniciamos un período de reincorporación, a costa de una lucha y vencimiento casi ascéticos.

⁴⁹ Zavala, 1993a: 13.

Behin, ikasketez ari ginela, beste hau ere jaulki zigun: “Pena da bokazioa eta ikasketak nahastu izana eta ikaske- ta jakin batzuekin lotu izana jesuita-bokazioa. Zergatik egin behar izan genituen, nahitaez, filosofia-ikasketak? Ni ikara- garri aspertzen nintzen filosofia ikasten. Hura abstraktuegia zen. Baina historia ikasi behar zenean... Hura zen nirea. Hura konkretua zen”.

Oñan bertan entzun zuen jesuita irakasle batek liburu- tegian ikusi eta esan omen ziona: “¡buen ratón de biblioteca serías tú!”. Antoniok barre gozoaz gogoratzen zituen hitz ho- riek. Oroitzapen horien harira, idatzi zuen⁵⁰:

Nere txolarteetan istoria pixka bat ere ikasten asi nin- tzan; eta ia-ia bide ortan sartu ere bai. Artara ezker- o, bertso zaarrak biltzea beste batentzat geldituko zan.

Nolabait irten beharra zuen ataka hartatik. Azkenean, za- lantzak zalantza, bertsopaperak biltzen hasi zen. Haiek bil- duz hasiko zen kultur urradura sendatzen.

⁵⁰ Zavala, 2006: 153.

3. Egitasmo bikoitza

Zauriaren ondorengo eta ondorio da Antonio Zavalaren egitasmoa. Eta, halakoa izaki, bitala besterik ezin zitekeen izan. Egitasmoak haren barru-barruan zituen sustraiak, eta oso-osorik hartzen zuen, zauriak bezain sakon: gorputz, arima eta espiritu. Egitasmo hari emana bizi zen buru-belarri eta hura garatu zuen berrogeita hamabost urtean zehar.

Ez dirudi oso zentzuzko halako egitasmoari zer eta xede eruditu bat egozteak edota balio instrumental azalekotzat jotzeak. Baina bi aukera hauek ere aztertuko ditugu. Bestetarako ez bada, ohartzeko zertan ez zen aritu Zavala hainbat urtetan, zuzenean behintzat.

Herri-literatura, erudiziorako balio?

Zenbait kultur gizon eta emakumek erudizio-lurraldetzat dute jakintza eta kultura. Eskoletan ere ohikoa izan da ikuspegi hori. Jakite aldera ikasten dira gauzak. Jakintza pilatzeko ikasten da, jakintza edukitzeko. Zenbat eta gehiago ikasi, orduan eta ikasiago. Zenbat eta gehiago jakin, orduan eta jantziago eta jakintsuago. Jakintza eskuratzea eta pilatzea da kontua.

Herri-literaturara ere hurbil gaitzke ikuspegi horrekin. Arlo bitxi edo jakingarritzat jo eta arlo horretako datuak biltzen, ikertzen eta eskuratzen hasi. Eta zenbat eta gehiago, orduan eta hobeto.

Zavalaz ari garela, erabat baztertzen dugu lehen aukera hau. Asko landu zuen herri-literatura, baina ez jakite aldera. Jakintza handia eskuratu zuen eta obra izugarria utzi zuen gure esku, baina ez besterik gabe jakinduria entziklopedikoa eskuratzeko edo liburutegiak, berea eta besterenak, liburuz betetzeko.

Hori baino balio handiagoa ikusten eta atzeman zuen herri-literaturan.

Herri-literatura, bitarteko?

Baina Zavalak ez ote zuen erabili herri-literatura beste zerbairen zerbitzuan, beste zerbairetarako balio izango ziolakoan, beste zerbairen lortzeko bitarteko edo plataforma moduan?

Badakigu herri-literaturak berak ukitu eta hunkitu zuela haren barrua. Horrek eragin ziola hasieratik, horrek mugiarazi gero eta gogo handiagoz, bizitza osoan zehar. Alabaina, bazekien herri-literaturak balio handia zuela beste zenbait arlotan eragiteko ere, nahiz eta ez zegoen prest ezein helburren zerbitzutan erabiltzeko.

Gutxienez hiru izan zitezkeen Zavalaren ekimenaren eta jardunaren onuradun. Ondorengo xede hauetarako egin zezakeen lan.

Jesusen Konpainiaren plan estrategiko baten baitan

Duela urte dezente, euskal kultur gizon ezagun bati entzun nion esaten, Auspoa hizpide, ondo ezagutzen zituela jesuitak eta kontuz ibili behar dela horiekin. Artistak direla –jarraitu zuen umorez– Konpainiako jendea leku estrategikoetan kokatzen. Urrutira joan gabe, lortua zutela Euskaltzaindian bi jesulagun kokatzea, Antonio Zavala eta Patxi Altuna, eta ez litzatekeela harrizkoa izango plan ezkuturaren baten ari-zea Zavala ere.

Ez dakit euskal kultur gizon hark zer neurritan ezagutzen zituen jesuitak eta Konpainia. Hasteko, ez zekien –nik ere ez orduan– jesuitek Antonioren ez ziotela argitaratu nahi izan bertsoei buruzko lehen lan handi hura, eta bere editorial propioa sortu behar izan zuela tolosarrak. Dena den, ez zuen Antonio asko ezagutzen. Hura besteen plan estrategikoren baten mende? Ez zatekeen Antonio izango.

Euskararen zerbitzura

Bigarren hipotesia hau ez da horren burugabea. Herri-literatura zergatik ez erabili euskararen zerbitzura?

Nolabait, aukera hori ikusi zuen Euskaltzaindiak, 1956an. Akademia batzar bat egitera doa Arantzazun, gerraondoan jendaurrean egingo duen lehena, eta han parte hartzera deituko diote Zavala gazteari. Jakin baitute zertan ari den Xabierren, eta ondo etorriko zaie haren egitasmoa lau haizetara zabaltzea.

Halaxe egin zuen Antoniok, 1956ko irailaren 15ean, hitzaldi sutsu hartan. Gordin samar ere aritu zen zenbait momentutan. Trantze ezin larriagoan ikusten baitzituen euskara eta bertsolaritza –“euskera y bersolarismo corren ya el mismo trance mortal”–. Amaitu, berriz, honela amaitu zuen⁵¹:

Nos toca a nosotros, más que conjeturar, trabajar por salvar el euskera. Pero si muriese, y con él nuestro pueblo vasco, quedará en esta recopilación [bera orduan prestatzen ari zen bilduman], milagrosamente conservado, el depósito de sus deseos, penas, odios, alegrías, tristezas, defectos, virtudes, amores y rezos; y, juntamente con ellos, pueblo e idioma habrán conseguido su más exacta y tenaz perduración.

Ez dakigu nola hartuko zituzten hitz hauek Arantzazun bildu zirenek. Hil-kanpaien hotsarekin geldituko zen norbait. Kanpaiak kanpai, sua zerion hogeita zortzi urteko gazte hari. Su etsia bai, baina kartsutasunetik gehiago zuena etsipenetik baino. Badirudi, gainera, garraren sorburua ez dagoela gaztearen suhartasunean, ezta prestatzen ari den bertso-bilduman ere edo lan horren mozkorraldiak eragindako aldi baterako sukarrean.

⁵¹ Zavala, 1996a: 40.

Urrutira begira ikusiko zuten gazte hura, baina hankak lurrean ondo itsatsita zituela. Ez zen alferrik galtzekoa izango haren ekarpena.

Urte batzuk geroago, Koldo Mitxelenak gogotik txalotu zuen Zavalaren ekarpena, bai Auspoa sortu berritan, bai geroago ere⁵². Baina, egun batean, hark *Egan* aldizkarian Auspoako liburuei egindako aipamenak eta goraipamenak gogorarazi nizkionean, honela esan zidan Antoniok, errenteriarraren laudorioak beren onera ekarriz bezala: “Bai. Garbizaleke-riaren aurka atera nintzelako”.

Gero, 1968an, Arantzazun bertan egindako beste biltzar batean, euskara batuaren liskarra piztu zenean, batek baino gehiagok uste izan zuen, Antonioren jokabidea ikusita, euskalkien aldeko apustu bihurtu zuela hasierako egitasmo hura.

Ez ziren horiek Antonioren borrokak, bestelakoak baizik, nahiz eta aipatutako horiek ere kezkatzen zuten. Nola kezkatu, gainera! Hala ere, ez zioten hartutako norabidea galaraziko. Hark berean jarraituko zuen, oinak lurrean eta eskuak etengabeko lanean.

Balio pragmatiko eta instrumental handiko izango dira, bai, gazte hark bildutako bertsoak eta osatutako liburuak. Halakotzat jo dituzte euskal kultur munduko aditu eta gizon-emakumeek. Horren adibide dira, besteak beste, Joakin Berasategik 1994an jasotako testigantzak⁵³. “Euskarak bere tradizioan dakarren altxor aberatsa jaso eta ezagutzeko aukera paregabea” emateko balioko digute (Mari Karmen Garmendia). Neronek ahozkotasuna indarberritzeko “ezinbesteko erreferentzi puntu”

⁵² Hiru lekutan aurki ditzakegu, gaur, Koldo Mitxelenak Auspoako liburuei egindako aipamenak: 1) 1961-1964 bitarteko *Egan* aldizkarietan, 2) Koldo Mitxelenaren *Euskal idazlan guztiak* liburu sortan (Mitxelena, 1988: 52-145) eta 3) beraren *Obras completas* direlakoetan (Michelena, 2011a: 299-558).

⁵³ Berasategi, 1994.

bezala ikusten nituen. Eskerrak Xabier Azurmendik “Euzkadi-ko Poemarik ederrena” gauzatuz ikusten zituen.

Alabaina, urrun begira sumatzen dugu Antonio, bai ho-geita zortzi urte zituela, bai geroago ere: aldi berean, egunero-ko garrasiaren oihartzun eta urrunago begira.

Balio kultural, erlijioso edo transzendentalen zerbitzura

Zavalaren arestiko aipu horrek –“Pero si muriese [el eus-kerak], y con él nuestro pueblo vasco, quedará en esta recopilación, milagrosamente conservado, el depósito de sus deseos, penas, odios, alegrías, tristezas, defectos, virtudes, amores y rezos...”– pentsaraz diezaguke, agian, ez ote zebilen azken batean, eliz gizona eta jesuita izaki, halako balio kultural, er-lijioso edo transzental batzuk salbatu nahian. Ez ote zen ari, gordinago esanda, erlijioa zerbitzatzeko, honen zerbitzura ipinita herri-literatura.

Ezin uka genezake eman dela halakorik eta antzekorik Elizaren historian. Eta oraindik ere gerta daitekeela, eta ger-
tatzeko dela. Ez, ordea, Antonioren kasuan. Eta, are zalantza txikiagoaz, Vatikanoko II. Kontzilioaren ostean.

Dena den, jardun zitekeen, herri-literatura ez baina, eus-
kal kultura edo Euskal Herria berpiztu nahian. Horiei ez ziz-
kien atak ixten. Baina, lehenik eta behin, herri-literatura
zuen hark begiz joa.

Egitasmo bitala

Uste osoz esan dezakegu: egitasmo bital bat garatuz eta gau-
zatuz osatu zuen Zavalak Auspoa bilduma anitza. Haren bar-
ne-muinik minenean zuen sorburua egitasmoak. Zauri sakon
batek eraman zuen lan erraldoi hari ekitera, eta zauri sakon
bera izan zuen etengabeko ezten bizitza osoan. Hain zen sa-
kona zauria, hain erabakigarria, bizitza osoa markatzen duen
horietakoa.

Auspoaren sorburua ez dago Antonioren jakin-min intelektualean, ezta soilik haren sentimenduen munduan edo plazer estetikoenean. Kontuan hartu beharko dira faktore horiek ere, baina betiere pertsona osoaren baitan, Antonioren bizipenik bizienetatik hasita.

Antionioren bizipen eta esperientzia oso pertsonal eta mingarria dago Auspoa egitasmoaren sorburuan. Barne-barneko trauma. Trauma horrek atzera begirarazi zion: ume, mutiko eta gaztetxotako garaietara, bizipen osoak bezain gozoak bizi izan zituen une bete haietara. Zein une liluragarriak haiek! Zein une lazgarriak atzera begira ipini zutenak! Hura paradisu galduaren mira! Eta, mira horrek eraginda, hasiko da lehenik egitasmoa zirriborratzen eta apurka-apurka zehazten, xehatzen eta garatzen, hasierako bizipen haiek berrituz eta zaharberrituz: Tolosako bizipenak eta Adunako udaldiak; Loiolan zegoela, Urrestillako dotrina emateak edo inguruetak base-ritarrekin izandako hizketak⁵⁴...

Bizipen haien baitan, bere lekua izango du hizkuntzak, eta hizkuntza bera ere festa bihurtuko da. Merezi du gogoraztea Oñako bizipena⁵⁵.

Loiolan sartu eta denbora asko igaro zan Otañotarren oroipenik berritu ere gabe. Baina andik zazpi bat urtera, 1952-an, Burgos probintziaren ipar aldeko Oña izeneko errian ikasketak egiten ari giñala, gure euskal liburutegian antxe arkitu nuan *Alkar* izeneko liburu bat. Zer izan-go eta bertsoak. Norenak eta [...] *Pedro Maria Otañoren bertsoak*.

Hala ere, bizipen gozo horrek ere badu bere alde mingarria⁵⁶.

⁵⁴ Zavala, 2006: 152.

⁵⁵ Zavala, 1993a: 12.

⁵⁶ Oñako pasarte adierazgarrian badira hitz esanguratsu batzuk orain propio alboratu ditudanak. Honatx:

Izaera existentzial eta pertsonalak, sustraietatik hasita, oso-osorik kutsatu eta zeharkatuko du Zavalaren egitasmoa. Eta han eta hemen utziko ditu arrastoak eta aztarnak. Baka-rra aipatuko dut.

Antoniok hitz esanguratsu batzuk jaulki zituen Txirritaz, 1963ko maiatzean, *Bosquejo de historia del bersolarismo* izen-pean emandako hitzaldietako batean⁵⁷. Honela mintzatu zen⁵⁸:

Siempre me gusta recoger las opiniones del pueblo, y hace poco oí sobre Txirrita este juicio que, expresado precisamente con humor de bersolari, me pareció exacto.

–Se dice –me dijeron– que Txirrita fue un vago. Todo lo contrario. Fue un gran trabajador en su verdadera profesión, en la de bersolari. Pero como no podía siempre ganarse con ella la vida, tuvo que ejercitar otro oficio, el

... antxe arkitu nuan *Alkar* izeneko liburu bat. Zer izango eta bertsoak. Nore-nak eta *Otaño'tar Pedro M'ren Olerki Onenak*. Nere buruan itzulpena egin eta *Pedro Maria Otaño'ren bertsoak* irakurri nuanean, gusturago gelditu nintzan.

Liburu hark mami gozoa zuen, baina azal gogorra. Barruko euskara gozoa, izan ere, azal gogorrean bildua zuen garbizalaren batek eta, gainera, bertsolariaren izena “jatorrago” ipinia eta *bertsoa* bera ere izen “jantziagoz” bataiatua. Horrek guztiak aztoratu egiten du Antonio. Harik eta itzulpena egin zuen arte. Orduan bai: gusturago gelditu zen.

Ez zen kontu hutsala. Bai Loiolan eta bai Urduñan ere, Antoniok irakurriak zituen euskal liburuak. Ez, ordea, beti gogo onez. Bazegoen haietan zerbait atzera eragiten ziona: garbizalekeria. Hango euskara ez zen etxekoa, ez zen Adunakoa. Baina ezta euskara naturala ere. Berezkotik gutxi zuen euskara garbi hark, eta higuin garri egiten ziztaion.

Gero, bertsoak biltzen hasi zenean, hangoa bai euskara!

Azken batean, osotasun bat eta bera da herri-literatura: literatura, hizkuntza, euskara, ahozkotasuna, testua..., festa, bizipena, esperientzia bizia, bizi-mundua.

⁵⁷ Zavala, 1964a. Lau hitzaldi izan ziren, gero *Auspoaren aupoa I* liburuan berrargitaratu zituenak; Zavala, 1996a: 109-253. Bigarren argitalpen honetakoak dira hemengo aipuak eta orrialdeak.

⁵⁸ Zavala, 1996a: 229.

de cantero, al que recurría lo menos posible para no perjudicar a su principal trabajo, que era al que se debía.

Zer-nolako gozamina darien hitz horie! Zenbat oihartzun, “vago” hitzetik hasita, nobizio-garaiko “perezoso” mingarri hura gogoan! Bide batez, galdera gaizto bat: pasarte horretako zenbat hitz aldatu beharko genituzke, Antoniori berari egokitzeke?

Ondoren, honela jarraitu zuen tolosarrak hitzaldia:

A Txirrita, como a muchos otros bersolaris, se le moteja de arrote. Es que son hombres diferentes, a los que necesitamos ponerles un epíteto peyorativo o ridículo para no quedar nosotros mal. Con lo que se repite el pleito de la vieja fábula de las hormigas y la cigarra, escrita –esto no puede ponerse en duda– por las hormigas con un mezquino y desagradecido espíritu de envidia y venganza hacia aquella cuyos cantos –también esto es innegable– se habían parado a escuchar más de una vez como el mejor solaz en su vida de esclavas.

Pasarte hori baliatu nuen osorik, 1996an, *Auspoaren auspoa* bi lehen liburuen hitzaurrea idaztean⁵⁹. Ondo zetorkidan, izan ere, Zavalaren lan osoa ikuspegi egokitik azaldu ahal izateko eta, bide batez, haren joera eta jarrera erakusteko: Txirrita, txitxarren eta festazaleen aldeko, eta inurri eta festahondatzaileen salatari. Ezin hobeto datorkigu, orain, agerian uzteko haren egitasmoaren izaera bitala.

Egitasmo bikoitza

Baina itzul gaitezen Arantzazuko hitzaldi programatikora. Hantxe azaldu zuen Antoniok zertan ari zen, eta zer asmo zituen. Gogora dezagun hitzaldiaren hasiera; orain, luzeago hartuta.

⁵⁹ Esnal, 1996.

Honelaxe mintzatu zen, erdaraz jarduteagatik barkazioa eskatu ondoren⁶⁰:

Es nuestra intención que la magna edición de *bertso berriyas* que pretendemos vaya precedida de un estudio. El encargo inesperado de preparar esta charla adelantará en agraz ideas y conceptos que sólo entonces [estudioa egin eta argitaratzean, alegia] lograrán la madurez y desarrollos que en nosotros puedan alcanzar. Quiera Dios que la precipitación con que ha sido aparejada no le prive de la única virtud que para ella [hitzaldiarentzat] deseamos: la de bosquejar una idea del estado actual de nuestra recopilación y de las conclusiones a las que podemos ya llegar.

Hitz horien arabera, Arantzazuko entzuleek bazekiten ordurako zertan ari zen jesuita gaztea. Bazekiten bertsopaper bila zebilela eta horien argitalpena prestatzen. Horrexegatik esaten die Zavalak ez zela bilduma soila izango; estudio bat ere joango zela bilduma handi haren sarreran.

Ustekabean harrapatu zuen hitzaldia egin beharrak, eta zalaparta batean prestatu behar izan zuen. Dena den, argi utzi zuen bi alderdi izango zituela bere lanak: bertso-bilduma eta estudioa. Eta zirriboratu ere zituen bi alderdiak.

Baina Antoniori ez zitzaizkion irten gauzak uste bezala. Eta hasieran dena batera atera behar zuen hura, osorik ez baina, puskaka hasi zen plazaratzen: bertso-bilduma, aleka, Auspoa liburu sailean; estudioaren zati nagusi bat, *Bosquejo de la historia del bersolarismo* hitzaldietan.

Hala, egitismo bikoitz bihurtu zen lehen asmo hura: batetik, gerora Auspoa izango zena, egitismoaren aurkia, alderdirik ezagunena; bestetik, gogoetak, egitismoaren ifrentzua, han-hemengo hitzaurre eta hitzaldietan isuriz joan zena eta azkenean *Auspoaren auspoa* obra laukoitzean bildu zuena.

⁶⁰ Zavala, 1996a: 24.

Auspoa

Nere bizitzan, ez ditut liburu asko idatzi, bakarra baizik; ez ditut lan asko egin, bakarra baizik; ez ditut gai asko erabili, bakarra baizik: erria.

Antonio Zavalá

Hirugarren atal honetan, Antonio Zavalaren obra dugu aztergai. Hark plazaratu zuena. Guztira 303 obra izanagatik⁶¹, obra bakartzat jotzen zuen berak. Hala bada, izenburu bat eta bakarra ipin diezaiokegu –Auspoa–, nahiz eta berez izen hau obraren zati bati, zatirik handienari, dagokion.

Auspoa da Zavalaren egitasmo bikoitzaren emaitzarik ezagunen eta agerikoena. Emaitzaren aurkia.

Zavalak *Auspoa* izenez bataiatu zuen 1961ean bere lehen liburu-bilduma⁶²; eta hil artean elikatu zuen, 312 zenbaki osatzeraino. Era berean, *Auspoa* izena jarri zien, hurrenez hurren, 1974an eta 1992an⁶³ sortu zituen beste bi bildumei ere, lehenengoaren adar izaki. Eta *Auspoa* izena –edo horren erdal ordainen bat– izan zezakeen *Biblioteca de Narrativa Popular* gaztelaniazko liburu-bildumak; azken batean, egitasmo beraren kimu baita 1994an jaiotako hura. Eta egitasmo beraren kimu dira, nahiz eta lau bilduma horietatik aparte plazaratu, beste bost liburu ere. Guztira, 303 obra; eta, aldi berean, obra bakarra.

⁶¹ Bosgarren kapituluan ikusiko dugu nola zenbatu ditudan 303 obra horiek eta nola uztartu kopuru hori eta Auspoa bildumakoak (312. zenbaki...).

⁶² Zehatza esanda, *Auspoa Liburutegia* izena ipini zion, eta izen horrekin jarraitzen du oraindik ere.

⁶³ Berez, *Auspoaren Sail Nagusia* izena darama hirugarren bildumak.

Halaber, *Auspoa* zuen izen Zavalaren argialetxeak⁶⁴. Horretan plazaratu zituen lehen bildumako 203 zenbaki -1-192 eta 207-217 bitartekoak-, eta bigarren bildumako sei aleak.

Zauriak Auspoa izan zuen ondorio. Auspoa da tolosarrak zauriari emandako erantzuna. Hitz horrek laburbiltzen du guztia.

Hiru kapitulutan aztertuko dugu, atal honetan. Saiakeraren 4, 5 eta 6.a dira. Lehenean, mugarriz mugarri ikusiko dugu nola joan zen Zavala Auspoa egitasmoa eraikiz. Bigarrenean, ahalik eta gehien zehaztu eta xehatuko dugu Auspoa obra osoa. Eta hirugarrenean, tolosarrak Auspoan utzitako ondarearen balioaz jabetzen saiatuko gara.

⁶⁴ Lehen aldiz, Zavalak 1976an deitu zion *Auspoa* bere argialetxeari. Lehen bildumako 127. alean izan zen: *Editorial Auspoa* dio, 4. orrialdean. Ordu arte, *Colección Auspoa* zioen.

4. Mugarriak

Antonio Zavalak urratsez urrats garatu zuen Auspoa. Urratsez urrats urratu zuen bidea, berrogeita hamabost urtean zehar.

Egitasmo sortzailea izan zen harena: ibilian egindako ibilbidea. Lan eta obra batzuk, erabat argi ez bada ere, argi samar izaten ditu egileak hasieratik buruan. Zehatz samar jakiten du alde aurretik zer ibilbide egingo duen. Bidea ondo markatuta gero ekingo dio ibiltzeari, nahiz eta beti izan aurreikusitakoa zuzentzeko aukera. Ez da Zavalaren kasua. Honi, lanak berak erakutsiko dio nola jardun; egin ahala eta ahalean joango da bidea urratuz. Oso gogokoa zuen izenkide Machadoren "Ibiltari, ez dago biderik..." hura.

Hasieran, bertsopaperak biltzea erabaki zuenean, zirriborroa besterik ez zen haren egitasmoa. Pixkana-pixkana joango da argitu eta zehaztuz. Ibiliak berak erakutsiko dio bidea, eta ibilian doala hartuko ditu erabakiak. Behin eta berriro, distira berriz azalduko zaio bidea, keinu eta keinada; behin eta berriro erasango dio ezustekak.

Gaur, hamahiru mugarri bereiz ditzakegu ibilbide sortzaile bezain luze horretan.

Dagoeneko ezagunak ditugu bi lehenak. Berez, Auspoa sortu aurrekoak dira, hurrengo biak bezala. Beste lau, bilduma banaren sortzeari daude lotuak; eta bi, Zavalaren hitzaldi banari. Ibilbidean zehar, zenbait lagun, idazle edo bertsolari-
ren izenak azaltzen dira –Balentin Zamora, Sebastian Salaberria, Uztapide...–, horiek izandako zerekusiarekin batera. Hamahirugarren mugarriaren ostean, amaitu gabe geratzen da ibilbidea; hala utzi zuen Zavalak bere proiektua.

Mugarrien azalpen ia guztietan, Antonioren hitzak ditugu argigarri. "Atzera begira edo liburu-sail baten gorabeerak" hi-

tzalditik hartuak dira asko, *Honoris causa* doktore izendatu zuten biharamunekoak⁶⁵.

Zavalak, ibilbidean zehar, argitaletxearen arazoari egin behar izan zion aurre, hasieratik beretik. Hain hala, bere argitaletxe propioa sortu behar izan zuen; gero, beste lau ere baliatu zituen. Kapituluaren amaieran, eranskin batek ematen du horien berri.

Xabier (1954)

Hasieran, zalantzaldia izan zen⁶⁶.

Orain, [...] atzera begira jarrita, gauza bat ikusten det oso garbi: une artan oso zalantzan egon zala ni euskal alderdira ala erdal alderdira erortzea. Gure bertso zaa-rrak biltzen asi bearrean, erderazko erri-poesia jasotzen astea alegia. Ondoan nola asmatuko nuan, berriz, orixe da orain garbi ikusten ez dedana.

“Une artan” hori 1950-1953 urteetan kokatu beharko dugu, noski. Are gehiago, kanpora begira ere egon zen; eta, agian, hanka bat kanpoan zuela ere bai; bi aldiz, gainera: bere burua Indiara misiolari joateko eskaini zuenean. Gogora dezagun nola bukatzen duen Antoniok aitordena⁶⁷:

Baiezkoa eman izan balidate, an ere bertsolariak bai omen dira, bat-batean bertsoan egiten dutenak, eta aien emaitzak biltzen, aztertzen eta argitaratzen aaleginduko nintzan, emengo bertsoekin egin dedan bezela. Gizakia- ren bizitzak bide-gurutze asko ditu, eta oietako batean gertatu nintzan ni orduan.

Bidegurutzeak bidegurutze, erabaki nagusia 1954. urtea- ren lehen egunetan hartu zuen Antoniok, noiz eta Azkoitiko

⁶⁵ Zavala, 2006: 47-66. Ikus 39. oin-oharra, 60. orrialdean.

⁶⁶ Zavala, 2006: 49-50.

⁶⁷ Zavala, 2006: 157.

mutiko hark, Gabonetako oporretatik itzultzean, “ekarri ditut” oihu egin zionean, autobuseko leiho batetik etxeko kanta-paperak erakutsiz⁶⁸.

Mutikoak ekarritako bertso-paperak ogei ta bost bat izango ziran. Aiek ziran, bai, nik umetan Tolosako Zerkausian saltzen ikusten nituanak. Besterik gabe, erderaz *regla de tres* esaten dana egin nuan: baserri batean au baldin bada, Euskal Erri guzian zer izango ote da?

Ekin nion, bada, biltzeari. Nundik eta Xabierretik. Bestela ezin eta eskutitzen bidez leenengo. Bertso-kontuan zerbait zekianik nunerebait bazala jakindakoa, berari bereala eskutitza idatzi. Eiztaria orrela ibiltzen da, eskopeta eskue-tan duala, eiza noiz ikusiko, tiroa tiratzeko. Onek tiro utsak asko egiten ditu; nik ere kolpe utsak sarritan jotzen nituan. Baiña noizean bein bertso-paperen batzuk bialtzen zizkidaten. Ura nere orduko poza! Nik nere *regla de tres* artatik atera nuan kontua, zuzen aterata zegoan. Segi, ba, aurrera.

Bide batez: gaur, Joxemari Iriondok plazaratutako elkar-irizketa bikain bati esker, ezaguna dugu zein izan zen azkoi-tiar mutiko hura: Alejandro Larrañaga⁶⁹.

Arantzazuko hitzaldia (1956)

Bi urte eta erdi geroago, oinarri-oinarrizko hitzaldi hura egin zuen Zavalak: “Bertso berri billa Euskalerrian zear (En busca de poesía popular a través del País Vasco)”⁷⁰.

Berriro esanda, Arantzazun izan zen, 1956ko irailaren 15ean, Euskaltzaindiak gerraondoan jendaurrean egindako lehen batzarrean. Lehenengo hitzaldia zuen Antoniok: hitzal-di programatikoa. Gaztelaniaz mintzatu zen; ez baitzioten ga-raiz abisatu euskaraz egiteko.

⁶⁸ Zavala, 2006: 50.

⁶⁹ Iriondo, 2009a.

⁷⁰ Zavala, 1996a: 23-40. Ikus 41. oin-oharra, 63. orrialdean.

“Hace ya dos años que no hago sino leer y copiar *bertso berriyas*”, esan zuen. Aurreraxeago: “Nunca me he detenido a enumerarlas, pero calculo que los materiales recogidos sumarán unas cincuenta mil estrofas [*bertsoak, alegia*]”. Eta gero: “Y debemos pensar que lo archivado es una porción reducida de lo actualmente existente –espero próximamente importantes adquisiciones”.

Hitzaldi hartan dago Antonio Zavalaren egitasmoa; hantxe daude gero egin zuena ulertzeko giltza nagusiak.

Auspoa argitaletxea (1960)

Ustekabeko gertaera batek markatu zuen Antonioren ibilbide guztia. Minez gogoratzen zuen: jesuitek ez zuten beren gain hartu bertsoei buruzko lehen lan handi hura argitaratzea.

Horren ondorioz, bere editoriala sortu behar izan zuen, Tolosan; eta editore bikoitz bihurtu zuen bere burua: editore literario eta enpresa-editore⁷¹.

Langintza ortan *aprendiz* ibili gabe, argitaletxe bati asiera eman genion. Liburugintza, berriz, bai idaztearen aldetik eta bai argitara egoki ateratzeko ere, ez da batere gauza erreza.

Lan zaila bada liburugintza, ez da errazagoa halako enpresako (ia) langile bakarra izatea: berak idatzi liburuak, berak argitaratu, berak banatu, berak saldu...⁷².

Era ortan billatu, bildu, sailkatu, ikertu eta argibidez ornitutako aberastasunak liburuetan banatu, argitaratu eta euskal jendeari eskeintzen asi nintzan. Ori egíñez, titulu berria erantsi nion nere buruari: saltzaillea. Erriz erri ere ibili oi nintzan zenbait urtetan nere ofizio berri ortan, bertsolariak nun kantatu bear zuten, nik ere sal-

⁷¹ Zavala, 2006: 52.

⁷² Zavala, 2006: 26.

gai nuan jeneroa antxe entzuleei eskeiñiz, eta geien-geienetan lotsa ederrak nereganatuz. Baiña ori ere egin bear zan, eta segi aurrera.

Eskerrak, batetik, harpidetzaren formula baliatu zuen liburuak irakurleen eskuetan jartzeko eta, bestetik, diru-kontuak eta abarrak eramateko, arreba Arantxaren laguntza izan zuen.

Argitaletxeak 1992a arte iraungo du bizirik: hogeita hamabi urte.

Euskara erraza (1960)

Bere argitaletxea izateak bi ate zabaldu zizkion Antoniori. Hasteko, besteren liburuak ere atera ahal izango zituen. Horrez gain, erosoago plazara zezakeen bere obra, ez dena batera kolpetik; hartara, denbora ere irabaziko zuen zenbait lan hobeto burutzeko.

Donostian da Antonio 1961ean, jesuiten ikastetxean irakasle. Eskolak eman ondoren, denbora duenean, bertso biltzen jarraituko du. Urrutira joan gabe du zain altxorra: Donostiatik Oriora bitarteko hainbat baserritan.

Aurretik, Igeldon, lagun eгина zuen Balentin Zamora, eta aintzat hartua haren ekarpena⁷³.

Zein urtetan izan zan ez dakit seguru esateko, baiña 1960 urte inguruan Igeldoko Balentin Zamora apaiz jaunarekin adiskide eginda nengoan. Bertsoen batzuk ere eman zizkidala uste det. Zera bat garbi ikusten genduan: Euskal-Erria euskera errezez idatzitako liburuen premian zala. Asiera emango ote genion, beraz, orrelako liburu sorta berri bati? Sorta ori bildutako bertso zaarrak argitaratzeko bidea izan zitekean, prosa-liburuekin tartekatuz.

⁷³ Zavala, 2006: 51.

Osatuz doa Zavalaren hasierako egitasmoa. Bertso zahar-
rak ez ezik, euskara errazez idatzitako liburuak ere argitara-
tuko ditu.

Auspoa bilduma (1961)

Eta Auspoa bilduma –bere lehen bilduma– aletzen hasi zen
Zavala. *Auspoa Liburutegia* izena jarri zion⁷⁴.

Sorta berriari zer izen jarri? Suari eusteko eta gar berriak
atera erazteko izaten dan tresnarena zergatik ez jarri? Orrek
sukaldean egiten duana egin nai genduan guk euskerare-
kin. Ala, *Auspoa* izena jarri genion.

Danen gustokoa izan etzala esan bearrik ez dago. Je-
suita batek, Aita Aranzadi zanak, onela esan zidan:

–Urtetan or jardun gera kurpilotik esku-soiñuari *inper-
nuko auspoa* esanez, orrek dantza lotua ekarri zualako, eta
zuk orain liburu-sorta bati *Auspoa* izena jarri?

Lehen alea 1961ean plazaratu zuen⁷⁵.

Leenengo liburua Ramon Artolaren bertso-bilduma ba-
tekin osatu genduan. Bigarrenkoa, Martzelino Soroaren
iru antzerkirekin. Ori, bi arrazoirengatik. Leenengo, pro-
sa ere bear zalako. Eta, bigarrena, Zamoraren ustez, an-
tzerkia nola edo ala bultzatu bear zalako. Orregatik, noi-
zean bein leengo komeritxo batzuk sartzeaz gain, Piarres
Lartzabal zanaren antzerki batzuk argitaratu genituan.

Hasieran, urtean hamabi ale ateratzeko asmoa izan zuen.
Baina berehala ohartu zen gehiegizkoa zela.

***Bosquejo de la historia del bersolarismo* (1963)**

Beste bizpahiru urte itxaron behar izan zuen Zavalak Aran-
tazuko hitzaldian iragarritako estudio hark.

⁷⁴ Zavala, 2006: 51-52.

⁷⁵ Zavala, 2006: 53.

Lehenik, 1963ko udaberrian, lau hitzalditan aletu zuen estudioa Donostian, EUTG ikastegian. Handik urtebetera plazaratu zen osorik, Auspoan ez baina, Auñamendi bilduman, *Bosquejo de historia del bersolarismo* izenburuz⁷⁶. Hogeita hamabi urte geroago ikusiko du argia Auspoa bilduman, *Auspoaren auspoa I* liburuan⁷⁷.

Obra horrek ezinbesteko erreferentzia izaten jarraitzen du bertsolaritzaren historia ezagutzeko.

Neronek tirako nizkin (1964)

Zavalak aspaldi aurkitua zuen altxorra⁷⁸.

Ni gauza batek arritu nau beti, bai Euskal Errian eta bai emendik kanpo ere: erri-gizon eta emakume asko eta asko zein kontalari onak diran. Makiña bat ordu pasa izan ditut nik, Euskal Erriko mendi eta baserrietan ez-ezik, baita Aragoi, Gaztela, Kantabria eta abarretan, artzai eta nekazari jendearekin izketan. Baiña izketan baino geiago, entzuten eta ikasten, eta bitartean nere buruari onela esanez: "Kontaera auek merezi lukete, ba, papereratzea. Zer literatura ederra egin litekean, aozko *narrativa* au idatziko balitz!".

Bertsopaperen inguruko informazioa biltzen ari zela, kontalari on askorekin egiten zuen topo. Eta haien kontaktak jasoz eta paperera aldatuz ondu zituen lehen urte haietako bi obra nagusi: *Txirrita*⁷⁹ eta *Pello Errotaren bizitza bere alabak kontatua*⁸⁰.

⁷⁶ Zavala, 1964a.

⁷⁷ Zavala, 1996a: 109-281. Ikus 57. oin-oharra, 79. orrialdean.

⁷⁸ Zavala, 1999: 123.

⁷⁹ Zavala, 1962.

⁸⁰ Elicegui, Zavala, 1963.

Bi obra horiek gogoan, honela mintzatu zen Zavala⁸¹:

Pello Errotaren bizitza ori egiteko, magnetofonoaz baliatu nintzan. Tresna ori sukaldeko maaian jarri eta aren alabak –onek larogei ta amairu urte zituan orduan– kontatzen zituanak jaso.

Txirritaren liburua asko gustatu zan. “Orrelako beste libururik ez dezu berriz egingo” esan zidan Manuel Lekuona jauna zanak. Juan Goikoetxea jesuita zanak, berriz, onela: “Pernado Amezketarraren antzeko beste pertsonaje mitiko bat sortu dezu”.

Pello Errotarena gutxixeago txalotu zan orduan. Aren goralpenak egin zituztenak, Gabriel Aresti eta Antonio Valverde izan ziran, leen ere kontatu izan dedanez. Orain, berriz, Pellorena oso aintzat artua dago, aren alde Bernardo Atxagak itzegin zuan ezkeroztik, batez ere.

Beraz, hortxe zegoen altxorra. Eta argi zegoen zer lan egin ere: kontalari onen kontaketak jaso eta paperera aldatu. Baina lan handia zen. Eta, nahiz eta lanak ez zuen Zavala inoiz izutu, beste bide bat ere urratu nahi zuen: kontalari horiek berak idazten jarri⁸².

Liburu oien prosa etzan liburu zaarretatik aterea, guk sortu arazia baizik. Bazan or landu zitekean eta uzta ugaria eman zezakean soroa. Baiña garbizalekeriak artean ere indarra zuan ezker, “guk euskerarik ez daki-gu, gure euskerak ez du ezer balio” eta olako esaerak maiz entzuten nituan bere denbora guzian euskera beste izkuntzarik erabili etzuten baserritarren aotik. Batzuetan, ordea, gure artu-emanetan, eskutitzen bat edo beste idazten zidan erriko jende jator orrek, neri zerbaiten berri eman nai zidatelako eta garbizalekeriaz eta abarrez aaztuta. Eta euskera ori zoragarria zan, neretzat beintzat.

⁸¹ Zavala, 2006: 54-55.

⁸² Zavala, 2006: 55.

Azkenean, 1964an lortuko du ametsa gauzatzea: Sebastian Salaberriaren *Neronek tirako nizkin* eleberria argitaratzen duenean⁸³, Zavalaren beraren hitzaurre batekin, non orduko bere grafia erabiliz dioen⁸⁴:

Gure erriko gizonak olako kontaera asko dute, eta ayek berrituaz denbora-pasa egoten dira askotan lagun-artean eta etxeko sukaldean. Gaya, Salaverria-ri bezela, bizitzak erakusten die, eta kontatzeko abilitade aparta dute askok, Jaungoikoak doai ori emanda.

Oraindañoakoan, paperera gabe aotik aora ibili izan dira kontaera oyek. Salaverria-k, ordea, berea paperera paseaz, euskal literaturaren bide berri bat azaldu du.

Bejondayola, beraz, eta Jaunari nai dakiola, Salaverria-k urratutako bidetik beste asko etortzea aren ondoren.

Zailena egina zegoen: bidea urratua.

Auspoaren bigarren bilduma (1974)

Zavalak 1964an urratua zuen herri-prosaren bidea. Hala ere, beste hamar urte itxaron behar izan zuen beste kontalari batek liburua osa zezan: Uztapidek *Lengo egunak gogoan*⁸⁵.

Liburu horrekin hasten da Auspoaren beste bilduma bat. Bost obrak –sei liburuk– osatzen dute, Xalbadorren *Odolaren mintzoa* arrakastatsua ere tartean. *Sail berdea*⁸⁶ deituko dio Antoniok bildumari, 2004an, *Odolaren mintzoa* hirugarrenez plazaratzean⁸⁷.

⁸³ Salaverria, 1964.

⁸⁴ Zavala, 1964b: 8.

⁸⁵ Uztapide, 1974.

⁸⁶ Bi adjektibo erabiliz deitu ohi da bilduma: berdea (kolore hori dute-eta liburuen azal gogorrek) edo ertaina (liburuen tamainagatik: lehen saileko liburuen baina handiagoa eta Auspoaren Sail Nagusia bilduma-koena baina txikiagoa). Hemen, batik bat, bigarrena erabiliko dugu.

⁸⁷ Zavala, 2006: 247-248.

Ainbat liburu plazaratu ondoren [orduan, 1974an, plazaratu zen Auspoaren lehen bildumaren 120. zenbakia ere], bistan zegoen orduko bertsolariekin liburu ederrikin egin zitekeala. Ala, asmo berria artu genduen Joakin Berasategi adiskideak eta beste zenbait lagunek: liburu aundi-dotore batzuk argitaratu ematea, bertsolari onenen emaitzekin.

Auspoa-ren sail berdearen liburuak orrela etorri ziran: Uztapideren autobiografia, *Lengo egunak gogoan*, prosazkoa bi tomo edo aletan, eta *Sasoia joan da gero* bertso-liburua. Manuel Lasarteren *Gordean neuzkanak* bertso-liburua; Jose Ramon Erauskin Txirritaren illobaren *Aien garaia*, prosazkoa. Eta seigarrena, Xalbadarren bertso-liburua.

Ia ogei ta amar urte dira sail berde ori atera zala; eta orain, urteek ematen duten ikuspegiarekin, zera ikusten det: liburu aiek bi bide berri zabaldu zizkiotela gure erri-literaturari.

Batetik, *Odolaren mintzoa*-k bertsoa eta olerkia elkarrekin besotik elduta ibil ditezkeela erakutsi zuan. Leen bagenekien ori, baiña ukatzen zuanik ere bazan artean, eta liburu orrek denak ixil arazi zituela uste det. Gai ontaz aunitz itzezin diteke, baiña goazen aurrera.

Bestetik, Uztapideren autobiografiak bide berria ireki zion erri-prosari. Prosa onek, leendik zetorrena izanik ere, indar berria artu zuan orduan liburuetan. Ortarako asko lagundu zuen Txirritaren illobaren *Aien garaia* liburuak ere. Geroztik dozenaka dira gure erriak prosaz osatu dituen aleak.

Uztapideren *Lengo egunak gogoan* liburuaren arrakasta, gehiago markatu zuen Antoniok, haren *Berriz plazara* liburua⁸⁸ aurkeztu zenean⁸⁹.

Erri-prosa onek bi garai ezagutu ditu: Uztapideren *Lengo egunak gogoan* liburuaren aurrekoa eta ondokoa.

⁸⁸ Uztapide, 2001.

⁸⁹ Zavala, 2006: 144.

Auspoan, guztira, horrelako hirurogeita sei obra plazaratu zituen Zavalak. Hogeita hamaika idazlerenak dira⁹⁰.

Auspoaren hirugarren bilduma (1992)

Zavalak, Auspoaren lehen aleak argitaratu eta handik hogeita hamar urtera, plazaratuak zituen ia bertsolari guztien biografiak eta bertsoak. Baina Pedro Mari Otañorenak falta zitzaizkion. Urtebete osoa eskaini zion horiek prestatzeari.

Biltzen hasi zen, aldi berean, gainerako bertsolari handi guztiei buruz ordu arte berak plazaratua.

Hori guztia argitaratzeko sortu zuen, Joakin Berasategirekin batera, *Auspoaren Sail Nagusia*, 1992an.

Hala plazaratu ziren berriro –oraingoan entziklopedia-formatuan– Txirrita, Pello Errota, Xenpelar eta Bilintxen bertsoak, eta horien inguruko beste zenbait bertsolarirenak ere. Eta, gainera, Otaño eta honen ingurukoena, eta karlisten lehenengo gerrateko bertsoak. Gero etorri ziren beste zenbait obra: Uztapiderena, Lazkao Txikiren bertsoak eta ateraldiak biltzen zituena, karlisten bigarren gerrateko bertsoak, euskal erromantzeak...

Hantxe gelditu zen, liburu-bilduma bihurtua, Zavalak Arantzazun iragarritako obra handiaren zati nagusia.

Biblioteca de Narrativa Popular (1993)

Hasierako zalantzei aurre eginda hasi zen Zavala bertso-paperak biltzen. Ez zuen erabat ahaztu, ordea, alboan utzitako beste aukera: erdal herri-literatura lantzea.

Hain zuzen, hirurogeita bost urte bete zituenean, 1993an, hasi zuen beste liburu-bilduma bat: *Biblioteca de Narrativa Popular*. Indalecio Zaballa “Masio”ren *La última trova* izan zen lehena⁹¹.

⁹⁰ Esnal, 2005: 881. Datorren kapituluan zehaztuko ditugu kontuak.

⁹¹ Zaballa, Zavala, 1993.

Lehen liburu honen aurkezpenean, honela zioen Zavalak⁹²:

Un día, un amigo vasco ya difunto, al contarle algunas anécdotas e historias de esta índole, oídas en tierras burgalesas, me interrumpió para decirme:

–Ahí hay materia para un libro.

Fue más explícito un sacerdote, también vasco, el cual, al oírme algunas narraciones del Alto Aragón, me dijo:

–Y ¿por qué no escribe y publica usted todo eso?

Le puse un reparo:

–Y ¿qué dirá la gente, si me desvío ahora hacia otros temas?

Me respondió:

–Que diga lo que quiera. Ése es el mismo trabajo, hecho en dos idiomas.

Handik urte batzuetara eman zizkigun Zavalak bi lagun horien izenak⁹³. Uztapide izan zen lehenengoa; Pedro Berrondo bigarraena. Zavala, beti adi eta erne, bideak zer erakutsiko.

Masioren liburuaren ondoren etorriko dira beste hogeita bat obra, erdal bilduma horren hogeita bederatzi ale osatzeraino⁹⁴.

Auspoaren Auspoa (1996)

Joakin Berasategiren ekimenez plazaratu ziren lehen bi *Auspoaren Auspoa* liburukiak, 1996an⁹⁵. Izenburua ere Joakinek ipinia da. Liburuki haietan bildu zituen Zavalak ordu arte herri-literaturari buruz idatzitako lanak eta egindako hitzal-diak. Bestela, han-hemenka sakabanatuak geldituko ziren.

⁹² Zavala, 1993b: 7-8.

⁹³ Zavala, 2006: 65.

⁹⁴ Kontu hauek ere datorren kapituluan ikusiko ditugu zehatzago.

⁹⁵ Zavala, 1996a; Zavala, 1996b.

Geroago etorri ziren, 1999an⁹⁶ eta 2006an⁹⁷, beste bi liburukiak. Horietan ditugu, batera bilduak, Zavalak 1996az geroztik herri-literaturaz idatziak eta esanak.

Guztira, lau liburuki dira. Horiek eskaintzen digute tolosarraren egitasmo sortzailea eta obra osoa ulertzeko giltza.

***Honoris causa* doktore (1999)**

Hamabigarren hau, mugarria ez ezik, gailurra ere bada. Deustuko Unibertsitateak, 1999ko azaroaren 17an, *Honoris causa* doktore izendatu zuen Antonio Zavala, herri-literaturaren alde egindako lana aitortuz eta eskertuz.

Zavalak ekitaldi hartako hitzaldi elebidun hartan jarri zuen bere egitasmo bikoitzaren azken giltzarria⁹⁸.

Al cabo de muchas idas y venidas, de muchas vacilaciones y sentimientos de inconformismo, oí de labios de un amigo que no había dos literaturas, una culta y otra popular, sino sólo literatura.

Artxiboaren dohaintza Gipuzkoako Foru Aldundiari (2005)

Azkenean, Gipuzkoako Foru Aldundiari egin zion Antonio Zavalak bere artxiboaren dohaintza. Lehenago esan bezala, Foru Aldundiaren egoitzan, 2005eko azaroaren 11n sinatu zuten dokumentua Antoniok berak, jesuiten probintzial Juan Migel Arregik eta Gipuzkoako diputatu nagusi Joxe Joan Gonzalez de Txabarrik.

Juan Migel Arregik egoki laburbildu ondoren Antonio Zavalaren nahia, diputatu nagusiak hitz bat erabili zuen Zavalaren izaera eta lana erretratatzeko, *jenioa*, Ortega y Gasseten bi pasarte lagun.

⁹⁶ Zavala, 1999.

⁹⁷ Zavala, 2006.

⁹⁸ Zavala, 2006: 35. Ikus 38. oin-oharra (59. or.).

Aipatua dugu lehenengo pasartea⁹⁹. Bigarrenak honela dio¹⁰⁰:

Estrictamente hablando, no hay nadie que vea las cosas en su nuda realidad. El día que esto acaezca será el último día del mundo, la jornada de la gran revelación. Entretanto, consideramos adecuada la percepción de lo real que, en medio de una nube fantástica, nos deja apresar siquiera el esqueleto del mundo, sus grandes líneas tectónicas. Muchos, la mayor parte, no llegan ni a eso: viven de palabras y sugerencias; avanzan por la existencia sonambúlicamente, trotando dentro de su delirio. Lo que llamamos *genio* no es sino el poder magnífico que algún hombre tiene de distender un poro de esa niebla imaginativa y descubrir a su través, tiritando de puro desnudo, un nuevo trozo auténtico de realidad.

Hiru urte geroago amaitu zen Antonio Zavalaren ibilaldia. Xabierren hilobiratu genuen, non eta berrogeita hamabost urte lehenago Auspoa egitasmoari hasiera eman zion herri berean.

Gaur, Koldo Mitxelena Kulturunean dago haren artxiboa.

Antonio Zavalak burutu zuen bere ibilbidea. Pixkana-pixkana joan zen proiektua argituz eta gauzatuz, zenbat eta gehiago egin orduan eta eginkizun handiagoa sumatzeraino. “Ehun eta berrogeita hamar urte bizi izanda ere, beti izango nuke zeregina”, aitortu zigun egun batean. Sortzaile eta artista guztien patua da. Lan bat amaitu orduko, hurrengoan dute burua. Ezerk ez dizkie gose-egarriak asetzen. Ez dira, hala ere, obra askoren egile; bakarrarena baizik. Inoiz amaituko ez duten obraren egile, beti zabalik dagoen bidegintzan.

⁹⁹ Ikus 56. orrialdean.

¹⁰⁰ Ortega y Gasset, 2004a: 36.

Bost argitaletxe

Antonio Zavalak, jesuita izanik, uste zuen Konpainiak argitaratuko ziola obra. Baina Konpainiak ezezkoa eman eta, ondorioz, bere argitaletxea sortu behar izan zuen.

Argitaletxe hura baliatu zuen urte askoan, bi alditan baliatu ere. Eta, harekin batera, beste lau ere erabili zituen. Hala, guztira, bost argitaletzek argitaratu zuten Zavalaren obra, sei alditan¹⁰¹.

1961-1986: Auspoa (1. bilduma: 1-192; 2. bilduma osoa)

Zavalak jaiotetxean jarri zuen argitaletxea.

Argitaletxeak, arazoak arazo, aukera berriak zabaldu zizkion egitasmoari eta askatasun handiagoa eman Antoniori. Hala hasi zen eskuetan zeukana plazaratzen, nahiz eta aurreikusitako lana erabat amaitu gabe izan.

Lehen aldi honetan –hamasei urte iraun zuen: 1961etik 1986ra–, lehen bildumaren 192 zenbaki plazaratu zituen, eta bigarrenaren sei aleak.

1988-1990: Etor Argitaletxea (1. bilduma: 193-206)

Zavala, 1988tik aurrera, saiatu zen argitaletxearen enpresa-ardurak uzten. Lehen ahalegina 1988-1990 urteetan egin zuen. Tarte horretan, Etor Argitaletxeak plazaratu zizkion Auspoako 14 ale: lehen bildumako 193.etik 206.era bitartekoak.

¹⁰¹ Bost argitaletxe horietan plazaratu zituen bere lau bildumak; guztira, 298 obra. Beste bost argitaletzek argitaratu zizkion gainerako bostak.

1990-1992: Auspoa (1. bilduma: 207-217)

Zavala berriro bere argitaletxea baliatzen hasi zen 1990ean, eta beste hamaika ale argitaratu zituen bi urtean: Auspoaren lehen bildumako 207.etik eta 217.era bitartekoak.

1992-2003: Sendoa Argitaldaria (1. bilduma: 218-282; 3. bilduma osoa)

Ondoren, Sendoa Argitaldaria hartu zuen bere gain Auspoa argitaratzea. Eta, horretara mugatu gabe, beste liburu sail bat sortu zuen, erdarazkoa: Biblioteca de Narrativa Popular.

Lehendik, Sendoaren zuzendaria, Joakin Berasategi, lan egina zen Zavalarekin, 1974tik 1976ra, Auspoaren bigarren bildumako liburuak argitaratzen eta banatzen. Orain, aldi berri honetan, bi logotipoak –Sendoarena eta Auspoarena– eramango dituzte liburuek, bai Auspoakoek eta bai Biblioteca de Narrativa Popularrekoek.

Ia hamaika urtez, 1992tik 2003ra, ehun eta zazpi liburu plazaratu zituen Sendoak: Auspoako laurogeita bi –lehen bildumako 218.etik 283.era bitartekoak eta hirugarreneko hamaseiak– eta Biblioteca de Narrativa Popularreko lehen hogeita bost liburuak.

Ondoren, bi argitalpenek hartu zuten Sendoaren lekukoa.

2004-2007: Libros con Historia (2004-2007)

Libros con Historia nafar argitaletxeak eman zion jarraipena Biblioteca de Narrativa Popular bildumari. Lau liburu argitaratu zituen 2004tik 2007ra bitartean.

2003-2009: Gipuzkoako Foru Aldundia (1. bilduma: 284-312)

Bestalde, Gipuzkoako Foru Aldundiak hartu zuen bere gain Auspoaren jarraipena. Sei urtean, 284tik 312ra bitarteko zenbakiak plazaratu zituen. Eta gaur ere, 2015ean, horretan dihardu.

5. Auspoa, zehazki

Kapitulu honetan, Antonio Zavalak argitaratua xehatzen saiatuko gara, zenbakiak lagun eta bi puntutan. Lehenengoan, obra osoa –euskal bildumak eta erdal bilduma– hartuko dugu kontuan. Bigarreanean, euskal bildumetara mugatuko gara. Azkenik, eranskin batean ditugu zerrendatuta Zavalak plazaratutako liburu guztiak, bildumaz bilduma eta banan-banan.

Kapituluan zehar, zerrenda horietara jo beharko dugu behin eta berriz; izan ere, zenbakiz soilik aipatuko ditut liburu eta obra asko. Eskerrak zenbatuta argitaratu zituen Zavalak bilduma banatako liburu ia denak, hamar ez beste guztiak. Salbuespenak, Auspoa ertaineko seiak dira eta Auspoa Sail Nagusiko azken laurak. Eranskinean, alabaina, zenbatuta doaz hamar liburu horiek ere, kortxete artean.

Dena den, zenbaki hutsetara mugatu gabe, ahaleginduko gara mami pixka batez janzten hezurdura.

Zavalak plazaratua: 303 obra, lau bildumatan

Guztira, 303 obra argitaratu zituen tolosarrak¹⁰².

- Auspoa bilduma hirukoitzean, 276:
 bilduma arruntean, 259,
 bilduma ertainean, 5,
 Auspoaren Sail Nagusian, 13.
- Biblioteca de Narrativa Popular bilduman, 22 obra.
- Eta 5 obra solte, bilduma horietatik at.

¹⁰² Betiere, saiakera honetan erabilitako irizpideen arabera. Hori dela-eta, ahalik eta argien azaldu nahi dut nola jokatu dudana, baldin eta norbaitek gauzak berriro aztertu nahiko balitu, ahalik eta daturik gehien izan dezan eskura.

Bilduma bakoitzaren berri eman aurretik, komeni da zenbait kontu argitzea, batik bat Auspoa osatzen duten hiru bildumei buruz.

Zavalak 276 obra plazaratu zituen Auspoan, hiru bildumatan.

- Lehen bilduma [A]¹⁰³ tamaina txikiko liburuz osatua da. Hau da aldi berean ugariena eta ezagunena. Hauxe du bizkarrezur Zavalaren obra osoak. Hura hil zenean, 312 zenbaki zituen bildumak¹⁰⁴.
- Bigarren bilduma [AE] tamaina ertaineko sei liburuk osatzen dute. Baina bost obra dira, 1974tik 1976ra plazaratuak.
- Hirugarren bilduman [ASN] hamasei liburu koka ditzakegu. Berez, hamabik osatzen dute Auspoaren Sail Nagusia, bakoitzak bere zenbakiaz; beste laurak ez zenbakiz eta ez sail horren izenez plazaratu ziren. Baina denak, azken batean, sail berekotzat har daitezke.

Gainera, gogoan izan behar ditugu bi kontu.

- Beharrezkoa da ondo bereiztea hiru kontzeptu: obra, liburu eta zenbaki. Esaterako, Auspoaren lehen bilduman, arruntan, 312 zenbaki plazaratu zituen Zavalak. Baina, berehala ikusiko dugunez, ez ziren 312 liburu, baizik 283. Eta ez ziren 283 obra, baizik 259.
- Auspoaren hiru bildumetako obrak batzean (259 + 5 + 13), guztira 277 obra izango lirатеke, baldin eta Xalbadorren *Odolaren mintzoa* bi bildumatan plazaratu izan ez balitz: Auspoa ertainean 1976an (AE [6]) eta arrun-

¹⁰³ Saiakera honetan, A, AE eta ASN letra larriz aipatuko ditugu Auspoa bildumak: A (Auspoa arrunta), AE (Auspoa ertaina) eta ASN (Auspoaren Sail Nagusia).

¹⁰⁴ Plazaratu, Zavala hil eta gero plazaratu zen 312. zenbakia; baina hark inprentan utzia zuen guztiz amaitua.

tean 2004an (A 290). Azken hau, liburuaren azalean bertan dioenez, obra beraren “hirugarren argitalpena” da, “zuzendua eta gehitua”¹⁰⁵.

Lehen bilduma, Auspoa arrunta: 259 obra (283 liburu, 312 zenbaki)

Arestian esan bezala, 312 zenbaki zituen Auspoa arruntak Zavala hiltzean. Baina ez dira 312 liburu, baizik 283. Izan ere, batzuek bi zenbaki hartzen dituzte; *Txirrita* liburuak, esaterako, 18-19 zenbakiak. Badira hirukoak ere; adibidez, *Altzo'ko Imaz bertsolaria*, 68-69-70 zenbakiez osatua. Zehatz-mehatz, hemeretzi liburuk hartzen dituzte bi zenbaki; eta bostek hiru. Hortik sortzen da aldea zenbakien eta liburuen artean.

Hona hemen, banan-banan, zein liburu diren bi zenbakiz eta hiruz osatuak:

Bikoak: 18-19, 35-36, 40-41, 45-46, 49-50, 52-53, 57-58, 63-64, 71-72, 74-75, 77-78, 86-87, 95-96, 98-99, 101-102, 103-104, 109-110, 117-118 eta 137-138.

Hirukoak: 68-69-70, 79-80-81, 88-89-90, 120-121-122 eta 123-124-125.

Baina garrantzi handiagoa du jakiteak zenbat obra diren 283 liburu horiek. Izan ere, Zavalak bi liburutan banatu zuen zenbait obra; esaterako, *Jan-edanaren bertsoak (I)* eta *Jan-edanaren bertsoak (II)* (154/155)¹⁰⁶. Baditu hiru liburutan banatuak ere; hala nola, *Nork bere bidea* (143/144/145) eta *Gerrateko ibillerak* (148/149/150). Baita lautuan emandako bat ere: *Auspoaren auspoa* (238/239/262/300).

¹⁰⁵ Bilduma ertainean plazaratu ziren lehen bi argitalpenak.

¹⁰⁶ Barrak (/) adierazten du obra bera osatzen dutela barra aurreko eta atzeko liburuek; kasu honetan, 154 eta 155 liburuek. Berdin irakurri behar da 143/144/145 ere: hiru liburu eta obra bakarra. Beste horrenbeste egin behar da, kapitulu honetan, barra daramaten zenbakiekin.

Batzuetan, galdu ere gal gaitezke horrelako xehetasunetan. Baina, agian, *Txirritaren bertsoak* da argigarriena. Obra bakarra izaki, bi liburu hartzen ditu (101-102/103-104) eta lau zenbaki.

Hona hemen, banan-banan, zein obra diren bi liburuz, hiruz eta lauz osatuak:

Bikoak: **15/257**; 101-102/103-104; 154/155; 164/165; 174/175; **180/183**; 184/185; 204/205; 212/213; 227/228; 278/279; 286/287; 292/293.

Hirukoak: 130/131/132; 143/144/145; 148/149/150; **249/263/299**.

Laukoa: **238/239/262/300**.

Horiek horrela, guztira 259 obra dira Auspoa arruntan¹⁰⁷. Datu hori hobeto ulertzeko, bi xehetasun izan behar dira kontuan.

Lehena, arestiko zenbaki lodi horiek jasotzen dute. Obra bikoitz, hirukoitz edo laukoitzak, ia beti, elkarren segidan argitara zituen Zavalak; lau izan ezik. Horiexei dagozkie zenbaki lodiak: *Ezkontza galdutako bertsoak* (15/257), *Euskal jokoak bertotan* (180/183), *Oinez eta jakin minez* (249/263/299) eta *Auspoaren auspoa* (238/239/262/300).

Bigarren xehetasuna, ez dago hain agerian. Izan ere, obrak egoki kontatzeko ez da nahikoa soilik liburuen egileei eta izenburuei erreparatzea. Kontuan hartu behar da edukia ere. Hala, 283 liburu horien artean, zalantza sor lezakete lau obraren egile eta izenburuek. Lauretan, antzekoa egin zuen

¹⁰⁷ Gehiago ere xeha daitezke kontuak. Izan ere, badira zenbait liburu, ale bakarrak izanik ere, bi obraz osatuak; hala nola, A 153 (Zapi-raindaren *Zure Pasio Santua* eta *Asis'ko San Frantziskoren bizitza*) eta A 280 (Atañoren *Markesgaiak* eta *Dirua jainko*). Bestalde, bada oraindik Zavalaren paperetan aztertzeko gai bat: ez ote zuen, kasuren batean, bi (edo hiru) obratan banatu berez bat zena, handiegia-edo jo zuelako obra bakar bezala argitaratzeko.

Zavalak, baina ez zuen beti irizpide bera erabili izenburuak jartzean, eta horrek nahasbidea eragiten du. Ikus ditzagun banan-banan.

Sagardoaren graziya (1) eta *Sagardoaren graziya II* (284), biak Ramon Artolaren bertsoz osatuak. Izenburu horien arabera, badirudi obra bera dela bi liburutan emana. Baina, berez, bi obra dira: lehena, Ramon Artolaren bertso batzuez osatua; bigarrena, bertso guztiez.

Euskal mutillak armetan I (3), *Karlisten eta liberalen gerra-kontaerak (I)* eta *Karlisten eta liberalen gerra-kontaerak (II)* (292/293), Francisco Apalateguik jasoak. Aurreko liburuen kasu bera dugu hemen ere. Lehenengoan, kontaketa batzuk plazaratu zituen Zavalak; hurrengo bietan, kontaketa guztiak. Baina oraingo honetan, izenburuek ez dute nahasbiderik sortzen.

Ustez laguna detan. Izenburu horixe dute 4. eta 297. zenbakiek. Biek jasotzen dituzte Pepe Artolaren bertsoak. Baina bigarrenak, lehenengoak jasotakoez gainera, askoz bertso gehiago dakartza. Beraz, bi obra dira, nahiz eta izenburu bera izan.

Galtzaundi (7), *Galtzaundi berriz ere I* eta *Galtzaundi berriz ere II* (286/287), Ramos Azkarateren lanez osatuak. Hauek ere bi obra osatzen dituzte, eta ondo dago jasoakoiztasun hori izenburuetan.

Bigarren bilduma, Auspoa ertaina: 5 obra (6 liburu)

Bigarren bildumako kontaketan ez dago arazorik: bost obra dira, baina sei liburu.

Hirugarren bilduma, Auspoaren Sail Nagusia: 13 obra (16 liburu)

Liburu gutxi ditu hirugarren bildumak ere: hamasei, guttira. Baina arazoren bat edo beste sortzen dute. Izan ere, aurreratu bezala, Auspoaren Sail Nagusia osatzen dute horie-

tako hamabik, bakoitzak bere zenbakiaz. Gainerako laurek ez daramate ez zenbakirik, ez *Auspoaren Sail Nagusia* izenik. Hala ere, bai tamainaz eta bai edukiaz, sail berekotzat jotzea da egokiena, alferrikako sailkapenak egiten ibili gabe.

Hamasei liburu horiek, bestalde, hamahiru obra dira; ale bikoitzak baitira hiru.

Obra horietako batzuk erabat berriak dira; beste batzuek, berriz, lehenik Auspoa arruntean edo ertainean argitaratuak biltzen dituzte, baina batasun berria osatuz; beraz, obra berrizat hartu beharrekoak dira.

Laugarren bilduma, Biblioteca de Narrativa Popular: 22 obra (29 liburu)

Guztira, hogeita bi obra dira, hogeita bederatzi liburutan emanak. Lehenengo hogeita bost liburuak, Sendoa argitaletxeak argitaratu zituen; azkeneko lauak, Libros con Historia argitaletxeak.

Eta beste 5 obra (5 liburu)

Zuzen banabil, beste bost obra plazaratu zituen Antonio Zavalak, aurreko lau bilduma horietatik kanpo.

Bilintx bertsolariak eta haren obraz dihardute bik. Auspoan, beste bi obra eskaini zizkion donostiarrari (A 12 eta ASN 9). Funtsean, lan handi baten lau bertsio dira, lau obra.

Hirugarren obra *–Bosquejo de historia del bersolarismo–* Añamendi argitaletxeak argitaratu zuen lehenik eta Zavalak berak jaso *Auspoaren auspoa I* liburuan.

Laugarrena *–Euskalerriko Bertsolarien txapelketa - 1960–* egilearen izenik gabe plazaratu zuen Itxaropena Argitaldaria 1961ean, Kuliska Sortan. Hitzaurreak soilik dakar Antonio Zavalaren izenpea¹⁰⁸. Baina liburu osoak darama Antonioren

¹⁰⁸ Zavala, 1961a. Honelaxe dio: A. Antonio Zabala, S.J.

taxua¹⁰⁹. Gero, taxu bera eman zien, Auspoan, hurrengo bertsolari-txapelketetako bertso-liburuei, eta hitzaurrean soilik ipini zuen bere izena.

Bosgarren obra, Antonio Arrueren *Idaztiak eta hitzaldiak*, Antonio Zavala hil ondoren argitaratu zuen Euskaltzaindiak. Zavalak prestatu zuen, eta aurkezpenaz hornitu.

Auspoa bilduma hirukoitza: bi eremu eta hamaika arlo

Auspoaren hiru bildumetan, bi eremu bereiz daitezke: bertso-liburuek eta prosaz idatzitakoek osatuak. Argigarria da bereizketa, nahiz eta batzuetan zaila den mugak zehaztea: obra jakin bat bertso-liburu den ala prosa-liburu den erabakitzea¹¹⁰.

Eremu bakoitzean, berriz, arloak bereiz ditzakegu; guztira, hamaika¹¹¹.

¹⁰⁹ Iritzi berekoa da Imanol Unzurrunzaga ere. Honek oso gertutik bizi izan zituen Kuliska Sortako argitalpenak. Hasteko, Itxaropena Argitaldariaren nagusi Patxiren semea delako; baina, batik bat, Imanolek berak ere bi urte lehenago –1959an– *Pedro Mari Otañoren bertsoak* liburua plazaratu zuelako bilduma berean; hau ere egilearen izenik gabe. Kuliska Sortako bi obra horiek ez beste guztiek –77 zenbaki plazaratu zituen, 1952 eta 1973 bitartean– daramate liburu-egilearen izena.

¹¹⁰ Bi liburu aztertzeak lagun diezaguke muga zehazten: Antonio Zavalaren *Txirrita (Bizitza eta bat-bateko bertsoak)* (A 18-19) eta *Tiro artean bertsoan* (A 168), Patxi Lazkano eta Antonio Zavalaren artean egina, hark ahoz kontatu eta Zavalak paperean ipiniz. Bi liburuak daude bertsoz eta prosaz osatuak. Baina lehenengoan, prosaren zerbitzuan daude bertsoak; biografia bat da, eta biografia horren pasarte dira bertsoak. Prosa du liburuak ardatz, eta prosa-liburu da, azken batean. Bigarrenean, alderantziz: bertsoen zerbitzuan dago prosa, eta bertso-liburu da, beraz; bertsoak ditu ardatz eta abiapuntu, eta bertsoen nondik norakoa azaltzeko dago prosa.

¹¹¹ Kopuru guztiak adosteko, ikus 114, 118, 119 eta 120. oin-oharrak.

Bertso-liburuak: 151 obra

Bertsopaper zaharrez osatuak: 84.

Bertsopaper eta bertso berriz osatuak: 48.

Bat-bateko bertsoz osatuak: 14.

Bat-bateko bertsoz eta bertso jarriz osatuak: 4.

Prosa-liburuak: 125 obra

Liburu irakurterrazak: 31.

Zavalak besteren ahotsez idatziak: 7.

Kontalariak idazle: 66 obra (31 idazle).

Bertsolaritzari edo herri-literaturari buruzkoak: 6.

Auspoan baino lehenago plazaratutako idazleenak: 5
(6 idazle).

Bertso eta prosa: 5.

Bereziak: 4.

Bertso-liburuak: 151 obra

Guztira, 151 obra dira eta lau arlotan bana daitezke.

– Bertsopaper zaharrak: 84 obra

Bertsopaperak izan ziren Antonio Zavalaren egitasmoaren abiapuntu. Ezaguna dugu haren lehen asmoa, Arantzazun azaldua, 1956ko iraileko hitzaldi hartan: bertsopaperen bilduma handi bat plazaratu, estudio bat lagun zuela.

Hain zuzen, bertsopaperetako bertsoak dira Auspoaren bihotza.

Zavalak berak esan zuen, hitzaldi berean, berrogeita hamar mila bat bertso zituela ordurako bilduak; eta berehala eskuratzekotan zela sail ederrik eta askoz gehiago egongo zela bazterretan.

Gaur badakigu zer-nolako ahaleginak egin zituen ahal zuen guztia biltzen. Eta badakigu, halaber, ez zela bertsopapereta-

ra mugatu. Berehala ohartu baitzen bertso asko, paperetan ez baina, aldizkarietan plazaratuak zirela. Eta, are gehiago, bazela bertsorik inon argitaratu gabe eta bertso-jartzaileen paperetan jaso. Horiek guztiak batera hartu zituen, aparte-ko sailetan berezi gabe. Eta halaxe egingo dugu hemen ere.

Zavalak 84 obratan isuri zuen material hori guztia, Auspoan. Obra horietako gehienak –guztira, 58– bertsolariak ardatz hartuta plazaratu zituen, bertsolari bakoitzaren biografia ere eskainiz, batzuetan txikia eta gehienetan handia, ehun biografia inguru osatzeraino. Gainerako 26 obrak gaika antolatu zituen.

Bertsolarien artean, iturri agortezina gertatu zitzaion Txirrita. Hain hala, Auspoa arrunteko zazpi zenbaki behar izan baitzituen harenak eta hari buruzkoak argitaratzeko: 18-19, 101-102, 103-104 eta 126. Horietan, denetik dago: Zavalaren beraren ikerketak, Txirritaren bertsoak –jarriak eta bat-batekoak–, honen gertaera eta pasadizoak, ateraldi eta esaldiak, lekukoen testigantza ahozko eta idatziak... Gero, Auspoaren Sail Nagusiaren lehen alean jaso zituen denak.

Beste horrenbeste egin zuen Bilintxen obrarekin ere. Pello Errota eta Xenpelarrenarekin, berriz, bertsolarienak berenak ez ezik, horien ingurukoena ere bildu zituen Auspoaren Sail Nagusia bilduman.

Baina Auspoa arruntean ez zuen eman ez Otañoren obra, ez honen biografiarik. Hain zuzen, aurreko horiena batera biltzen ari zela ondu zuen Zavalak obra handi hori, eta bi liburutan plazaratu Auspoaren Sail Nagusian.

Horiek horrela, hona hemen banan-banan 84 obrak¹¹²:

¹¹² Zalantzak zalantza, arlo honetan doa *Pernando Amezketarra bertsolaria* (A 54), bertsopaperik ez badakar ere; baita *Oartzungo beste lau bertsolari* (A 119) ere, nahiz eta oso bertsopaper gutxi dakarren.

Bertsolarika antolatuak

Auspoa arrunta

1, 4, 7, 12, 24, 30, 33, 35-36, 45-46, 52-53, 54, 56, 59, 60, 61, 62, 63-64, 66, 68-69-70, 73, 74-75, 76, 77-78, 79-80-81, 82, 83, 86-87, 88-89-90, 91, 92, 93, 94, 95-96, 97, 101-102/103-104, 105, 106, 109-110, 114, 115, 116, 119, 120-121-122, 123-124-125, 130/131/132, 142, 146, 218, 243, 284, 286/287, 291, 297.

Auspoaren Sail nagusia

1, 5, 6/7, 8, 9.

Gaika antolatuak

Auspoa arrunta

15/257, 27, 65, 128, 129, 133, 135, 136, 139, 140, 153, 154/155, 161, 164/165, 174/175, 176, 180/183, 186, 187, 202, 212/213, 227/228, 281, 310.

Auspoaren Sail nagusia

4, [15].

Zavalak, lan horretan, hiru idazle izan zituen lankide, bost obratan: Luis Villasante, Graziano Anduagaren bertsoak plazaratzeko (A 30, A 52-53); Jose Mari Satrustegi, Bordelen bertsoak eta Luzaideko kantuak argitaratzeko (A, 45-46, A 65); eta Piarres Laffitte, Mañex Etchamendyren bertsoak ezagutarazteko (A 109-110).

Era berean, zalantzakoa da non kokatu *Zure Pasio Santua. Asis'ko San Frantziskoren bizitza* (A 153): arlo honetan ala hurrengoan. Izan ere, izenburuak ongi dioenez, bi bertso sail ditu liburuak: Pasioari Juan Krutz Zapirainek jarria eta Asisko Frantziskoren bizitzari Atañoek jarria. Bertsopaper zaharrak dira lehenak; berriak bigarrenak, eta ugariagoak, gainera. Hala ere, zaharrei lehentasuna emanek, arlo honetan kokatu dugu liburua.

Halaber, arlo honetan doa Ramon Artolaren *Ipuin eta kontutxoak* ere (A 227/228), nahiz eta bertso bereziak izan: fabulak edo apoloگوak.

Aipatutako 84 obrek osatzen dute Zavalaren lanaren abiapuntua eta enborra. Horiekin hasi zuen Auspoa bilduma. Horiek zabaldu zizkioten gainerako arloen ateak. Eta horiek plazaratzen jarraituko zukeen, baldin eta heriok eskuak betiko lotu izan ez balizkio. Izan ere, oraindik plazaratu gabe daude Zavalak bildutako hainbat bertso paper zahar¹¹³.

– Bertso paper berriak: 48 obra¹¹⁴

Zavala bertsoak biltzen hasi zenean, artean ateratzen ziren bertso paperak, gutxi bada ere. Berehala aterako zen azkenekoa¹¹⁵.

¹¹³ Zavala hilez geroztik, obra bat plazaratu da, 2012an, hark bildutako bertso (eta kanta) zaharrez osatua: *Bilboko gabon-kantak* (A 324).

¹¹⁴ Berez, 48 obra eta erdi dira. Izan ere, Uztapideren *Berriz plazara II* da zerrendako azkena (ASN 12); hau da, obraren erdia. Beste erdia, lehen liburukia, *Berriz plazara I*, prosaz osatua dago gehienbat; eta prosazko obren artean sailkatu dut. Dena den, sail honetako kopuruan ez da kontuan hartu erdi hori; bai, ordea, kopuru orokorrean.

¹¹⁵ Zavalak hitzaldi bat eman zuen bertso papereri buruz 1980an. Hitzaldian, “beti ere paper askatua, sueltua. Eta inprentaz argitaratua” izan zuen gai tolosarrak (Zavala, 1996a: 325). Bi lekutan dago argitaratua: *Jakin* aldizkarian, 1980an (Zavala, 1980), eta *Auspoaren auspoa I* liburuan (Zavala, 1996a: 323-350), 1996an. Zavalak apenas egin zuen aldaketarik bertso batetik bestera. Baina bada aldaketa esanguratsu bat: bertso paperen heriotzaren datarena. Lehenengo bertsoian dio: “eriotza orain ogei ta bost-bat urte gertatu zala esan genezake” (Zavala, 1980: 132); beraz, 1955 inguruan. Bigarrenean: “eriotza orain ogei bat urte gertatu zitzaioela esan genezake” (Zavala, 1996a: 349); beraz, 1960 inguruan; argi adierazia baitago liburuan ere 1980koa dela hitzaldia.

Dena den, nahiz eta bigarren aldiaren zertxobait zorroztu kontuak, Zavala ez zen oso zehatz ibili. Izan ere, berak 1964an argitaratutako *Amar urteko bertso paperak (1954-1963)* liburuan (A 39), bada 1963an inprimatutako bertso sailik. Are gehiago, Zavalak berak argitaratua da, 1984an, Sebastian Salaberriaren *Nere soroko emaitzak* (A 172). Eta liburu honetan daude jasoak Salaberriak 1964ko irailaren 27an Iturriotzen jokaturako sega-apustuari jarritako bertsoak. Donostiako Gráficas Izarran izan ziren argitaratuak (78. or.). Azkenekoak ote? Hala balitz, 1964. urtean ipini beharko genuke bertso paper horien heriotza-data.

Bertso jarriak ez zeuden sasoirik onenean. Baina Zavala bera asko saiatu zen genero hori indarberritzen. Eta lortu ere zuen, besteak beste Auspoa baliatuz.

Horren arabera, bi arlotan bereizi ditut bertso-paperak, nahiz eta berriro ere zailtasunak izan muga zehazteko¹¹⁶.

Zavalak azken urteetan, berriz, bertso-paper zaharrekin egindakoa egin zuen Uztapidek eta Mattinek jarritako bertsoekin ere: batera argitaratu, obra banatan.

Guztira, zalantzak zalantza, 48 obra¹¹⁷ argitaratu zituen Zavalak, bertso-paper berriak bilduz. Hona hemen, banan-banan.

Auspoa arrunta

39, 55, 84, 98-99, 111, 112, 117-118, 127, 151, 162, 163, 166, 167, 168, 169, 172, 173, 190, 191, 194, 204/205, 208, 216, 217, 220, 229, 230, 251, 252, 253, 254, 255, 266, 271, 276, 277, 283, 288, 290, 295, 298, 303, 306, 307, 312.

Auspoa ertaina

[3], [5], [6].

Auspoa Sail Nagusia

2, 12.

¹¹⁶ Muga nolabait zehaztu behar-eta, Zavalaren *Amar urteko bertso-paperak (1954-1963)* liburua balia dezakegu. Hala, 1954 urtea baino lehen argitaratutako bertsoak jo ditzakegu zahartzat; eta ondorengoak berriatzat. Kontuan izan, bidenabar, 1954a estreinatu berritan hasi zela Zavala bertso-paperak biltzen.

¹¹⁷ Gogora dezagun kapitulu honen hasieran esana: bi eremu ezberdinetan dago argitaratua *Odolaren mintzoa* (A 290 eta AE [6]), baina obra bakarra da berez.

– **Bat-bateko bertsoak: 14 obra**¹¹⁸

Lehenago edo geroago, bat-bateko bertsoek izan behar zuten lekua Auspoan.

Hala ere, Zavalaren lehen obra, Auspoan ez baina, Itxaropena argitaldariaren Kulixka Sortan plazaratu zen, 1961ean: *Bertsolarien txapelketa–1960*. Datu esanguratsua da. Izan ere, ordurako Auspoak argitaratu zituen lehen aleak. Baina tolosarrak, nonbait, ez zuen aurreikusiko, artean behintzat, bat-bateko bertsoak bere bilduman argitaratzea.

Gero bai. Auspoan plazaratu zituen, banan-banan, Euskaltzaindiak antolatutako hurrengo lau bertsolari-txapelketetako bertsoak. Horiekin batera, beste 11 obra argitaratu zituen, horietako bat, Lazkao Txikiren *Irriz eta malkoz*, Auspoa Sail Nagusian.

Auspoa arrunta

10, 22, 42, 43, 67, 100, 107, 141, 152, 242, 272, 282, 296, 301.

Auspoa Sail Nagusia

[14].

– **Bat-bateko bertsoak eta bertso jarriak: 4 obra**

Auspoako lau liburutan, antzekoak dira kopuruz bat-bateko bertsoak eta bertso jarriak.

Auspoa arrunta

85, 108, 157, 302.

¹¹⁸ Arestian, 114. oin-oharrean, aipatutako arazo bera dugu hemen ere. Berez, 14 obra eta erdi dira. Uztapideren *Berriz plazara* bezala, bi liburukiz osatua baitago Lazkao Txikiren *Irriz eta malkoz* ere. Bigarrena –ASN 14– aipatzen da zerrendan; Lazkao Txikiren bat-bateko bertsoek osatzen baitute batik bat. Dena den, sail honetako kopuruan ez da kontuan hartu erdi hori; bai, ordea, kopuru orokorrean.

Prosa-liburuak: 125 obra

Antonio Zavala, bertsoak argitaratzean, beti saiatzen zen bai egilearen biografia eskaintzen, bai bertsoak beren testu- inguruan kokatzen. Horretarako, artxiboetara jo ohi zuen edo egilea ezagutu zuten lekukoetara.

Esaterako, Auspoaren 4. zenbakian *–Ustez laguna detan* liburuan, non jaso zituen Pepe Artolaren hainbat bertso-, honen bizitzaren zenbait zertzelada jakingarri eman zituen, hamasei orrialdetan, etxekoen testigantzak baliatuz. Beste horrenbeste egin zuen aurrerantzean, aukera izan zuen aldiro.

Zavala berehala ohartu zen zer-nolako balioa zegoen testigantza haietan eta zenbait lekukok kontatzeko zuen gaitasunean. Hala, herritar askoren testigantzez osatu zuen Txirritaren biografia (A 18-19); eta testigantza bakarraz, alabarenaz, Pello Errotarena (A 32).

Azkar ikusi zuen zein izan zitekeen hurrengo urratsa: lekuko horiek berak ipini idazten. Eta lortu ere zuen Sebastian Salaberriak *Neronek tirako nizkin* idatzi zuenean (A 38), 1964an. Baina beste hamar urte behar izan zituen hurrengoa plazaratzeko: Uztapideren *Lengo egunak gogoan* (AE [1]/[2]). Eta obra hau, bai, kate luze baten lehenengo emaitza izan zen; hirurogei obratik gora etorri baitziren ondoren.

Bestalde, prosaz idatzitako beste obra batzuei ere zabaldu zizkien Auspoaren atea. Hauen egileak ezagunagoa zuten idazle-ofizioa.

Guztira, zazpi arlo bereiz daitezke Auspoaren eremu honetan.

– Liburu irakurterrazak: 31 obra

Auspoaren bigarren zenbakiak, bertsoak ez baina, hiru antzerki dakartza. Antonio Zavalak, Balentin Zamora adiskidearen aholkuei jarraiki, hasiera-hasieratik zabaldu zizkien

ateak liburu irakurterrazei. Hala, bi liburu mota tartekatuz hasi zen Auspoa lehen bildumaren ekoizpena osatzen: bertso zaharrak eta euskara errazean idatzitako liburuak.

Gero, bere egitasmoaren baitan sortutako liburuek hartu zuten liburu irakurterraz hauen tokia. Gaur ez dago samurra bi horien arteko mugak jartzen, batez ere 75. zenbakitik aurrera. Lehen ale hauetan, garbi ageri da zein libururi deitu zien Zavalak irakurterrazak; hogeita zazpi obra dira. Hortik aurrera, oso gutxitan jo zuen Auspoaz kanpo liburu irakurterraz horien bila. Hemen, lau soilik jo ditut halakotzat. Aurrekoen hari-harikoak dira: Auspoaren hasiera-hasieratik dira ezagunak egileak: Urruzuno, Alzaga eta Apalategui; berria da Antonio Arzak, baina Zavalak behin baino gehiagotan aipatua bere lanetan.

Horiek horrela, guztira 31 obra jo ditzakegu arlo honetako zat. Hauexek dira, denak Auspoa arruntekoak:

2, 3, 5, 6, 8, 9, 11, 13, 14, 16, 17, 20, 21, 23, 25, 26, 28, 29, 31, 34, 37, 44, 47, 48, 51, 57-58, 71-72, 113, 223, 233, 292/293.

– **Zavalak besteren ahotsez idatziak: 7 obra**¹¹⁹

Arlo honetako obrak Zavalak idatziak dira, baina beste norbaiten ahotsaz baliatuz batez ere. Edo, hobeto esanda, obra hauetan Zavalak bitartekari-lana egin zuen: bestek diktatua edo kontatua idatzi bihurtu.

Aipatuak daude bi obra esanguratsuenak: Txirritaren biografia, obra korala, herritar askoren ahotsez osatua, eta Pello Errotaren bizitza, alaba Mikela Elizegik kontatua. Baina alde esanguratsu bat dago bien artean. Zavalaren ahotsa da lehenengoan nagusia, beste ahots guztiak josiz; bigarreanean, ordea, Mikela Elizegirena da liburuko ahots nagusia.

¹¹⁹ Berez, 7 eta erdi dira. Izan ere, obra erdia da Lazkao Txikiren *Irriz eta malkoz I* (ASN 13). Ikus 118. oin-oharra.

Gero etorri ziren beste lau obra: lehen biak, berriro, Pello Errota eta Txirrita gai dituztenak; eta ondoren, *Baso-mutillak*, Jose Manuel Arrizabalo kontalari duena, eta *Gerrateko ibillerak*, Iñaki Alkainek kontatua eta Zavalak ordenatu eta testu idatzi bihurtua.

Baina Zavala berehala ohartu zen hobe zela, aukeran, kontalariak berak idazten ipintzea.

Zavalak beti jarraitu zuen besteri ahotsa ematen, baina ez zuen gehiago horren estu eta buru-belarri jarraitu lan horretan. Berak *sekretario-lana* deitzen zion, baina hori baino asko gehiago zen: bestek ahoz kontatua transkribatu, zalan-tzak argitu kontalariarekin, testua osatu, zatiak ordenatu... eta osotasun batean eman dena.

Azken aldian, beste liburu koral bat ere plazaratu zuen Auspoak: *Irriz eta malkoz I*, Lazkao Txiki hil ondoren, haren bertsoz, pasadizoz eta abarrez osatua. Horren laburpena da *Gertaerak eta txisteak* (A 222).

Auspoa arrunta

18-19, 32, 49-50, 126, 134, 148/149/150, 222.

Auspoa Sail Nagusia

[13]

– **Kontalariak idazle: 66 obra**¹²⁰ **(eta 31 idazle)**

Arestian esan bezala, Sebastian Salaberria izan zen Zavalak idazten jarri zuen lehen kontalaria, eta honen *Neronek tirako nizkin* izan zen Auspoak bide horretatik plazaratutako lehen obra (A 38), 1964an. Hamar urte geroago etorri zen Uztapideren *Lengo egunak gogoan* (AE [1]/[2]).

Zavalak pozik aletu zituen, behin eta berriro, berak idazle bihurtutako kontalari horien izenak, eta behin baino gehia-

¹²⁰ Berez, 66 eta erdi dira. Izan ere, obra erdia da Uztapideren *Berriz plazara I* (ASN 11). Ikus 114. oin-oharra.

gotan idatzi zuen horien zerrenda¹²¹. Guztira, 31 idazle dira, 66 obraren egile. Ataño da ugariena, hamazazpi obrarekin; gero datoz Txomin Garmendia, seirekin, eta Manuel Lasarte, bostekin. Hona hemen idazleak, banan-banan, ordena alfabetikoan, nor bere obrarekin:

Aierbe, Joxe: A 309.

Artetxe, Pello: A 305.

Ataño, Salvador Zapirain: A 137/138, 147, 179, 181, 189, 192, 193, 196, 201, 207, 215, 219, 224, 234, 267, 280, 304.

Ayerbe, Bartolo: A 195, 241.

Ayesta, Lino: A 245.

Azpiroz, Jose: A 200, 203, 250.

Barandiaran, Bizente: A 209, 231, 265.

Erauskin, Jose Ramon: AE [4].

Etchebarne, Erramun: A 198.

Etxaburu, Jose Maria: A 199, 226.

Etxeberria, Faustino: A 237.

Garmendia, Txomin: A 159, 160, 170, 171, 177, 188.

Garzandia, Jose Agustin: A 289.

Gerrikagoitia, Tomas: A 269.

Irazusta, Juan Jose: A 143/144/145.

Iruntxiberri, Leon Albeniz: A 285.

Karrika, Beñat: A 210.

Lasarte, Manuel: A 221, 225, 248, 261, 294.

Lertxundi, Joxe Mari: A 214, 236.

Lete, Jesus "Ibai-Ertz": A 206.

Lizaso, Koxme: A 256.

Mujika, Teodoro: A 235.

¹²¹ Hemen ere zalantza batzuk sortzen dira: zein idazle diren, Uztapide bezala, Auspoan argitaratu arte ia apenas idatzi gabeak, eta zein ziren idazle Zavalak haien lanak plazaratu baino lehen ere. Dena den, Antoniok berak laguntzen digu mugak argitzen (Zavala, 2006: 59-60, 63), eta beronen idatziari jarraituz osatu ditut zerrendak.

Olea, Inozentzio: A 244, 278/279.
Ostolaiz, Mariano: A 182, 268.
Pujana, Basilio: A 211.
Salaberria, Sebastian: A 38, 247.
Trekua, Mari: A 158.
Uztapide, Manuel Olaizola: AE [1]/[2], ASN 11.
Zendoia, Nikolas: A 308.
Zinkunegi, Agustin: A 232.
Zubillaga, Jose Ramon: A 40-41.

– **Bertsolaritzari edo herri-literaturari buruzkoak: 6 obra**

Ikusi dugunez, Zavalak 1964an plazaratu zuen, Auñamendi argitaletxearen eskutik, *Bosquejo de historia del bertsolarismo*, Arantzazun iragarritako estudioa. Gero berak jaso zuen *Auspoaren auspoa I* liburuan, 1996an. Era berean, *Auspoaren auspoa* izeneko ale horretan eta gainerako hiruetan dago Zavalaren herri-literaturari buruzko azterketa osoa. Oinarri-oinarrizko obra da.

Horrez gainera, beste bost obra plazaratu zituen bertsolaritzari eta herri-literaturari buruzkoak; eta denak Auspoa arruntean, bat izan ezik: Jesus Mari Etxezarretaren *Bertsolarien desafioak, guduak eta txapelketak*.

Auspoa arrunta

178, 238/239/262/300, 240, 274, 311.

Auspoaren Sail Nagusia

10.

– **Auspoan baino lehenago plazaratutako idazleenak: 5 obra (sei idazle)**

Badu garrantzia ikusteak nola tolosarrak, pixkana-pixkana, bere egitasmoaren baitara ekarri zituen zenbait idazle, hauek ere herri-idazletzat joz azken batean: Artola anaiak, Aranalde, Larre, Zubimendi...; nola bere plaza eskaini zien beste

nonbait idatzi zutenei edo idazten ari zirenei; eta, azkenik, nola bere burua ere, harrotasunez, horien sailean kokatu zuen.

Hauexek dira bost obrak, denak Auspoa arruntean plaza-ratuak:

156, 246, 249/263/299, 264, 273.

– **Bertso eta prosa batera: 5 obra**

Nahiz eta obrak sailkatzean ahaleginak egin horiek bertso-liburuetan ala prosa-liburuetan kokatzen, bost obra geratu dira honako, bostok aldi berean prosazko eta bertsozkoztat jo daitezkeelako. Hauexek dira:

Auspoa arrunta

197, 259, 270, 275.

Auspoaren Sail Nagusia

3.

– **Bereziak: 4 obra**

Azkenik, lau obra geratzen dira. Izan ere, herri-literaturaren eremukoak dira, baina ez bertsoen saileko eta ez herri-prosaren saileko. Zavalak eginak dira bi, esaera zaharrak eta euskal erromantzeak bilduz eta argitaratuz. Juan Manuel Etxebarriarena da beste bat, Zeberioko kantaz osatua; eta Laxagaren saiakera bat, laugarrena.

Auspoa arrunta

184/185, 259, 260.

Auspoaren Sail nagusia

[16].

Zavalaren obra

1. Auspoa

1.1. Auspoa arrunta

1. ARTOLA, Ramon: *Sagardoaren graziya*, 1961.
2. SOROA, Marcelino: *Gabon, Au ostatuba!*, *Anton Kaiku*, 1961.
3. APALATEGUI, Franzisko: *Euskal mutillak armetan (I)*, 1961.
4. ARTOLA, Pepe: *Ustez laguna detan*, 1961.
5. URRUZUNO, Pedro Miguel: *Euskalerritik zerura*, 1961.
6. ALZAGA, Toribio: *Ramuntxo*, 1961.
7. AZKARATE, Ramos: *Galtzaundi*, 1962.
8. APAOLAZA, Antero: *Patxiko Txerren*, 1962.
9. IRAOLA, Bitoriano: *Oroitzak*, 1962.
10. BERTSOLARIAK: *Errege eguneko bertso sayoa (1962)*, 1962.
11. LARZABAL, Piarres: *Bordaxuri*, 1962.
12. BILINTX, Indalecio Bizcarrondo: *Bertso ta lan guziak*, 1962.
13. IZETA, Mariano: *Dirua galgarri*, 1962.
14. LARZABAL, Piarres: *Iru ziren*, 1962.
15. BERTSOLARIAK: *Ezkontza galdutako bertsoak, I*, 1962.
16. ZABALA, Alfonso M^a: *Gabon gau bat*, 1962.
17. LABAYEN, Antonio M^a: *Malentxo alargun!*, 1962.
- 18-19. ZAVALA, Antonio: *Txirrita*, 1962.
20. GOÑI, Franzisko: *Lurdes-ko gertaerak*, 1962.
21. LARZABAL, Piarres: *Herriko bozak edo Nor alkate*, 1962.
22. BERTSOLARIAK: *Bertsolarien txapelketa (30-XII-1962)*, 1963.
23. ZAVALA, Antonio: *Aizkolariak ta beste ipui asko*, 1963.
24. ZAVALA, Antonio: *Fermin Imaz. Bertso guziak*, 1963.
25. ITURRIAGA, Agustin Paskual: *Jolasak*, 1963.

26. ZABALA, Alfonso M^a; LARRAITZ; MIR, Juan: *Periyaren zalapartak*, 1963.
27. ZAVALA, Antonio: *Azpeitiko Premioaren bertsoak*, 1963.
28. MOGEL, Bizenta Antonia: *Ipui onak*, 1963.
29. ALZAGA, Toribio: *Burruntziya*, 1963.
30. ANDUAGA, Graziano: *Egusentiko txoria*, 1963.
31. SOROA, Marzelino: *Baratzan*, 1963.
32. ELICEGUI, Mikela; ZAVALA, Antonio: *Pello Errotaren bizitza bere alabak kontatua*, 1963.
33. ELICEGUI, Mikela; ZAVALA, Antonio: *Pello Errotak jarritako bertsoak*, 1963.
34. LARZABAL, Piarres: *Senpere-n gertatua*, 1964.
- 35-36. ECHAGARAY, Jose Vicente de: *Festara*, 1964.
37. CARDABERAZ, Agustin: *Euskeraren berri onak*, 1964.
38. SALAVERRIA, Sebastian: *Neronek tirako nizkin*, 1964. [Bigarren argitalpena, 1994an.]
39. BERTSOLARIAK (biltzaile: ZAVALA, Antonio): *Amar urteko bertso-paperak (1954-1963)*, 1964.
- 40-41. ZUBILLAGA, Jose Ramon: *Lardasketa*, 1964.
42. UZTAPIDE, Manuel Olaizola: *Noizbait*, 1964.
43. BERTSOLARIAK: *Bertsolari-txapelketa (I-I-1965)*, 1965.
44. LARZABAL, Piarres: *Hilla esposatu*, 1965.
- 45-46. SATRUSTEGUI, Jose Maria: *Bordel bertsolaria*, 1965.
47. URRUZUNO, Pedro Migel: *Iru ziri*, 1965.
48. BARRUTIA, Pedro; SOR LUISA; MUNIBE, Xabier: *Teatro zaarra*, 1965.
- 49-50. ZAVALA, Antonio: *Pello Errotaren itzala*, 1965.
51. URRUZUNO, Pedro Migel: *Ur-zale baten ipuiak*, 1965.
- 52-53. ANDUAGA, Graziano: *Bertso-bilduma*, 1965.
54. ZAVALA, Antonio: *Pernando Amezketarra bertsolaria*, 1966.
55. BASARRI, Iñaki Eizmendi: *Laugarren txinparta*, 1966.
56. ZAVALA, Antonio: *Udarregi bertsolaria*, 1966.
- 57-58. BEOBIDE, Crispin: *Asis'ko Lorea*, 1966.
59. ZAVALA, Antonio: *Axentzio Txanka bertsolaria*, 1966.

60. ZAVALA, Antonio: *Errikotxia, Itxaspe ta beste zenbait bertsolari*, 1966.
61. ZAVALA, Antonio: *Gaztelu bertsolaria*, 1966.
62. ZAVALA, Antonio: *Zarautz'ko Zaldubi bertsolaria*, 1967
- 63-64. ZAVALA, Antonio: *Juan eta Pello Zabaleta bertsolariak*, 1967.
65. SATRUSTEGUI, Jose Maria: *Luzaide'ko kantiak*, 1967.
66. ZAVALA, Antonio: *Iru bertsolari*, 1967.
67. BERTSOLARIAK: *Bertsolari-txapelketa (11-VI-1967)*, 1967.
- 68-69-70. ZAVALA, Antonio: *Alzo'ko Imaz bertsolaria*, 1967.
- 71-72. ITURRIAGA, Agustin Paskual: *Ipuiak*, 1967.
73. ZAVALA, Antonio: *Iru anai bertsolari*, 1968.
- 74-75. ZAVALA, Antonio: *Errenteria'ko bertsolari zaarrak*, 1968.
76. ZAVALA, Antonio: *Alza'ko bertsolari zaarrak*, 1968.
- 77-78. ZAVALA, Antonio: *Paulo Yanzi ta bere lagunen bertsoak*, 1968.
- 79-80-81. ZAVALA, Antonio: *Lexo bertsolaria*, 1968.
82. ZAVALA, Antonio: *Juan Maria Zubizarreta bertsolaria*, 1969.
83. ZAVALA, Antonio: *Motza, Zulaika ta Ugalde bertsolariak*, 1969.
84. MATXAIN, Manuel: *Uste gabea*, 1969.
85. XALBADOR, Fernando Aire: *Ezin bertzean*, 1969.
- 86-87. ZAVALA, Antonio: *F. Iturzaeta bertsolaria*, 1969.
- 88-89-90. ZAVALA, Antonio: *Xenpelar bertsolaria*, 1969.
91. ZAVALA, Antonio: *Txapel bertsolaria*, 1969.
92. ALKAIN, Iñaki; ZAVALA, Antonio: *Alkain aita-sumeak*, 1970.
93. ZAVALA, Antonio: *Zubeltzu ta Saikola bertsolariak*, 1970.
94. ZAVALA, Antonio: *Atano ta Estrada bertsolariak*, 1970.
- 95-96. ZAVALA, Antonio: *Azkoitia'ko zenbait bertsolari*, 1970.
97. ZAVALA, Antonio: *Bidasoa aldeko bost bertsolari*, 1970.
- 98-99. OLEA, Inozentzio: *Goierriko lorak*, 1970.
100. LASARTE, Manuel: *Bertso-xorta*, 1970.
- 101-102. ZAVALA, Antonio: *Txirritaren bertsoak I*, 1971.
- 103-104. ZAVALA, Antonio: *Txirritaren bertsoak II*, 1971.

105. ETXEBERRIA, Jose Inazio: *Mendi gañetik*, 1971.
106. ZAVALA, Antonio: *Pastor Izueta. Ezkioko ta Segurako itxuak*, 1971.
107. ZAVALA, Antonio: *Zepai bertsolaria*, 1971.
108. MATTIN, Mattin Treku: *Ahal dena*, 1971.
- 109-110. LAFFITTE, Piarres: *Mañex Etchamendy bertsularia*, 1972.
111. ZAVALA, Antonio [biltzaile]: *Xenpelar saria*, 1972, 1972.
112. BASARRI, Iñaki Eizmendi: *Sortu zaizkidanak*, 1973.
113. URRUZUNO, Pedro Migel: *Sasiletrau baten ziria*, 1973
114. ZAVALA, Antonio: *Kaskazuri bertsolaria*, 1973.
115. ZAVALA, Antonio: *Larraburu, Lexoti ta Balentin bertsolariak*, 1973.
116. ZAVALA, Antonio: *Oiartzungo bost bertsolari*, 1973.
- 117-118. ENBEITA, Balendin: *Nere apurra*, 1974.
119. ZAVALA, Antonio: *Oiartzungo beste lau bertsolari*, 1974.
- 120-121-122. ZAVALA, Antonio: *Mendaro Txirristaka*, 1974.
- 123-124-125. ZAVALA, Antonio: *Zapirain anaiak*, 1975.
126. ZAVALA, Antonio: *Ustu ezin zan ganbara*, 1976.
127. AROZAMENA, Mikel: *Nere aldia*, 1976.
128. ZAVALA, Antonio: *Amodiozko penak bertso berrietan*, 1976.
129. ZAVALA, Antonio: *Afrika'ko gerra (1859-1860)*, 1977.
130. ZAVALA, Antonio: *Patxi Erauskin bertsolaria (I)*, 1978.
131. ZAVALA, Antonio: *Patxi Erauskin bertsolaria (II)*, 1978.
132. ZAVALA, Antonio: *Patxi Erauskin bertsolaria (III)*, 1978.
133. ZAVALA, Antonio: *Arrantzaleen bizitza*, 1978.
134. ARRIZABALO, Jose Manuel; ZAVALA, Antonio: *Baso-mutillak*, 1979.
135. ZAVALA, Antonio: *Jaioak bizi nai*, 1979.
136. ZAVALA, Antonio: *Noe'ren ontzia*, 1979.
- 137-138. ATAÑO, Salbador Zapirain: *Txantxangorri kantaria*, 1980.
139. ZAVALA, Antonio: *Soldaduzkako bertsoak*, 1979.
140. ZAVALA, Antonio: *Nekazariak bai miseriak*, 1979.
141. BERTSOLARIAK: *Bertsolari-Txapelketa Nagusia (Donostia, 1980-I-6)*, 1980.

142. ZAVALA, Antonio: *Txabolategi, Elkoro eta Leunda bertsolariak*, 1980.
143. IRAZUSTA, Juan Jose: *Nork bere bidea (I)*, 1980.
144. IRAZUSTA, Juan Jose: *Nork bere bidea (II)*, 1980.
145. IRAZUSTA, Juan Jose: *Nork bere bidea (III)*, 1980.
146. ZAVALA, Antonio: *Berridi eta Kuxkullu bertsolariak*, 1980.
147. ATAÑO, Salvador Zapiroain: *Txori*, 1981.
148. ALKAIN, Iñaki; ZAVALA, Antonio: *Gerrateko ibillerak (I)*, 1981.
149. ALKAIN, Iñaki; ZAVALA, Antonio: *Gerrateko ibillerak (II)*, 1981.
150. ALKAIN, Iñaki; ZAVALA, Antonio: *Gerrateko ibillerak (III)*, 1981.
151. MATTIN, Mattin Treku: *Etxe xokotik kantari*, 1981.
152. XALBADOR, Fernando Aire: *Herria gogoan*, 1981.
153. ZAPIRAIN, Juan Krutz; ATAÑO, Salvador Zapiroain: *Zure Pasio Santua. Asis'ko San Frantziskoren bizitza*, 1981.
154. ZAVALA, Antonio: *Jan-edanaren bertsoak (I)*, 1982.
155. ZAVALA, Antonio: *Jan-edanaren bertsoak (II)*, 1982.
156. ARTOLA, Fernando "Bordari"; ARTOLA, Rafael: *Aritz beraren adarrak*, 1982.
157. ELKAR LANEAN: *Lexoti bertsolaria*, 1982.
158. TREKU, Mari: *Mattin, nere gizona*, 1982.
159. GARMENDIA, Txomin: *Denbora pasa*, 1982.
160. GARMENDIA, Txomin: *Bizitzaren arian*, 1982.
161. ZAVALA, Antonio: *Kuba'ko gerra*, 1983.
162. ARRIETA, Joxe Mari: *Nere ondar alea*, 1983.
163. ARROSAGARAY, Juan Cruz: *California-tik kantuz*, 1983.
164. ZAVALA, Antonio: *Mixioetako bertsoak (I)*, 1983.
165. ZAVALA, Antonio: *Mixioetako bertsoak (II)*, 1983.
166. MANTEROLA, Marzelino: *Lore apal bat*, 1983.
167. LERTXUNDI, Joxe Mari: *Baso tarteko oiua*, 1983.
168. LAZKANO, Patxi; ZAVALA, Antonio: *Tiro tartean bertsoan*, 1983.
169. BASARRI, Iñaki Eizmendi: *Kezka-giroan*, 1983.
170. GARMENDIA, Txomin: *Bordaberri'ko gozo-mikatsak*, 1983.
171. GARMENDIA, Txomin: *Bertsolari kurpilla*, 1984.

172. SALABERRIA, Sebastian: *Nere soroko emaitzak*, 1984.
173. OLEA, Inozentzio: *Otemotxeko arnasa*, 1984.
174. ZAVALA, Antonio: *Kristaubidea bertsoan (I)*, 1984.
175. ZAVALA, Antonio: *Kristaubidea bertsoan (II)*, 1984.
176. ZAVALA, Antonio: *Ameriketako bertsoak*, 1984.
177. GARMENDIA, Txomin: *Erririk-erri*, 1984.
178. BASARRI, Iñaki Eizmendi: *Bertsolaritzari buruz*, 1984.
179. ATAÑO, Salvador Zapirain: *Espetxeko negarrak*, 1984.
180. ZAVALA, Antonio: *Euskal jokoak bertsoan (I)*, 1984.
181. ATAÑO, Salvador Zapirain: *Zigorpean*, 1985.
182. OSTOLAIZ, Mariano: *Oroipen-kutxa*, 1985.
183. ZAVALA, Antonio: *Euskal jokoak bertsoan (II)*, 1985.
184. ZAVALA, Antonio: *Esaera zaarren bilduma berria (I)*, 1985.
185. ZAVALA, Antonio: *Esaera zaarren bilduma berria (II)*, 1985.
186. ZAVALA, Antonio: *Neska-mutillen arteko bertsoak*. 1985.
187. ZAVALA, Antonio: *Ezkonduraren bertsoak*, 1985.
188. GARMENDIA, Txomin: *Beltzak eta zuriak mendian ardiak*, 1985.
189. ATAÑO, Salvador Zapirain: *Eltzaorra*, 1985.
190. ZUBIARRAIN, Paulo "Ernani Txikia": *Ia kantatuz bezela*, 1985.
191. PUJANA, Basilio: *Egi batzuek aixetarutzen*, 1986.
192. ATAÑO, Salvador Zapirain: *Odol-kutsua*, 1986.
193. ATAÑO, Salvador Zapirain: *Maitasunaren lanak*, 1988.
194. ZUBIARRAIN, Paulo "Ernani Txikia": *Gaziak eta gozoak*, 1988.
195. AYERBE, Bartolo: *Nere mundualdia*, 1988.
196. ATAÑO, Salvador Zapirain: *Etorkizuna*, 1988.
197. AZARATE, Ramos: *Ijitoen kontratuba eta abar*, 1988.
198. ETCHEBARNE, Erramun: *Erramun harginaren oroitzapenak*, 1989.
199. ETXABURU, Jose Maria: *Neure lau urteko ibillerak*, 1989.
200. AZPIROZ, Jose: *Arbol zarraren kimuak*, 1989.
201. ATAÑO, Salvador Zapirain: *Maite itzazute etsaiak*, 1989.
202. ZAVALA, Antonio: *Frantziako iraultza eta Konbentzioko gerra bertsoan*, 1989.

203. AZPIROZ, Jose: *Gogoz kontrako pausoak*, 1989.
204. REZOLA, Luis "Tximela": *Bakardadeko ametsak (I)*, 1989.
205. REZOLA, Luis "Tximela": *Bakardadeko ametsak (II)*, 1989.
206. LETE, Jesus "Ibai-Ertz": *Orrela ziran gauzak*, 1990.
207. ATAÑO, Salvador Zapirain: *Aztia usnari*, 1990.
208. ETXEBARRIA, Faustino: *Nor garan azaldu*, 1990.
209. BARANDIARAN, Bizente: *Zartu gabe ezin bizi*, 1990.
210. KARRIKA, Beñat: *Armendaritza haur begiez*, 1990.
211. PUJANA, Basilio: *Deabruak ostutako urteak*, 1991.
212. ZAVALA, Antonio: *Frantzesetako bertsoak (I)*, 1991.
213. ZAVALA, Antonio: *Frantzesetako bertsoak (II)*, 1991.
214. LERTXUNDI, Joxe Mari: *Igaroari begira*, 1991.
215. ATAÑO, Salvador Zapirain: *Azkeneko saskigillea*, 1991.
216. ETXEZARRETA, Jesus Maria "Izazpi": *Hasperen ttanta bihoztiak*, 1992.
217. AYESTA, Lino: *Gure izkuntzaren mugatik*, 1992.
218. OTAÑO, Pedro Maria: *Bertso guziak*, 1994.
219. ATAÑO, Salvador Zapirain: *Nora goaz*, 1994.
220. LERTXUNDI, Joxe Mari: *Sorlekuaren kezka*, 1994.
221. LASARTE, Manuel: *Lazkao-Txiki gogoan*, 1994.
222. LAZKAO TXIKI, Jose Migel Iztueta: *Gertaerak eta txisteak*, 1994.
223. ALZAGA, Toribio: *Neskazar, Amantxi, Aterako gera, Biozberak*, 1994.
224. ATAÑO, Salvador Zapirain: *Lotsaren iges*, 1995.
225. LASARTE, Manuel: *Enbor zarraren ezpalak*, 1995.
226. ETXABURU, Jose Maria: *Ondarroa'ko kontuak*, 1995.
227. ARTOLA, Ramon: *Ipuin edo kontutxoak (I)*, 1995.
228. ARTOLA, Ramon: *Ipuin edo kontutxoak (II)*, 1995.
229. ESNAL, Pello: *Itzuliko naiz*, 1995.
230. KAZABON, Antton: *Koskotenekoak*, 1995.
231. BARANDIARAN, Bizente: *Lanik gabe ezin bizi*, 1995.
232. ZINKUNEGI, Agustin: *Bizi naiak lege zorrotzak*, 1995.
233. ARZAK, Antonio: *Idazlan-sorta*, 1995.

234. ATAÑO, Salbador Zapirain: *Askatasun bila*, 1996.
235. MUJIKA, Teodoro: *Errekaldeko intxaurraren itzala*, 1996.
236. LERTXUNDI, Joxe Mari: *Beti festara begiak*, 1996.
237. ETXEBARRIA, Faustino: *Nire gazte denpora*, 1996.
238. ZAVALA, Antonio: *Auspoaren auspoa (I)*, 1996.
239. ZAVALA, Antonio: *Auspoaren auspoa (II)*, 1996.
240. ARANALDE, Joxe Mari: *Xalbador pertsularia*, 1996.
241. AYERBE, Bartolo: *Zaarrak berrituz*, 1996.
242. KAZABON, Antton: *Jose Joakin Mitxelena bertsolaria*, 1996.
243. IRAOLA, Biktoriano: *Au poza senti det eta beste bertso asko*, 1996.
244. OLEA, Inozentzio: *Bizitza izbide*, 1997.
245. AYESTA, Lino: *Ikusiak eta entzunak*, 1997.
246. ZUBIMENDI, Joxe Ramon: *Bidezkoak*, 1997.
247. SALABERRIA, Sebastian: *Sagardotegiak*, 1997.
248. LASARTE, Manuel: *Kantuaren ordaiñez*, 1997.
249. ZAVALA, Antonio: *Oiñez eta jakin miñez*, 1997.
250. AZPIROZ, Jose: *Alkarrentzat jaiok*, 1997.
251. PUJANA, Basilio: *Oiuak*, 1997.
252. IBARGUREN, Kasiano: *Kantari bizi naiz*, 1997.
253. AYERBE, Joxe: *Alako batean*, 1998.
254. ZENDOIA, Nikolas: *Beranduko birigarroa*, 1998.
255. KALONJE, Segundo: *Loreak udan intza bezela*, 1998.
256. LIZASO, Koxme: *Jose Joakin Mitxelena gogoan*, 1998.
257. ZAVALA, Antonio: *Ezkontza galdutako bertsoak II*, 1998.
258. ARANALDE, Joxe Mari: *Bihotzak dion hura*, 1998.
259. ETXEBARRIA, Juan Manuel: *Zebrioko kantak*, 1998.
260. LATXAGA, Jose Maria San Sebastian: *Euskal sena*, 1999.
261. LASARTE, Manuel: *Uztapide gogoan*, 1999.
262. ZAVALA, Antonio: *Auspoaren auspoa III*, 1999.
263. ZAVALA, Antonio: *Oiñez eta jakin miñez II*, 1999.
264. ARANALDE, Joxe Mari: *Bertso-kontuak*, 1999.
265. BARANDIARAN, Bizente: *Tratabideak*, 1999.
266. ALDALUR, Justina: *Ama Birjiñaren bizitza*, 1999.

267. ATAÑO, Salvador Zapiain: *Ondareztat gorrotoa*, 2000.
268. OSTOLAIZ, Mariano: *Senda-belarrak*, 2000.
269. GERRIKAGOITIA, Tomas: *Arantza eta larrosa*, 2000.
270. BASTERRETXEA, Andoni: *Ene Ondarru*, 2000.
271. ATAÑO, Salvador Zapiain: *Jesusen bizitza*, 2001.
272. AIZPURUA, Mikel: *Hasi, Azpillaga*, 2001.
273. LARRE, Emile: *Ene artzain-etxolak*, 2001.
274. ARANALDE, Joxe Mari: *Xalbadarren barrua*, 2001.
275. IRIONDO, Joxe Mari: *Joxe Lizaso. Nere aldiko kronika*, 2001.
276. INSAUSTI, Jose: *Beti bertsoa buruan*, 2001.
277. MATXAIN, Manuel: *Uste gabea*, 2002.
278. OLEA, Inozentzio: *Ostiraleko kronika Segura Irratian (1986-1992) I*, 2002.
279. OLEA, Inozentzio: *Ostiraleko kronika Segura Irratian (1993-1997) II*, 2002.
280. ATAÑO, Salvador Zapiain: *Markesgaiak. Dirua jainko*, 2002.
281. ZAVALA, Antonio: *Estropadak bertsoan*, 2003.
282. IRIONDO, Joxemari: *Segi, Mugartegi*, 2003.
283. IRAOLA, Rufino: *Nañarriri begira*, 2003.
284. ARTOLA, Ramon: *Sagardoaren graziya II*, 2003.
285. IRUNTXIBERRI, Leon Albeniz: *Nere berriketa eta aitortza*, 2003.
286. AZKARATE, Ramos: *Galtzaundi berriz ere I*, 2004.
287. AZKARATE, Ramos: *Galtzaundi berriz ere II*, 2004.
288. ETXAMENDI, Pedro Juan: *California'ko bertsolari eta musikari*, 2004.
289. GARZIANDIA, Jose Agustin: *Garai bateko Unanuko oiturak eta olgak*, 2004.
290. XALBADOR, Fernando Aire: *Odolaren mintzoa*, 2004. [Hirugarren argitalpena, zuzendua eta gehitua.]
291. URRUZUNO, Pedro Migel: *Koroi eder bat*, 2005.
292. APALATEGUI, Francisco: *Karlisten eta liberalen gerra-kontae-rak (I)*, 2005.
293. APALATEGUI, Francisco: *Karlisten eta liberalen gerra-kontae-rak (II)*, 2005.

294. LASARTE, Manuel: *Plaza-gizonak*, 2005.
295. ZENDOIA, Nikolas: *Egan dijoa*, 2005.
296. IRIONDO, Joxemari: *Basarri I: bat-batean*, 2006.
297. ARTOLA, Pepe: *Ustez laguna detan*, 2006.
298. TREKU, Mattin; TREKU, Mari: *Mattin bertsularia*, 2006.
299. ZAVALA, Antonio: *Oiñez eta jakin miñez III*, 2006.
300. ZAVALA, Antonio: *Auspoaren auspoa IV*, 2006.
301. ZAVALA, Antonio; IRIONDO, Joxemari: *Mattin eta Xalbador*, 2006.
302. IRIONDO, Joxemari: *Xanpun bertsularia*, 2006.
303. ARROSSAGARAY, Joanes: *Bihotz barneko solasak*, 2007.
304. ATAÑO, Salvador Zapirain: *Berezko iltzaillea. Ovni*, 2007.
305. ARTETXE, Pello: *Nere bizitzaren gurdia*, 2007.
306. MENDIBURU, Jean Pierre: *Ene bertsuen feiria*, 2007.
307. ERNEST, Alkat: *Ene ezkilaren dangak*, 2007.
308. ZENDOIA, Nikolas: *Sasi guztien gaiñetik*, 2008.
309. AIERBE, Joxe: *Agindua zor*, 2008.
310. ZAVALA, Antonio: *Gabon eskeko bertsoak (1814-2000)*, 2008.
311. ZUBIZARRETA, Iñaki: *Manuel Lasarte. Iturria ondare*, 2008.
312. ARRIOLA, Jose Manuel: *Mondragoiko kalezaiñaren bertsoak*, 2008.

1.2. Auspoa ertaina

- [1] UZTAPIDE, Manuel Olaizola: *Lengo egunak gogoan (I)*, 1974.
- [2] UZTAPIDE, Manuel Olaizola: *Lengo egunak gogoan (II)*, 1974.
- [3] LASARTE, Manuel: *Gordean neuzkanak*, 1975.
- [4] ERAUSKIN, Jose Ramon: *Aien garaia*, 1975.
- [5] UZTAPIDE, Manuel Olaizola: *Sasoia joan da gero*, 1976.
- [6] XALBADOR, Fernando Aire: *Odolaren mintzoa*, 1976.

1.3. Auspoaren Sail Nagusia

1. ZAVALA, Antonio: *Txirrita: Jose Manuel Lujanbio Retegi*, 1992.
2. BASARRI, Iñaki Eizmendi: *Nere bordatxotik*, 1992.

3. LASARTE, Manuel: *Beranduko lanak*, 1992.
4. ZAVALA, Antonio: *Karlisten leenengo gerrateko bertsoak*, 1992.
5. ZAVALA, Antonio: *Pello Errota: Pedro Elizegi Maiz*, 1992.
6. ZAVALA, Antonio: *Pedro M. Otaño eta bere ingurua (I)*, 1993.
7. ZAVALA, Antonio: *Pedro M. Otaño eta bere ingurua (II)*, 1993.
8. ZAVALA, Antonio: *Xenpelar eta bere ingurua*, 1993.
9. ZAVALA, Antonio: *Bilintx: bertsoak eta bizitza*, 1993.
10. ETXEZARRETA, Jesus Mari: *Bertsolarien desafioak, guduak eta txapelketak*, 1993.
11. UZTAPIDE, Manuel Olaizola: *Berriz plazara (I)*, 2001.
12. UZTAPIDE, Manuel Olaizola: *Berriz plazara (II)*, 2001.
- [13] LAZKAO TXIKI, Jose Migel Iztueta: *Irriz eta malkoz (I)*, 1994.
- [14] LAZKAO TXIKI, Jose Migel Iztueta: *Irriz eta malkoz (II)*, 1994.
- [15] ZAVALA, Antonio: *Karlisten bigarren gerrateko bertsoak*, 1997.
- [16] ZAVALA, Antonio: *Euskal erromantzeak. Romancero vasco*, 1998.

2. Biblioteca de Narrativa Popular

1. ZABALLA, Indalecio "Masio"; ZAVALA, Antonio: *La ultima trova*, 1993.
2. AYAPE, Humbelino; ZAVALA, Antonio: *Las tardes de la Bardena (I)*, 1994.
3. AYAPE, Humbelino; ZAVALA, Antonio: *Las tardes de la Bardena (II)*, 1994.
4. AYAPE, Humbelino; ZAVALA, Antonio: *Las tardes de la Bardena (III)*, 1994.
5. AYAPE, Humbelino; ZAVALA, Antonio: *Las tardes de la Bardena (IV)*, 1994.
6. JARNE, Hilario; ZAVALA, Antonio: *Junto al fogaril de Atarés (I)*, 1995.
7. JARNE, Hilario; ZAVALA, Antonio: *Junto al fogaril de Atarés (II)*, 1995.
8. JARNE, Hilario; ZAVALA, Antonio: *Junto al fogaril de Atarés (III)*, 1995.

9. PEÑA, Justo; ZAVALA, Antonio: *El pastor de Páramo (I)*, 1995.
10. PEÑA, Justo; ZAVALA, Antonio: *El pastor de Páramo (II)*, 1995.
11. RUGARCÍA, Juan; ZAVALA, Antonio: *En la ribera de Cares*, 1996.
12. BALBÍN, Juan; ZAVALA, Antonio: *Entre los olivos de Jaen*, 1996.
13. CUESTA, Daniel; ZAVALA, Antonio: *En la montaña de León*, 1996.
14. LUMBRERAS, Félix; ZAVALA, Antonio: *Cuando los ciegos guían*, 1998.
15. CALDEVILLA, Alfredo; ZAVALA, Antonio: *Una vida en los Picos de Europa*, 1998.
16. GARCÍA DE LA TORRE, Bonifacio; ZAVALA, Antonio: *Los Merineros*, 1999.
17. RODRÍGUEZ, Diego; ZAVALA, Antonio: *Aprendiz de gañán*, 1999.
18. TEJADA, Eloy; ZAVALA, Antonio: *Castejón y el Ferrocarril*, 1999.
19. ARGANDOÑA, Francisco; ZAVALA, Antonio: *Lezaun pie de Sierrandia (I)*, 2000.
20. ARGANDOÑA, Francisco; ZAVALA, Antonio: *Lezaun pie de Sierrandia (II)*, 2000.
21. RODRÍGUEZ SAN JUAN, Antonio; ZAVALA, Antonio: *En la reserva de Saja*, 2000.
22. CASQUERO HERRERO hermanos; ZAVALA, Antonio: *Prioro, cuna de la transhumancia*, 2001.
23. RODRÍGUEZ ORELLANA, Diego; ZAVALA, Antonio: *Andanzas de un quinto del 42*, 2001.
24. RODRÍGUEZ ORELLANA, Diego; ZAVALA, Antonio: *Del fusil al arado*, 2001.
25. MOLINA ESCABIAS, Encarnación: *Cana, la hija de la maestra*, 2002.
26. TEJADA y HERRERO, Eloy: *Más recuerdos sobre Castejón y el ferrocarril*, 2004.
27. JIMÉNEZ RODRÍGUEZ, Juan Pablo: *En las dehesas extremeñas*, 2005.

28. CELADA, Modesto: *En la tierra de Campos*, 2006.
29. FERNÁNDEZ RODRIGUEZ, Jesús: *Cañada arriba, cañada abajo*, 2007.

3. Eta beste bost liburu

- [ZAVALA, Antonio]: *Bertsolarien txapelketa–1960*. Zarautz: Itxaropena [Kulixka Sorta 43-44], 1961.
- ZAVALA, Antonio: *Bosquejo de historia del bersolarismo*. Donostia: Auñamendi, 1964.
- ZAVALA, Antonio: *Bilintx. Indalecio Bizcarrondo (1831-1876). Bizitza eta bertsoak*. Donostia: Donosti Aurrezki Kutxa [Gaztelaniazko itzulpena: Miguel Pelay Orozco], 1978.
- ZAVALA, Antonio: *Indalezio Bizkarrondo "Bilintx". Bertsoak eta beste*. Euskal Editoreen Elkarte [Klasikoak 7], 1986.
- ARRUE, Antonio: *Idaztiak eta hitzaldiak. Escritos y conferencias*. Bilbo: Euskaltzaindia [ZAVALA, Antonio: Aurkezpena eta argitalpenaren paratzaile], 2008.

6. Ondarea

Auspoa da –Zavalak euskaraz argitaratutako liburu-bilduma hirukoitza– tolosarrak utzitako ondarearen alderdirik ezagunena. Horren balioa dugu hizpide kapitulu honetan, azaletik bada ere.

Eta azalean geratuko ginateke, Auspoaren baliorik behinena ahaztuko bagina. Arte-bilduma dugu, eta kito. Herri xehearen artea da. Euskal herri xeheak berez eta zuzenean bizi zuena; eta oraindik, neurri apalagoan bada ere, bizi duena. Eta betiko geratu zaiguna.

Horren oihartzun dira Xabier Azurmendi poetaren ondorengo hitzak. Honela mintzatu zen Zavalaz¹²²:

Inork behar ez zituen bertso-paperetan jaso ditu Herri zahar honen nekeak, jolasak, lanak eta gudateak, Euzkadiko Poemarik ederrena gauzatuaz.

Euzkadiko Poema ez baina, *Euskal Herria* poema esango genuke gaur. Eta Gadamerren honako hitz hauez osatuko genuke¹²³:

No cabe duda de que las grandes épocas en la historia del arte fueron aquéllas en las que la gente se rodeó, sin ninguna conciencia estética y sin nada parecido a nuestro concepto del “arte”, de configuraciones cuya función religiosa o profana en la vida era comprensible para todos y que nadie disfrutaba de manera puramente estética.

Ez nuen kapitulu hau zirriborratuko, Antonio bera hasi izan ez balitz, lehenengo puntuan jasotakoa esanez. Ondo-

¹²² Berasategi, 1994: 18.

¹²³ Gadamer, 2001b: 120.

rengoek Auspoaren hainbat alderdi azaltzen dituzte labur-labur, gehienbat zenbait adituren ahotsak lagun. Eranskin bat dator amaieran, azken puntuan esandakoaren erakusgarri.

Euskal bizi-munduaren lekuko

Zavalak Arantzazun egindako hitzaldiaren azken hitzak dira. Ezagunak ditugu¹²⁴:

Nos toca a nosotros, más que conjeturar, trabajar por salvar el euskera. Pero si muriese, y con él nuestro pueblo vasco, quedará en esta recopilación, milagrosamente conservado, el depósito de sus deseos, penas, odios, alegrías, tristezas, defectos, virtudes, amores y rezos; y, juntamente con ellos, pueblo e idioma habrán conseguido su más exacta y tenaz perduración.

Berehala ohartu zen tolosarra eskuetan zeukan altxorren balioaz. Bizia zerien bi urte eta erdian jasotako berrogeita hamar mila bertso haiei. Haietan zeuden herri zahar baten taupada bizia, nahiak eta ezinak, pozak eta penak, gorrotoak eta maitasunak, otoitzak eta intziriak. Altxor baliotsuagorik!

Balio soziolinguistikoa: euskararen plazaren erdigunean

Antonio Zavalak berak adierazi zigun zein den Auspoaren berezko plaza: lagunartea eta etxeko sukaldea¹²⁵. Plaza apalada, itxura batean; baina hizkuntza batentzat, oinarrizkoa ez ezik, nahitaezkoa. Halaxe azpimarratu zuen Joshua Fishman soziolinguista handi eta euskaltzain emeritu izanak¹²⁶.

Baina Fishmanen hitzak baino lehenago entzun ahal izan genituen gure Koldo Mitxelenarenak. Xabier Letek, 1981ean

¹²⁴ Zavala, 1996a: 40.

¹²⁵ Zavala, 1964b: 8.

¹²⁶ Fishman, 1990.

argitaratutako elkarrizketa batean, honela galdetzen dio, orduko –eta gaurko– giro eta irizpideak bere-bere eginez¹²⁷:

En este grave momento de emergencia cultural cuáles tendrían que ser, según tu criterio, los ámbitos fundamentales de utilización del euskera? Yo propondría, como urgentes, el ámbito administrativo, el de la enseñanza, el de los medios de comunicación social...

Eta errenteriarrak zorrotz eta gordin erantzun, oiartzuarren zerrenda etenez:

Sigo pensando que, con todo, el antiguo ámbito familiar y el de la comunidad local sigue siendo esencial. Y sin eso, tenemos que convencernos de que no hay nada que hacer, de que todo lo demás es cuento.

Miren Azkaratek errenteriarraren ehungarren jaioturtea ospatzean gogoratu digunez, haren hitz horiek ez dute batera indarrik galdu; erabat indarrean daude hogeita hamabost urte geroago ere¹²⁸.

Euskarak ahozko plaza horri esker iraun du bizirik gaurdaino. Eta hortik zabaldu da gainerako plazetara: eskolara (lehenik, oinarrizko hezkuntzara; gero, ertainetara eta unibertsitatera), lan-mundura, komunikabideetara, administrazioetara...

Familiak eta lagunarte hurbilak osatutako plazan jokatzen da hizkuntza baten etorkizuna, belaunaldien arteko lotura. Hor irabazi du euskarak gaur arte iraun izana; eta horixe irabaziko du, irabazten badu, iraupena ziurtatuko dion belaunaldiz belaunaldiko transmisioa ere. Are gehiago: eskolan, lan-munduan, komunikabideetan eta administrazioan

¹²⁷ Lete, 1981: 36. Hasierako galde-ikurra falta da jatorrizkoan.

¹²⁸ Ibagutxi, 2015.

egindako lanak ez du askorik balioko, ez badu etxeke eta lagunarteko euskal giroa elikatzen eta indartzen.

Horren jakitun da hizkuntz politika zuhurra. Eta hortxe du, hain zuzen, hizkuntz politika orok ahuldadea: bera nekez irits daitekeen gunean jokatzeko da hizkuntzaren geroa.

Plaza horretan arreta jarri eta plaza horren oinarri-oinarizko balioa gizarteratu izanean dago, zalantzarik gabe, Antonio Zavalaren meritu handienetako bat.

Balio komunikatiboa: erdi-ahozkotasuna

Ahazkotasunaz jardutea iraganera itzultzea da askorentzat. Ez gara ohartzen zer-nolako iraultza ekarri diguten komunikabide elektronikoen eta, ahazkotasunaren itzulera eragite-raino. Jakina, ez dira gauza bera gaurko ahazkotasuna eta lehengoa; eta, horregatik, erdi-ahazkotasunaz mintzo dira adituak, Walter J. Ong honako pasarte honetan bezala¹²⁹:

Nuestra comprensión de las diferencias entre la oralidad y la escritura nació en la era electrónica, no antes. Los contrastes entre los medios electrónicos de comunicación y la impresión nos han sensibilizado frente a la disparidad anterior entre la escritura y la oralidad. La era electrónica también es la era de la “oralidad secundaria”, la oralidad de los teléfonos, la radio y la televisión, que depende de la escritura y la impresión para su existencia.

Oralidad secundaria terminoa darabil Ongék, komunikabide elektronikoen erabiltzen den hizkera izendatzeko. Hori baliatzen du, adibidez, irratiko eta telebistako hainbat esatarik, hizketan ariko balitz bezala irakurtzen duenean. Azken batean, testu idatzia baliatzen du, baina esatariak ahoz gora

¹²⁹ Ong, 1987: 12.

irakurri eta entzuleak belarriz jasotzen du. Ez du idazten, be-
raz, isilean irakurriz jasotzeko; entzunez jasotzeko baino.

Lehendik ere ezaguna dugu entzuteko testu idatzia. Bai-
na, Ongen arabera, komunikabide elektronikoei esker hasi
gara ohartzen ahozketasunaren eta idatziaren arteko aldeaz,
nahiz eta oraindik ere gai ez garen ondorio guztiak ateratze-
ko. Ondorio horiek areagotu eta biderkatu besterik ez ditu
egingo informatikak.

Gurean, Juan Mari Lekuonak¹³⁰ eta Luis Villasantek¹³¹
jaso zuten bigarren ahozketasunaren oihartzuna. Eta norbai-
tek bildu eta landu badu, Antonio Zavalak bildu eta landu du
Auspoan.

Balio komunikatiboa: prosa eredugarria

Zorrotz salatu zuen Luis Villasantek gaurko euskal prosaren
gordintasuna. Honela esan zuen 1988an, artean euskaltzain-
buru zela¹³²:

Euskarak behar du prosa egiteko moldea ongi finkatua
eta trenpatua izan. Hau da, segur aski, euskarak duen
premia gogorrenetako bat. Hori duen egunean, euskara
bere bizkar-hezurraz horniturik izanen da. Eta hori ez
duen bitartean, tresna alferra izango da, gai ez dena, ze-
regin askotarako balio ez duena.

Euskara hizkuntza bizia izan dadila: horra gure min-
tzairaren premietan lehenbizikoa; baina horren hurren-
go, prosa egiteko tresna moldaturik edukitzea da, ene
ustez, bigarrena.

¹³⁰ Lekuona, 1989.

¹³¹ Villasante, 1991: 607.

¹³² Villasante, 1988: 142.

Antonio Zavalak, premia horren jakitun izanik, Auspoan bildutako lanez eman zion erantzuna¹³³:

Nuestro idioma, así como supo hace mucho encontrar un buen sistema de versificación, me da la impresión de que sigue todavía dando palos de ciego en su búsqueda de una prosa que sea un expedito cauce de comunicación, y la halla aquí de golpe [herri-prosan, alegia], al haber pasado al plano escrito los recursos del cotidiano comercio oral del pueblo.

Eta¹³⁴:

Gure izkuntzak, izan ere, badu aspalditik auzi bat. Auzi ori ez degu maai gainean jartzen, eztabaida gogorra sortuko duan bildurrez edo ez dakit zergatik. Baiña erabaki bitartean or izango da, gaitz ixil bat bezela, pipiak egiten duan lana egiñez.

Auzi ori zera da: gure euskerak, itzegiten danetik idazten danera nolako tarte bear duan. Nere iritzia auxe da: batetik bestera tarte geiegi dagoala eta alkarrengana urbildu-premia dagoala; ori egitera, gure izkuntzak eta literaturak mesede luketela.

Zenbait kazetari ohartua da Auspoaren ekarriaz. Eta sutu mintzo da. Joxerra Garziak dio nola Pello Zabaletari entzuna dion “Auspoa irakurri gabe ez lukeela inork euskaraz ezer idatzi behar”¹³⁵.

Balio literarioa

Antonio Zavala bera jabetu zen lehenik ahozko hiztunen jardunaren eta bertso idatzien eta herri-prosaren balio literarioaz.

¹³³ Zavala, 2006: 43.

¹³⁴ Zavala, 2006: 143.

¹³⁵ Garzia, 1995: 841.

Eta Euskal Herriko eta kanpoko hainbat hiztun egokiren jarduna jo zuen begiz. Horrek bultzaraziko zion lanera. Ezaguna dugu pasartea: nola hiztun horiei entzunda, bere buruari esaten zion: "Kontaera auek merezi lukete, ba, pape-reratzea. Zer literatura ederra egin litekean, aozko *narrativa* au idatziko balitz!"¹³⁶.

Era beran, ezaguna dugu zer esperientzia argigarria bizi izan zuen Oñan, 1952an, filosofia ikasten ari zela. Han, euskal liburutegia zuen eskueran, baina ezin euskal liburuez gozatu; irakurri bai, baina ezin gustua hartu. Harik eta bi liburu eder topatu zituen arte: Pedro Maria Otañoren *Alkar* eta Pedro Migel Urruzunoren *Ipuiak*¹³⁷. Eta haiek irakurtzen hasita, hura euskara, hura gozamina!

Bertso-liburua zen Otañorena. Hitz beroz gogoratuko du berrogei urte geroago¹³⁸. Zirrara bera eragingo dio bigarren liburuak, Urruzunoren prosa biziak, urte haietan ohikoa zen euskal prosaren motela salatuz. Horregatik esango du Elgoibarren, hogeita bat urte geroago, Urruzunori egindako omenaldian¹³⁹:

Nekez arkituko da euskal idazlerik, arek [Urruzunok] bezin ondo erriaren euskera ematen duanik.

Garai artan, euskaltzaleen artean modan jarria zegoen garbizaletasuna [...].

Urruzunok etzion moda orri jarraitu. Arek egin zuana zera da: euskerarik errikoiena ta jatorrena bere lanetan erabili [...].

Orduko idazle guziak Urruzunoren bidetik abiatu izan balira, beste txori batek joko zion gaur kuku euskerari.

¹³⁶ Zavala, 1999: 123.

¹³⁷ Zavala, 1999: 114.

¹³⁸ Zavala, 1993a: 13.

¹³⁹ Zavala, 1996a: 306.

Arantzazuko hitzaldian –1956an gaude–, hauxe aitortu zuen, bere egitasmoa plazaratzean¹⁴⁰:

Hace ya dos años que no hago sino leer y copiar *bertso berriyas*. Cuando hojeo ahora algunos de nuestros libros euskéricos, siento a veces la frialdad y languidez más delatoras de la falta de vida.

No dudo de que aquí radica mucho de la repulsa del pueblo a nuestros libros y gran parte de su devoción a los *bertsos*. Encuentran ellos en este euskera palpitación, calor, nervio; en una palabra, todo ese substrato espiritual que es el alma y la vida de un idioma.

Euskal irakurlea apurka-apurka ohartu da Auspoaren balio literarioaz. Mugarri garrantzitsuak izan ziren bi liburu: *Txirrita (Bizitza ta bat-bateko bertsoak)*¹⁴¹, Txirritari buruzko hainbat eta hainbat testigantzaz osatua; eta *Pello Errotaren bizitza bere alabak kontatua*¹⁴². Laugarren kapituluaren jaso dugu horiei buruzko Zavalaren testigantza: nolako harrera beroa egin zioten Manuel Lekuona, Juan Goikoetxea, Gabriel Aresti eta Antonio Valverde¹⁴³.

Inazio Mujikak, berriz, honako hau du idatzia, Auspoa goitik behera ezagutzen duen baten eskumenez¹⁴⁴:

[Auspoaren] literatur balioa da niri gehien interesatzen zaidana, eta, bide batez esan dezadan, gutxien aztertu dena ere bai.

Gure aurrekoen kontatzeko moduz jabetzeari ezinbestekoa deritzot bai literatura modernoan hainbat erre-

¹⁴⁰ Zavala, 1996a: 34.

¹⁴¹ Zavala, 1962.

¹⁴² Elicegui; Zavala, 1963.

¹⁴³ Zavala, 2006: 54-55.

¹⁴⁴ Mujika, 1999: 112.

jistro hezurmamitzeko, eta bai literatur hizkuntza azkar eta malgu bat sortzeko. [...]

Beste oilar batek egingo liguke kukurruku, noizean behin gure lumak Auspoa bildumaren uretan beratzen utziko bagenitu.

Zein antzeko hitzak Antonio Zavalak eta Inazio Mujikak erabiliak! Hark: “Orduko idazle guziak Urruzunoren bide-tik abiatu izan balira, beste txori batek joko zion gaur kuku euskerari”. Honek: “Beste oilar batek egingo liguke kukurruku...”.

Balio antropologikoa

Berriro ere, Inazio Mujikari utziko diot hitza¹⁴⁵:

Begi-bistakoa da, zer esanik ez, bilduma horren [Auspoaren] balio antropologikoa, inon diren *Quosque tandem* eta euskal arimaren interpretazio saio guztiena baino handiagoa.

Nekez esan daiteke argiago eta ozenago.

Balio historiko eta soziologikoa

Inazio Mujikarena da pasarte hau ere¹⁴⁶:

[Auspoaren] balio historikoa, berriz, nabarmena da, bai bertso corpus zabala dagoelako bertan, bai Euskal Herriko gorabehera historikoez gizarte xehean jaso duten erantzuna ulertzen laguntzen dutelako. Bertan aurkituko ditu irakurleak, esate baterako, euskaldunek parte hartu duten azken mendeetako gerra guztiei buruzko bertsoak: frantsesteak, karlistadak, Kubako edo Afrikako gerra eta Espainiako azken gerratea. Hori bera dago esa-

¹⁴⁵ Mujika, 1999: 112.

¹⁴⁶ Mujika, 1999: 112.

ten balio soziologiko handia dutela liburu horiek; izan ere, hor agertzen den ikuspegia ez baita gerrate horien eragile nagusien ikuspegitik atera eta gero esku-liburuetan agertzen dena, ez bada, Stendhalen harako Fabrizio del Dongo harena bezala Waterloo, lokatz artetikakoa, intrahistoriaren antzezle anonimoek odolez eta izerdiz jositakoa.

Behin eta berriro dihardugu irakaskuntzako euskal kurrikuluz. Baina apenas ustiatu dugun Auspoaren ahalmena. Sarritan, auzoan ibili ohi gara altxor bila, urrutiko intxaurren distirak liluratuta, noiz eta etxean dugunean altxorrik prezia-tuena.

Balio pedagogikoa eta psikologikoa

Auspoaren balio pedagogikoaz eta psikologikoaz jabetzeko, ezin egokiago datozkigu Ortega y Gasseten hitzok¹⁴⁷:

Yo creo que imágenes como las de Hércules y Ulises serán eternamente escolares. Gozan de una irradiación inmarcesible, generatriz de inagotables entusiasmos. Un pedagogo practicista desprezará estos mitos y en lugar de tales imágenes fantásticas procurará desde el primer día implantar en el alma del niño ideas exactas de las cosas. “Hechos, nada más que hechos!” [...]. Para mí los hechos deben ser el final de la educación; primero, mitos; sobre todo, mitos. Los hechos no provocan sentimientos. ¿Qué sería, no ya de un niño, sino del hombre más sabio de la tierra si súbitamente fueran aventados de su alma todos los mitos eficaces? El mito, la noble imagen fantástica es una función interna sin la cual la vida psíquica se detendría paralítica. Ciertamente que no nos proporciona una adaptación intelectual a la realidad. El mito no encuentra en el mundo externo su objeto adecuado. Pero, en cambio, susci-

¹⁴⁷ Ortega y Gasset, 2004b: 124-125.

ta en nosotros las corrientes inducidas de los sentimientos que nutren el pulso vital, mantienen a flote nuestro afán de vivir y aumentan la tensión de los más profundos resortes biológicos. El mito es la hormona psíquica.

Gaur, adimen emozionalaz dihardugu sarri, Daniel Golemanek bere obra entzutetsua plazaratu zuenez geroztik¹⁴⁸.

Balio lexikografikoa

Eraztuna erira bezala dator Xabier Amurizak idatzia¹⁴⁹:

Euskalkien altxorra galduko ote den eta hori guztia funts gabeko beldurra da, gauzak ondo egiten badira. Eta gauzak ondo egiteko, euskalki guztietako hitz eta ñabardura guztiak joan behar dute aurrera.

[...] Argi dago lehen-lehenik euskal-erdal hiztegia burutu behar dela. Zer daukagun argi jakin behar dugu, zer falta dugun hautemateko.

Euskalkien altxorra du gai Amurizak: euskararen altxorra. Eta askoren beldurra aipatu ondoren –altxor hori galduko ote den–, beldur horri nola aurre egin esaten du: gauzak ondo eginez. Horixe da funtsezko baldintza.

Gauzak ondo egitea, berriz, hiztegiak ondo egitea da, Amurizaren hitzetan; zehatzago: “euskalki guztietako hitz eta ñabardura” guztiak jasotzea, eta “lehen-lehenik euskal-erdal hiztegia” burutzea. Horrek, azken batean, bi eginbehar ondo betetzea eskatzen du: korpua ondo aukeratzea eta korpus berori ondo ustiatzea.

Horren harira, korpus ezin baliotsuagoa da Auspoa. Ez da nahikoa izango –Auspoako liburuetan nabarmena da euskalkien arteko desoreka–, baina bai nahitaezkoa.

¹⁴⁸ Goleman, 2012.

¹⁴⁹ Amuriza, 2010: 216.

Bigarren eginbeharra dela-eta, hitzak etorri ohi zaizkigu lehen-lehenik gogora; hau da, euskalki guztietako hitz guztiak biltzea, zehatz-mehatz, beren aldagai guztiekin. Baina, euskalki guztietako hitzak ez ezik, “ñabardura guztiak” ere aipatzen ditu Amurizak; alegia, hitz bakoitzaren adiera guztiak xehatzea eta jasotzea. Eta hori, gutxienez, aurrekoa bezain funtsezkoa da. Honetarako ere korpus ezin baliotsuagoa osatzen du Auspoak.

Horrek guztiak zer esan nahi duen azaltzera eta zehaztera dator ondorengo eranskina.

Jaso

(Euskal Maria Molinerren zain)

*Arbasoengandik jaso
konkistatu egin behar dugu
geurea egitekotan.*

Goethe

Auspoaren balio lexikala probatzeko eta frogatzeko, hitz arrunt bat aukeratu dut esanahi (adiera) asko dituen *-jaso-* eta saiatu naiz atzematen, zehazten eta azaltzen zer esanahi eta adiera hartzen dituen Auspoako hogeitun obra esanguratsutan (ikus zerrenda eranskin honen amaieran).

Lehen puntuan, *jaso* hitzari Auspoan atzemandako esanahi eta adierak ikusiko ditugu, batik batik adibideak baliatuz. Bigarrenetan, hiztegi-talera begira ipiniko gara: zer egiteko zaila duten eta, bide luzea egin badugu ere, zenbat dugun oraindik eginkizun.

Jaso, Auspoan: 27 adiera

Jaso hitza, forma batean edo bestean, 419 aldiz azaltzen da hautatutako hogeitun obretan.

Baina zenbat adiera hartzen ditu? Segun, bereizmenaren arabera. Halatsu gertatu ohi da koloreekin ere. Hogeita hamarren bat zuri mota bereizten omen dituzte eskimalek.

Adierak bereizten laguntzeko, eskueran ditugu hiztegiak. Hemen, hiru baliatu ditut: María Molinerren bikoi-

tza¹⁵⁰, *Euskaltzaindiaren hiztegia*¹⁵¹ eta *Orotariko Euskal Hiztegia*¹⁵².

Lehen unean, ezin baliotsuagoa gertatu zait María Molinerrena. Halako xehetasunez eta bereizmenez atzeman, bereizi eta zehaztu zituen gaztelaniazko hitzen esanahiak eta adierak. Xehetasun eta bereizmen horiek aplikatzen saiatu naiz hogeitako 419 *jaso* horiek sailkatzeko.

Hamahiru sarrera landu behar izan ditut haren hiztegi-tan: *alzar*, *coger*, *elevar*, *guardar*, *levantar*, *recibir*, *recoger*, *recolectar*, *reservar*, *retirar*, *reunir*, *subir* eta *tomar*. Eta horiek eskainitako informazioa baliatuz, *jasoren* hogeita zazpi adiera bereizi ditut guztira.

Adiera horiek zehaztu eta azaltzea etorri da ondoren. Horretan, euskara eta gaztelania erabili ditut, definizioak eta erdal ordainak, elkarren osagarri. Ezinbestekoak izan ditut, María Molinerren hiztegia ez ezik, *Euskaltzaindiarena* eta *Orotariko Euskal Hiztegia*.

Ondoren datoz adibideak. Horietan ageri da *jaso* bakoitzaren adiera modurik egokienean, dagokion testuinguruan. Horren zerbitzura daude definizioak eta erdal ordainak. Auspoako grafian utzi ditut adibideak. Batzuetan, kortxete artean tartekatutako argibideak lagunduko digu testua hobeto ulertzen.

Adibide batzuetan -6, 8, 9, 10...-, beste adiera bati dagokion esanahia duela ere azaltzen da *jaso*. Halakoetan, kortxete artean adierazten da zer beste esanahiari dagokion.

Adibidearen ondoren, deitura aipatzen da: nori *jasoa* den adibidea. Normalean, bibliografian aipatutako liburuaren egilearena da, baina ez beti. Egileak, zenbaitetan, beste norbai-

¹⁵⁰ Moliner, 1966-1967; Moliner, 2008.

¹⁵¹ Euskaltzaindia, 2012.

¹⁵² Michelena, 2011b.

tek esana baliatzen du. Halakoetan, aurretik doa beste horren deitura eta atzetik, kortxete artean, liburuaren egilearena.

Besterik gabe, hona hemen adierak, banan-banan.

1

Lurrean edo eroririk dagoena altxatu.

Recoger (del suelo).

Gaia: Lazkao-Txiki urtetan zaitutako amona degu; Euskitze mutil gaztea ikustean, pañueloa lurrera botatzen du.

nai badezu utzi ta
nai badezu **jaso**.

jaso nai ez badezu
utz zazu lurrean.

Lazkao Txiki

2

Zerbait gainean eraman, zerbaiti gainean eutsi; jasan.

Soportar, aguantar, cargar; sufrir.

Bere gainean [seaskan] ibiltzen niñun
txoritxo baten moduan,
karga aundirik ez nuen eta
aisa **jasotzen** ninduan.

Lazkao Txiki

Sinismenez **jaso** nizkin zetozkidan oñazeak, Jainkoaren borondatera danetan makurtuz.

Ataño

Asko jaten zuten [txoriek], eta beste asko lurrera bota, txoria, alea jateko, gari gañean gelditzen baitzan; eta, onek **jaso** ezin zuelako, bere kargarekin lurrera eroritzen zan.

Erauskin

Eman zidaten **jaso** ahalako pena,
ahal bezain umilki hartu nuen dena.

Xalbador

3

Dagoen lekua baino gorago eraman gauza bat.

Levantar, alzar.

Arri **jasotzen**, berriz, an ziran Bizkaitik asi ta onerañoakoak danak.

Geien-geiena arritu niñuna izan zan, danetatik, Atxaga Luissek. Bere berrogei urterekin amabost arruako arria bi aldiz **jaso** zuan, da errez **jaso** zuala iduritu zitzaigun guri.

Uztapide

Orrela, beintzat, poliki-poliki joan gera bi gazte ildako oiek zeuden lekura. Bañan gorputz ildakoa oso zalla izaten da bizkarrera **jasotzen**.

Aurrena, andoaindar ori jarri diot Etxeberria'ri bizkarrean eta or abitu da.

Bañan bestea bizkarrera **jasotzen** ederki kostea izan zan. Obeto esateko, ez nuan **jasotzeko** bear ainbat indar izan. Ez saio batean, bitan, irutan eta lautan. Azkenean, belar-sorta bezela, bere azpian etzanda sartuta **jaso** bear izan nuan. Ia-ia itoan gañera, nere estuasun arekin.

Alkain

Baiña [gure aita] ez zan beti mendian ibillia. Baita Donostia'n ere piontzan. Antigua'ko tunela egin zanean, an aritua. Eta askotan esaten zigun, Antigua'ko tunelako fatxadako arri aiek aren bizkarrean **jasoak** zirala.

Ala esan omen zioten pioiai enkargatuak: aber boluntariorik bazan arri labratu aiek bizkarrean **jasotzeko**, argiñak pronto jartzean. Ez zuala beste lanik izango, eta egunean pezeta bat geiago jornala emango ziotela.

Ayerbe

4

Zerbait gorago jarri edo eraman. Igo.

Llevar arriba, transportar más alto. Elevar, subir.

Ordura arteko lan guztiak gogorrek izan baldin baziran ere, andik aurrera zetozenak ziran ortik onerakoak. Porlan, burni eta bear ziran trepeta guztiak kamioietan **jaso** omen zituzten Andatz-zarateko gañera.

[...]

Toki ortatik gora gauza aiek danak **jasotzeko**, Aiako Etxeta baillarako amabost abere omen zeuden idiak irixteko zai. Gurdietan **jaso** zuten guztia, gero andik Zelatungo Aitzarteren bordara abere aien bidez aldatu omen zuten.

Zuzenean Erniora **jasotzea** geiegi baizan egun artarako, lenegoko eguneko lana Andatz-zaratetik Zelatungo bordara

jasotzea izan zuten; eta ori ere etzan txantxetako lana, **jaso** zuten zama gogoan izanik: zazpireun kilo burni, irurogei ta amar zaku porlan, gurutzearen kaja egiteko olak eta beste zenbait gauza gogoratzen ez diranak.

Lertxundi

5

Zutik edo zuzen ipini zerbait etzana edo makurtua dagoena.
Levantar, enderezar.

Ipurtargia esaten genion txondor bat ere bagenduan. Ga-bean jaiki ta beti argi egoten zan ura. Enbor aundi bat zuan arek gañeko aldeko egalean. **Jaso** ezin da etzanda utzi genduan enbor aundia. Egiñalak egin giñuzen, baña ezin **jaso** bost gizonke eta bertan utzi genduan; da arri aundi batekin azalak egin.

Uztapide

6

Zerbait (pareta, etxea...) egin igeltsero-lanetan, edo monumeturen bat eraiki.
Levantar, construir, erigir.

Nola euskaldunen artean oitura indartsua eta amets nagusia izan dan beti mendi gaillurrik goituenetan gurutzeak **jasotzea**, Andres eta bazkideko lagun danei ere gogo orixe etorri zitzaien.

Lertxundi

Gaia: zeu jaio eta ainbeste maite zenduen baserria sutan ikusten dezu.

Or sutan zaude, ni gordetako
Abaliñe basarria,
nere aurtzaro oso-osoan
gorde niñuzun kabia.
Bear bezela portatzen bada
ni sortu nindun erria,
gaizkille asko egonagatik
jasoko degu berria.

Lazkao Txiki

Donostitik Bilbora dagoen burnibideko paretak **jasotzen** ere ibilli zan [Txirrita], burnibide ori egin zanean.

Zavala

San Markos gañean, mendiari izena ematen zion ermita txiki bat bauan. Bota ziteken, baña berririk **jaso** ez.

San Markos ta Txoritokieta'n guda-gazteluak **jaso** bear ziztuztela-ta langille-eske bandua jo zutenean, ikustekoa uan emen.

Ataño

Guda bukatu zala urteak itun. Ukulloa osatu genin; etxea antolatatu ta barruti danak ongarrituz, azkeneko gizon-iltzearen kutsuak garbitu ta bizi-pozean buruak **jasotzen** [22] ari giñun.

[...]

Euskalerriko mendirik erosoetan guda-gaztelu batzuk **jaso**, aiek leporaño soldaruz ta armaz bete ta kito: beti garrondoan ezpata.

Ataño

7

Etxe bat(i), herri bat(i), negozio bat(i)... aurrera atera, aurrera eragin; prestigioa eman.

Sacar adelante, hacer prosperar, dar prestigio.

Zientzi gizon askok ez badu
aldatzen gaurko joera,
batzuek beren alegiñakin
jaso dutena ohera,
egun batetik bestera dana
erori leike lurrera.

Mujika

8

Goretsi, gorai patu, famatu.

Ensalzar, elogiar, encumbrar.

Zuk Bahamontes famatzen zertan
zendun ainbeste enpeño?
Erdaldun ori **jaso** nai dezu
zuk zeruetan gorraño.

Oraindik ere zuk Bahamontes
jaso nai gora ta gora,
mesederikan ez dan tokian
etzaitz juañ iñora.

Lazkao Txiki

Zure izena **jaso** nai degu
al genezaken gorena,
zuretzako gaur goratzarre ta
gaur zuretzako omena.
Gure biotzak egin dezaken
oparirikan onena [plaka bat],
zure besoak **jaso [10]** bezate
Teodoro Ernardorena.

Mujika

9

Zerbaiten prezioa edo balioa igo, garestitu.
Encarecer.

Gero, zergak goraka zijoazen neurrian, errentarik **jaso** edo igo ezin nunbait; eta, nagusientzat galera zetorrela jakiñik, baserriak salgai jarri zizkioten maiztar askori.

Lasarte

Sebastian [harakinak] eta [Lazkao Txikik] edan dituzte ba-
xoerdi batzuk alkarrekin, eta arek onela esan omen zuan:

-Nik oraintxe joan egin bear diat, karnizeria **jaso [21]** ta ...

Eta Joxe Migelek:

-Bai! Leen bean egonda jende gutxi joaten dala, ta **jasota**
jarri zak eta zera joango zaik aruntza!

Florentino Goiburu [Lazkao Txiki]

Bildu, hartu, eskuratu.

Recibir.

Istorigille batzuek beren liburuetan orduko gertakizunen berri ematen digutelako, eta liburuetan agertzen ez diran beste gauza askoren aztarnak gure aurrekoengandik **jaso** ditugulako, liburu ontan josita utzi nai izan ditut Iturriotzen gizaldietan zear gertatutako gauzarik garrantzitsuenak, gure ondorengo belaunaldietan ere beroien berri jakin al izan dezaten.

Lertxundi

Orrelaxe asi zan [gizon heldua] kontu zaarrak astintzen; eta nik liburu ontan Santa Kruzi buruz jarri ditudan eraso eta ibillaldirik aundien edo aipagarrienak, beragandik **jaso-takoak** dira. Entzuten oso pozik egoten nintzan aitona orri. Baiña, gaur bezela jakin izan banu garai artan istori aiek liburu batean jarriko nituala, arreta aundiagoz gauza guztiak **jaso [12]** edo ikasten saiatuko nintzan.

Lertxundi

Rekete pilla batek bertan igaro zituen egun dexente [gerratean]. Ni nere anaiekin ordurako ille mozten eta bizar ebakitzten asia nintzan, eta makiña bat ille mozte egin genduen, zentimorik **jaso** gabe. Zor ori ordaindu gabe joan zan gure Patxi [Franco].

Mujika

Zure izena **jaso** [8] nai degu
al genezaken gorena,
zuretzako gaur goratzarre ta
gaur zuretzako omena.
Gure biotzak egin dezaken
oparirikan onena [plaka bat],
zure besoak **jaso** bezate
Teodoro Ernandorena.

Mujika

11

Norbaiten idatzia, hizketa edo kanta hartu paperean idatziz, edo magnetofonian edo dena delakoan grabatuz.

Tomar (apuntes), grabar.

Txirrita-ren berriak Erreteriko Pello Zabaleta-ri **jasoak**.
Euskal-festen berriak "Euskal-Erria" aldizkaritik **jasoak**.

Zavala

Makiña bat arratsalde goxo pasa izan degu bera [Mikela Elizegi] kontari ta ni entzule. Ta obe bearrez, bereala asi nintzan magnetofon bat eramaten. Arrezkero, arek **jasotzen** zuan gure berriketa guzia

Gero, etxerakoan, ariak **jasoa** paperera pasatzen nuan. Ori izan da nere lana, besterik ez. Aldaketa bat sartu da: ariak gure alkar-izketa **jasotzen** zuan, alegia nire galdeerak eta Mikelaren erantzunak.

Zavala [Elicegui]

Entzundako edo ikusitako zerbait atzeman, eta gogoan edo aintzakotzat hartu.

Captar. Memorizar.

Orrelaxe asi zan [gizon heldua] kontu zaarrak astintzen; eta nik liburu ontan Santa Kruzi buruz jarri ditudan eraso eta ibillaldirik aundien edo aipagarrienak, beragandik **jaso-takoak [10]** dira. Entzuten oso pozik egoten nintzan aitona orri. Baiña, gaur bezela jakin izan banu garai artan istori aiek liburu batean jarriko nituala, arreta aundiagoz gauza guztiak **jaso** edo ikasten saiatuko nintzan.

Lertxundi

Lazkao-Txikik, an ibili oi zanez, **jasoko** zituen banaka bazuk [bertsolaritzako tranpak-eta] gogoan. Baita txarrak bezela onak apartatu ere dotore asko, bakoitzari bere prezioa emanez.

Lasarte

Igande batez, Zaldibin, parabola bati buruz egin zuan apaizak sermoia. [Meza ondoan apaizak eta Lazkao Txiki izandako hizketa pusketa bat da ondorengoa.]

–Bai; baiña ori parabola bat da! [apaizak]

Asmatutako ipui bat zala alegia, guk aren erakuspena **jasotzeko**.

Eta Lazkao-Txikik:

–Ez dakit, ba, *para* kendu ta ez ote dan ori obeto geldituko!

Xabier Zeberio [Lazkao Txiki]

13

Leku ezberdinetako gauzak bilatu, hartu eta bildu.
 Recoger, recolectar.

Arritzen gaitu Aita Zabalak
 eginda uzten dun lanak,
 galtzear zeuden ainbeste bertso
 txukun **jaso** ditu danak.

Lazkao Txiki

14

Sakabanatutakoa edo lehendik bereizitakoa batu, bildu.
 Recoger, reunir.

Bagoaz, goizean jaikita, Garaia ortara. Gurea baño lenago, beste txabola bat bazegoan. Arrimatu gera orrera, ta artaldea antxe barruan. Anaia gazteena atean utzi, bazkaria emanda kopa-otarra batean, da sartu gera geok barrura.

Asi gera bizkarrean begirutzen. Ardiak izu samarrak ziran, ba, aiek. Bizkar ederrak zeuzkaten. Gu an genbiltzan mai-xian, da alako baten pentsatu dute ertetzea. Gure anaia bota dute bere bazkari ta guzi. An ziaztik danak kanpora!

Ardiak joan ziran kanpora, ta gu an babarrunak **jasotzen**. Alde batera parra egiten genduan, baña etzan broma. **Jaso** ditugu beintzat urdai koskorren bat eta sagarrak. Erretzeko edo ola izango ziran. Joan gera txabola aldera, ta babarruna ta urdaia-ta piska bat garbitu egin bear.

Uztapide

15

Uztak edo fruituak bildu.
 Recoger, coger, recolectar.

Guk sekula gibelurdiñik ederrenik ere ez genduan zuzter da guzi biltzen. Danak, zuzterrak kendu ta otarra kertendun baten jarri, ta txarra utzi bertan. Alare naikoa izaten zan an. Ziza gorriak eta kuleto-arrautzak bakarrik biltzen ziran an zuzterrarekin. Gañontzekoak, danak gabe. Aukerakoak **jaso** ta pixka bat zartzera egindakoak utzi bertan.

Uztapide

16

Gauza bat hartu eta dagokion lekura eraman, bertan behar bezala gordea edo babesean egon dadin.
 Recoger, guardar.

Gaia: Omenaldi bat egiña da Lazkao-Txikiri, eta orduan erregalatu zenizkieten guardasola bat eta linterna bat. Berak esan zuenez, ondo etorriko zitzaizkion andregai billa joateko. Zerbaitetarako serbitu al dizute?

Jai-egunetan usatutzen det [linterna],
jasota daukat astian,
 baiñan linterna itzaldutzen det
 andregaiakin astian.

Lazkao Txiki

Gaia: gaur goizean, etxeko ganbara txukuntzen ari zerala, ango trastoen artean, zure eskuetan izan zenuen leen bertso-liburua aurkitu dezu.

O liburua, etzaitut izan
bear bezela **jasoa**,
zure bitartez eman nuen nik
bertsoz lenengo pausoa;
ta arratoiak puska zaituzte,
etzaude dana osoa,
bañan oraindik bizirik zaude,
nere liburu gaixoa.

Toki txarrean inortxo ere
berri ezin da mantendu,
ta arratoiak autsi zaituzte,
orrien erdiak kendu;
eta lenoko zure nausiak
au gertatutzea pen du,
obe genduen armario baten
txukunao **jaso** bagendu.

Lazkao Txiki

17

Leku batean gordeta edo ipinita dagoen dirua edo beste zerbait atera edo eraman.

Retirar.

Bein, aizkoran jokatzeko señaleak botata, joan omen zan [Arrola] Keixetarengana aizkoran ikastera. Beti ere egiten omen zituzten pruebak, eta Keixeta ori ixilik omen zegoan.

Alako batean galdetu egin omen zion Arrolak ia zer aizkola-ri iduritzen zitzaion bera: jokatzeko modukoa edo.

Etzekiala, ba, arek nolako kontrarioa zuan ere, ta arek zer esatea nai zuan, ba? Señaleak berdiñean **jasotzeko** modua egiten bazuan obe, esan omen zion.

Urrengo egun batean or etorri omen zitzaion gure Arrola ori, **jaso** zituztela diruak esatera. Ala egin omen zuten pakea.

Uztapide

18

Zerbait ezkutatu iruzurrean edo bereganatzeko asmotan.
Guardar, ocultar.

Bein, tabernaria kontrario zuan [musean], eta nunbait ere amarreko bat **jaso** omen zuan tranpaz.

Lazkao Txiki

19

Beharreen den norbait hartu; hari laguntza, babesa, aterpea eman.
Recoger, acoger, albergar.

Gure aitak berari segitzeko esan zion [aterperik gabeko gizonari], da etxera **jaso** zuan. Sartu ta guri ola esan zigun:

–Ea gizon oni zeozer, alkandora legor bat-edo emayozute.

[...] Konportan, berriz, oinbeste aundiko etxea izan, da bazuten ba ainbeste toki, bañan etzioten [aterpea] eman. Ta ango beko atean eman etziotenean, mandioko atearen kontra jarri omen zan, da an zegoan, ebiak itotzen, gure aitak **jaso** zuanean.

Elicegui

Baña [1972ko] Lorailaren amarrean, nere urte betetzean, orduantxe nituan irurogei ta iru urte, ta, apaltzen ari giñala, eman zidan berriz ere atake batek, eta orduan konturik gabe gelditu nintzan. Oiera **jaso** niñuten, eta nere burua oian eza-gutu nuan.

Uztapide

Gaia: Lazkao-Txiki aurtxo bat da; Imanol Lazkano, ume askoren aita. Lazkao-Txiki, aurtxoa, estalpe baten eske agertzen da.

[Hamabost bertso kantatu zituzten bien artean. Bertso batean, Lazkano aitak emaztearen besoetan uzten du umea, titia eman diezaion. Ondorengo bertsoa Lazkao Txikirena da, saioko azkenekoa.]

Ama maitea, berriro ere
naukazu zuri begira;
nere begiak zure aurpegiai
eman diote bi jira.
Ni **jaso** nauzu ain maitasunez
zeure aurraren tokira,
naiago nuke ama guziak
zure antzeko balira.

Lazkao Txiki

Hartu, onartu.
 Recibir, acoger.

Gaztetan ondo bizi liteke
 mutil soltero raso,
 berak nai duan aldera libre
 ematen baitu pausoa.
 Baiña zartzean ez al da obe
 ezkondu ta gurasoa,
 norbera gauza ez dan garaian
 izan dezan nork **jasoa**?

Lazkao Txiki

Gaia: Txapel, Arregi, Olaizola [orduak hil berriak]

Gaur iru gizon ospetsu aiek
 etorritzen zaizt gogora,
 negar-malkoak neregan doaz
 begiak egiñik lora.
 Gure artean bizi ondoren
 orain iyo dira gora,
 gure Jainkoak **jasoko** zitun
 bera dagoen ondora.

Lazkao Txiki

Zerbait egiteko bereziki antolatu diren gauzak berriro beren to-
 kian gorde.
 Recoger, arreglar, limpiar (la mesa, casa, cocina...).

Sebastian [harakinak] eta [Lazkao Txikik] edan dituzte ba-
xoerdi batzuk alkarrekin, eta arek onela esan omen zuan:

–Nik oraintxe joan egin bear diat, karnizeria **jaso** ta ...

Eta Joxe Migelek:

–Bai! Leen bean egonda jende gutxi joaten dala, ta **jasota** [9]
jarri zak eta zera joango zaik aruntza!

Florentino Goiburu [Lazkao Txiki]

Jarri bakarra ez [otordua]; maiera atera eta partitu, eta
gero arrenbeste ontziren garbitzea eta **jasotzea**. Baztarrak
txukuntzea ere etzegoen urrengo egunerako utzitzerik.

Erauskin

Arkumea ekarri omen zioten [Arrolari]; asi omen ziran ja-
ten da biak apetitu ederrekoak [Arrola eta honen lagun bat].
Orain bada ezurrak platera batera **jasotzeko** oitura ere, baña
orduana etzan olakorik ere: mamia jan-alean, ezurra lurrera
botatzen omen zuten.

Uztapide

22

[Burua / bihotza jaso]

Adoretu, suspertu, piztu... animatu.

Levantar(se) (el ánimo). Animarse. Levantar cabeza.

Etxea bete ume, aziendak erdiak bederen kenduak. Etxe
zikiña, purrakatua, berri-berritik asi bearra. Lau urte aietan,
len egiña jan, berririk egin ez, doi-doi bizi zerala; besterik ez.
Errex zioen burua jasotzen! Seme-alabei dote ona emateko
alibio ederra! Bazter guziak ondatu; zelaiak urteetan ongarr-
itu gabeak; alkarren gorrotoa azi; gauzak zuzendu bearrean,

okertu... Gudaren ondorenak! Lenengo, etxea kiskali. Berritu ta **burua jasotzen** asi ziran orduko, beste eraso.

Ataño

Guda bukatu zala urteak itun. Ukulloa osatu genin; etxea antolatu ta barruti danak ongarriz, azkeneko gizon-iltzearen kutsuak garbitu ta bizi-pozean **buruak jasotzen** ari giñun.

[...]

Euskalerriko mendirik erosoenetan guda-gaztelu batzuk **jaso [6]**, aiek leporaño soldaruz ta armaz bete ta kito: beti garrondoan ezpata.

Ataño

23

Jantzia (mahuka, gona, galtzak...) edo beste zerbait (pertsiana...) bildu.

Arremangar, recoger.

Beroa, berriz, ikaragarria egiten zuan an. Exerita jarri ta galtzak belaun gañean etzegoan sufritzerik. **Galtza kakiak** eskuakin artu ta **jaso** egin bear gora belaun kontratik.

Uztapide

24

[Gorputza jaso]

Hildakoa kanposantura eraman.

Conducir (el cadáver al cementerio), levantar el cadáver.

Bein batean, **gorputz jasotzera** esaten diogu guk, ildakoa kanposantura eramatera joan giñan.

An ardoa eman izan diote **gorputz jasotzera** joaten danari.

Uztapide

25

[Hankak jaso]

Arin ibili, aire mugitu. Ihesi joan.

Moveuse ligero. Poner los pies en polvorosa.

Goizeko seiretan ziran [ohetik jaiki berritako] kontu auek, eta berealaxe **ankak jaso** genituen Amarako estaziora. Sei ta erdietan baizegoen tren.

Lasarte

Txakurrak aurrian da
eiztariak atzetik,
eztek errez libratu
oyetxen tartetik,
zazpi tiro tira ta
ala ere zutik,
ortxe gora mendira
ankak jaso zetik.

Txirrita [Zavala]

26

[Haurra jaso]

Bataioan, haurraren aitabitxi edo amabitxi izan.

Apadrinar, amadrinar.

[Gure aita] gaixorik zegoala, Anastasi nere alaba bigarrena izan nuan. Jayo baño len, berak [aitak] **aur ura jaso** bear zuala esaten zuan, da ala, batayora astoaren gañean joan zan.

Elicegui

27

[Kintak jaso]

Ejertzitorako bildu, deitu jendea.

Reclutar, llamar a filas; llevar a cabo la leva.

Frenteak or luzaro egon ziran, da Kalamua ta oiek frente txarrak izan ziran.

Gero **kintak jasotzen** asi ziran, da orduan ziran komeriak. Gu oso urrean ez geunden, baña ala ere bildurra ematen zuan.

Uztapide

Jaso, zenbait hiztegitan

Zer neurritan eta nola jasotzen dituzte gure hiztegiek aurreko hogeita zazpi esanahi eta adiera horiek? Ustekabekoren bat baino gehiago har dezakegu, eta mereziko luke horiek aztertea. Baina muga gaitezen bi ondorio ateratzera.

Auspoa, altxor aberatsa

Lehenengo ondorioa da funtsezkoena: zein altxor aberatsa den Auspoa. Agerian dago testuetan eta aipatutako adibi-deetan.

Begiratu xeheak are ageriago ipintzen du balio hori. Zenbat dagoen oraindik hiztegietan jasotzeko! Hiztegi horietan daude, agerian bezain ezkutuan, hiztegiileen lanak eta bo-

rrokak; adierak atzematen eta xehatzen egindako ahaleginak; adiera horiek definitzen, sailkatzen eta adibidez hornitzen izandako buruhaustekak; nahiak eta ezinak, lorpenak eta porrotak.

Balia ditzagun ezin eta porrot horiek begiratua gehiago xehatu eta zorrozteko. Altxor agortezina dago hiztun onen euskararen erabileran.

Zenbat dagoen oraindik hiztegieta jasotzeko

Nahiz eta lan eskergeen emaitzak izan hiztegiak, oraindik ere badago zer jaso; zenbait hitz arruntetan, uste baino gehiago.

Orain, soilik hiru hiztegiaren emaitzak ikusiko ditugu, gaineratik bada ere: Euskaltzaindiarenak, batik bat; eta *Orotariko Euskal Hiztegia* eta *Zehazkirenak* ondoren. Apunte batzuk besterik ez dira.

Euskaltzaindiarenak, *jaso* sarreran, zazpi adiera bereizten ditu, eta zenbait adibidez hornitzen (letra etzanean). Hona hemen, hiztegian bezala pilatuta ez baina, lerroka emanda:

1. Lurrean edo eroririk dagoena altxatu.

Lurretik zerbait jaso eta garbitu ondoren, sakelari sartzen du.

Jaso ezazu paper hori.

Ia ezin jaso ahaleko zama astun hori gure gain dagoela.

Harria zortzi aldiz jaso du minutu batean.

2. Altxatu, goratu.

Besoak, begiak zerurantz jaso.

Haize oihalak jasorik.

Herriak jaso dion oroitarrian.

Han eliza berri bat jasotzeko (Ik. eraiki).

Jaso ditzagun bihotzak.

*Horiek jaso dute aldizkari hau dagoen mailara.
Hizkuntza noranahiko egin, jakite hegoz jaso, soin zahar-
rari gogo berria eman.
Gizonak besteri laguntzen dionean jasotzen du bere bu-
rua.
Euskarak burua jasotzea Jainkoak nahi du.*

3. Bildu, hartu, eskuratu.

*Egun gutxi barru jaso nuen agindu zidan eskutitza.
Lehen saria jaso duen olerkia.*

4. (Gauza abstraktuez mintzatuz).

*Ederki jaso du hitz bitan nik esan nuenaren muina.
Herriaren ahotik jasotako esaerak.
Euskal Herriko zokorik galduenetan jaso izan diren hi-
tzak.
Bere bilduman jaso dituen kantak.
Hizkuntza idatzia begiek jasotzen dute bestek baino lehe-
nago.
Arbasoengandik ikasi duguna baita gure kultura, ez
haiengandik jaio garelako jaso dugun ondarea.
Tradizioz jaso ditugun euskalkietan.
Hitzez hitz jaso.*

5. Zerbait egiteko bereziki antolatu diren gauzak berriro bere tokian gorde.

Mahaia jaso, sukaldea jaso.

6. (Eguraldiaz mintzatuz).

Giro epela zen; eguraldia laster jasoko zuen.

7. (Era burutua izenondo gisa).

*Adar jasoak.
Gogoeta jaso eta hitz ederren bidez.*

Hitz jaso eta landuak.
Elizarako jantzi jaso bat ez daukala.
Zaldun jator jaso bat, italiarra bera.

Zalantzak zalantza eta ñabardurak ñabardura, Auspoako hoge obretan bereizitako hogeita zazpi adieretako hamaika daude *Euskaltzaindiaren Hiztegian* era esplizituan jasoak, eta honako hamasei hauek jaso gabe: 4, 5, 9, 13, 14, 15, 16, 17, 18, 19, 20, 23, 24, 25, 26 eta 27.

Orotariko Euskal Hiztegian, berriz, bederatzi hauek falta-lirerateke jasotzeko: 5, 11, 17, 18, 20, 23, 24, 25 eta 27.

Bestalde, *Euskaltzaindiaren Hiztegiaren* 6. eta 7. adierarik ez da ageri Auspoako hoge obretan. Pentsatzekoa da, dena den, 6. adiera azalduko dela beste obra batzuetan, baina nekezago 7.a.

Zenbait arrazoi eta argudio erabil daitezke hutsune horiek zuritzeko. Esan ere esan daiteke Auspoako hogeita zazpi adiera horiek jasoak daudela hiztegietan, aldez edo moldez, esplizituki ez bada ere, inplizituki behintzat. Edo erants daitezke, beharbada, txikikeriak direla kontu xehe hauek, eta euskararen eremuan badagoela lehenagoko lanik; edo hutsune horiek erraz samar konpon ditzakeela euskaldun zuhur eta trebe batek.

Baina beti dago jaso gabea ez erabiltzeko arriskua. Hala gertatzen da, esaterako, *Zehazki* gaztelania-euskara hiztegian¹⁵³.

- *Zehazki* badakar **jaso** hitza honako hauen ordainetan: *alzar, amadrinar, apadrinar, arreglar, arremangar, coger, construir, elevar, erigir, levantar, levantar el cadáver, recibir, recoger, subir...*

¹⁵³ Sarasola, 2005.

- Baina ez beste hauenetan: *acoger, aguantar, albergar, animarse, captar, cargar, elogiar, encumbrar, enderezar, ensalzar, grabar, guardar, limpiar, memorizar, ocultar, poner los pies en polvorosa, recolectar, reservar, retirar, reunir, tomar, soportar, sufrir...*

Badugu oraindik zer jasoa geure hiztegietan. Eta zer us-tiatua, besteak beste, Auspoan.

Adibide-iturriak

(Aztertutako hogei obrak)

Auspoa arruntekoak

- 18-19. ZAVALA, Antonio: *Txirrita*, 1962.
32. ELICEGUI, Mikela; ZAVALA, Antonio: *Pello Errotaren bizitza bere alabak kontatua*, 1963.
113. URRUZUNO, Pedro Migel: *Sasiletrau baten ziria*, 1973.
- 137-138. ATAÑO, Salbador Zapirain: *Txantxangorri kantaria*, 1980.
148. ALKAIN, Iñaki; ZAVALA, Antonio: *Gerrateko ibillerak (I)*, 1981.
149. ALKAIN, Iñaki; ZAVALA, Antonio: *Gerrateko ibillerak (II)*, 1981.
150. ALKAIN, Iñaki; ZAVALA, Antonio: *Gerrateko ibillerak (III)*, 1981.
158. TREKU, Mari: *Mattin, nere gizona*, 1982.
195. AYERBE, Bartolo: *Nere mundualdia*, 1988.
198. ETCHEBARNE, Erramun: *Erramun harginaren oroitzapenak*, 1989.
203. AZPIROZ, Jose: *Gogoz kontrako pausoak*, 1989.
210. KARRIKA, Beñat: *Armendaritze haur begiez*, 1990.
211. PUJANA, Basilio: *Deabruak ostutako urteak*, 1991.
214. LERTXUNDI, Joxe Mari: *Igaroari begira*, 1991.
221. LASARTE, Manuel: *Lazkao-Txiki gogoan*, 1994.
235. MUJIKA, Teodoro: *Errekaldeko intxaurraren itzala*, 1996.
237. ETXEBARRIA, Faustino: *Nire gazte denpora*, 1996.

273. LARRE, Emile: *Ene artzain-etxolak*, 2001.

290. XALBADOR, Fernando Aire: *Odolaren mintzoa*, 2004.

Auspoa ertainekoak

[1] UZTAPIDE, Manuel Olaizola: *Lengo egunak gogoan (I)*, 1974.

[2] UZTAPIDE, Manuel Olaizola: *Lengo egunak gogoan (II)*, 1974.

[4] ERAUSKIN, Jose Ramon: *Aien garaia*, 1975.

Auspoaren Sail Nagusikoak

[13] LAZKAO TXIKI, Jose Migel Iztueta: *Irriz eta malkoz (I)*, 1994.

[14] LAZKAO TXIKI, Jose Migel Iztueta: *Irriz eta malkoz (II)*, 1994.

Paradigma berria

Hasta que al cabo de muchas idas y venidas, de muchas vacilaciones y sentimientos de inconformismo, oí de labios de un amigo que no había dos literaturas, una culta y otra popular, sino sólo literatura.

Antonio Zavala

Gogoetek osatzen dute Antonio Zavalaren egitasmoaren bigarren alderdia. Nahiz eta apenas den ezaguna, garrantziaz bada gutxienez Auspoa adinakoa.

Auspoa eta gogoetak, egitasmoaren aurkia eta ifrentzua. Biak aldi berean eta elkarrekin estu lotuta garatu zituen Zavalak, Auspoari askoz denbora gehiago eskaini bazion ere. Horrek ez du esan nahi bigarren mailako direnik gogoetak. Gogoetak izan ziren Auspoaren oinarri, gogoeten argitan hartzen du Auspoak esanahi betea eta gogoetek jarri zioten azken giltzarria tolosarraren egitasmo bikoitzari.

Hala ere, osatu gabe utzi zizkigun gogoetak, han-hemenka sakabanatuak, lotura eta garapen handiagoren eske. Horretan saiatuko gara laugarren atal honetan: gogoetak elkarrekin lotzen eta ahal den neurrian argitzen. Horretarako, ezinbestekoa dugu gureak baino ahots adituagoei leku egitea. Hasteko, Gadamerrenari; ondoren, ez-dualtasuna landu dutenenei.

Zavalak utzitako ondare harrigarriaren baitan, altxor berezia osatzen du *Auspoaren auspoa* laukoitzak. Hor dugu, obraren izenburuak egoki jasotzen duenez, Auspoari eragin zion arima eta hauspoa; hitz batean, Antonioren hatsa eta bihotza¹⁵⁴.

¹⁵⁴ Zavala, 1996a, 1996b, 1999, 2006. Azpittituluak (*Itzaldiak / conferencias*) dio lau liburuetan, eta egoki iragartzen du euskaraz eta erdaraz daudela horietan jasotako lanak. Alabaina, denak ez dira hitzaldiak; zenbait hitzaurre eta idazlan ere jasotzen du obra laukoitzak.

Obra laukoitz horren baitan, arreta osoa merezi dute hitzaurre batek eta lau hitzaldik. Hitzaurrea, Mokoroaren “*Ortik eta emendik*” obrari egina da, 1990ean. Lehenengo hitzaldia, berriz, Arantzazukoa da, 1956koa; bigarrena, Oiartzunen egindakoa, 1994an; eta hirugarrena, Deustuko Unibertsitatean, 1999an. Laugarren hitzaldia, Renon (Estatu Batuetan) irakurtzeko idatzi zuen. Bide batez esanda, batik bat gaztelania erabili zuen hitzaldi horietan¹⁵⁵.

Hitzaurre eta lau hitzaldi horietan daude Zavalaren gogoetarik garrantzitsuenak. Zauriak eraginda, kultur urradura dute leitmotiv nagusi. Eta horietan atzeman ditzakegu, zirriborroan bada ere, herri-literaturari buruzko teoriaren oinarriak.

Hain zuzen, bi gai horiek landuko ditugu atal honetako kapitulu banatan. Lehenengoan, herri-literaturari buruzko teoriaren oinarriak. Bigarrenean, kultur urradurari buruzko gogoetak. Hauek jartzen diote azken-giltzarria tolosarraren lan itzelari.

Unitate bakarra osatzen dute bi kapituluek, paradigma berri baten eske. Paradigma horren baitan eraiki dezakegu herri-literaturari buruzko teoria. Paradigma berri horren baitan ulertu eta senda dezakegu kultur urradura.

¹⁵⁵ Arantzazukoan, sarreran soilik erabili zuen euskara, aitzin-oharrean. Mokoroaren obrari euskaraz egin zion hitzaurrea. Deustuko hitzaldia, euskaraz eta gaztelaniaz egin zuen, baina gaztelaniazkoan dago teoriaren muina. Oiartzungoa eta Renokoa, osorik daude gaztelaniaz.

7. Herri-literatura: teoriaren oinarriak

Zavalaren beraren hitzek lagunduko digute gaia egoki kokatzeko. Joxerra Garzia, 2001ean, zirikatzaile galdetu zion elkarrizketa batean¹⁵⁶:

Beste edozeinek, zuk dakizunaren laurdenaren laurdenarekin sekulako teoria osatuko zukeen aspaldi. Zuk, ordea, ez dakit teoria gorrotatzen duzun, ala teoria egiteko joerari eutsi egiten diozun. Bildu dituzunak bilduta, ez al duzu ikusten corpus hori aztertu eta arrasto teoriko batzuk ateratzeko premiarik?

Eta Antoniok erantzun¹⁵⁷:

Nik ez det ortarako astirik izan. Teoria pixka bat egin det. Oiartzunen eman nuan itzaldia, adibidez: *Pensamiento intuitivo y discursivo en la poesía popular vasca*. Mokoroaren liburuari egin nion itzaurrean, berriz, esan-modu edo modismoei buruz jardun nintzen. Baiña leen esana: denborarik ez det. Leen pausoa eskuratu ditugun materialak argitara ateratzea da. Eta gero gerokoak.

Zavalak argi utzi zuen teoria pixka bat egin zuela; baita zein bi lanetan aurkituko dugun teoria hori ere: Oiartzunen 1994an egindako hitzaldian eta lau urte lehenago, 1990ean, Mokoroaren liburuari idatzitako hitzaurrean.

Hitz horiek egoki ulertzeko, gogoan izan behar da 2001ekoak direla eta idatziz egin zela elkarrizketa.

Zavalak adibide moduan aipatzen ditu bi lanak. Agian, horietan garatu zuelako gehien herri-literaturari buruzko teoria. Eta aipatu gabe utzi zituen bi hitzaldi. Lehenik, 1956an

¹⁵⁶ Garzia, 2001: 88. Ikus 5. oin-oharra; 29. orrialdean.

¹⁵⁷ Zavala, 2006: 159.

Arantzazun irakurri zuena, noiz eta hor daudenean bere lan teorikoaren zimenduak. Era berean, ez du aipatzen Deustuko hitzaldia ere, nahiz eta hitzaldi honetan jarri zion azken giltzarria hainbat urtetako lanari. Alde horretatik, pena da elkarrizketa idatziz egin izana, ohiko postaz. Gaur informazio zehatzagoa eta argiagoa izango genuke, noski, kazetariak eta Antoniok aurrez aurre jardun izan balute.

Hemen, dena den, aparteko arreta eskainiko diogu Arantzazuko hitzaldiari. Hara itzuliko gara, Zavalaren beraren eskutik; hau ere itzuli baitzen 1996an, hitzaldia bigarrenez argitaratzean. Deustuko hitzaldia, berriz, ia aipatu besterik ez dugu egingo; xehe samar aztertuko baitugu hurrengo kapituluan.

Elkarrizketa egin eta bi urtera, 2003an, gonbidapen bat jaso zuen tolosarrak Renotik, eta hitzaldi bat idatzi zuen harako, herri-literaturari buruzko jardunaldietan irakur zezaaten. Hitzaldi horretan ere jorratu zuen teoria; “zertxobait”, berak dioenez hitzaldian bertan. Baina hori baino gehixeago ere landu zuen. Urrearen balioa baitu lan horretan idatziak.

Hitzaurre eta hitzaldi horietan utzi zizkigun, guk nahi baino laburrago bada ere, herri-literaturari buruzko teoriaren oinarriak. Arretaz irakurri ezean, zirriborroaren tankera hartuko diegu. Baina uste baino aberastasun handiagoa darie.

Banan-banan irakurriko ditugu hitzaurrea eta hitzaldiak, apur bat aldatuz ordena kronologikoa. Azkenerako utzi dut Deustukoa, lan teoriko guztiaren azken giltzarria delakoan.

Arantzazu: paradigma berria

Arantzazuko hitzaldiak, berez, azalpena izan behar zuen: zer asmo zituen Zavalak 1956an, zer lanetan ari zen... Izenburuak ere hala iragartzen du, bi hizkuntzatan: “Bertso berri billa Euskalerrian zear (En busca de poesía popular a través del País Vasco)”. Eta azalpena izan zen, neurri batean. Baina Antonio ez zen horretara mugatu.

Bi ardatz hartu zituen hitzaldia egituratzeko: bertso-bilduma zertan zen eta estudioaren lehen emaitzak, ondorioak. Eta biak txirikordatuz burutu zuen hitzaldia.

Bertso-bildumaz esaten du generoka eta autoreka zituela sailkatuak bertso-paperak¹⁵⁸. Gero, generoak zerrendatu eta bi bertso-jartzaile aipatzen ditu: Iturzaeta eta Alzoko Imaz. Eta horien aurkezpena egiten du pasadizoz eta gertaeraz birlilduz, bizi-bizi.

Ondoren, estudioaren lurraldean sartzen da, bertsolari-tzaren balioa errebindikatzeko. Izan ere, beste ezertan hasi baino lehen, egitera zihoanaren balioa azaldu eta frogatu beharra zuen. Merezi al zuen halako proiektu batean hastea? Merezi al zuen bertso-paperak biltzea eta argitaratzea, hain euskara traketsa zerabiltenean eta hain balio literario eskasa zutenean?

Galdera horiek gizarte-giroan sumatuko zituen Zavala gazteak; eta, seguruenik, belarrietara ere iritsiko zitzaizkion. Berak, ordea, garbi zituen gauzak ordurako. Eta sua dariola egingo die aurre, gupida handirik gabe, bertsolaritzari buruzko aurreiritzi horiei. Euskara mordoiloa zerabiltela bertsolari-ek? Bertso-paperak ez zutela balio literariorik?

Hogeita zortzi urteko gazte baten sua da Antoniorenena. Baina baita lurralde berria aurkitu duen esploratzaileari darriona ere. Hain zuzen, su horren mira izango du berak, hogei-ta hamazortzi urte geroago, Oiartzungo hitzaldian¹⁵⁹.

¹⁵⁸ Orduan ez zuen asko usteko, argitaratu ere, autoreka eta generoka argitarako zituela bertso-paperak. Espero, berriz, inork ez zezakeen espero –ezta Antoniok berak ere– neurri guztiak gaitutuko zituela bilduma handi edo *magna edición* hark.

¹⁵⁹ “Me veo ahora precisado a recurrir a los recuerdos de esa época mía de explorador de un país extraño, y quisiera que en el fondo de mi mente quedara algún rescoldo vivo de aquellos sentimientos de admiración...”. Zavala, 1996b: 247-248.

Zavalak erraz eta sakon ematen dio buelta bertsolarien euskarari egindako salaketari. Nola buelta eman ere! Azkenean, salatuen aulkian ezartzeraino salatzaile jakintsuak¹⁶⁰.

Nosotros pensamos en castellano y hacemos, inconscientes, un calco de los giros castellanos; los bersolaris conservan la integridad de su pensar vasco y expresan sus ideas con modulaciones genuinas. Algo así como si nosotros cerráramos la puerta a los erderismos de palabra y se nos colaran por la ventana los erderismos de idea; y ellos, al revés. Y erderismo por erderismo, herida por herida, más peligro trae el erderismo de idea que el de palabra, porque éste hiere al cuerpo, pero aquél al alma.

Gori-gori sumatzen ditugu Antonioren hitzak: *herida, hie-re, alma...* Ez da azaleko kontuez ari. Eta ez da azalean gera-tuko. Izan ere, horren guztiaren sustraiak bilatzen hasita, zer erantsiko eta:

Esta discrepancia no es sino manifestación al exterior de otra más sombría y recóndita, que ya hemos comenza-do a apuntar: la del pensamiento, la del espíritu.

Jo ote daiteke hondorago?

Gero, sakontasun berarekin ekiten dio bertsolaritzaren balio literarioa azaltzeari. Behin eta berriro errepikatuko du ideia bera, aldez edo moldez: gizon-emakume ikasi eta ustez jakintsuok ez gaude prestatuta bertsolaritzaren balioa atzema-teko. “No estamos preparados para enjuiciar el bertsolari-smo”.

Eta, horretan etsi gabe, hori guztia zergatik gertatu den bila jotzen du Zavalak. Eta hitz gogorrez salatzen du, dagoe-neko hain ezaguna dugun pasartean.

¹⁶⁰ Zavala, 1996a: 33.

Nosotros, los estudiosos, para eso, para hacernos estudiosos, sorbimos en otras fuentes durante años enteros. Es una de las más fatales quiebras del vascence, que toda cultura que se ingiera ha de ser forzosamente extraña y desviadora. Y, sin advertirlo, acabamos con otro contenido que no el puramente vasco en nuestra alma.

Azkenik, bere teorizazio guztia gidatuko duen printzipioa ezartzen du¹⁶¹:

Con nuestros ingenuos y románticos estudios de hace un siglo sobre el vascence [XIX. mendekoekin, alegia] llegamos a ser la irrisión de los filólogos. Aprendimos cautela y ya nuestras modernas investigaciones lingüísticas se cimentan en la crítica más exigente.

Lo mismo reclamaría yo para el bersolarismo. Cierto que no haremos el ridículo, porque no atraerá a tantos estudiosos, a pesar de ser un fenómeno no menos interesante. Pero su apreciación estética requiere una prudencia y preparación previas muy semejantes a las del medievalista, por ejemplo. **Sencillamente, hemos de despojarnos de las normas y criterios del mundo moderno** y de las literaturas extrañas.

Sólo así, con mentes nuevas, tras esa dolorosa operación de arranque, podremos hacer justicia a los *bertso berriyas*. De lo contrario obtendremos una percepción deformada de los hechos de la realidad. **El bersolarismo es un mundo viejo que precisa criterios nuevos.**

Ez dago argiago esaterik. Pentsamolde eta irizpide berriak eskatzen ditu bertsolaritzaren azterketak. Ez dute balio ohiko arau, irizpide eta ikuspegiak: ez mundu modernoarenak, ez literatura arrotzenek. Mundu zaharra da bertsolaritza, ikuspegi berria behar duen mundu zaharra.

¹⁶¹ Zavala, 1996a: 36. Nirea da letra lodia; etzana, jatorrizkoa.

Horra hor, zirriborroan, gordinik emanda –“en agraz”, esan zuen berak–, Antonio Zavalak bertsoaritzari buruz lan-tzen eta ontzen ari zena 1956an. Batzuetan, bihurritu ere egi-ten zaio haria, baina azkenean ez da horren zaila jarraitzea.

Sutsu aldarrikatu zuen herri-literaturarentzat erreferen-tzi marko berri baten premia. Sutsu jardun zuen, bazekielako bestelakoak zirela, oso bestelakoak, Arantzazura bildutako batzuen eta bildu gabeko askoren ikuspegi, premisa eta oina-riak.

Berrogei urte geroago, hitzaldi hura berriro argitaratzean, sei oin-ohar erantsi zizkion, pasarte bana argitu, zehaztu eta biribilduz. Ezin esanguratsuagoa da horietan hirugarrena.

Karmelo Etxegarairen bertso-paperekiko gutxiespenaren harira, honela esan zuen Arantzazun¹⁶²:

El pueblo –aunque a veces lo logre accidentalmente– nunca trató de hacer poesía, y es una injusticia juzgarle por lo que no fue su intención [...].

Y si no busca poesía, llegamos a una conclusión de sorpresa a pesar de la claridad de sus premisas. Y es que, en el bersolarismo, verso no tiene por qué ser equivalente a poesía. [...] Y sea éste el primer criterio intruso del que conviene nos desprendamos. Pero, a decir verdad, no deja de ser excéntrica nuestra posición de impugnar por carente de poesía a quien nunca la pretendió.

Hain zuzen, pasarte horri honako ohar hau erantsi zion 1996an¹⁶³:

Al terminar de pronunciar esta conferencia, se me acercó don Manuel Lecuona y, con la suavidad en él característica, me dijo: “*Poesi-kontu ortan urrutiegi joan zera,*

¹⁶² Zavala, 1996a: 32.

¹⁶³ Zavala, 1996a: 32.

poesi-mota asko daude ta". [...] Creo que le asistía toda la razón. Pero si en mis palabras hubo acaloramamiento, se debía al acaloramamiento con que Echegaray arremetió contra los *bertso-paperas*, y yo no quise sino defenderlos. Quede como justo medio el que al bersolarismo no hay que juzgarlo con criterios extraños, sino por lo que los bersolaris, y el pueblo en general, han buscado y pretendido por medio de él.

Merezi du pasarte honetan geratzea. Hain da argigarria. Bi ikuspegi azaltzen dizkigu, Manuel Lekuonarena eta Antonio Zavalarena, nahiz eta tolosarrak 1996an, nolabait, biak adostu nahi izan zituen. Ez dakit lortu zuen. Baina guri ezin hobeto datorkigu oin-oharra. Bestela, oharkabean itzuriko ziztaigun Zavalaren ekarpen erabakigarria.

Funtsean, bai Manuel Lekuona eta bai Antonio Zavala, biak, Karmelo Etxegarairi aurre eginez mintzatu ziren, nor bere garaian. Azpeitiarrak gutxietsi egin zituen bertsoak, hauen arruntasuna eta poesiarik eza nabarmenduz. Aurka jaiki ziren Lekuona eta Zavala, baina erantzun ezberdinak emanez. Lekuonak bertsoetan badela poesiarik esanez erantzun zuen, eta poesia horren zer-nolakoak aztertzeari eta azaltzeari ekin zion. Zavalak, berriz, sustraietara jo zuen erantzun bila: herriak ez duela poesiarik egiteko asmorik izan, eta bertsoak ez direla ikuspegi horretatik juzgatu behar. Bertsoak ere izan daitezke poesia, baina bigarren mailako kontua da hori.

Korapiloaren bihotzean gaude. Bai Lekuonak eta bai Zavalak herri-literatura defendatu nahi izan zuten, eta literatura kultuaren eta herri-literaturaren arteko urradura sendatu eta zentzatu. Baina urrunago zihoan Zavala, kultur urradura sakonagoaren sustrai ezkutuen bila. Gadamer filosofoaren eskutik saia gaitzke arazoaren mamiaz jabetzen.

Urraduraz mintzo da Gadamer ere, nahiz eta bestelako hitzak erabili. Eta urradura hori du gai, beste filosofo askok bezala. Izan ere, honela dio¹⁶⁴:

La verdadera tarea de la filosofía desde el siglo XVII ha consistido en conciliar esta nueva utilización de la capacidad humana de saber y de hacer [zientziaz ari da] con el conjunto de nuestra experiencia vital.

Batetik, zientzia; bestetik, bizi-esperientzia edo bizi-mundua. Bi horien artean dago tirabira eta gatazka. Zientziaren lilurak eta distirak badu eraginik gure bizi-esperientzien munduan, eta dena ez da onura. Bizi-mundua zapuzten eta hondatzen ere ari da zientzia. Gadamerrek *extrañamiento* hitza darabil sarri eta, horrekin batera, *desnaturalizar*, *enajenado*, *alienada*...¹⁶⁵. Urraduraz eta urradura horrek eragindako zauziaz mintzo gara gu hemen. Funtsean, egitate bera izendatu nahi dute denek, esperientzia bera iradoki.

Gadamerrek bi esparrutan gertatua baliatzen du, gatazka eta tirabira horren berri emateko. Artearena eta historiaren esparruak dira; hain zuzen, Zavalak begiz jo zituenak hasiera-hasieratik¹⁶⁶.

Partiré de dos experiencias de extrañamiento que nos asaltan en el campo de las significatividades de nuestra existencia. Me refiero a la experiencia de extrañamiento en la conciencia estética y a la experiencia de extrañamiento en la conciencia histórica.

Eta, artearena sustraietatik landuz, honelaxe dio¹⁶⁷:

¹⁶⁴ Gadamer, 2001a: 85; 2002: 213.

¹⁶⁵ Gadamer, 2001a: 85-98; 2002: 213-224. Jakina: itzulpenekoak dira hitz horiek. Lana, berez, alemanez dago idatzia.

¹⁶⁶ Gadamer, 2001a: 85-86; 2002: 231-214.

¹⁶⁷ Gadamer, 2001a: 86; 2002: 214. Nirea da letra lodia.

El artista de las culturas de signo religioso ha creado siempre, en el pasado, su obra de arte con la intención de que lo creado por él sea aceptado en lo que dice y representa, y de que pertenezca al mundo donde conviven los seres humanos. **La conciencia artística, la conciencia estética, es siempre una conciencia secundaria. Es secundaria frente a la pretensión de verdad inmediata que se desprende de la obra de arte.** En este sentido, el juzgar algo en referencia a su calidad estética constituye un extrañamiento de algo que nos afecta mucho más íntimamente. Ese extrañamiento en el juicio estético se produce cuando alguien se ha sustraído, cuando no atiende al requerimiento inmediato de aquello que le posee.

Nahiz eta erlijioaren eta antzinateko artea abiapuntu hartuz ari den pasarte, erabat dagokio bertsoen eta, oro har, herri-literaturaren eremuari. Kontzientzia artistikoa, kontzientzia estetiko, beti da ondorengoa. Aurretikoa da bertsoaren edukia. Bertsoa kalitate estetikoaren arabera juzgatzean, beren onetik ateratzen ditugu gauzak.

Horrek ez du esan nahi bertsoak balio estetikorik ez duenik, ezin izan lezakeenik. Baina hori atzemateko, berezko entzuleetara jo behar dugu eta horietan duen eraginean oinarritu. Antonio mintzo da orain¹⁶⁸:

Personalmente estoy persuadido de su excelencia literaria. Creo, por ejemplo, que algunas de nuestras vidas de santos no desmerecen de las de Berceo. Incluso encuentro entre ambas profundas semejanzas de fondo y técnica que serían demasiado largas de explicar. Pero repito que no es en la apreciación que nosotros podamos darles donde debemos apoyarnos, sino en el efecto logrado en el público a quien se dirigen.

¹⁶⁸ Zavala, 1996a: 37.

Horixe bera gordinago dio Gadamerrek¹⁶⁹:

Toda auténtica creación artística tiene asignada su comunidad correspondiente, y tal comunidad es algo diferente a la sociedad cultivada que es informada y amedrentada a la par por la crítica del arte.

Horren argitan, esanahi betea hartzen du Zavalaren ares-tiko pasarteak¹⁷⁰:

Al bersolarismo no hay que juzgarlo con criterios extraños, sino por lo que los bersolaris, y el pueblo en general, han buscado y pretendido por medio de él.

Berez estetikaz ari badira ere pasarte horiek, bai Zavalarenak eta bai Gadamerrena, berdin balio dute hizkuntzaren mundurako ere. Horien argitan, uste ez bezalako esanahia hartzen dute Arantzazuko hitzaldi hartako hitz jakin batzuek, eta indar berezia zenbait eta zenbait pasartek. Baina, batez ere, esanahi betea eta erabakigarria hartzen du hitzaldi osoak. Zavalak ikuspegi eta irizpide berriak errebindikatzen zituen herri-literatura juzgatzeko; gaurko hitzez esanda, paradigma berria, erreferentzi marko berria.

Mundu modernoak ekarri zuen bertsoak, bizi-munduaz ahaztuta, irizpide estetikoak juzgatzea. Gero nolako lanak gauzak beren onera ekartzen¹⁷¹.

Su apreciación estética [bertsoena] requiere una prudencia y preparación previas muy semejantes a las del medievalista, por ejemplo. Sencillamente, hemos de **despojarnos** de las normas y criterios del **mundo moderno** y de las literaturas extrañas.

¹⁶⁹ Gadamer, 2001a: 87; 2002: 214-215.

¹⁷⁰ Zavala, 1996a: 32.

¹⁷¹ Zavala, 1996a: 36. Nirea da letra lodia.

Adierazgarria da *despojarnos* hori. Aldaketa handia eskatzen du erreferentzi markoa aldatzeak, paradigma-aldaketa, Kopernikok bere garaian astronomian eragin zuena bezalako xea.

Irizpide berriak ez dira herri xehearenak baino¹⁷²:

[Nuestra falta de un criterio] interno la podemos suplir con otro criterio externo e infalible: el mismo pueblo vasco.

Adibide oso biziaz ilustratzen du Zavalak¹⁷³:

Según **nuestros cánones** no habrá quizás calidad literaria. Pero si a nuestro pueblo lo vemos permanecer a la escucha hechizado, y reír feliz con un goce infantil y profundo, o llorar no sólo en la paz invernal de su caserío sino también colectivamente en el vagón de un tren, o llevar a hombros al bersolari de calle en calle, como en un pueblecito de Vizcaya, entonces tendremos que pensar que, sea con lo que fuere, obtiene el bersolarismo una influencia que para sí la quisieran los mejores literatos; que allí registrarán otros **cánones estéticos**, pero que se consigue lo que nosotros quisiéramos con los nuestros.

Erabat aldatu beharko ditugu irizpideak eta ikuspegiak, baldin eta bertsopaperetara egoki hurbildu nahi badugu¹⁷⁴.

Sólo así, con **mentes nuevas**, tras esa dolorosa operación de arranque, podremos hacer justicia a los *bertso berriy*as [bertsopaper zaharretako bertsoez ari da]. De lo contrario obtendremos una percepción deformada de los hechos de la realidad. El bersolarismo es un **mundo viejo** que precisa **criterios nuevos**.

¹⁷² Zavala, 1996a: 36.

¹⁷³ Zavala, 1996a: 36-37. Nirea da letra lodia.

¹⁷⁴ Zavala, 1996a: 36. Nirea da letra lodia.

Eta badakigu zer den irizpideak eta ikuspegiak erabat aldatzea: paradigma aldatzea, darabilgun erreferentzi markoa utzi eta erabat bestelako paradigma bat hartzea. Badakigu, aldi beran, zein zailak eta nekezak diren horrelako barru-barruko aldaketak.

Iradoki dugunez, Kopernikok eragindako irizpide- eta ikuspegi-aldaketa jo izan da paradigma-aldaketaren adibidetzat. Lurrari, Lurrarena; eta Eguzkiari, Eguzkiari dagokiona. Eta bertsoari, bertsoari dagokiona¹⁷⁵.

No estamos preparados para enjuiciar el bersolarismo.

[...] Está preparado el pueblo, que nunca salió ni se asomó a otros **mundos**. Saben ellos medir sin titubeos la calidad de los *bertsos*, y tengo comprobado que casi siempre se hallan extrañamente acordes en sus juicios. Es que, repito, nunca salieron de aquel **ámbito** cuasi medieval.

Lo abandonamos nosotros y pertenecemos ya al **mundo moderno**. Precisa una reintegración que, por desgracia, ya no es posible en su plenitud sino a espíritus amplios y especialmente dotados.

Orain badakigu nola irakurri letra lodiz nabarmendutako hitz horiek. Bizi-mundua da bertsolariena¹⁷⁶. Haiek ez ziren hortik irten. Haien mundua ez zen adituen mundu objektiboa. Ez zituzten bertsoak irizpide estetikoak juzgatzen. Kontua ez da Erdi Arora itzultzea; baizik eta bakoitzari dagokiona aitortzea eta ematea.

Baina bada beste oin-ohar esanguratsu bat ere, Zavalak 1996an Arantzazuko hitzaldiari erantsitako seien artean. Jatorrizko testuan honela zioen¹⁷⁷:

¹⁷⁵ Zavala, 1996a: 35-36. Nirea da letra lodia.

¹⁷⁶ Dagoeneko, bizpahirutan erabili dut *bizi-mundua*. Berehala zehaztuko dut zer zentzutan darabildan.

¹⁷⁷ Zavala, 1996a: 40.

De algunas obras euskéricas se ha dicho, como elogio máximo, que son un perfecto retrato de nuestro pueblo. Aquí, en los *bertsos*, no se trata ya de percepciones mediatas.

Eta, *mediatas* horren esanahia argiago uztearren, honako oin-ohar hau erantsi zuen berrogei urte geroago¹⁷⁸:

Quizás no esté suficientemente clara esta frase. Quería expresarse que, así como en otros casos es un testigo de la vida de nuestro pueblo quien describe a ésta, en los *bertso berriyas* es el mismo pueblo quien nos habla y, pudiera decirse, se confiesa.

Herriaren ahotsa aurkitzen du Zavalak bertso paper zaharretan. Eta ahots hori berreskuratzea izan zuen haren egitasmoak helburu. Horixe besterik ez da Auspoa: herriaren ahots berreskuratua.

Bide batez, orain suma dezakegu zer lan egingo zukeen Zavalak, baldin eta historiaren eremua jorratzea aukeratu izan balu. Orduan ere, herriaren ahotsa berreskuratzea joko zukeen, hari hitz eginaraziz¹⁷⁹. Eta, kasu honetan, kontzientzia estetikoak ez baina, kontzientzia historikoa jarriko zukeen bigarren mailan.

Nahiz eta aurreko pasarte horiek berez bertsoen alderdi artistikoaz mintzo diren, ez dugu ahaztu behar berdin balio dutela hizkuntzaren alderdiaz jarduteko ere.

¹⁷⁸ Zavala, 1996a: 40.

¹⁷⁹ Berreskuratu ere berreskuratu zuen herriaren ahotsa historiarako. Berritu ditzagun aurreko kapituluaren jasotako Inazio Mujikaren hitz baliotsuak (Mujika, 1990: 112):

[Auspoaren] balio historikoa, berriz, nabarmena da, bai bertso corpus zabala dagoelako bertan, bai Euskal Herriko gorabehera historikoek gizaritate xehean jaso duten erantzuna ulertzen laguntzen dutelako. Bertan aurkituko ditu irakurleak, esate baterako, euskaldunek parte hartu duten azken mendeetako gerra guztiei buruzko bertsoak: frantseseak, karlistadak, Kubako edo Afrikako gerra eta Espainiako azken gerratea.

Arantzazuko hitzalditik zazpi urtera, berriro jorratu zuen Zavalak bertsoen hizkuntzaren alderdia. Eta, oraingo hone-tan, are gogorrago salatu zituen epaile arrotzak. Luzea da pa-sarte, baina merezi du ia osorik ekartzea hona¹⁸⁰.

[El error de los puritanos de la lengua] consistió en no haber advertido que en los idiomas vivos la situación de hecho y la de derecho se identifican, ya que a favor de cada palabra o costumbre gramatical vivas, sean nativas o importadas, está, implícito pero verdadero, el plebiscito popular más espontáneo, unánime y democrático que puede darse, y que atentar contra el derecho otorgado por este plebiscito constituye un acto dictatorial nocivo siempre a la vida del idioma.

[...] Lógicamente, este cambio no podía menos de afectar a los bersolaris. Éstos no cantan en el vascuence de derecho que los puritanos propugnaban, sino en el de hecho que rechazaban. En consecuencia, no sólo comienzan a carecer del aplauso del sector culto, sino que llegan incluso a ser menospreciados.

Ya no se les llama a participar en las fiestas éuskaras; ya no se les abren los teatros, a no ser en San Sebastián el día de Santo Tomás; ya no hay quien escriba reseñas de sus actuaciones, como lo hicieron Manterola y Otaegui con aquel sentimiento de admiración y asombro. Es más; algunas reediciones de canciones o poesías populares llegan a retocar los textos primitivos.

Eta, testigantza argi bezain mingarri horren ondoren, honela eransten du tolosarrak¹⁸¹:

Gracias a Dios, el bersolarismo es fuerte; tiene seguridad en sí mismo. No vive mirando a lo que los extraños

¹⁸⁰ Zavala, 1996a: 225.

¹⁸¹ Zavala, 1996a: 225-226

puedan decir, como parte de nuestra literatura no popular, sino que brota porque es una necesidad en el pueblo vasco: necesidad de cantar en el bersolari y necesidad de escuchar en la masa. Existía siglos antes de que le aplaudieran los cultos. ¿Por qué habría de callar ahora [XX. mende hasieran] que le vituperan? El bersolarismo seguirá adelante en su camino.

Eta, nahiz eta pasarte horretan hizkuntzaren alderditik ari den tolosarra, berdin balio du estetikaren alderdirako ere. Baita 1968an idatzitako pasarte honetakoak ere¹⁸²:

Pero a principios de siglo se puso de moda el purismo del lenguaje. El vascuence hablado estaba corrompido; había que purificarlo. Vino, en consecuencia, el desprecio al *bersolari*. Éste, impertérrito, siguió cantando en las plazas de aldea y en las tabernas y sidrerías: pero ya no hubo concursos.

Baina, idazlanaren zentzuaren arabera, honela egokitu beharko genuke testua:

Ya no hubo concursos. Pero el bersolari, impertérrito, siguió cantando en las plazas de aldea y en las tabernas y sidrerías.

Alferrik baita itsasoari mugak jartzea.

Mokoroaren harira: hitzez eta hizkuntzaz harantzago

Justo Mokoroak, azkenean, 1990ean plazaratu zuen “*Ortik eta emendik*”. *Repertorio de locuciones de habla popular vasca* obra erraldoia, bi tomotan, erabat 92.167 esaeraz osatua¹⁸³. Mokoroak berak hala eskatuta, Antonio Zavalak idatzi zuen hitzaurrea¹⁸⁴. Ez da harritzekoa eskaria. Biak, tolosarrak eta

¹⁸² Zavala, 1996a: 265.

¹⁸³ Mocoroa, 1990.

¹⁸⁴ Hitzaurrearen bi bertsio ditugu eskueran: Mokoroaren obran plazaratua (Zavala, 1990b) eta Zavalak gero, 1996an, *Auspoaren auspoa II*

obra erraldoi banaren egile ez ezik, gogaide eta bidaide izan ziren urte askoan.

Aspaldi, 1936an, jarri zizkion Mokoroak oinarriak lanari, *Genio y Lengua* liburua idatzi zuenean, Ibar ezizenaz¹⁸⁵. Lan-egitasmo haren garapena da “*Ortik eta emendik*”, bizitzan zehar bildutako euskal esamolde eta esapidez osatua.

Baina, bide batez esanda, Mokoroak bildutako esaldi asko ez dira berez lokuzio; ez dira iristen lokuzio izatera; ez dituzte betetzen lokuzio izateko behar diren baldintza guztiak. Badute ezaugarri nagusia: idiomatizitatea (lokuzioaren esanahia ez da osagai banaren esanahien batuketara). Baina beste ezaugarriren bat falta zaie, gutxienez: maiztasuna (ez dira maiz erabiltzen), instituzionalizazioa (ez daude behar adina zabal-duta), egonkortasuna (ez daude behar hainbat finkatu eta ir-motuak)...

Alabaina, Mokoroa ez zen horrelako teknizismoetan geratzen¹⁸⁶. Euskararen bizitasunak kezkatzen zuen, obsesio bihurtzeraino; eta ez zuen aukerarik txikiena galtzen bizitasun horren lekukorik bitxienera jasotzeko. Antonio Zavalari, berriz, oso ondo datorkio hori guztia, urak bere errotara ekartzeko.

Antonio Zavalak egin zuen, hitzaurrea ez ezik, obra aurkeztu zeneko hitzaldia ere¹⁸⁷. Baina ez bata eta ez bestea dira hizkuntzalari baten lanak, Zavalak hitzaurrean espresuki dioenez. Bietan bere golkotik ari da, hizkuntzalari edo adituen esanak aipatu gabe; bere bihotzetik eta erraietatik, Mokoroaren lan erraldoiaren harira.

liburuan argitaratua (Zavala, 1996b: 71-83). Apenas dagoen aldaketarik bien artean. Hemen, dena den, bigarrena baliatuko dugu.

¹⁸⁵ Mocoroa, 1936.

¹⁸⁶ Alderdi teknikoetarako, ikus Corpas Pastor, 1996: 20-32. Mokoroaren obrari dagokionez, Esnal, 2001.

¹⁸⁷ *Auspoaren auspoa* berean dugu hitzaldia, hitzaurrearen ondoren eta honen osagarri (Zavala, 1996b: 87-93).

Ezaugarri hau –bere erraietatik aritzea– oso berea du Antoniok. Hala entzun dugu Arantzazuko hitzaldian ere. Eta ezaugarri bera atzemango dugu berehala, Oiartzun, Reno eta Deustuko hitzaldietan.

Zavala, Mokoroa bezala, hizkuntza biziak kezkatzen du, euskararen bizitasunak. Baina ez da hizkuntzara mugatzen. Harantzago doa. Ez bagara horretaz jabetzen, motz geratuko gara haren hitzak irakurtzean.

Bai hitzaurrean, bai aurkezpen-hitzaldian, batetik hizkuntzaren gramatika eta hiztegia ikusten ditu eta bestetik esaerak, esaldiak edo modismoak –hiru terminoak darabiltza, Mokoroak izenburuan *lokuzio* deitua euskaraz izendatzeko–. Hauxe dio Antoniok hitzaurrean¹⁸⁸:

Iztegi eta gramatikak alako geldi-antza bat dute esaeren aldean. Mundu *estatiko* baten berri ematen digutela esan genezake. Baiña mundua **bizitzaren** eta **bizidunen** lekua ere bada. Eta **bizitzaren** berri ere eman bear digu izkuntzak.

Poliki irakurri behar da pasartea. Horrexegatik nabarmendu ditut letra lodiz zenbait hitz, Antoniok nabarmendutako *estatiko* horrez gain. Oiartzungo hitzaldian eta Renorako idatzitakoan izango dugu aukera bizitzaren eta bizidunen munduaz hitz egiteko.

Zavalak, orain ere, urradura du gai. Batetik, hiztegiak eta gramatikak; bestetik, bizi-mundua. Eta, orain ere, Gadamerrek lagun diezaguke tolosarraren hitzen esanahi sakona eta balio erabakigarria atzematen. Osorik aldatzen dut hona pasartea, luzea bada ere¹⁸⁹.

El “texto” debe entenderse aquí como un concepto hermenéutico. Esto significa que **no se contempla desde**

¹⁸⁸ Zavala, 1996b: 75. Nirea da letra lodia.

¹⁸⁹ Gadamer, 2001a: 201; 2002: 329. Nirea da letra lodia.

la perspectiva de la gramática y la lingüística, es decir, como producto final al que apunta el análisis de su producción con el propósito de analizar el mecanismo en cuya virtud funciona el lenguaje como tal, **prescindiendo de todos los contenidos que transmite**. Desde la perspectiva hermenéutica –que es la perspectiva de cada lector– el texto es un mero producto intermedio, una fase en el proceso de comprensión que encierra sin duda como tal una cierta abstracción: el aislamiento y la fijación de esta misma fase. Pero **la abstracción va en la dirección inversa a la que contempla el lingüista**. Éste pretende no llegar a la comprensión del tema expuesto en el texto, [sino] aclarar el funcionamiento del lenguaje al margen de lo que pueda decir el texto. Su tema no es lo que el texto comunica, sino la posibilidad de comunicarlo, los recursos semióticos para producir esta comunicación.

Para la óptica hermenéutica, en cambio, **la comprensión de lo que el texto dice es lo único que interesa. El funcionamiento del lenguaje es una simple condición previa**.

Ez. Zavalaren hitzaurrea ez da hizkuntzalari baten lana. Eta ez, soilik, bera ez delako hizkuntzalari. Batez ere, bere asmoa ez delako hizkuntzalariena –aztertzea nola funtzionatzen duen testuak edo herri-literaturak–, baizik eta zer dioten. Bizitzaren berri eman behar du hizkuntzak, eta hiztegiak eta gramatikak motz gelditzen dira.

Orain hobeto ulertzen dut zergatik Antoniok ez zuen hain gogoko zenbait eztabaida eta lan, bertsolaritzaren edo herri-literaturaren alderdi formalarekin zerikusi zutenak. Aspergarri ziren harentzat, zentzu handirik gabeak. Bigarren mailakotzat jotzen zituen. Eta bigarren mailakotzat irizten zien herri-literaturari buruzko teorizazioari begira.

Horren arabera irakurri behar dira Mokoroaren obrari egin zion hitzaurrea eta haren aurkezpenean esan zituenak.

Berez, ez da ari hizkuntzaren funtzionamenduaz edo hizkuntzak eskaintzen dituen baliabideez. Ondo daude horiek, baina betiere esaten denaren baitan eta zerbitzuan.

Adibidez, honela dio aurreko pasartearen segidan¹⁹⁰:

Egiteko ori [bizitzaren berri ematearena] esaeren bidez egiten du geienbat [hizkuntzak]. Esaerak munduko dinamikaren berri ematen digute.

Ortarako, irudi edo metaforaren batez baliatzen dira askotan.

Eta, hori esanda, lokuzioak aztertzen hasten da, “mingai-nean herdoilik ez du” adibidetzat hartuta, eta esaera horretan eta beste batzuetan *herdoila* metaforak jokatzeko duen papera azalduz.

Eta ondoren dio, berriro ere edukiari eta esanahiari begiratu¹⁹¹:

Era ontako esaerak arpegiko begiekin ikusten ez dan zerbaiten berri ematen digute sarritan. Ez da besterik esan bear, esaera oiek izketarako duten balioaz. Ortik dator, ain zuzen, beren bereiztasunik arrigarrietako bat: bat esan eta bestea ulertu egin bear dala. Itzak adierazten dutena baiño esan-nai zabalagoa eta sakonagoa dutela.

Ori ala izanik, ez dago itzegiterik irudirik eta esaerarik gabe. Eta ori, ez izkuntza au dalako edo bestea dalako, izkuntza guziak barren-barrengo muiñean ori dutelako baizik.

Hitzaldiaren azken aldera dioenez, “esaeretan ez-ezik, itzetan ere gauza bera ikusten da”.

¹⁹⁰ Zavala, 1996b: 75. Nirea da letra lodia.

¹⁹¹ Zavala, 1996b: 76.

Hitzaurreko beste pasarte batean, berriz¹⁹²:

Buka eziñeko gaia genduke au [hizkuntzen esaera eta irudiena], beraren itzuli-mitzuli guziak aztertu nai bage-nitu. Izkuntza guziak irudiz eta esaldiz beteta baitaude. Izketan ari gerala, ez gera ortaz konturatzen. Baiña ez da ausnarketa luzerik bear ori ikusteko eta arri-arri eginda gelditzeko.

Baliabide asko erabili ohi ditu gizarteak mendeetan zehar, eguneroko bizitzako esperientzien berri emanez, ohiko hizke-ran lehenik. Eta hizkuntza bakoitzaren lexikoan geratu dira jasota.

Antonio Zavalak baliabide horietako bat –lokuzioa, zabal hartuta– azaldu eta aztertuz osatu zuen Mokoroaren “*Ortik eta emendik*” obraren hitzaurrea. Ildo horretan sakonduz ja-rraituko du ondorengo hitzaldietan.

Oiartzun: intuizioa eta bizi-esperientziak

Euskaltzaindiaren Herri Literatura Batzordeak antolatuta, 1994an izan ziren Herri Literatura III. jardunaldiak, Oiartzu-nen, Manuel Lekuonaren sorterrian, honen jaiotzaren men-deurrena gogoratu. Ahozkotasuna izan zuten gai. Jardunal-di haietan, abenduaren 30ean, eman zuen Antonio Zavalak “Pensamiento intuitivo y discursivo en la poesía popular vas-ca” hitzaldia¹⁹³.

Jardunaldiak antolatzen egindako bileretan, gogotsu ikus-ten genuen, ilusioa zeriola. Azkenean, plazaratzera zihoan urte askoan hausnartua eta landua. Behin baino gehiagotan en-tzun genion zertaz jardungo zuen, eta sumatu ere sumatzen genuen nondik jo zezakeen. Baina harekin hobe zen erne ibil-tzea, ezustekoren baten peskizan.

¹⁹² Zavala, 1996b: 77.

¹⁹³ Zavala 1996b: 243-267.

Hitzaldiaren lehen hitzetatik erasan zigun ezustekoak. Gaztelaniaz hasi baitzen, “señoras y señores” esanez. Eta horren zergatia azaldu behar izan zigun¹⁹⁴:

Rara vez me he sentido tan incómodo como en el inicio de esta charla. Está, por un lado, el que la dicte en castellano, cuando vosotros la esperabais, sin duda, en euskera. Pero las ideas que deseo verter no sabría expresarlas en nuestra lengua de forma medianamente inteligente, además de llevarme más esfuerzo y tiempo de los que puedo disponer.

Balio handiko hiru pasarte eskaini zizkigun ondoren. Izan ere, hor daude, Oiartzungo hitzaldiaren ezaugarriak ez ezik, Zavalaren teorizazioaren hiru ezaugarri ere.

Lehenengo ezaugarria: teorizazio subjektiboa. Era subjektiboan jardun beharrak ere deseroso sentiarazten zuen¹⁹⁵.

Mi labor durante muchos años ha consistido en publicar materiales anteriormente recopilados; en disponer y manejar elementos que no habían nacido y crecido en mí, sino que me eran extrínsecos. De esta labor se espera el máximo de objetividad y el mínimo de subjetividad. Hoy, en cambio, cambiando las tornas, voy a daros algo muy subjetivo e intrínseco y poco objetivo y extrínseco.

¹⁹⁴ Zavala, 1996b: 245. Bide batez, ondo etorri zitzaion Zavalari hitzaldia erdaraz egitea; entzuleen artean baitzuen adiskide min Rafael Andolz apaiza (Jaca, 1926 – Huesca, 1998), berau ere partaide jardunaldi haietan, “Literatura oral en Aragón” hitzaldiaz (Andolz, 1995). Hartara, honek ere izango zuen Zavalaren hitzez jabetzeko aukera, nahiz eta euskara ere zerbait ulertzen zuen –nola edo hala hitz egitera ere iritsi omen zen jesuita zela; jesuita izana baitzen, eta Zavalaren ikaskide-. Nago tolosarra benetan interesatua zegoela horretan. Agian, behin baino gehiagotan jorratua izango zuten, elkarrekin, Zavalak Oiartzunen jorratu zuen gaia, eta aragoiarraren zordun ere ikusiko zuten bere burua.

¹⁹⁵ Zavala, 1996b: 245.

Si hasta ahora me he dedicado a ofrecer textos de la literatura popular, hoy pretendo hablaros de algunas de las reacciones o ecos que esos mismos textos han suscitado en mí.

Zerbait oso subjektibo eta intrintsekoa eskainiko zigun. Herri-literaturako testuek bere baitan sortutako erreakzioak eta oihartzunak izango zituen hizpide. Ordu arte, objektuaz soilik jardun zuen; hitzaldian, subjektuaz arituko zen.

Antoniorentzat herri-literaturaren ezagutza ez zen soilik kontzeptuala; ez zegokion soilik buruari; ez zen soilik intelektuala; ez zen estetika hutsa. Bere izate osoari zegokion. Bizi-esperientzien adierazpena zen, bizi-munduaren jario. Bere osotasun betean –gorputz, arima eta espiritu– bizitzen zuen. Oiartzungo hitzaldiak horretan sakontzeko aukera eskaini zion.

Hala ere, ez zuen bere burua nabarmendu nahi izan. Esan zuena baino gehiago ere zezakeen; alegia, bere pentsamendua ere intuitiboagoa zela diskurtsiboa baino. Hitzaldian ez zuen esan. Joxerra Garziak egindako elkarrizketan eman zuen aditzera. Honek galdetu “Zer moduzko sermoilaria izan zara?”, eta Antoniok erantzun¹⁹⁶:

Eskas samarra. Izketarako abildade gutxi daukat nik, bai euskeraz eta bai erderaz. Nik nere barruan ez det itzik entzuten; gauzak ikusi egiten ditut. Orregatik, izketan asterakoan, nik nere barruan ikusi egin ditudanentzat itzak billatu bear ditut, eta lan orrek denbora eskatzen du; izketak ez dit ortarako astirik ematen.

Berehala ikusiko dugu zeinen egoki azaltzen duten hitz horiek zer den pentsamendu intuitiboa. Ohartzan ari gara: karga autobiografiko handia dute Antonioren zenbait pasar-

¹⁹⁶ Zavala, 2006: 155.

tek. Kasu honetan, hitzaldi osoak du karga handia, Arantzazukoak izan zuen bezalaxe.

Bigarren ezaugarria: teorizazio osatu gabea. Honela jarraitu zuen hitzaldian¹⁹⁷:

Que nadie espere de esta charla un sistema de ideas bien estructurado y ensamblado. No es una teoría más o menos completa lo que voy a presentaros, sino un conjunto, un tanto confuso y mal hilvanado, de impresiones personales, que no trato de imponer a nadie, sino de exteriorizar o casi confesar, con esperanza de absolución por parte de quienes las juzguen un disparate.

Antionioren leloetako bat da, baina tentuz hartu beharrekoa. Izan ere, zirudiena baino gehiago esaten zuen behin eta berriro. Horrelako hitzak ondo etortzen dira norbera apal azaldu eta alde zurretik bizkarra babesean jartzeko, baina ez dira hitzez hitz ulertu behar. Antoniok ez zuen teorizazio-lan askorik eskaini, baina oso aintzat hartzekoa da utzi ziguna.

Hirugarren ezaugarria: Zavalaren teorizazioa bakarti baten lana da¹⁹⁸.

Ocupado, como digo, en la tarea de ofrecer los primeros materiales, apenas he leído los trabajos de quienes han teorizado sobre la literatura popular. Reconozco que en este campo tengo muchas carencias, lagunas e ignorancias. Me ha faltado tiempo y también quizás humor y ganas. Me muevo más a gusto en el plano de lo concreto que de lo abstracto. De ahí nace en este momento el temor de que, echando a andar por el terreno teórico, a lo mejor no haga más que exponeros como novedoso algo

¹⁹⁷ Zavala, 1996b: 246.

¹⁹⁸ Zavala, 1996b: 246. Lapsus bat itzuri zitzaion Antonioren lehen esaldian. Honela izan beharko luke, noski: "Ocupado, como digo, en la tarea de ofrecer primero los materiales".

archisabido o algo descaminado; el temor de no saber si voy a llevaros a descubrir el Mediterráneo o a extraviaros en un país inhóspito y hostil.

Antoniok ez omen zuen beste adituen lan askorik irakurri. Denbora ezagatik, zioen berak. Eta, agian, umore eta gogo faltaz ere izan zitekeela erantsi zuen Oiartzunen. Berriro, haren hitzak osatu beharrean gara. Batetik, aditzera ematen zuena baino gehiago irakurri zuen. Bestetik, ez zuen behar adina irakurriko, baina ez gogo-faltaz, baizik eta ez zuelako nahi zuenik eskuratzen.

Dena den, bi beldur aipatu zituen hitzaldian: ez ote zuen Mediterraneo aurtitua izango eta ez ote zuen entzulea galbidera eramango. Bere bizkarra babesten ari zen oster; baina, aldi berean, aurkikuntza bat egina zuela ere iragartzen.

Sarrera horren ondoren, harriduraz mintzatuz hasi zen: bertsopaperak biltzen hasi zenean, bertsoek-eta sortzen zioten harriduraz. Ezaguna dugu pasartea¹⁹⁹:

Quando empecé a recopilarla [herri-literatura], aquello fue como entrar a explorar una tierra desconocida. Todo se me hacía llamativo y digno ser notado.

Zavalak, Oiartzungo hitzaldian, Manuel Lekuonaren lana baliatu zuen une batean. Berriro ere, oiartzuarra eta tolosarra dira solaskide, aurrez aurre ez bada ere. Lau urte lehenago, Mokoroaren obra izan zuen abiapuntu, haren eskaria baliatuz. Orduan, egoki azaldu zuen zer-nolako aztarnak utzi dituen hizkuntzan –batik bat, esamolde edo esapideetan– bizi-esperientziak adierazi beharrak. Orain, Oiartzunen, esapideak ez baina, bertsoak ditu abiapuntu; zehatzago esanda, hauen irakurketek eragiten zioten harridura.

¹⁹⁹ Zavala, 1996b: 247.

Zavalak, hitzaldian, bere bi interesgune nagusiak jorrazteko aukera izan zuen: herri-literatura eta kultur urradura.

Herri-literaturaz

Hasteko, testuek lehen urteetan sortutako harriduratik testu-egileen buruek lan egiteko erak eragindakora pasatzen da²⁰⁰.

Una de mis primeras impresiones fue la de que la cabeza de los autores de aquellas estrofas que recopilaba, leía y transcribía funcionaba de modo diferente al nuestro.

Urte batzuk geroago, zertaz ohartuko eta aurrea hartua ziola Manuel Lekuonak²⁰¹.

Cuando más tarde leí la conferencia de don Manuel Lekuona, *La poesía popular vasca*, leída en Bergara en 1930, y su libro *Literatura oral vasca*, pude ver que hacía años que don Manuel había caído en la cuenta de este fenómeno.

Eta, ondoren, Lekuonaren hitzok berritu zituen:

El orden de los conceptos para el poeta clásico siempre tiene que ser lógico, racional. Sin este orden lógico, no es posible la poesía para él. Con todo, dijérase que para el poeta vasco no rige o rige muy atenuada esta ley. Hay en nuestras coplas tal desorden lógico de conceptos, que aquéllas no parecen obra de razón. Y es que en rigor, no lo son; sino más bien de la imaginación.

Zavala, funtsean, bat zetorren Lekuonarekin puntu hone-tan: ezberdinak dira euskal herri-poesia eta poesia klasiko(a) (eta geure buruak)²⁰².

²⁰⁰ Zavala, 1996b: 248.

²⁰¹ Zavala, 1996b: 252.

²⁰² Zavala, 1996b: 255.

El hecho de que la poesía popular nacía en cabezas bastante distintas de las nuestras estaba claro.

Eta, ezberdintasun horren zergatia aurkitu nahian, Lekuonaren funtsezko pasarte bat gogoratu zuen²⁰³:

...si la ciencia es obra de entendimiento, la poesía lo es más bien de sentimiento o imaginación. Y si la **ciencia** en sus obras procede por silogismos, y definición y división adecuada, y relaciones de principio a conclusión, etc., etc., la poesía en las suyas puede, y aun debe más bien, por conexiones y asideros perceptibles aun a la sola imaginación y a los sentidos...

Eta ondoren erantsi zuen:

He de confesaros que, si bien me hallaba de acuerdo con sus apreciaciones, no me sentía del todo satisfecho. Teníamos un hecho: la diferente estructura de la poesía popular respecto a la culta. Había que encontrarle el por qué. Don Manuel lo veía en un mayor desarrollo de la imaginación sobre el entendimiento. También en eso estaba conforme. Pero ¿no era, más que una solución, un traslado del problema? Porque inmediatamente surgía la pregunta: Y ¿por qué ese desarrollo o hipertrofia de una cualidad mental sobre otra?

Horra hor Zavalaren galdera erabakigarria. Bat zetorren Manuel Lekuonarekin, baina ez zuen asetzen oiartzuarrak esanak. Urrunago, sakonago joan nahi zuen. Arantzazuko hitzaldikoan bezala, erantzun beteagoaren bila zebilen. Eta, azkenean, aurkitu ere zuen.

Ya no recuerdo los pasos concretos por los que llegué a una solución que, al menos a mí, me satisfizo. O si ésta

²⁰³ Zavala, 1996b: 255. Nirea da letra lodia.

me vino de repente. El caso es que, de un modo u otro, se me hizo manifiesto que con la poesía popular me encontraba ante textos que brotaban más de un pensamiento de tipo intuitivo que uno discursivo; de mentes en las que predominaban las imágenes visuales sobre las verbales.

Hortxe ditugu hitzaldiaren tesia eta muina, funtsa eta ardatza: pentsamendu intuitiboaren emaitza da herri-poesia. Are gehiago, hortxe dugu, era berean, Antonio bila zebilen giltza: bi pentsamendu mota horiek eragina da, hain zuzen, literatura kultuaren eta herri-literaturaren arteko urradura.

“Eureka!” egin zezakeen oihu, entzuleok ere ohar gintzen aurkikuntzaz. Baina aurrera egin zuen. Oraindik bazuen zer azaldua. Entzuleok, berriz, denbora beharko genuen hura guztia geureganatzen hasteko.

Eta pentsamendu intuitiboak eta diskurtsiboak aztertzen hasi zen: non duten sorburua eta zer ezaugarri dituzten.

Mokoroaren obraren hitzaurrean esanak berrituz, hauxe dio gure buru-jardueraren jatorriaz²⁰⁴:

Es que nuestra actividad mental, sea literaria, científica o de la índole que sea, no nace de la nada. Se le da pábulo y alimento a través de los sentidos. Ahí está, por poner un ejemplo, el hecho de nuestras palabras y conceptos más inmateriales e incorpóreos, que siempre tienen un componente inicial suministrado, como digo, por los sentidos; componente que se sublima o eleva de rango.

Alabaina, entzumena eta ikusmena dira gizakiaren zentzumen nagusiak, eta gizaki batzuetan bata gailentzen da eta beste batzuetan bestea. Eta horrek esplikatzen du batzuk –ikusmena nagusi duten gizakiak– batik bat pentsamendu

²⁰⁴ Zavala, 1996b: 256.

intuitibokoak izatea eta beste batzuk –entzumena nagusi dutenak– pentsamendu diskurtsibokoak.

Hitz gutxitan adierazi zuen zer den pentsamendu bakoitz²⁰⁵.

El pensamiento intuitivo viene a ser como un cuadro que admiráramos o un panorama que contempláramos. [...]

Pero así como todos esos elementos se dan a un mismo tiempo, también los del **pensamiento intuitivo coinciden en una misma visión**, pudiéndose decir que dos de sus cualidades sean la pluralidad y la coexistencia.

Erabat bestelakoa da pentsamendu diskurtsiboa²⁰⁶.

El pensamiento discursivo es, en cambio, como su nombre lo expresa, semejante a un discurso, en el cual las imágenes, e imágenes verbales, como decimos, **no se nos ofrecen al mismo tiempo**, sino una detrás de otra, al igual que los eslabones de una cadena.

Eta, bien alde onak eta gaiztoak laburbilduz, honela azaldu zituen pentsamendu intuitiboaren bentajak²⁰⁷:

El pensamiento intuitivo, por ejemplo, tiene presente, como sucede con nuestros ojos, una pluralidad más rica y compleja de cosas, incluso lejanas, con lo que se permite muchas veces avanzar no a pasos, sino a saltos, aun larguísimos, como quien dirige la mirada desde los primeros planos de un panorama a los más lejanos.

Hitzaldi osoa dago pasarte esanguratsuz eratua. Baina eten dezagun irakurketa eta aipuaq pilatzea. Horiek nola ira-

²⁰⁵ Zavala, 1996b: 259. Nirea da letra lodia.

²⁰⁶ Zavala, 1996b: 259-260. Nirea da letra lodia.

²⁰⁷ Zavala, 1996b: 260.

kurri asmatzean dago gakoa. Apenas zertxobait aldatzen dugun ikuspegia, esanahi berriz irteten zaigu dena bidera.

Zavala beldur zen ez ote zuen Mediterranea aurkitu. Hala esan zuen, behintzat. Nik, hitz horien atzean, gehiago sumatzen dut Sokratesen “ezjakintasuna” eta maieutika. Alegia, ez ote zen ari gu zirikatzen, geure kabuz pentsa genezan, geure baitan generamanaz erdi gintezan. Agian, beste ahots batzuek ere lagun diezaguke horretan.

Javier Melloni jesuita gaztearenak dira beste honako hitzok²⁰⁸:

Estamos claramente ante la complementariedad cognitiva de los dos hemisferios del cerebro. El hemisferio derecho es intuitivo y ve la parte desde el todo, mientras que el hemisferio izquierdo es analítico y ve el todo como resultado de la suma de las partes.

De la predominancia del uso del hemisferio izquierdo se deriva el principio de la no-contradicción, que sirve para individualizar los conceptos pero a costa de escindir la plasticidad de la realidad sin asumir la integración de los contrarios. En cambio, el hemisferio derecho acepta la contradicción como parte constitutiva de la realidad.

Raimon Panikkar filosofoak, berriz, honela amaitzen du pasarte esanguratsu bat, datorren kapituluan baliatuko duguna²⁰⁹:

Toda verdadera experiencia no puede ser comunicada ni expresada por medio de conceptos.

Berriro, bizi-esperientzien munduan gaude. Esan ezina da benetako esperientzia. Ezin da kontzeptuz komunikatu eta adierazi. Bai, ordea, atzeman. Nola? Intuizioaren bidez,

²⁰⁸ Melloni, 2011: 88-89.

²⁰⁹ Panikkar, 2004: 60.

diosku Panikkarrek berak goiko hitz horiek baino lehenago. Horixe bera esan berri digu Mellonik. Soilik intuizioari esker gaindi ditzakegu ez-kontradikzioaren printzipioak ezarritako mugak.

Baina, ondoren, nola azaldu hitzez intuizioaz antzeman? Nola gaintitu kontzeptuen mugak? Gadamerren beste pasarte batek argi diezaguke.

Heideggerren iritzia gogoratuz hasten da²¹⁰:

La opinión de Heidegger [es] que no sobrepasamos el lenguaje de la metafísica, porque la gramática de nuestras lenguas atan nuestro pensar a la metafísica.

Gadamerrek ondo ezagutzen zuen zer-nolako ahaleginak egin zituen bere maisuak metafisikaren hizkera gaintitzen eta zer neurritan lortu zuen. Hala ere, ez zetorren bat haren iritziarekin, eta honela zuzentzen du berehala:

Expresarse con símiles, parábolas y todas las demás maneras indirectas de hablar que se desarrollaron en el próximo y lejano Oriente muestran una estructura narrativa y transmiten, no obstante, ideas de la metafísica filosófica. El lenguaje de esos textos no tiene nada que ver con la estructura predicativa del juicio y es independiente de toda gramática determinada. Incluso en la traducción, tales discursos y sentencias conservan una profunda inteligibilidad.

Eta aurrerago²¹¹:

En el hablar queda siempre la posibilidad de superar y sublimar la propia tendencia objetivante, lo mismo que Hegel supera y sublima la lógica del entendimiento,

²¹⁰ Gadamer, 2001a: 323.

²¹¹ Gadamer, 2001a: 342.

Heidegger supera y sublima el lenguaje de la metafísica, los orientales superan y subliman la diferencia entre los ámbitos del ser, y los poetas superan y subliman todo lo que viene dado en general.

Antonio Zavalak ez zukeen asko beharko, noski, zerrenda hori osatzeko, bertsolariak eta gainerako euskal herri-poetak ere aipatuz.

Baina Oiartzunen bazuen oraindik zeresanik. Urrunago begira jarraitzen zuen. Zauria zuen eztenka.

Kultur urraduraz

Hitzaldian, pentsamendu intuitiboak eta diskurtsiboak historian zehar izandako bilakaeraz ere jardun zuen. Zer-nolako eragina izan zuten idazkeraren sorrerak eta inprentaren asmatzeak pentsamendu diskurtsiboaren garapenean eta pentsamendu intuitiboaren murrizketan –bien arteko urraduran–; eta zer-nolako eragina izan lezakeen gaurko egoerak, irudiaren kultura deitutakoak, pentsamendu intuitiboaren indarberritzean –urraduraren konponbidean–.

Eta historia horren baitan kokatu zuen bertsolaritza, idazkerak artean astindu gabeko lurralde bateko emaitza. (Gogora dezagun ahozkotasuna izan zutela gai Herri Literatura III. jardunaldi haiek.) Eta horren harira ulertu ahal izan zuen Zavalak zergatik hasieran hain deigarri egiten zitzaizkion bertsoak²¹²:

Y estamos en condiciones de afirmar que las diferencias que en un primer contacto empecé yo a vislumbrar en las mentes de los autores de nuestra poesía popular, diferencias que más tarde vi confirmadas en los escritos de don Manuel [Lekuona], tienen como causa principal el que brotan de cabezas en las que, al revés que en las

²¹² Zavala, 1996b: 264.

nuestras, el pensamiento intuitivo domina sobre el discursivo.

Agian, berriro ere ondo datorkiguke beste ahotsen bat sarztea hizketa honetan. Berriro ere, Javier Melloni izango dugu solaskide.

Mendebaldeko eta Ekialdeko kulturak elkarrekin parekatuz, zazpi ezaugarri ipintzen ditu aurrez aurre binaka jesuita gazteak. Dagoeneko, ezaguna egiten zaigu laugarren bikotea. Honela dio Mellonik²¹³:

Razón analítica y principio de no-contradicción *versus* razón simbólica y paradójica.

Eta azaltzen du ondoren:

Lo propio de la cultura occidental está en su capacidad de inquirir, de indagar las causas y los efectos de los fenómenos externos para intervenir y dirigir las fuerzas de la naturaleza en una dirección determinada. Tenemos una relación fundamentalmente analítica y utilitarista con el entorno. Oriente, en cambio, [...] tiende a acoger la vida tal como le es dada, sin dirigirla ni violentarla. En el zen encontramos una terminología que corresponde a estas dos actitudes: la *mirada-flecha* y la *mirada-copa*. La primera es discriminatoria, aguda como la punta de una flecha, dirigida a un único objetivo, que deja de lado todo lo que no se encuentra en su trayecto. La *mirada-copa*, en cambio, se queda quieta, pacífica, abierta, solo recibiendo y acogiendo lo que es mostrado.

Zenbat oihartzun pasarte horretan, Antonio Zavalari ikasitakoaren argigarri eta osagarri! Ezin egokiago datorkigu pasarte, orain arte esandako guztia batera bildu eta Zavalaren zauria ulertzeko.

²¹³ Melloni, 2011: 88.

Ez da harritzekoa hitzaldi hau izatea Zavalaren maiteenetako bat, nahiz eta ia oharkabean pasatu zitzaigun Oiarztunen. Antoniok berak aitortu zigun, tarteka, ez zela saltzaille ona, ez zekiela bere jeneroa saltzen. Bestalde, hitzaldia ez zuen Euskaltzaindiaren esku utzi, eta ez zen argitaratu Oiarztungo jardunaldi haietako beste hitzaldiekin batera²¹⁴.

Agian, hurrengo aukeran hobeto asmatuko zuen jeneroa saltzen. Bost urte barru izango zen, Deustuko Unibertsitatean.

Reno: bizi-munduarekiko urradura

Zavalak, 2003an, gonbidapen bat jaso zuen Estatu Batuetatik, Renoko Unibertsitateko Euskal Ikasketen Departamentutik, bertan hitzaldi bat egin zezan maiatzean, herri-literaturari buruzko sinposio batean. Hitzaldia idatzi eta bidali egin zuen, han irakur zezaten²¹⁵.

Antoniok bazekien hitzaldiaren entzule askok apenas izango zuela Auspoaren berri. Beraz, distantzia pixka bat hartuz azaldu beharko zituen gauzak. Hemengoentzat behin eta berriro esanak berrituko zituen hangoentzat.

Lau gai jorratu zituela esan dezakegu. Ezagunak ditugu laurak. Baina agortezina zen tolosarraren iturria. Beti zerion ur bizia. Besteak beste, urraduraz mintzo zaigu berriro, baina Arantzazukoak esan eta berrogeita zazpi urtera. Orain, argi-ago uzten dizkigu kontuak, mingarriak badira ere. Eta, bide batez, herri-literaturaren funtsa azaltzen digu.

²¹⁴ Joxe Ramon Zubimendi izan zen hitzaldia argitaratzen lehena. Osorik ez bada ere, *Jokaera-liburuan* jaso zuen, haren balio eta garrantziak jabeturik (Zubimendi, 1995: 173-180). Gaur egun, aipatutako *Auspoaren auspoan* ez ezik, Euskaltzaindiaren web-gunean ere badago, "Herri Literatura Jardunaldietako Antologia" bilduman.

²¹⁵ Zavala, 2006: 209-224.

Ibilbidea

Hitzaldia hasi, berrogeita bederatzi urteko ibilbidearen berri emanez hasten da: zergatik sartu zen 1954an tamaina hartako abenturan, nola hasi zen lanean, zer aurrekari izan zituen, zer ibilbide egin zuen..., eta nola ikusten zituen kon-tuak 2003an.

Hori neurri handi batean esana zuen Deustuko hitzal-dian, *Honoris causa* doktore izendatu zuteneko ekitaldian. Alabaina bestelakoa zen Renoko sinposioaren testuingurua, eta hartara moldatu zuen erabat hitzaldia. Baina, egokitze hutsera mugatu gabe, zer eskainiko, berri orokor hori eman eta balantzea ere egitean, eta herri-literatura errotik ulertze-ko giltza.

Dena den, irakur dezagun hitzaldia hasieratik.

Egoki asko azaltzen du Antoniok, testigu baten ikuspegi zabala hartuz, zerk eraginda sartu zen halako abenturan²¹⁶.

Lo primero: ¿cómo me embarqué yo en esta aventura? Porque nació en Tolosa, villa ya entonces bilingüe, siendo la nuestra la primera generación que hablaba en castellano. Mi bagaje literario euskérico se reducía a algunas canciones, frente a una profusión de estudios y lecturas erdéricas. No me empujó, pues, el ambiente.

La primera vez que oí a los bersolaris fue en Aduna, pueblo entre San Sebastián y Tolosa. Pero más me influyeron los vendedores de *bertso-paperak*, de hojas con estrofas; los cuales, hasta los años cincuenta y tantos, seguían viniendo los sábados al mercado de Tolosa.

Allí en el viejo Portal de Castilla, junto al Colegio de las Escuelas Pías, antigua Diputación Foral, pregonaban ellos su mercancía; es decir, la cantaban. [...]

²¹⁶ Zavala, 2006: 209-210.

A esos vendedores los veía yo al salir al mediodía de dicho colegio. Apenas me detenía, pero la imagen del vendedor de hojas con un corrillo de oyentes en torno se me grabó. Fue el cabo de hilo del que luego empezaría a tirar, sin sospechar qué gran ovillo iba a salir.

Ezaguna dugu nolako zirrara eragin zioten bertso-paper-saltzaileek Antonio mutikoari. Hain handia, horien oroitzapenak eraman baitzuen abentura hartan sartzera; eta ez horrenbeste bertsoariak edo bertsoek. Oroitzapen haiek izan zituen hari-mutur -irudi berbera erabili zuen Deustuko hitzaldian-; eta, urteen joanean, mutur hartatik tira eta tira, bildu eta bildu, osatu zuen altxorra.

Hitzaldian, aipatu zituen gainerako eragileak ere.

También me acercaron al mundo vasco mis excursiones montaÑeras, mis años en Loyola, valle donde sólo se oía euskera, y las lecturas de libros euskéricos. Desde Oña, Castilla, escribí a casa encargándoles que, si veían en el mercado algún vendedor de *bertso-paperak*, le compraran una hoja y me la mandaran.

Eta, azkenean, nola ez?, Xabierreko ikaslearena aipatu zuen.

Pasé luego al colegio de Javier. Había allí un alumno, que solía aludir a los *bertso-paperas* de su caserío. Al marchar a las vacaciones de Navidad, le pedí me trajera a la vuelta esas hojas. Cuando al día siguiente de Reyes llegaron los autobuses, de uno de ellos salió un grito: "*Ekarri ditut!*". (¡Los he traído!) Ese grito, lanzado junto al castillo de Javier, en la noche del 7 de enero de 1954, fue el pistoletazo de salida para mi tarea.

Arantzazuko lehen hitzaldi hartaz, berriz, honela idatzi zuen²¹⁷:

²¹⁷ Zavala, 2006: 214.

Mi labor de búsqueda, en la que a tantas puertas llamaba, iba siendo conocida. Así fue que a los dos años y medio, en septiembre de 1956, cuando los materiales recogidos eran ya considerables, me invitaran a presentar una comunicación en unas jornadas euskéricas en Aránzazu, las primeras tras la guerra civil. Veo ahora que aquella ponencia fue una declaración pública de intenciones y proyectos, que daba oficialidad a mi trabajo.

Eta segidan erantsi zuen:

La hora de empezar a publicar lo recopilado, de devolver al pueblo lo que del pueblo había recibido, llegó en 1961. Se creó para ello una colección de libros llamada *Auspoa*, palabra que significa *el fuelle*, porque la función que desempeñaba éste en los hogares de los caseríos la queríamos realizar también nosotros: avivar una llama.

Berehala, ikuspegia zabalduz, herri-literaturaren bihotzera jo zuen: zer egiteko zuen literatura horrek; nola bizi zuen herriak, berak bilketa-lana hasi zuenean; eta zer egiteko duen gaur egun, nola bizi duen herriak literatura bera. Eta horrekin batera eskaini zigun, zeharbidez bada ere, herri-literatura errotik ulertzeko giltza. Gaur egungo aldaketa jorratu zuen aurretik, ordea.

Gaur egungo aldaketa eta kultur urradura

Antonio Zavala, Arantzazuko hitzaldian, gordin bezain labor mintzatu zen urraduraz. Orain, Renorako idatzitako hitzaldian, berriro heltzen dio gaiari. Doinua ez da Arantzazukoa bezain sutsua, baina orduan ez bezalako argia eskaintzen digu.

Azken urteetako aldaketa azkarraz mintzo da lehenik²¹⁸.

²¹⁸ Zavala, 2006: 218.

Yo suelo decir que el ambiente en que se criaron los abuelos de hoy, sobre todo los de ámbito rural, se parecía más a la Edad Media que a la era informática en que crecen sus nietos. Entre ambas generaciones hay más distancia que la que mediaba antes entre varios siglos.

Aldaketa horrek gauzen funtsari erasaten dio. Baita herri-literatura ulertu eta bizitzeko erari ere.

Pero esta mutación no afecta sólo a las circunstancias, sino también a la misma esencia de las cosas. Yo, al menos, voy constatando, tras casi cincuenta años de dedicación a un tema, que éste se ha alterado hasta hacerse diferente. Veo que es distinta la mentalidad con que hoy se crea y recibe la literatura popular.

Hona hemen, hitz gutxitan, lehengo gizartearen egoeraren berri:

Ésta era antes una necesidad para muchos. Con lo que ella expresaba se creaba la mentalidad de las gentes, lo mismo que el hombre culto forma la suya con el sedimento de la lectura de libros. En nuestros caseríos, los nombres de Xenpelar, Txirrita o Pedro Maria Otaño sonaban igual que en otros ámbitos los de autores de fama mundial. Lo que el magisterio de éstos es para el hombre culto, venía a ser para nuestro pueblo el de los *bertsolaris*, a quienes tomaba, no sólo como a maestros, sino casi también como a profetas. Así fue durante generaciones.

Eta noiz eta nola hasten diren gauzak aldatzen.

¿Cuándo empieza a decaer esta influencia? En la historia de los pueblos hay una etapa en que todo es cultura popular; luego, convive con ella la adquirida en las aulas. Pero ésta va ganando terreno y fuerza y al final se alza como única.

Oso da esanguratsua pasartea. Arantzazukoa dakargu gogora: “nosotros, los estudiosos, para eso, para hacernos estudiosos...”. Orain, bestelako doinua darie hitzei. Ez da hura bezain garratza. Agian, orduan lehen pertsonan aritu zelako, pluralean bada ere. Baina, berrogeita hamar urte geroago, mezuak ez du gordintasunik galdu. Alderantziz. Orduan, gertuago zuen esperientzia mingarria, eta goi-mailako ikasketen ondoriotzat jotzen zuen. Orain, berriz, herriak jasaten du esperientzia bera, nahiz hain goi-mailako ikasketarik egin ez. Orokortu egin da egoera, prozesu luze baten ondoren²¹⁹.

Sucede lo mismo en otros ramos: en la artesanía, por ejemplo. Ésta es la que en un principio proveía de utensilios y herramientas a todos. Luego viene la competencia de la industria, que acaba acaparándolo todo.

Zientziak, industriak dena irensten dute. Errotikoa da aldaketa²²⁰.

Pero en ese momento se produce un cambio radical. Esos objetos siguen con sus mismos componentes, pero significan otra cosa. Lo que era medio o herramienta para la vida, pasa a ser objeto de adorno. Vemos así ahora en nuestras casas, o donde sea, como elementos de ornato, lo que en nuestra infancia eran utensilios para la vida cotidiana: los yugos pasan a ser colgadores; las ruedas de las carretas penden como las arañas de las iglesias; los almireces descansan sobre las cómodas; las herraduras se transforman en perchas... O se crean museos etnográficos, reuniendo todos los utensilios que han caído en desuso. En las torres de las iglesias ya no suenan las campanas con sus distintos toques, sino que guardan silencio y son sustituidas por un carillón.

²¹⁹ Zavala, 2006: 219.

²²⁰ Zavala, 2006: 220.

Aldaketa bera salatu zuen ohituretan ere:

También las viejas costumbres, que antes eran vida y alma del pueblo, pasan a ser espectáculo, que viene a ser otro tipo de ornato de adorno.

Eta zenbait ohituratan –eztei, erromeria...– eta folklore-adierazpenetan –dantza, txistulari, trikitilari...– gertatua azaldu ondoren, esaldi batean laburbildu zuen aldaketaren muina²²¹:

Lo que era vida ha pasado a ser espectáculo.

Lehen, goi-mailako ikasketak egin zituztenen baitan gertatzen zen urradura; orain, orokorra da. Hain orokorra ere! Herri-literaturaren beraren bihotza jotzeraino: lehengoa, bizia zen; oraingoa, ikuskaria. Luzea bada ere aipua, merezi du hona osorik aldatzea; adibideak hain dira adierazgarriak eta esanguratsuak²²².

Con la poesía popular vasca viene a ocurrir lo mismo: lo de antes era **vida**. **Vida** era cuando aquel chico, que me lo contaba siendo ya abuelo, declaraba su amor a una chica en unas estrofas [bertsoak] escritas en un papel que dejó, sujeto por una piedra, en la senda por la que ella había de pasar, mientras él, oculto tras unas matas, vigilaba a ver si lo recogía; o cuando después de la última ejecución pública de Guipúzcoa, como pena del parricidio de Muatz, el bertsolari Zubizarreta, de Azcoitia, compuso estrofas que relataban el caso, y acudió al mercado de Azpeitia; se puso a cantarlas a una con un hijo ya mozo y otro de doce años, que es quien ya abuelo me lo contaba, y vendió los varios miles de hojas que había hecho imprimir. Y **vida** era cuando en las guerras

²²¹ Zavala, 2006: 221.

²²² Zavala, 2006: 221. Nirea da letra lodia.

carlistas uno de los bandos publicaba una hoja de estrofas [bertsoak, berriro ere], comentando una batalla o un acontecimiento; y el otro se apresuraba a sacar otra hoja dando su propia versión de los hechos.

Bertso idatziei dagozkie adibide horiek. Berdin balio dute, ordea, bat-bateko bertsoentzat²²³.

Vida era cuando a Xenpelar le avisan una noche de que en su camino de vuelta a casa le esperan quienes desean propinarle una paliza; y él no varía su ruta, pero cuando se acerca a donde le aguardan, canta tres estrofas que explican los hechos y convierte a los enemigos en amigos.

Baina, denboran hain atzera egin gabe, berak bizi izandako gertaera bat ere baliatu zuen Antoniok, askoren eta askoren oroimenean dagoena, gertatu eta ia berrogeita hamar urtera²²⁴.

Vida era cuando el 11 de junio de 1967, en el campeonato de bertsolaris, al oír el fallo del jurado de que pasara adelante a Xalbador, dejando atrás a otros, parte del público prorrumpió en silbidos que duraron cinco minutos y medio; hasta que al fin pudo hacerse oír Xalbador, cantando una estrofa que cambió las protestas en aplausos estruendosos.

Eta iruzkin zorrotz honekin amaitu zuen paragrafoa:

Aquel día la mutación fue a la inversa: un campeonato, que tenía su parte de espectáculo y teatro, se convirtió por un momento en realidad y **vida**.

Eta azkenik:

²²³ Zavala, 2006: 221-222. Nirea da letra lodia.

²²⁴ Zavala, 2006: 222. Nirea da letra lodia.

Las estrofas de hoy [bertso idatziak nahiz bat-batekoak] es fácil que sean, bastantes de ellas al menos, mejores que las de antes. Pero se cantan en un recinto cerrado, ante un público sentado, que quiere ver quién lo hace con más habilidad; o en una sobremesa, para quienes acaban de refocilarse con un buen festín. Es así un arte o espectáculo. Y no puede menos de saberlo, aunque quizás no se lo formule así, el txistulari, trikitilari o bertsolari.

Hitz egin ote daiteke ozenago? Hala ere, ez dut gai hau amaitu nahi ohar txiki bat egin gabe, azken bigarren esaldiko *arte* hitz hori dela-eta. Argi dago zer esanahi duen testuinguru honetan. Ez dagokio benetako arteari, baizik eta espetakulu hutsa den arte hilari, apaingarri eta eranskin hutsa denari.

Herri-literatura, bizia eta bizi-mundukoa

Baina aurreko pasarte horietan, Zavala urraduraz ari bada ere, zeharbidez agerian uzten digu zer zen herri-literatura beretzat: bizia.

Herri-literatura, Antonioarentzat, ez zen edergarri hutsa, ez zen estetika soila, ez zen eranskin apaingarria, baserrieta-ko zenbait erreminta berez ez ziren bezala²²⁵.

En ese momento se produce un cambio radical. Esos objetos siguen con sus mismos componentes, pero significan otra cosa. Lo que era medio o herramienta para la vida, pasa a ser objeto de adorno.

Ezin argiago utzi berri digu Xalbadorri txistu jo zioteneko kontakten duenaren amaieran²²⁶.

²²⁵ Zavala, 2006: 220.

²²⁶ Zavala, 2006: 222.

Aquel día la mutación fue a la inversa: un campeonato, que tenía su parte de espectáculo y teatro, se convirtió por un momento en realidad y vida.

Bikoitzasuna berriro: batean, ikuskizuna eta antzerkia; bestean, errealitatea eta bizia. Zehatzago esanda, txapelketa hartako finalean, emaztegaiaren paperean kantatu zuen Xalbadorrek bai goizean eta bai arratsaldean, zozketak hala erabakita. Baina txistuak ez zizkioten jo emaztegaiari, Xalbadorri baizik. Xalbadorrek kantatu zuen “txistuak jo dituzute bainan / maite zaituztet orainik!” hura; ez emaztegaiak. Ondo asko ulertu zuten entzuleek. Ondoren, ohiko bidetik jarraitu zuen txapelketak. Errealitatea eta bizi-mundua utzirik, “ikus-kizun eta antzerkiaren” mundura itzuli ziren Xalbador eta Uztapide. Baita entzuleek ere. Halaxe esan beharko genuke, Zavalaren hitzak erabiliz. Edo, haren hitzak eta Gadamerrenak uztartuz, jokora itzuli zirela esango nuke. Baina jokoia ere bizi-mundukoa da.

Jokoa entzun orduko, nori ez datorkio gogora Joseba Zulaikaren *Bertsolariaren jokoa eta jolasa* saio zirikatzailea²²⁷? Noizbait itzuli beharko dugu gaia berriro jorratzera, orduan Gadamerren ahotsa ere tartekatuz, Zavalaren ahotsarekin batera²²⁸. Ikuspegi berriaren jabe egingo ginateke, noski.

Orain, dena den, gera gaitezen bizi-munduarena argitzen. Lehen ere, erabilia dugu hitza behin baino gehiagotan. Agian, orain da unerik egokiena zertxobait argitzeko.

Bizi-mundu honen oinarrian, *Lebenswelt* terminoa dago, Husserl filosofoak zabaldu ondoren sarritan erabili ohi dena. Hemen, teknizismoetan sartu gabe, bi testuk lagun diezagukete zer esan nahi duen ulertzen.

²²⁷ Zulaika, 1985.

²²⁸ Ikus, besteak beste, Gadamer, 2001b: 143-181: “El juego como hilo conductor de la explicación ontológica [de la obra de arte]”.

Lehenengoa, Antonio Zavalarena berarena da. Ezaguna dugu²²⁹:

Según nuestros cánones no habrá quizás calidad literaria [bertsoetan]. Pero si a nuestro pueblo lo vemos permanecer a la escucha hechizado, y reír feliz con un goce infantil y profundo, o llorar no sólo en la paz invernal de su caserío sino también colectivamente en el vagón de un tren, o llevar a hombros al bersolari de calle en calle, como en un pueblecito de Vizcaya, entonces tendremos que pensar que, sea con lo que fuere, obtiene el bersolarismo una influencia que para sí la quisieran los mejores literatos; que allí regirán otros cánones estéticos, pero que se consigue lo que nosotros quisiéramos con los nuestros.

Bizi-munduaren erretratu biziagorik! Polita da bizi-esperientzien zerrenda: herria bertsoak entzuten, barrez zoratzten edo negarrez, baserriko bakean nahiz trenean, edo kalez kale bertsolaria bizkarrean dutela... Horixe da bizi-mundua: bizi-esperientzien mundua. Bizi-mundu horren kontrapuntu, berriz, literato kultuen mundua aipatzen du Zavalak.

Bigarren testua, beste filosofo handi batena da, Michel Henryrena. Honelaxe dio²³⁰:

Es hoy en día, a pesar de los maravillosos progresos de la ciencia o, más bien, a causa de ellos, cuando se sabe cada vez menos sobre la vida. O, para ser más rigurosos, cuando *no se sabe nada de ella, ni siquiera que existe* [...].

Los biólogos [...] sí que saben qué es la vida. No lo saben como biólogos –puesto que la biología no sabe nada de esto–. Lo saben como todos nosotros porque también ellos viven, porque aman la vida, el vino, las mujeres,

²²⁹ Zavala, 1996a: 36-37.

²³⁰ Henry, 2001: 49.

porque aspiran a un puesto, hacen carrera, experimentan también la alegría de viajar, de los reencuentros, el aburrimiento de las tareas administrativas, la angustia de la muerte. Pero esas sensaciones y emociones, ese creer, esa ventura o el resentimiento, todas estas experiencias o aflicciones que son otras tantas epifanías de la vida, no son a sus ojos más que “pura apariencia”.

Eguneroko mundua da bizi-mundua. Ohikoa. Orduan, zergatik sortu *Lebenswelt* bezalako termino berezia, ohikoa izendatzeko? Hain zuzen, zientziak eta mundu modernoak arrotz bihurtu dutelako; eta, nahiz eta arrotz bihurtu, oraindik ere indarrean dugulako, zientziaren eta mundu modernoaren aurreko eta lehenagoko, bai denboraz, bai garrantziaz. Oraindik ere urradura ez baita erabateko eten.

Antonio Zavalak bizi-mundukoa ikusten du bertsolarien eta herri-literaturaren mundua; eta bizi-mundu horren miraz, literatoak. Michel Henryk, berriz, zientifikoaren baitan atzematen ditu bi munduak: batetik, bizi-mundua; bestetik, itxura hutsa.

Bizi-munduan, edozein gizon edo emakumek goza lezake egunerokoaren berezkotasuna. Horretarako, ez da ume, aparteko poeta edo mistiko izan behar. Nahikoa da kutsatu gabeko begiraturia izatea. Begiratu horri esker gozatu zuen Antoniok, mutikotan eta gaztetxotan, Zerkausiko bertso-saltzailleen inguruko festa eta mendian ibiltzeari zerion gozamina.

Balantze moduan: kultur urradura areagotzen

Antonio Zavala, Renorako hitzaldian zehar, bi momentutan geratzen da halako balantze moduko bat egitera.

Erdialdean, lehenik. Aurretik, bere buruaz mintzo da²³¹.

²³¹ Zavala, 2006: 218.

Puede que sobrevalore yo este género [jende xehearen kontakizunez ari da], porque el escuchar un buen relato de labios de un pastor, a la vez que el tintineo de las esquilas, mientras se tienen ante los ojos los picos nevados del Pirineo o las amplitudes de la meseta castellana, tiene, desde luego, un gran encanto. Y sigo así adelante, aunque siempre con la duda de si hago lo que hago no por lo que en sí vale, sino por lo que me agrada.

Eta segidan:

Lo que tampoco acabo de dilucidar es si en mi trabajo hago historia, antropología, etnología, filología o literatura. Quizá contenga un poco de todo. Pero es algo que nada me preocupa y que casi me halaga.

Azken balantzea, hitzaldiaren azken hiru lerrokadetan egiten du²³². Hirurek merezi dute iruzkinen bat edo beste.

Repito que éstas [las masas: herri xehea] han cambiado mucho desde que inicié esta labor, hace cincuenta años. Es decir, después de una vida dedicada a recoger y salvaguardar algo que me hacía duelo se perdiera. Pero que nadie me tome como a un hombre que se ha sacrificado por una causa. Porque la verdad es que, aparte de algunos leves y pasajeros disgustos, esta labor me ha hecho feliz durante todos esos años.

Nekez laburbil daiteke egokiago Antonioren ibilbidea. Baina gelditu zaio barruan arantzaren bat.

Más de una vez se me ha reprochado que no haya forjado teorías, interpretaciones o análisis acerca de los materiales que voy ofreciendo.

²³² Zavala, 2006: 224.

Eta, bere burua zuritzeko-edo, bi arrazoi aipatzen ditu, dagoeneko ezagunak ditugunak.

Puede que sea, en parte al menos, porque se trata de un terreno en el que no me muevo tan a gusto. Y, también, porque creo que urge más publicar los materiales existentes. Pensaba que esto no podía esperar; pero aquello sí, y lo dejaba para más tarde.

Gogoan hartzeko arrazoiak dira, hasierako zalantza edo “puede que sea” modalizazio hori ere barne dela. Halako zalantza-izpirik ez dago lerrokadaren azken bi esaldietan.

Ahora sé que no lo haré nunca [teorizazio-lana]. Quede, pues, para otros.

Berriro ere ez daiteke ozenago esan. Horren ondoren, lagunok lehendik ere ezaguna genuen oharra eranstea besterik ez zitzaion gelditzen.

Esta urgencia [materialak ahalik azkarren argitara eman beharrak] me ha impedido asimismo leer y enterarme de lo mucho que sobre estos temas se habrá escrito en otras lenguas y países. Así que cuando doy en teorizar un poco, como hoy en lo del paso de elemento de vida a objeto de adorno, no puedo menos de temer que a lo mejor estoy descubriendo el Mediterráneo.

Letra larriz idaztekoa da azken esaldi osoa. Dagoeneko ikasia dugu nola irakurri. Ez zebilen teoriaren azalean; herri-literaturaren bihotzean baizik. Mediterraneo aurkitu izanaren beldur zela? Bete-beteen jo zuen tiroa ontziaren flotazio-marran. Hortxe dago herri-literaturaren gaitza: bizi izateari utzi eta apaingarri bihurtu izanean.

Deustu: literatura da herri-literatura, artea

Horiek guztiak, azken batean, Deustuko hitzaldian esandako hitz erabakigarri batzuen ondorio besterik ez dira²³³:

[no hay] dos literaturas, una culta y otra popular, sino sólo literatura.

Lehen irakurketan, bi literatur motaren arteko bereizketan ipintzen dugu fokua: ez daude bi literatura; literatura besterik ez dago. Berehala itzuliko gara puntu honetara.

Bigarren irakurketan, fokua aldatuz, zertaz ohartuko eta beste gauza bat ere esaten ari zitzagula Zavala: literatura dela herri-literatura; beraz, artea dela.

Luze jardun dezakegu honetaz. Besteak beste, Gadamerren ahotsa baliatuz berriro²³⁴. Baina beste baterako geratzen da. Hala ere, gaia urratzen hasiak gara, hiru oinarrizko kontzeptu bidelagun: *bizia*, *bizi-esperientzia* eta *bizi-mundua*.

²³³ Zavala, 2006: 35.

²³⁴ Gadamer, 2001b: 121-142. Kapitulu bati dagozkion orrialdeak dira. Esanguratsua da kapituluaren izenburua: "Recuperación de la pregunta por la verdad del arte". Horren hurrengo kapitulua da arestian, 228. oin-oharrean, aipatua: "El juego como hilo conductor de la explicación ontológica [de la obra de arte]". Dena den, Gadamerren obra osoaren baitan irakurri behar dira biak ere.

8. Azken giltzarria: ez-dualtasuna

Antonio Zavalak, Joxerra Garziak egindako elkarrizketan, Deustuko hitzaldia ez zuen kokatu herri-literaturari buruzko teoria-lanen artean. Baina, ikusi berri dugunez, hitzaldi hartako esaldi bakar batean laburbildu zuen herri-literaturari buruzko teoriaren funtsa.

Era berean, esaldi berak jartzen dio azken giltzarria kultur urradurari buruzko gogoetari ere. Esaldi horrexetan dago, hain zuzen, Antonioren obra guztia koroatzen duen aurkikuntza. Aurkikuntza bera, egitasmo bikoitzaren azken giltzarri.

Orain, Deustuko hitzaldiaz jardungo dugu lehenik, aurkikuntzaz jabetzen hasteko; aurkikuntzan sakontzen saiatuko gara ondoren.

Deustuko hitzaldia

Deustuko Unibertsitateak, 1999an, Filosofia eta Letren Fakultateko *Honoris causa* doktore izendatu zuen Antonio Zavala, herri-literaturaren alde egindako lana aitortuz eta eskertuz.

Handikiro gauzatu zen ekitaldia, horrelakoetan ohi denez, unibertsitateko areto nagusian, paraninfoan. Aurrealdeko mahai luzearen erdian zegoen Antonio, *Honoris causa* doktore izendatzeaz, ezker eta eskuin zituela Unibertsitateko agintari akademikoak. Aretoaren albo batean eseri ziren Unibertsitateko doktoreak, dotore jantzita, birreta eta guzti. Behean geunden Antonioren hainbat ezagun eta lagun.

Ekitaldi beroa izan zen, Zavalaren beraren hitzaldia ardatz izan zuena. Esker oneko hitzaldia egin zuen Antoniok, herri-literatura biltzen, ikertzen eta plazaratzen egindako ibilbidearen berri ere emanez, euskaraz eta gaztelaniaz.

Orain, hitzaldia xehatu gabe, Antoniok eskainitako harribitxian ipiniko dugu arreta osoa. Horixe dugu hark urtetan

eta urtetan landutako bitxia, egitasmu bikoitzari txapela jantziko ziona, tolosarrek egin ohi duten gisan.

Salaketa gogor bat eginez ipini gintuen talaian. Ezagun zaharra genuen salaketa, baina durundi berezia izan zuen areto handi hartan²³⁵.

Cuando se iniciaron las tareas de recopilar de boca del pueblo materiales literarios, se creó para estos, como ya he dicho, el término de *folk-lore* o saber del pueblo, o literatura oral o popular. Pero se trataba de una etiqueta un tanto injusta y taimada. Porque llevaba dentro un juicio de valor que marcaba diferencias y categorías. Lo uno era lo culto, lo docto, lo letrado, lo noble; lo otro, lo inculto, lo indocto, lo iletrado, lo plebeyo. Había un plano superior y otro inferior. No sólo en Oriente existen castas.

Bere burua ere salatu zuen, damua agerian utziz.

Y en esta trampa hemos caído todos o casi todos. Resulta así que durante años hemos hablado y escrito admitiendo ingenuamente tal distinción. Eso es algo de lo que yo, al menos, me siento ahora avergonzado. Porque cedíamos sin más un terreno del que no debíamos retirarnos.

Eta ondoren eskaini zigun harribitxia:²³⁶

Hasta que al cabo de muchas idas y venidas, de muchas vacilaciones y sentimientos de inconformismo, oí de la

²³⁵ Zavala, 2006: 34.

²³⁶ Deustuko hitzaldiaren entzule zuen Antonio Pérez adiskide mina, Oiarzungoan Rafael Andolz izan zuen bezalaxe. Dagoeneko badakigu zenbat lagundu zion asturiarrak hasieran. Gero, hura izan zuen, bizitzan zehar, bidaide eta gogaide min. Harekiko esker oneko hitzaldia ere izan zen tolosarrarena. Noizbait aztertu beharko dira biek elkarri idatzitako gutunak ere. Koldo Mitxelena Kulturunean daude adiskide min horrenak. Dena den, uste ere izan dut Antonio Pérezi entzun ziola aipatutako esaldi erabakigarria. Berari galdetu diot. Ez dago seguru.

bios de un amigo que no había dos literaturas, una culta y otra popular, sino sólo literatura²³⁷.

Azken hitz horietan dago guztia: ez daude bi literatura; literatura baizik ez dago. Hitz zehatzak dira, ondo neurtuak.

Eztanda baten eragina izan zuten hitz horiek unibertsitateko areto nagusian. Doktoreen artean izan zen kopeta zimurtu eta harridura azaldu zuenik; bakarren batek nabarmen samar. Ustekabean harrapatu gintuen, era berean, Antonioren paradoxetara ohituak geundenok ere. Aztoratu ere ginen: ez ote zen urrunegi joan maisua, noiz eta bere ibilbidearen unerik nabarmenean. Ez ote zuen gailurraren haizeak gehiegi zorabiatu. Baina gustura eta batez ere seguru sumatzen genuen doktore berria. Horrek lasaitzen gintuen.

Gaur, hitzaldia eskuetan, hobeto balora dezakegu pasarte deigarri hura. Ez da gauza bera pasarteak entzutea eta irakurtzea. Orain, behar adina asti har dezakegu hitzak hausnartzeko. Alde dugu igarotako denbora ere. Hobeto ezagutzen dugu Zavalaren obra, eta hobeto prestatuak ditugu geure ontziak. “Quidquid recipitur ad modum recipientis recipitur” dio esatera zaharrak: jasotzen duenak ontziaren arabera jasotzen du.

Arantzazun, 1956an, ezinbestekotzat jo zuen ikuspegi berria, bertsolaritza behar bezala estudiantzekotan. Deustun, berrogeita hiru urte geroago, zer esango eta, batetik, ez daudela bi literatura –kultua eta herri-literatura– eta, bestetik, literatura baizik ez dagoela.

²³⁷ Bide batez, gogora dezagun nola eman zuen Oiartzunen beste aurkikuntza haren berri. Hain dira antzekoak Deustuko pasarte eta hura:

Ya no recuerdo los pasos concretos por los que llegué a una solución que, al menos a mí, me satisfizo. O si ésta me vino de repente. El caso es que, de un modo u otro, se me hizo manifiesto que con la poesía popular me encontraba ante textos que brotaban más de un pensamiento de tipo intuitivo que uno discursivo...

Lehen kolpean, erraz jasotzen dugu lehen esaldia, nahiz eta harridura sortzen digun: ez daude bi literatura. Eta, harridura horren eraginez, itzurian joan dakiguke bigarrena –“sino solo literatura”–, ohartu gabe lehena bezain harrigarria dela esaldia.

“Sino sólo literatura” esan zuen Zavalak, zer eta “sino *una* sola literatura” espero genuenean. Eta, agian, horixe jasoko genuen Deustun. Baina idatziak “sino sólo literatura” dio. Eta, deskuiduan hutsen bat dela uste izango bagenu, berriro dio bi orrialde geroago: “no hay literatura culta y popular, sino sólo literatura”.

Zehaztasun handiz jardun zuen Zavalak Deustun. Kontu osoz eskaini zigun harribitxia. Ez zen izan bat-batean sortutako burutazioa. Urteak eta urteak behar izan zituen ondorio horretara iristeko, hainbat joan-etorri, zalantza eta borroka. Harik eta adiskide minaren ahotik ideia hura entzun zuen arte. Hura entzun orduko ohartuko zen ideia hartan zuela, hain zuzen, bila zebilen giltza nagusia.

Doktore berriak bazekien entzule guztiok ez genuela ideia hura erraz onartuko, eta ondo prestatua eraman zuen hitzaldia. Besteak beste, sei aldiz erabili zuen *dualidad* hitza, eta behin *dual* adjektiboa. Hitz zehatzak dira berriro. Arazoaren erdigunea zuten jomuga. Zavala ez zebilen badaezpadako kontuetan.

Hitz zehatz horien indargarri, irudi esanguratsuak erabili zituen. Oso maitea zuen bat: goiko pisuena eta beheko pisuena²³⁸.

Su fraude [bitasun edo dualtasun horrena] radica en que concede a los del piso de arriba el derecho a subestimar a los del piso de abajo.

²³⁸ Zavala, 2006: 35.

Eta beheraxeago:

No es raro encontrar textos de los del piso de abajo enmendados por los del piso de arriba.

Beste batzuetan, *plano* erabiliko du, *piso* hitzaren ordeaz.

Deustuko Unibertsitateak koroatu zuen Zavalaren ibilbidea, eta Antoniok gailur horretatik eskaini zigun, bihotzaren hondotik, bere gogoetaren azken emaitza eta bihozkada.

Poz beteaz zerion egun hartan. Berririo, hitzaldiaren amaieran, "eureka!" oihu egitea besterik ez zitzaion falta –aurkitu dut!–, berrogei eta bost urte lehenagoko "ekarri ditut!" haren oihartzun. Azkoitiar mutiko haren hitzek eman zioten hasiera Zavalaren lanari, 1954aren urte-hasieran; orain, 1999aren amaieran, poz beteaz dario Antoniori.

Azken giltzarria: ez-dualtasuna

Hitz gutxitan laburbildu zuen Antoniok bere aurkikuntza. Ez daude bi literatura: kultura eta herrikoa; literatura baizik ez dago. Hitz horiek utzi zituen zur eta lur hainbat doktore; eta haiek bezala zenbait entzule ere. Esaldi horrek zulatu gaitu geroztik maiz, eta sarri galdetu izan diogu geure buruari zer esaten ari zen Zavala zehatz-mehatz.

Gaur, esaldiaren muina atzeman dudalakoan nago. Hortxe dago tolosarraren lan gutzia ulertzeko giltza eta giltzarria. Hortxe, aurkikuntza erabakigarria: ez-dualtasuna. Eta, aurreratu bezala, aurkikuntza horren harira hartzen dute esanahi beteaz bai haren herri-literaturari buruzko teoriak, bai urradurari buruzko gogoetek.

Ez-dualtasuna

Lehenik eta behin, jar diezaiogun izena aurkikuntzari, airean gal ez dadin. Eta egin gaitezen izenak adierazi nahi duenaren jabe. Zavalak berak lagunduko bi eginkizunetan.

Izenaren atarian gelditu zen Antonio. Dualtasuna hainbestetan salatu bazuen, zergatik ez deitu *ez-dualtasuna* defendatzen zuen jarrera eta ikuspegiari? Izen horren esanahia azaltzeko, adibide ezin hobeja jaulki zuen Deustun: ez daude bi literatura; literatura baizik.

Baina nola ulertu esaldi hori? Nola ulertu ez-dualtasuna?

Kontuan izan behar dugu, hasteko, Zavalak ez zituela bi literatura motak nahasten. Inola ere ez. Hain zuzen, bi literatura motak bereizteak eraman zuen bere lan erraldoia hasi eta garatzera. Bi pasadizok lagun diezagukete horretaz jabetzen.

Lehenengoa. *Bilboko gabon-kantak* liburua prestatzen ari zela, hor bota nion, jakin gabe zer urtetako gabon-kantak zituena argitaratzeko, Unamunok ere egina zuela gabon-kanta bat euskaraz eta agian mereziko zukeela bilduman sartzea²³⁹. Bat-batean erantzun zidan: “Baina ez al gara herri-literaturako lanak plazaratzen ari?”. Horrela bota zidan, pluralean, errietaren eztena kamustuz. Hitz zorrotzagoak merezi nituen, noski: “Horrenbeste urte elkarrekin eta oraindik ez al dakizu zertan ari naizen?”.

Bigarren pasadizoa, ondo ezaguna dugu Euskaltzaindiko Herri Literatura Batzordekoak. Askotan entzun genion esaten, izan ere, komenigarria izango litzatekeela bi maila bereiztea bertso-paper-lehiaketetan: herri-mailakoak eta kultuak; bestela, herri-mailakoak normalean galtzaile ateratzen direla kultuen aldean, eta pena dela hala gertatzea; halako aberastasuna dagoela herri-mailakoetan.

Bigarren pasadizo honek agerian uzten digu zer zentzu zuen Zavalaren bereizketak. Herri-literaturaren aldeko diskri-

²³⁹ Liburua erabat amaitu gabe utzi zuen Zavalak, eta 2012 urtean plazaratu genuen Auspoa bilduman, 324 zenbakiaz eta *Bilboko gabon kantak (1755-1832)* izenburuz.

minazio positiboa zen; ahularen aldeko diskriminazioa; gaur egun, euskararen alde edo emakumeen alde errebindikatzen dena. Errebindikazio horrek eraman zuen, hain zuzen, herri-literatura ere literatura dela aldarrikatzera; literatura kultua bezainbatekoa eta ez bigarren mailakoa.

Beraz, bi literatura mota daude, eta biak dira literatura. Bestela esanda, ez dira bi literatura eta ez da literatura bat. Horixe zen Zavalaren errebindikazio bikoitza. Une batzuetan, kontua argi dagoela dirudi; beste une batean, ordea, korapilatu eta ilundu egiten zaigu. Nola uztartu bi errebindikazioak: literatura ez da bat, literatura ez da bi? Nola gainditu kontraesana?

Filosofiak aspaldi egin behar izan zion aurre problema berari: nola gainditu dualismoa, monismoan erori gabe? Eta Zavalak, filosofian lizentziatua izanik, ezaguna zuen problema. Ezagunak zituen zenbat jira eta bira eman dituen Mendebaldeko filosofiak problema hori ebatzi ezinik. Eta ezagunak zituen, jakina, zer-nolako bihurrikeriaz azaldu duen teologiak zer den Trinitatea –hiru pertsona eta Jainko bakarra²⁴⁰– eta zer den Jesukristo –bi izaera eta pertsona bakarra–. Eta bazekien zenbat buruhauste, tirabira, borroka eta sufrimendu eragin dituzten horrelako arazoek.

Era berean, Zavalak ezaguna zuen Ekialdeko jakinduria, bai han lan egindako jesuiten ahotik, bai liburuen bidez. Eta, ezaguna ez ezik, maitea ere bazuen. Zenbat aldiz galdetu ote zion bere buruari zer egingo ote zukeen Indian, baldin eta hara bidali izan balute gaztetan Konpainiako nagusiek, berak eskatu bezala? Guk, ez badakigu ere, suma dezakegu, bate-

²⁴⁰ Antonio Zavalak pozarren jaso eta plazaratuko zituen, 1966an, oso gaztetatik ezagutzen zituen bi bertso. Lehenik, Amezketako erreto-reak Fernandori botatakoa, hau txarteletara joandakoan; eta, ondoren, Fernandoren erantzuna, dotrina, teologia eta filosofia guztien gainetik eta azpitik (Auspoa 54: 78-79).

tik, Indian hemen baino lehenago aurkituko zukeela ez-dualtasunaren giltza eta, bestetik, giltza hori eskuetan izanik, hemen baino ordu gehiago eskainiko ziokeela herri-literaturari buruzko teoria lantzeari.

Izan ere, Indian bizirik dago *advaita* izeneko ikusmoldea. Izen hori ematen zaio bai sistema filosofiko-teologiko bati, bai esperientzia espiritual bati ere. Horien arabera, Mundua eta Jainkoa ez dira bat, baina ez dira bi ere; edo, nahiago bada, ez-bi dira. Horixe esan nahi du *advaita* hitzak, sanskrito hizkuntzan: ez-bi edo ez-dualtasuna (a: ez; dvaita: bi).

Ikuspegi honen arabera, Jainkoa eta Mundua ez dira bat; Jainkoa eta Mundua ez dira bi. Esaldi –proposizio– horiek bakarka hartuta ez diote problemarik sortzen pentsamenduari; bai, ordea, biak batera hartzen badira. Orduan, ez-kontraesanaren printzipioarekin egiten du topo arrazoiak. Eta honek ezin lezake printzipio hori saihestu eta gainditu.

Horixe gertatzen zaigu geuri ere, Zavalaren bi errebindikazioak uztartzen hasita. Bakarka hartuta, biak ulertzen ditugu. Batetik, literatura kultua eta herri-literatura ez dira bi (“biak dira literatura” dio Zavalak); bestetik, ez dira bat (biak bereizi beharra defendatzen zuen tolosarrak; eta bereizketa horren gainean eraiki zuen bere obra erraldoia). Baina bi errebindikazioak batera ulertu nahi baditugu, nahastu egiten zaigu burua, pentsamendua, arrazoa.

Luze jarrai dezakegu, zenbait teologo edota filosofo gogai-de eta bidaide hartuta; besteak beste, Raimon Panikkar kataluniarra. Oraingoz, bego honetan.

Intuizioa

Ulertzekoa da Zavalaren hitzek Deustuko hitzaldian eragindako harridura. Izan ere, paradoxikoak ez ezik, kontraesanak ere badira, eta aurrez aurre egiten dute talka zere-

kin eta gure kulturaren oinarri sendo batekin: ez-kontraesanaren printzipioarekin.

Nola atera ataka horretatik? Hona hemen Panikkarren pasarte luzexka bat, zerbait soilduta bada ere argitasunaren mesedetan; lehenago baliatua dugu azken esaldia²⁴¹:

¿Hay otra “facultad” que pueda aprehender simultáneamente la verdad de estas dos proposiciones [que Dios y el Mundo *no son* una sola cosa ni tampoco dos cosas diferentes, en resumen, ni uno ni dos, sino *advaita*]? El *advaita* (y prácticamente cualquier mística estaría de acuerdo) afirma que tal “facultad” existe y la llama *anubhava*, experiencia, intuición, y también gracia, fe, don, revelación, el tercer ojo –el *oculus fidei* de los Victorinos del siglo XII. Cuando se ha experimentado que Dios está en todo, que todo está en Dios y que sin embargo Dios no es nada de lo que es, entonces se está cerca de la realización, de la auténtica experiencia *advaita* que, como toda verdadera experiencia, no puede ser comunicada ni expresada por medio de conceptos.

Zer-nolako jakinduria pasarte horretan, Ekialdean eta Mendebaldean mendeetan zehar bizi eta jasotakoa! Horra hor, Panikkarren hitzetan, nola gainditu duen jakinduria bertierekoak ez-kontraesanaren printzipioa: arrazoiak ezin duena, intuizioak lezake. (Hara hor, bide batez, zenbat izen erabili ohi diren han eta hemen mendeetan zehar, *intuizioarekin* batera, ahalmen edo baliabide bera izendatzeko.)

Antonio Zavalak pozez gainezka bereganatuko zukeen pasarte hori. Herri-literatura eta literatura kultua ez dira bi, eta ez dira bat; baizik ez-bi (*advaita*). Eta hori ezin du ikusi pentsamendu diskurtsiboak; bai, ordea, intuitiboak.

²⁴¹ Panikkar, 2004: 60. Egilearenak berarenak dira letra etzanak. Eta berea da, halaber, kortxete arteko esaldia ere, nahiz eta neuk kokatu hor, aurreko pasartetik hartuta, letra etzan eta guzti.

Beldur zen tolosarra, Oiartzunen, ez ote gintuen eramango Mediterraneo aurkitzera. Ezaguna egiten zitzaion, nonbait, han azaltzera zihoana. Sumatu ere sumatuko zuen, agian, entzuleei ez zitzaigula erabat arrotza egingo. Seguruenik, jakingo zuen filosofia edo teologiako zer liburutara jo laguntza bila. Aukeran nahiago izan zuen, ordea, bere baitatik jardun, bere esperientzian oinarrituta, nahiz eta ondo jakin, Panikkarren hitzetan, “benetako esperientzia ezin dela kontzeptuen bidez komunikatu eta azaldu”. Eta nahiago zuen, era berean, guk geuk egitea geure bidea.

Kultur urradura

Eta, azkenik, ez-dualtasunaren eskutik ohartzen gara zernolako zauria zegoen Antonio Zavalaren egitasmoaren sorburuan. Deustuko hitzaldiaren harira ohartzen gara zauriaren handiaz eta sakonaz. Azken batean, dualtasunak eragindako zauria zuen tolosarrak etengabe eztenka. Arantzazuko hitzaldian, sumatzen dugu ez zela nolana hiko eztena; Oiartzungoan, sustrai sakonekoa ageri zaigu; Renorakoan, berriz, are ezten nabarmenagoaz jabetzen gara. Deustuko hitzaldiak erakusten digu eztena ezin gordinago.

Gizaki guztiak bezala, bere baitan bizi zuen Zavalak paradoxa. Baina gizaki gutxik bezala jasaten zuen, erraiak erretzeraino, Mendebaldeko kulturaren garapenak mendeen joan-ean areagotu besterik egin ez duen dualtasuna.

Ekialdeko kultura ondo ezagutzen duen jesuita batek, Javier Mellonik, lagundu digu, Oiartzungo hitzaldiaren harira, Antonioren zauria hobeto ezagutzen, kopa-begirada eta gezi-begirada direlakoan eskutik. Faktore biologikoen eraginez, gizaki batzuek errealitatea era intuitiboan ikusteko joera dute, kopa-begiradaz; beste batzuek, era analitikoan ikustekoa, gezi-begiradaz. Zavalaren hitzetan, pentsamendu intuitiboak dute lehenengoek; diskurtsiboa bigarrenek.

Dena delakoagatik, lehen joera nagusitu da Ekialdeko kulturaren, bigarrena Mendebaldekoan. Han, ikuspegi intuitibo eta bateratzaile horren arabera joan dira eratuz eta eraikiz filosofia, teologia eta psikologia, baldin eta bereizketa hori egitea zilegi bada Ekialdeko kasuan. Mendebaldean, alabaina, ez-kontraesanaren printzipioa oinarri hartuta eratu eta eraiki dira filosofia, teologia eta psikologia, eta hauen baitan ere bereizketak egin ohi dira, bereizketak bereizketaren gain, analisiaren analisisiaz.

Kultura horietan jaiotako gizakiak, berriz, bateragarri egin beharko ditu, batetik, bere izaera eta pentsamendu-joe-
rak eta, bestetik, jaio deneko lurraldean nagusiak diren ikus-
moldeak eta joerak. Gizaki batzuek erosoago sumatuko dute
beren burua; beste batzuk, ez horrenbeste. Nolako izaera du-
ten eta non jaio diren.

Orain, lerro horien argitan, agian hobeto uler ditzakegu Antonio gaztearen Arantzazuko hitz haiek²⁴²:

Es una de las más fatales quebras del vascuence, que toda cultura que se ingiera ha de ser forzosamente extraña y desviadora.

Eta, beharbada, honela egokituko genituzke lehen mo-
mentuan: “Euskaldunok irensten dugun kultura oro, derrigo-
rrez, kultura arrotza eta desbideragarria da guretzat. Hortik
datorkio euskal kulturari erasorik larrienetako bat”.

Dagoen dagoenean, gordinegia egiten zaigu esaldia. Gazte
baten ahoberokeria irudituko zaio norbaiti. Baina ondo eto-
rri zitzaion Zavalari bere egitasmoaren garrantzia azaltzeko
Arantzazun. Eta Zavalak berak erakutsiko digu, urteen joa-
nean, nola kendu beroarenak gaztetako hitz haiei.

Oiartzungo hitzaldiari esker, gaur badakigu funtsean zer
kontrajartzen zituen tolosarrak, euskal eta erdal kulturak

²⁴² Zavala, 1996a: 34.

bainoago: kultura intuitiboa eta kultura diskurtsiboa; hau da, Ekialdean eta Mendebaldean nagusi diren kulturak. Era berean, badakigu zerk eragiten duen kultur urradura: kultura diskurtsiboaren ikuspegiaz jasotzea eta aztertzea berez kultura intuitiboari dagozkion bizipen eta egitateak. Eta aurreikusten dugu nondik nora doan urraduraren osabidea ere, ez-dualtasunaren eskutik.

Oso dira zaharrak eta orokorrak urraduraren sustraiak. Antzinatean dute sorburua eta bizitzaren arlo guztietan hedatu dute zauria. Oso da zaharra eta orokorra eta aldi berean berria osabidea. Antonio Zavalak ez-dualtasunaren lurraldea igarriz eta iragarriz jarri zion azken giltzarria bere egitasmo bikoitzari.

Hauspoa

9. Hauspoa

*Bilatzailea desegino da,
bilaketak jarraituko du.
Bilaketa da azken errealitate amaigabea.*

Nisargadatta

Antonio Zavala (Tolosa, 1928 – Iruñea, 2009) Xabierren hilobiratu genuen 2009 urtea estreinatu berritan. Berehala beteko zituen laurogeita bat urte. Xabierren bertan ekin zion bertsopaperak biltzeari, berrogeita hamabost urte lehenago. Xabierren bizi izan zen azken hamar urteetan. Hantxe amaitu zuen ibilbide harrigarria.

Xabierren, urtarrileko igande-arratsalde hartan, film batean bezala ikusi genuen Antonio Zavalaren bizitza eta egitasmoa, haren ibilbidea eta emaitza. Eta Xabierren, eguzkia sarzearekin batera, Hauspo bihurtzen hasi zitzaigun Auspoa.

Baina ondo amaitu beharra genuen dolua, iraganaren inertziak ez ziezagun zetorrena ezagutzea galarazi, Javier Melloniren hitzetan.

Noizbait hasi nintzen lan zaharrak bildu eta saiakera hau zirriborratzen. Pixkana-pixkana joan ziren aurreko atalak eta kapituluak itxura hartzen, Antonioren egitasmoa, ibilbidea eta obra argituz zihoazen neurrian.

Orain, saiakeraren azken kapituluak, taxu eta izaera berria hartzen du aurreko kapituluetan esanak. Irudi osoa eratzen dute aurreko kapituluetakoz izpi eta printzek, hiru unetan. Lehenengoan, esanahi berriaz azaltzen zaigu Antonioren ibilbidea. Bizi-ibilbidea da, biziaren taupaden lekuko. Bizi-ibilbide horren harira, berez irteten zaigu argira saiakera

honen galdera nagusiaren erantzuna, bigarren unean. Age-
rian gelditzen da zertan aritu zen tolosarra hainbat urtetan
zehar. Eta, erantzun horren harira, ozen eta bizirik entzuten
dugu Antonioren ahotsa, hirugarren unean. Bestelako min-
tzoa dute haren hitzek, berriro entzutean. Hauspo bihurtu da
Auspoa.

Antonio Zavalaren bizi-ibilbidea

Antonio Zavalak Deustuko Unibertsitatean esandako hitz ba-
tzuek zabaldu dute lehen kapitulua:

Ni, egun batez, ez dakit zein aizek bultzatuta, edo zein
izarrek argi eginda, etxetik atera nintzan, begiak zabal
eta belarriak erne, eta nere gogoko pitxiak eskuratzen asi
nintzan.

Aipu hori du atalburu lehen kapituluak, non Zavalaren
bizitzako pasarte garrantzitsu batzuetan dugun haren bio-
grafiaren zirriborroa. Gero, laugarren kapituluan, pasarte
horiek eta beste batzuek marraztu dute, mugarriz mugarri,
hark Auspoa ontzen egindako bidea. Orain, hiruzpalau ar-
datzen inguruan egitura dezakegu tolosarraren bizi-ibilbidea,
azken giltzarriak koroatuko duena.

Hark utzitako zenbait pasarte ditugu berriro bidelagun.
Beharrezkoak zaizkigu, bizi izan zuenaren aurkia eta ifren-
tzua atzemateko²⁴³. Beharrezkoak zaizkigu, halaber, beste
ahots batzuk ere, tolosarrarena argiago entzun dezagun²⁴⁴.

²⁴³ Ezagunak dira pasarterik gehienak: Mokoroaren obraren hitzaurre-
koak eta Arantzazu, Oiartzun, Reno eta Deusturako idatzitako hitzal-
dietakoak. Nongoak diren, oin-oharretan ez baina, parentesi artean
doa kapitulu honetan, normalean: (hitzaurrea), (Arantzazu), (Oiar-
tzun)... Pasarte berririk ere bada tartean. Oin-oharrean dugu horien
iturrien erreferentzia.

²⁴⁴ Parentesi artean doa norenak diren ahots horiek ere: (Panikkar), (Ga-
damer), (Melloni).

Kultur urradura

Antonio Zavala, lehen hamazazpi urteak Tolosan eta hainbat uda Adunan bizi ondoren, Loiolara joan eta hantxe hasi zen jesuita-ikasketak egiten. Zortzi urte iraun zuen formazioaren lehen aldi hark. Hiru urteko filosofia-ikasketek eman zioten amaiera Oñan (Burgosen).

Zortzi urte horiek urradura larria eragin zuten Antonioren baitan. Urradura bakarra, etenik gabekoa. Urradura fisikoa izan zen, lehenik: barnetegietako –komentuko– mundua ez zen Tolosakoa. Ikasketek areagotu eta sakondu egin zuten urradura fisikoak eragindako zauria.

Gaur, lau ezaugarri atzeman ditzakegu kultur urradura horretan: 1) urradura larria izan zen, 2) ez zen soilik Antonioren, 3) goi-mailako ikasketek eragin zioten, 4) sustrai oso zaharrak ditu urradurak.

Larria da urradura (Arantzazu):

Llegó una hora en que nos separaron caminos que a nosotros nos vaciaron el alma y a ellos [compañeros de juegos en la infancia] se la colmaron.

Ez zen soilik Antonioren zauria. Horregatik mintzatu zen pluralean Arantzazun.

Goi-mailako ikasketek eragina zen urradura (Arantzazu):

Nosotros, los estudiosos, para eso, para hacernos estudiosos, sorbimos en otras fuentes durante años enteros.

Sustrai oso zaharrak ditu urradurak, Oiartzungo hitzaldian Zavalak esan bezala, pentsamendu diskurtsiboaz eta intuitiboaz ari zela²⁴⁵:

²⁴⁵ Zavala, 1996b: 261-262.

Estos dos tipos de pensamiento [diskurtsiboa eta intuitiboa] siempre han convivido en nuestra mente, con una proporción y un equilibrio que no se inclinaban, con mayor o menor porcentaje a favor de uno o de otro, más que por el temperamento de cada hombre. Así fue, sin duda, durante siglos.

Hasta que llega el gran acontecimiento histórico, acaecido en el siglo y en el país que sea, en que el hombre inventa la escritura, en la cual, atendamos bien a este fenómeno, se plasma el pensamiento discursivo, ya que son palabras, representaciones de imágenes verbales, las que se registran, conservan y transmiten.

Mellonik urradura horixe ikusten du Mendebaldeko eta Ekialdeko kulturen artean:

Razón analítica y principio de no-contradicción *versus* razón simbólica y paradójica.

Herri-literatura

Antonio Zavalak bizitza osoan eraman zuen kultur urradura sakon horrek eragindako zauria barne-muinetan. Ikasketek goi-mailara eraman nahi izan zuten tolosarra; baina berak bizi-mundua zuen maite. Beheko mailan ikusten zuen bere burua eta bizi-munduko hainbat errealitate; besteak beste, herri-literaturarena eta historia xehearena.

Eta erabaki sendoa hartu zuen: urratu hori sendatzen saiatuko zen gorputz eta arima. Hasieran, ordea, zalantzan egon zen bi eremu horietako zein landu. Gero, herri-literaturarena aukeratuta, erdal eta euskal literaturaren artekoa izan zuen zalantza. Azkenean, euskal herri-literatura hautatu zuen. Aurretik, berriz, bi aldiz ere eskaini zuen bere burua Indiara misiolari bidal zezaten. Ez zuten bidali. Joan izan balitz, seguruenik hango herri-literatura biltzeari ekingo ziola utzi zigun esana.

Bertsopaper zaharrak biltzen hasita, bertso zaharren aurkako jarrerarekin egin zuen topo. Bi arrazoi zeuden jarrera horren oinarrian: euskara mordoiloa zerabilten eta ez zuten balio estetikorik.

Biei sutsu egin zien aurre Arantzazuko hitzaldian. Euskarra mordoiloarenari:

Nosotros pensamos en castellano y hacemos, inconscientes, un calco de los giros castellanos; los bersolaris conservan la integridad de su pensar vasco y expresan sus ideas con modulaciones genuinas.

Balio estetikorik ezari:

No deja de ser excéntrica nuestra posición de impugnar por carente de poesía a quien nunca la pretendió.

Berrogeita bi urte geroago, honela birformulatu zuen esaldia:

Al bersolarismo no hay que juzgarlo con criterios extraños, sino por lo que los bersolaris, y el pueblo en general, han buscado y pretendido por medio de él.

Gadamer filosofoak horixe bera dio, baina era gordina-goan:

Toda auténtica creación artística tiene asignada su comunidad correspondiente, y tal comunidad es algo diferente a la sociedad cultivada que es informada y amedrentada a la par por la crítica del arte.

Hemen iradokitako azken urraduraren sustraiak, ordea, ez dira lehengoarenak bezain zaharrak. Hauek XVII. mendeaz geroztikoak dira, Gadamerrek xehe-xehe salatzen duenez. Eta, hain zuzen, eten berri honen harira dihardu benetako filosofoiak (Gadamer):

La verdadera tarea de la filosofía desde el siglo XVII ha consistido en conciliar [la voz de la ciencia] con el conjunto de nuestra experiencia vital.

Baina, eginahalak eginahal, gero eta zabalagoa da kultur urradura, Euskal Herrian behintzat²⁴⁶.

De la poesía popular vasca puede decirse que vino al mundo con mala estrella. Cuando todo el pueblo la admiraba y casi sobrevaloraba, las clases ilustradas la tenían en poco y la desecharan. Ahora éstas la aprecian y estudian; pero ¿es el mismo el apoyo de las masas?

Repito que éstas han cambiado mucho desde que inicié esta labor, hace casi cincuenta años.

Ezin sakonagoa da urradura (Reno):

Lo que era vida ha pasado a ser espectáculo.

Egitasmo bikoitza

Zavalak 1956rako bilduak zituen berrogeita hamar mila bertso, Euskal Herriko txoko guztietakoak. Orduan egin zuen Arantzazuko hitzaldia, bere hitzaldirik osoena. Hor ditugu bere egitasmoaren zer-nolako eta nondik norakoak. Baita zer egitasmo bikoitza zuen ere:

Es nuestra intención que la magna edición de *bertso berriyas* que pretendemos vaya precedida de un estudio.

Bertsopaperek osatzen zuten egitasmoaren aurkia; estudioa zen ifrentzua. Praxia eta gogoetak: egitasmo bikoitza. Urte gutxiko lana aurreikusten zuen tolosarrak. Baina bizitza osoa hartu zioten biek ere, eta ez batari eta ez besteari ikusten zion amaierarik.

²⁴⁶ Zavala, 2006: 224.

Amaitu gabe utzi zuen bertso paperen plazaratzea, nahiz eta etengabe argitaratu zituen 1961etik 2009a arte. Heriotzak soilik eten zuen etengabeko plazaratze hura. Alabaina, hasierako bertso paper haiekin batera argitaratu zituen, tartekatuz, bat-bateko bertsoak, bertso paper berriak, herri-prosa...

Estudioa, lau hitzalditan eman zuen 1963an, eta 1964an argitaratu lehen aldiz, *Bosquejo de historia del bersolarismo* liburuan. Baina bizitza osoan zehar iraun zuten Zavalaren gogoetek.

Gai nagusi bat azaltzen da behin eta berriro gogoeta horietan, leitmotiv bat bailitzan: urradura. Hitzaurre batean eta lau hitzalditan, berriz, herri-literaturari buruzko teoriaren oinarriak jarri zituen tolosarrak.

Auspoa: milaka ahots bizi-munduko

Guztira, 303 obrak osatzen dute Antonio Zavalaren ekoizpena. Horietako 276k Auspoa bilduma hirukoitza osatzen dute; 151, bertso laritzari daude eskainiak; 125, herri-prosaz idatziak. Bestalde, 22 obra dira erdal herri-idazleenak. Horiez gain beste 5 obra ere argitaratu zituen.

Hiru ezaugarri ditu Zavalaren ekoizpenak: 1) azken batean, obra bakarra osatzen du, 2) herri-xehereen milaka ahotsen bilduma da eta 3) leialtasun osoz daude jasoak ahotsak.

Obra bakarra. Zavalaren beraren hitzak dira²⁴⁷:

Nere bizitzan [...] ez ditut liburu asko idatzi, bakarra baizik; ez ditut lan asko egin, bakarra baizik; ez ditut gai asko erabili, bakarra baizik: *erria*.

Obra bakar horren baitan daude gaztelaniazko liburuak ere.

²⁴⁷ Zavala, 1999: 131.

Herri xehearen milaka ahotsen bilduma da Auspoa. Bertsolarien ahotsak jasotzen hasi zen. Haien berri-emaileenak gehitu zizkien berehala. Apurka-apurka, multzo handia osatzera iritsi ziren. Denak dira herri-xehearen ahotsak, bizi-munduaren mintzoa.

Egoki ikusi zuen Xabier Azurmendi zenak, poetek duten sentiberatasunez, dagoeneko ezagunak ditugun hitz haue-tan²⁴⁸:

Inork behar ez zituen bertso-paperetan jaso ditu Herri zahar honen nekeak, jolasak, lanak eta gudateak, Euzkadiko Poemarik ederrena gauzatuaz.

Auspoa, Euskal Herriaren poemarik ederrena: *Euskal Herria*.

Leialtasun osoz jasotako ahotsek osatzen dute Auspoa. Gizon kultua zen Zavala, baina ez artearen kritikak kutsatu eta izutzen zuen eta ez berak juzgatzen zuen herri xehearen ahotsa. Ahalik zintzoen eta zehatzen jasotzera mugatu zen, zetorkion bezala, epaitu gabe. Irizpide bera erabili zuen euskarari dagokionez. Horrela ulertu behar da haren euskalkie-kiko errespetua. Gogora ditzagun haren hitz batzuk:

[El error de los puritanos de la lengua] consistió en no haber advertido que en los idiomas vivos la situación de hecho y la de derecho se identifican, ya que a favor de cada palabra o costumbre gramatical vivas, sean nativas o importadas, está, implícito pero verdadero, el plebiscito popular más espontáneo, unánime y democrático que puede darse, y que atentar contra el derecho otorgado por este plebiscito constituye un acto dictatorial nocivo siempre a la vida del idioma.

²⁴⁸ Berasategi, 1994: 18.

Herri-literaturari buruzko teoriaren oinarriak: paradigma berria

Lau hitzaldi eta hitzaurre batean jarri zituen Antonio Zavalak herri-literaturari buruzko teoriaren oinarriak. Hiru printzipio dira: 1) artea da herri-literatura, 2) bizi-mundukoa da herri-literatura eta 3) bigarren mailako kontua da kontzientzia estetikoa. Hiru printzipio horiek osatzen dute paradigma berriaren hezurdura.

Artea da herri-literatura. Printzipio horren aldarria da Antonio Zavalaren jarduera eta obra osoa. Horraino iritsi gabe, motz gelditzen dira Deustuko hitz aztoratzaile bezain erabakigarri haiek:

[No hay] dos literaturas, una culta y otra popular, sino sólo literatura.

Bizi-mundukoa da bertsoa. Ohiko mundua da bizi-mundua. Egunerokoa. Baina, etengabe ateratzen dugunez bere onetik, termino berezi bat asmatu behar izan dugu izendatzeko. *Lebenswelt* asmatu zuen Husserl filosofoak, eta haren ildotik jarraitu dute ondorengoek.

Biziaren mundukoa da herri-literatura. Zavalak behin eta berriro aipatzen du *bizi* hitza, Renorako idatzitako hitzaldian, eta adibide esanguratsuz ilustratzen, zertarako eta bizi-mundua kontrajartzeko edergarri huts edo eranskin apainarri hutsalaren munduari. Bizia da herri-literatura eta ez espektakulo hila.

Bizi-esperientzien mundukoa da herri-literatura. Bizi-esperientzia, benetako esperientzia ez daiteke kontzeptuz komunikatu eta adierazi. Atzeman, intuizioz atzeman daiteke (Panikkar). Intuizioaren arrastoa aurkitzen dugu bai egunero darabilzkigun hitz eta lokuzioetan (Mokoroaren obrari egin-dako hitzaurrea), bai herri-literaturan (Oiartzun).

Esanahiaren mundukoa da herri-literatura, eta ez gramatikaren edo hizkuntzalaritzaren mundukoa (hitzaurrea). Edo Gadamerren hitzez esanda:

La comprensión de lo que el texto dice es lo único que interesa. El funcionamiento del lenguaje es una simple condición previa.

Esto significa que [el texto] no se contempla desde la perspectiva de la gramática y la lingüística.

Bizi-mundua zuen tolosarrak maite. Bizi-mundu soil bezain sotil horrek liluraten zuen. Horrexegatik salatzen zituen bikoiztasun guztiak, bizi-mundua konpondu ustetan sortuak. Bizi-mundua errebindikatu zuen. Hari eskaini zion bizitza (Arantzazu):

Quedará en esta recopilación [Auspoan], milagrosamente conservado, el depósito de sus deseos [euskaldunen] penas, odios, alegrías, tristezas, defectos, virtudes, amores y rezos; y, juntamente con ellos, pueblo e idioma habrán conseguido su más exacta y tenaz perduración.

Eta 1968an²⁴⁹:

El principal mérito del *bersolarismo* es, sin duda, el haber sido expresión y fomento, al mismo tiempo, del humanismo y filosofía de nuestro pueblo ante la **vida**. Me refiero a esa **vieja sabiduría** que los siglos hacen remansar en la conciencia de las sociedades, conjunto de verdades sencillas pero fundamentales, que, sentidas profundamente, las saben guiar en su peregrinación por este **mundo**²⁵⁰.

²⁴⁹ 1996a: 281.

²⁵⁰ Nirea da letra lodia. Honezkero ez dute itzulpenik beharko, noski. "Vida": bizia; "vieja sabiduría": "sabiduría perenne", jakinduria betierekoa; "por este mundo": bizi-mundu honetatik.

Azkenik, hirugarren printzipioa: bigarren mailako kontua da kontzientzia estetikoak. Puntu honetantxe egin zuten talka, Arantzazuko hitzaldian, Manuel Lekuona eta Antonio Zavalaren ikuspegiak. Honenaren alde mintzo da Gadamer:

La conciencia artística, la conciencia estética, es siempre una conciencia secundaria. Es secundaria frente a la pretensión de verdad inmediata que se desprende de la obra de arte.

Horrek guztiak –paradigma berriak– herri-literatura ohi ez bezala ikustera eta bizitzera garamatza (Arantzazu):

Sencillamente, hemos de despojarnos de las normas y criterios del mundo moderno y de las literaturas extrañas.

Sólo así, con mentes nuevas, tras esa dolorosa operación de arranque, podremos hacer justicia a los *bertso berriyas*. De lo contrario obtendremos una percepción deformada de los hechos de la realidad. El bersolarismo es un mundo viejo que precisa criterios nuevos.

Besterik izan ezean, eskueran ditugu oraindik ere herri xehearen irizpideak (Arantzazu):

[Nuestra falta de un criterio] interno la podemos suplir con otro criterio externo e infalible: el mismo pueblo vasco.

Azken giltzarria: ez-dualtasuna

Ibilaldi luze baten ondoren idatzi zuen Zavalak (Deustu):

[No hay] dos literaturas, una culta y otra popular, sino sólo literatura.

Urruneko gailur lortezina zapaldu ondorengo hitzak dira, pozez gainezka jaulkiak, beste jesuitan baten “Ezina ekinez

egina” haren oihartzun. Ez-dualtasunaren aldarria da: ez dau-
de bi literatura, ez daude bi mundu. Berez ez dago etenik.

“Berez ez dago etenik”. Hitz horiek jartzen diote azken gil-
tzarria Antonioren bizitza eta obrari. Hitz horietan laburbil-
tzen da Auspoa, eta hark eginiko gogoetak, bai herri-literatu-
raz eta bai kultur urradura sakon bezain larriaz.

Berez ez dago etenik. Baina ebaki eta eten bihur daiteke
urradura. Are gehiago, ebaki eta eten bihurtzen hasia dago.
Horretaz jabeturik, urradura josten eta osatzen eman zituen
Zavalak berrogeita hamabost urte.

Zertan aritu zen Antonio Zavala?

Galdera nagusi honek zeharkatu du saiakera hau. Sustraieta-
tik jakin nahi nuen zertan aritu zen Antonio Zavala berrogeita
hamabost urtean etengabe, urtea joan eta urtea etorri. Azke-
nean, eskuratua dugu erantzuna, oker ez banabil behintzat.

Urradura josten eta osatzen. Hitz gutxi hauetan laburbil
daiteke Zavalaren bizitza eta lana. Orain, erantzun soil ho-
rren argitan, ageriago ikusten da haren bizi-ibilbidearen zer-
nolakoa eta nondik norakoa.

Zavalak, gaztetan, barru-barruan sumatu zituen kultur
urraduraren lehen hozkadak. Ikasketek eragindakoak ziren.
Barru-barruan gelditu zitzaion zauria. Erraiak erretzen ziz-
kion. Baina ez zen bere zauria soilik. Inguru osoan sumatzen
zuen etenaren arriskua.

Berehala ekin zion, Gadamerren hitzen harira esanda,
bateko zientziaren ahotsa eta besteko antzinate eta bizi-mun-
duaren ahotsa adosteari. Bere lana ez zen filosofoena izango,
baizik eta pragmatikoa batik bat, etengabeko gogoeta lagun,
uztarri bakarrean.

Etenaren arriskuak mehatxatutako eremu bat jo zuen be-
giz –euskal herri-literatura– eta eremu hori lantzen hasi zen.
Lanak berak erakutsiko zion nondik nora urratu bidea.

Ez zen egon besoak antxumatuta, gaitzaren diagnosia egin eta osabidea atzeman arte zain. Berehala hasi zen lanean, gaixoa odolusten utzi gabe. Larrialdiko medikuaren lana izan zen harena. Gaixoa larrialditik aterata, hura osatuz joan zen lehen diagnosia zehazten eta osabidea doitzen.

Gaitzaren sustraien bila, antzinatean aurkitu zituen sustrairik zaharrenak. Sustrai haiek indarberritu egin ditu mundu modernoak, zientziaren eraginez. Bazekien gaitza ez dela soilik literaturaren arlokoa. Orokorra baizik. Eta orokorra izan behar duela osabideak ere.

Azkenean, izena ere jarri zion gaitzari: dualtasuna. Osabidea izendatzea besterik ez zitzaion gelditzen: ez-dualtasuna.

Bere buruan eta herri-literaturan sumatutako kultur urradura larria josten eta osatzen eman zituen berrogeita hamabost urte, etengabe, eguna joan eta eguna etorri. Eta horretan jarraituko zukeen ehun eta berrogeita hamar bizi izan balitz ere, bere herrian misiolari, larrialdiko mediku-lanean hasitakoa gero eta esku sendoagoz josten eta osatzen.

Hark bete zuen bere egitekoa. Orain geure esku dago hark eginari jarraipena ematea.

Baina, honaino iritsita, zer gertatuko eta berriro sumatzen dudala Antonioren irribarrea, "neti, neti" esaka. Agian, galdera ez dela zertan aritu zen, baizik eta zer egin zuen. Eta galdera honi erantzun betea emana diola poetak: Auspoa, *Euskal Herria* poema ederra. Eta poema baten aurrean, soberan daudela galdera guztiak.

Eta, hona iritsita, esanahi betean ageri zaigu zer eta orain arte kontuan izan ez dugun funtsezko irudi-jokoa: hain zuzen, Zavalak berak erabilia bere obraren muina adierazteko: sua / hauspoa irudi bikoitza.

Saiakera honetan, gaitzaz eta sendabideaz jardun dugu. Baina Antoniok nahiago izan zuen suaren eta haus-

poaren irudia baliatu. Baiezka jardun zuen hark, errealtatearen alderdi positiboa azpimarratuz. Hemen, ordea, alderdi negatiboaren harira egin dugu ibilbidea. Hark *sua* zioen; nik *zauria*, gaitza. Hark *Auspoa* izenez bataiatu zuen obra; nik sendabideaz jardun dut. Errealitate beraren aurkia eta ifrentzua dira.

Beraz, ikus dezagun orain ibilbidea aurkiaren aldetik.

Antonio Zavala, jesuita-ikasketak egiten ari zela, ohar-tu zen ikasketa haiek ez zetozeela bat bere izaerarekin. Sumatu zuen ez zirela bere izaeraren araberakoak. Arrotzak egiten zitzaizkion. Ez zetozkion bere harira. Arrotza egin zitzaion Orixeren *Euskaldunak* ere.

Zer egin ilunpe hartan, arima ere hustuta? Gogoan ditu Tolosako bertso-paper-saltzaileak eta Adunako giroa. Oñako liburutegian, Pedro Mari Otañoren bertsoekin egiten du topo. Dena ez da ilunpe. Errautsen azpian bada oraindik surik, txikia eta apala bada ere. Nolatan utzi sua itzaltzen? Zergatik ez hasi bertso haiek biltzen? Mutikotako bizipen haiek eta Otañoren bertsoak bai bere harikoak!

Eta bertso-paper zaharrak biltzeari ekingo dio. Eta bertso haien gaineko hautsa kendu orduko, hantxe ageri da sua. Sua bizitzeko nahikoa izan da hauspoaz ilauna kentzea.

Eta herriari itzuliko dio bertso haien su bizia. Herriaren eskuetan utziko du hauspoa. Irudi horrek Axularren pasarte bat dakarkio gogora Jabier Kalzakorta²⁵¹:

Errementaldegian, harotzaren sutegian, hauskoak hai-ze emaitetik gelditzen direnean, badirudi eztela surik. Zeren berehala ikhatzak ilhaunez estaltzen baitira. Ordea

²⁵¹ Kalzakorta, 1997: Axular, 1975: 367 (215. atala).

higitzatu aphur bat hauskoak, eta ikhusiko duzu nola berehala berriz sua agertzen den.

Sua, ilauna (errautsa), hauspoa.

Hasieran, sua zen. Eta su hark argitzen zituen gizartea eta gizakia. Baina, pixkana-pixkana, sua itzaliz joan da. Lehenik, Mendebalde eta Ekialdea banandu zituen Greziak. Gero, bi mila urte geroago, duela laurehun urte, Grezia eta kristautasunarekiko etena ekarri zuen zientzia modernoak. Eta, sua itzali ahalean, ilunduz joan dira gizartea eta gizakia.

Baina oraindik ere bada surik, bai gizartean eta bai gizakiaren baitan. Tradizioa ez da erabat hil. Bizirik dago hizkuntza ere. Zergatik ez hauspoaz ilauna kendu eta sua bizitu?

Antonio Zavalak pentsamendu intuitiboa deitzen dio suari. Pentsamendu intuitiboa aurkitzen du bere baitan eta bertso paper zaharretako euskaran. Su horri eragiten hasiko da hauspoaz. Eta su hori elikatuko du berrogeita hamabost urtean, bertsoak bilduz eta plazaratuz, herri-prosa sustatuz, herri-literaturaz eta kulturaz gogoetak eginez...

Horixe da Auspoa. Su horren eragile, bilduma eta bildumena. Guztion suaren hauspo, tradizio oso eta osatuaren bizigarri eta etorkizun bizi eta itxaropentsuaren aitzindari. Horrexetan aritu da Antonio Zavala: su txikia hauspotzen.

Zauria osatzen, su txikia hauspotzen. Hitza beti hits. "Neti, neti".

Hauspoa

Gailur bikain batera iritsi gara Antonio Zavalarekin ibilbide luzea egin ondoren. Eta, gailur honetan, panorama ikusga-

rria bezain harrigarria zabaltzen zaigu alde guztietara. Ehunka nabarduratan pausa eta goza ditzakegu begiak, gizartean atzemandako beharren eta egitekoen arabera, eta geure izaera, sena, gustu, joera, zaletasun, gutizia eta irrikak gidari.

Gailur honetatik, oso garatua eta hezurmamitua ikusten dugu Antonio Zavalaren egitasmoa eta, aldi berean, amaitu gabea. Orain, hobeto ulertzen ditugu tolosarraren hitz haiek: “Ehun eta berrogeita hamar urte bizi izanda ere, oraindik izango nuke zeregina. Gero eta bide berri gehiago azaltzen ari zaizkit, gero eta lan gehiago”.

Hori entzutean, ez genekien zenbat lan zuen bideratua eta pilatua bertsopaperen inguruan. Gaur, badakigu urteak eta urteak beharko direla Koldo Mitxelena Kulturunean jasotakoa plazaratzeko, dela modu digitalean, dela liburuetan, dela beste moduren batean.

Baina “bide berri gehiago” esaten zuen Zavalak. Eta guk, geure ezjakinean, ez genuen askorik sumatzen nondik nora jo zezakeen hark, zer beste bide urratu nahiko zukeen. Orain, hobeto uler ditzakegu hitz haiek. Izan ere, harentzat kontua ez zen zer egin, baizik eta nola bizi pentsamendu eta ezagumen intuitiboaren harira eta nola, dualtasunaren nagusigoa salatuz, ez-dualtasunaren eremua berreskuratu. Eta horretarako, lan guztiak izan daitezke egoki. Hain zuzen, bide berriak urratuz eta batzuetan itsumustuka egin zuen ibilbide osoa. Horrexegatik zen harena egitasmo sortzailea, etengabe jarioan eta inoiz agortzen ez zen iturri bizi eta oparoa.

Gailur honetan, biziagoa egiten zaigu pentsamendu eta ezagumen intuitiboaren eragina eta jasangaitzagoa dualtasunaren eraso. Orain hobeto ulertzen dugu zer sintonia eta armoniatan ipintzen ginen Auspoako liburuak irakurtzen genuenean. Zer egarri aldi berean asetzen eta biziagotzen ditugun testu horiek behin eta berriro irakurriz eta horien doinua entzunez.

Eta, gailur honetan, Antonio Zavala betiko isilik, gero eta barruago sumatzen dugu, gero eta biziago, esploratzaile, mai-su eta aitzindari hari bizirik darion hitza.

Esploratzaile

Deustuko Unibertsitatean esan zituen hitzok, doktore izendatu zuten egunean²⁵²:

Nunca he podido comprender que muchos prefieran seguir senderos trillados a sentir el gozo de adentrarse en regiones donde no se advierte huella de nadie que nos haya precedido. Pero parece que lo desconocido es para unos motivo de temor; y para otros, en cambio, de atracción.

Hitz horietan ez genuen sumatu inolako harrokeriarik, egindako ibilbideak utzitako poz betea baizik. Gero, hitz horien airea eta Deustun bertan lehentxeago esandako “ez dakit zein aizek bultzatuta, edo zein izarrek argi eginda” haren oihartzuna sumatu ditugu Raimon Panikkarren hitz haue-tan²⁵³:

El hombre necesita una estrella pero este astro, como el de los Reyes Magos, no es estático; se mueve, también se esconde y exige que pidamos consejo y colaboración incluso a un enemigo –aunque luego regresemos por otro camino. La estrella no es una guía turística –como tampoco las catedrales se construyeron para que los turistas las visitaran. Hay que escrutar los cielos, hacer que la luz de la estrella penetre en nuestro interior y luego ponerse en marcha –aunque la estrella no se descubre si hay nubes en nuestro horizonte. El hombre se orienta por la estrella pero se mueve por sí mismo, por algo que tiene

²⁵² Zavala, 2006: 34.

²⁵³ Panikkar, 2007: 199-200.

dentro –que esto es la vida. El hombre no se mueve solamente por una racionalidad objetivable, sino también por el instinto, la pasión, el amor, el odio, el placer, el ideal o acaso por una voluntad que no siempre sigue al intelecto.

Maisu

Bada Ekialdeko kontakizun eder bat, Anthony de Mello jesuitak zabaldua eta beste jesuita batek, Patxi Olariagak, itzulia. Agian, Zavalak berak ekarri eta itzuliko zigukeen, baldin eta Konpainiako arduradunek Indiarra misiolari bidali izan balute. Honela dio kontakizunak²⁵⁴:

Behin batean, arrain batek esan zion beste bati:

–Barkaidazu. Zu ni baino zaharragoa zara eta nik baino gehiago dakizu. Seguru asko, lagundu ahal izango didazu. Esaidazu: non aurki dezaket Ozeano deitzen dioten hori? Bazter guztiak miatu baititut; alferrik, ordea.

Arrain zaharrak erantzun zion:

–Ozeanoa, orain zauden toki horixe da.

Eta arrain gazteak, triste, esan zion:

–Hau? Baina ura besterik ez da hau... Ni Ozeanoaren bila nabil.

Eta beste nonbait bilatzera joan zen igeri.

Antonioren doinu bera dute arrain zaharraren hitzek. Ezagumen intuitiboaren jakinduria darie: horra hor Ozeanoaren osotasuna eta errealitate bete. Bitartean, ezagumen diskurtsiboak ez du ura besterik ikusten. Batean, literatura; bestean, errima, neurria, potoa..., metafora, metonimia, ironia, hiperbolea..., baliabide poetiko-erretorikoak. Herri-literatura eta literatura kultura.

²⁵⁴ Mello, 1992: 22.

Bat egiten sumatzen ditugu Antonioren eta arrain zahar-
raren begiratu errukitsu eta irribarretsua, arrain gaztea
Ozeanoaren bila ikusita, “neti, neti” hitzak darizkiola irriba-
rreari. “Ez da hori, ez da hori”.

Gaur, azkenean, ulertu dugu zer esanahi zuen tolosarra-
ren irribarreak.

Aitzindari

Enrique Martínez Lozanoren pasarte batekin amai dezakegu.
Psikoterapeuta, soziologo eta teologo honen idatzietan, sintonian
eta armonian atzematen ditugu Ekialdeko eta Mendebaldeko
tradizioak, hango eta hemengo jakinduria betierekoa²⁵⁵.

*La clave mayor de comprensión y análisis [de cuanto nos
está ocurriendo] podría formularse de este modo: estamos
asistiendo, en los diferentes campos del saber –desde la fi-
sica cuántica hasta la psicología, desde las neurociencias
hasta la filosofía–, al paso del modelo mental al modelo no-
dual de cognición.*

Hori horrela izaki, hona hemen Antonio Zavala, denok
atzera begira uste genuena, orain aitzindari bihurtua, XXI.
mendeko fisiko kuantiko, psikologo, neurozientifiko eta filo-
sofoekin batera, ezagumen mental eta diskurtsiboa osatu eta
gainditu nahian, ezagumen intuitiboaren eta ez-dualaren ere-
dua eratzen eta hezurmamitzen.

Tolosarra ez zen aritu soilik gure aurrekoek utzitako on-
darea biltzen; ez zen biltzaile soila izan. Igarle eta iragarle iza-
ki, orainaren eta geroaren atea ere zabaldu zigun.

Eta gu, agian, beste norabait goaz igeri, Ozeanoaren bila.
Edo, beharbada, Antonio Zavalari esker, ohartzen eta onartzen
hasiak gara hementxe bertan, bizi-munduan, dugula Ozeanoa.

²⁵⁵ Martínez Lozano, 2014: 747.

Bibliografia

Bibliografia honetan daude saiakeran zehar aipatutako iturrien erreferentziak. Esan gabe da: Antonio Zavalaren obrak dira oinarrizkoenak; batik bat, *Auspoaren auspoa* ize-neko laurak (Zavala, 1996a, 1996b, 1999 eta 2006).

- ALKORTA, Kaxildo: *Gure mutikotako Padre Zavala* [argitara gabea].
- AMURIZA, Xabier (2010): *Euskara batuaren bigarren jaiotza*. Oiar-tzun: Lanku.
- ANDOLZ, Rafael (1995): "Literatura oral en Aragón". *Euskera* 40: 207-212.
- ARCHIVO HISTÓRICO PROVINCIAL DE LOYOLA.
- AXULAR, Pedro (1976): *Gero*. Oñati: Jakin. [6. argitalpena].
- BERASATEGI, Joakin [biltzaile eta editore] (1994): *D. Antonio Zava-la Echeverría* [liburuxka moduan plazaratua, eragilearen izenik gabe, eta non eta noiz ere zehaztu gabe].
- CAVALLÉ, Mónica (2008): *La sabiduría de la no-dualidad. Una re-flexión comparada entre Nisargadatta y Heidegger*. Barcelona: Kairós.
- CORPAS PASTOR, Gloria (1996): *Manual de fraseología española*. Madrid: Gredos.
- ELICEGUI, Mikela; ZAVALA, Antonio (1963): *Pello Errotaren bizitza bere alabak kontatua*. Tolosa: Auspoa [Auspoa 32].
- ESNAL, Pello (1996): "Hitzaurrea". In ZAVALA, Antonio: *Auspoaren auspoa I*. Oiartzun: Sendoa: 11-19 [Auspoa 238].
- ESNAL, Pello (2001): "Ortik eta emendik: euskal lokuzioak eta fraseo-logia baino ere haratago". *Euskera* 46: 137-144.
- ESNAL, Pello (2005): "Herri-prosa: oinarri eta bide". *Euskera* 50: 873-908.
- ESNAL, Pello (2009a): "Auspoa jaio zen lekuan ehortzia". *Deia*: 2009.01.07.

- ESNAL, Pello (2009b): "Bi izar Xabierko zeru gainean". *El Diario Vasco*: 2009.01.08.
- ESNAL, Pello (2010a): "Antonio Zavala: Omen eta oroimen". *Egan* 2010 - 1/2: 5-17.
- ESNAL, Pello (2010b): "Auspoa: Antonio Zavalak utzitako ondare maitagarria". *Revista Internacional de los Estudios Vascos* 55, 1: 221-239.
- ESNAL, Pello (2011): "Auspoa"; <http://www.euskomedia.org/auñamendi> [euskaraz eta gaztelaniaz].
- EUSKALTZAINDIA (2012): *Euskaltzaindiaren hiztegia*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- FISHMAN, Joshua (1990): "What is reversing language shift (RLS) and how can it succeed?". *Journal of Multilingual and Multicultural Development* 11: 5-36 [laburpena: TXILLARDEGI (1992): "Hizkuntzaren berreskurapena Fishmanen arabera". *Bat. Soziolinguistika aldizkaria* 6: 115-122].
- GADAMER, Hans-Georg (2001a): *Antología*. Salamanca: Sígueme.
- GADAMER, Hans-Georg (2001b): *Verdad y método I*. Salamanca: Sígueme [9. argitalpena].
- GADAMER, Hans-Georg (2002): *Verdad y método II*. Salamanca: Sígueme [5. argitalpena].
- GARZIA, Joxerra (1995): "Pello: zabal eta sakon". In ZABALETA, Pello: *Bigarren bizia. La vida paralela (1964-1992)*. Leioa: Euskal Herriko Unibertsitatea: 835-855.
- GARZIA, Joxerra (2001): "Antonio Zavalari elkarrizketa". *Jakin* 126: 71-94.
- GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA (2005): "Antonio Zavala: 05/11/11" [DVD].
- GOLEMAN, Daniel (2012): *Inteligencia emocional*. Barcelona: Kairós [83. argitalpena].
- HENRY, Michel (2001): *Yo soy la vida*. Salamanca: Sígueme.
- IBARGUTXI, Felix (2015): "La sombra de Mitxelena es alargada". *El Diario Vasco*: 2015.09.02.

- IRIONDO, Joxemari (2009a): "Ni naiz Zavalari lehen bertsopaperak eman zizkion mutiko hura". *El Diario Vasco*: 2009.07.07.
- IRIONDO, Joxemari (2009b): "Antonio Zavala Echeverria". *Euskera* 54, 3: 1.801-1.840.
- IRIONDO, Joxemari (2010): *Antonio Zavala Echeverria (1928-2009)*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia [Bi-degileak bilduma].
- KALZAKORTA, Jabier (1997): "Zavalaren auspoaren omenez (I)". *El Diario Vasco*: 1997.07.09.
- LEKUONA, Juan Mari (1989): "Erdi-ahozkotasunaren literatur estiloaz". *Euskera* 34: 17-44.
- LETE, Xabier (1981): "Koldo Mitxelena". *Muga* 13: 30-43.
- MARTÍNEZ LOZANO, Enrique (2014): "Teísmo, espiritualidad, no-dualidad". *Horizonte* 12: 746-776.
- MELLO, Anthony de (1992): *Txoriaren kantua*. Bilbao: Gero-Mensajero [itzultzailea: F. Olariaga].
- MELLONI, Javier (2011): *Hacia un tiempo de síntesis*. Barcelona: Fragmenta.
- MICHELENA, Luis (2011a): *Obras completas. XIII: Historia de la literatura vasca. Literatura vasca del siglo XX*. Donostia, Gasteiz: 'Julio Urkijo' Euskal Filología Mintegia, Gipuzkoako Foru Al-dundia, Euskal Herriko Unibertsitatea.
- MICHELENA, Luis (2011b): *Orotariko Euskal Hiztegia*. Euskaltzain-dia: www.euskaltzaindia.net [2. argitalpena].
- MITXELENA, Koldo (1988): *Euskal idazlan guztiak III. Liburuak II*. Donostia: Euskal Editoreen Elkarte.
- MOCOROA, Justo M.^a "Ibar" (1936): *Genio y lengua*. Tolosa: Moco-roa Hermanos.
- MOCOROA, Justo M.^a (1990): "Ortik eta emendik". *Repertorio de locuciones del habla popular vasca*. Bilbo: Labayru, Eusko Jaurlaritz, Etor [bi liburuki].
- MOLINER, María (1966-1967): *Diccionario de uso del español*. Madrid: Gredos [jatorrizkoa, egileak argitaratzea baimendu zuen bakarra].

- MOLINER, María (2008): *Diccionario de uso del español. Edición abreviada*. Madrid: Gredos [hiru liburuki; 2. argitalpena, *Diccionario de uso del español*en 3. argitalpena (2007) oinarri hartuta egina].
- MUJICA, Inazio (1999): "Auspoaren balioa". *Bertsolari* 34: 110-112.
- ONG, Walter J. (1987): *Oralidad y escritura*. México: Fondo de Cultura Económica.
- ORTEGA Y GASSET, José (1984): *Una interpretación de la historia universal*. Madrid: Revista de Occidente en Alianza Editorial [2. argitalpena "Obras de José Ortega y Gasset" delakoan; jatorrizkoa 1958koa da].
- ORTEGA Y GASSET, José (2004a): *Estudios sobre el amor*. Madrid: Revista de Occidente en Alianza Editorial [13. argitalpena "Obras de José Ortega y Gasset" delakoan; jatorrizkoa 1939koa da].
- ORTEGA Y GASSET, José (2004b): *Misión de la Universidad*. Madrid: Revista de Occidente en Alianza Editorial [5. berrinprimatzea "Obras de José Ortega y Gasset" delakoan; jatorrizkoa 1930ekoa da].
- PANIKKAR, Raimon (2004): *La Trinidad*. Madrid: Siruela [3. argitalpena].
- PANIKKAR, Raimon (2007): *De la mística*. Barcelona: Herder [2. argitalpena].
- PÉREZ GARCÍA, Antonio (2015): "Antton Zavalá" [posta elektronikoz jasotako testigantzak].
- SALAVERRIA, Sebastian (1964): *Neronek tirako nizkin*. Tolosa: Auspoa [Auspoa 38].
- SARASOLA, Ibon (2005): *Zehazki. Gaztelania-Euskara Hiztegia*. Irun: Alberdania [http://ehu.es/ehg/zehazki/].
- UZTAPIDE, Manuel Olaizola (1974): *Lengo egunak gogoan*. Tolosa: Auspoa [bi liburuki; Auspoa ertaina 1, 2].
- UZTAPIDE, Manuel Olaizola (2001): *Berriz plazara*. Oiartzun: Sendoa & Auspoa [bi liburuki; Auspoaren Sail Nagusia 11, 12].
- VILLASANTE, Luis (1988): *Euskararen auziaz*. S.I, s.n. "Luis Eleizalde" saila 9.

- VILLASANTE, Luis (1991): "Gernikako Euskal Jaien (1988) oroitzapenetan estilistikaz lehen jardunaldiak. Euskaltzainburuaren agurra". *Euskera* 36: 603-607.
- ZABALLA, Indalecio "Masio"; ZAVALA, Antonio (1993): *La última trova*. Oiartzun: Sendoa.
- ZAVALA, Antonio (1956): "Bertso berri billa Euskalerrian zear". *Euskera* 1: 233-245.
- ZAVALA, Antonio (1961a): "Itzaurrea". In *Bertsolarien txapelketa – 1960*, Zarautz: Itzaropena [Kulixka Sorta 43-44]: 9-17.
- ZAVALA, Antonio (1961b): "Itz-aurrea". In ARTOLA, Ramon: *Sagardoaren graziya*. Tolosa: Auspoa [Auspoa 1]: 11-13.
- ZAVALA, Antonio (1962): *Txirrita (Bizitza ta bat bateko bertsoak)*. Tolosa: Auspoa [Auspoa 18-19].
- ZAVALA, Antonio (1964a): *Bosquejo de historia del bersolarismo*. Donostia: Auñamendi.
- ZAVALA, Antonio (1964b): "Itzaurrea". In SALAVERRIA Sebastian: *Neronek tirako nizkin*. Tolosa: Auspoa [Auspoa 38]: 7-8.
- ZAVALA, Antonio (1964c): *Amar urteko bertso-paperak (1954-1963)*. Tolosa: Auspoa [Auspoa 39].
- ZAVALA, Antonio (1980): "Bertso paperak". *Jakin* 14/15: 115-133.
- ZAVALA, Antonio (1990a): Euskaltzaindiaren Herri Literatura Batzorderako idatzia, 1990eko urtarrilaren 16ko dataz [argitaragabea].
- ZAVALA, Antonio (1990b): "Antonio Zavala (S.J.)ren itzaurrea". In MOCOROA, Justo M.^a: *Ortik eta emendik*. *Repertorio de locuciones del habla popular vasca*. Bilbo: Labayru, Eusko Jaurlaritza, Etor: 11-17.
- ZAVALA, Antonio (1993a): *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua (I)*. Oiartzun: Sendoa [Auspoaren Sail Nagusia 6].
- ZAVALA, Antonio (1993b): "Presentación de la Biblioteca de Narrativa Popular". In ZABALLA, Indalecio "Masio"; ZAVALA, Antonio: *La última trova*. Oiartzun: Sendoa [Biblioteca de Narrativa Popular 1]: 7-11.

- ZAVALA, Antonio (1996a): *Auspoaren auspoa I*. Oiartzun: Sendoa [Auspoa 238].
- ZAVALA, Antonio (1996b): *Auspoaren auspoa II*. Oiartzun: Sendoa [Auspoa 239].
- ZAVALA, Antonio (1999): *Auspoaren auspoa III*. Tolosa: Auspoa [Auspoa 262].
- ZAVALA, Antonio (2000a): "Doktore berriaren hitzaldia, *Honoris causa* doktore izendapenean". In ASKOREN ARTEAN: *Antonio Zavalaren ohoretan*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea: 31-46.
- ZAVALA, Antonio (2000b): "Buru atzera jiratuta edo liburu sail baten gorabeerak eta gozo-mikatzak". In ASKOREN ARTEAN: *Antonio Zavalaren ohoretan*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea: 113-126.
- ZAVALA, Antonio (2003): *Estropadak bertsotan*. Oiartzun: Auspoa, Sendoa [Auspoa 281].
- ZAVALA, Antonio (2006): *Auspoaren auspoa IV*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia [Auspoa 300].
- ZAVALA, Antonio (2012): *Bilboko gabon-kantak (1755-1832)*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia [Auspoa 324].
- ZUBIMENDI, Joxe Ramon (1995): *Jokaera-liburua*. Oiartzun: Sendoa.
- ZULAICA, Joseba (1985): *Bertsolariaren jokia eta jolasa*. Donostia: La primitiva Casa Baroja.
- www.jesuitas.es